

Selma Huxley Barkham bilduma

— 1 —

Jone Arrazola Maiztegi
Irati Garai Aldekoa

Oñatiko emakumiak errekadutan

XX. mendeko komertzio txikiaren
etnografia feminista bat



Selma Huxley Barkham bilduma
1. alea

© Egileak: Jone Arrazola Maiztegi eta Irati Garai Aldekoa
© Argazkiak: Oñatiko Udal Artxiboa
Argitaratzailea: Oñatiko Udala

I.S.B.N.:
D.L.:

Osaketa grafikoa. Zirrimarra (Andoain)
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak SL

Ikuspegi jakin batetik kontatu izan zaigu historia orain arte: gizonak izan dira ikerketaren objektu eta subjektu bakar. Horrek, ondorioz, bazterrean geratzen diren errealitateak aintzat hartzen ez dituen kontakizun bat eman digu; emakumeen ikuspegi eta ekarpenei balioa ematen ez dien kontakizuna.

Euskal Herriaren historia berreskuratu eta berridazteko saiakeran, berebiziko garrantzia izan dute azken hamarkadetan aztertzaile eta historialari feministek eginiko ekarpenek. Euskal historiaren analisi feministaren bidez, hainbat errealitate aztertu eta agerrarazi dute: euskal emakumeen bizimodua, lana, erresistentzia, komunitate-harremanak, nortasuna, mundu ikuskera, etab.

Bide horri eutsiz, Oñatiko Udalak, Selma Huxley Barkham bekaren laguntzarekin, izen bereko liburu-bildumaren lehenengo alea aurkezten du, historian zehar emakumeek eginiko ekarpenak erakutsi eta zor zaien aitortza ematea helburu.

Bildumako lehenengo lan honetan, herriko merkatariek eginiko ekarpen ekonomiko eta sozialaren balioa nabarmendu eta herriko komertzio txikiak bertako emakumeengan izandako eragina aztertu dute lanaren egileek. Ikuspegi feministan oinarrituta, herriko historiaren parte izan diren denda txikien gaineko erradiografia bat, mostradorearen alde banatatik kontatua.

MIKEL BIAIN BERRAONDO

OÑATIKO ALKATEA

*Amama Milagros, Benita
eta amona Bittoriri.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA	11
1.1. Gaiarekiko hurbilpena	12
1.2. Helburuak eta hipotesiak	12
2. METODOLOGIA ETA IKERKETA-TEKNIKAK	14
2.1. Planteamendu metodologikoa	14
2.2. Diseinu teknikoa, ikerketa-ardatzak eta lekuan lekuko lanaren garapena	15
2.2.1. Dokumentazio-lana	15
2.2.2. Sakoneko elkarrizketak	15
2.2.3. Talde-elkarrizketak	17
2.2.4. Behaketa parte-hartzailea	18
3. MARKO TEORIKO-HISTORIKO ETNOGRAFIKOA	20
3.1. Merkataritzaren koordinada historiko-etnografikoak	20
3.2. Ikerketaren kokapen teorikoa	21
3.2.1. Merkataritzaren tokikotasuna	22
3.2.2. Merkataritzako jarduera ekonomikoa	24
3.2.3. Emakumeek elkar babesteko sareak	25
KOMERTZIO TXIKIAREN ETNOGRAFIA	28
I. ATALA: XX. MENDEKO EMAKUMEEN HISTORIA	28
4.1. Emakume-eredua I: etxeoandre apala	28
4.2. Emakume-eredua II: emakume modernoa	29
4.3. Miguel Primo de Riveraren diktadura (1923-1930)	30
4.4. II. Errepublika (1931-1939)	30
4.4.1. Hezkuntza	31
4.4.2. Lan-merkatua	32
4.5. Gerra Zibila (1936-1939) eta merkataritza	32
4.6. Frankismoa	33
4.6.1. Ikasketak	34
4.6.2. Diruaren kudeaketa	35
4.6.3. Isolamendu geografikoa	36
4.6.4. Emakume-eredua III: Ezkondu perfektua	36
4.6.5. Sozializazioa	38
4.6.6. Eguneroko errekaduak	42

4.7. Desarrollismoa	43
4.7.1. Emakume-eredua IV: Hiritarra	43
4.7.2. Lan merkatura itzulera	44
4.7.3. Hezkuntza	45
4.7.4. Migrazioa	46
4.7.5. Urbanizazioa	46
4.7.6. Edertasuna.....	48
4.8. Trantsizioa (1975-1982)	48
4.9. Emakume-eredua V: ardura hirukoitza	49
II. ATALA: KOMERTZIO TXIKIAREN ETNOGRAFIA	50
5.1. Sorrerak	50
5.2. Familia-negozioak	51
5.2.1. Zu lanera!	52
5.2.2. Lan-banaketa	52
5.2.3. Erreleboak: bidea eginda	53
5.2.4. Emakume langileen sarea	55
5.2.5. Jabetza eta negozio izenak	56
5.3. Funtzionamendua	57
5.3.1. Denda barrutik	57
5.3.2. Jatekoak	60
5.3.3. Errekadistak	71
5.3.4. Janztekoak	72
5.3.5. Ostalaritza: fonda, kafe eta tabernak	77
5.3.6. Gerraosteko eskasia: arrazionamendua eta estraperloa	84
5.3.7. Zerbitzuak	85
5.3.8. Merkataritzaren modernizazioa	93
5.4. Emakumiak errekadutan	93
5.4.1. Baserritarrak	95
5.4.2. Dirudunak	95
5.4.3. Fideltasuna	96
5.4.4. Dendetako ehun soziala	96
5.5. Merkataritza sektorea	101
5.6. XXI. mendea	103
III. ATALA: OÑATIKO DENDEN INBENTARIOA	108
6. ONDORIOAK:	124
6.1. Azken lerroak	126
7. BIBLIOGRAFIA	128

1. SARRERA

Orriotan aurkeztera gatozena, lanaren izenburuak aditzera ematen duenez, XX. mendeko Oñatiko komertzio txikiaren etnografia feminista bat da. Bertan, azken mendeko herriko komertzio txikia¹ eta bertan emakumeen zeregina zein esku-hartzea izango ditugu aztergai. Izan ere, merkataritzako emakume langileek Oñatiko sostengu sozioekonomikoan² egin duten ekarpena aztertu eta argitara atera nahi dugu, horiek herritarren sostengu sozioemotionalan³ —bereziki emakumeen— izandako funtzioa azaleratzeko. Azkenik, dendek erdigune historikoaren zein auzoen sostengu espazialean⁴ izandako tokiari ere erreparatuko diogu.

Uste baitugu Oñatik izandako garapen ekonomikoaz jardutean, sarri, soilik industria hartzen dela hizpide eta beste jarduera ekonomikoetan aritutakoen ekarpena bigarren maila batean gelditu ohi dela, hala nola base-ritar, etxeoandre, ostalari, zerbitzuetako langile edo/

¹ Komertzio txikiak hurbileko kontsumoguneak dira; besteak beste, familia-negozioak, kooperatibak edo ekonomatoak. Ikerketa honetan etxeko salerosketa ere aintzat hartuko da. Lan honetan merkataritza ere komertzio txikiaren sinonimotzat erabiliko da.

² Amitai Etzioni (2007) soziologoak *La dimensión moral: hacia una nueva economía* liburuan proposatzen du *sozioekonomia* kontzeptua. Bost ezaugarritan labur daiteke: (1) ekonomiak bi erabilgarritasun ditu: plazera eta etika, (2) ekonomiak baloreak eta emozioak barnebiltzen ditu, (3) jarduera ekonomiko orok subjektu kolektibo bat du oinarri, (4) merkatuz kanpoko irizpideak existitzen dira jarduera ekonomikoetan, eta (5) merkatuaren aurretiazko botere-banaketa dago.

³ *Sostengu sozioemotional* deritzogu pertsonen harreman sozioafektiboan bitartez (hots, lagun eta senideen bitartez), eman eta jasotzen duten babes sozial eta emozionalari.

⁴ Sostengu espazial kontzeptuak lur zati konkretu baten biziraupen fisiko zein sinbolikorako erabiltzen den bitarteko oro. Marko teoriakoan kontzeptu honetan sakonduko da.

eta herriko dendarien ekarpena. Izan ere, Deba Goiena batik bat Kooperatibek eta industria-produkzioak egin dute ezagun nazio-mailan zein nazioartean, eta badirudi horri zor zaiola Oñatiko “aberastasuna”. Bada, irakurketa horrek ikuspegi androzentriko eta ekonomizista bat du oinarri: hots, merkatu-ekonomiari erreferentzia egin, eta aberastasuna, aberastasun monetarioaren baliokidetzat hartzen da. Alabaina, ekonomia, harreman ekonomikoak direla deritzogu, eta horiek ezin direla ulertu egitura sozialarekiko autonomo bailiran (Godelier, 1983).

Horiek horrela, ikerketa honetan fokua herriko jarduera ekonomikoan presentzia garrantzitsua izan duen komertzio txikian jarriko dugu, zerbitzuek herriko egitura sozioekonomikoaren sostenguan egindako ekarpena aztertuz, herriko aberastasuna birdefinitu ahal izateko. Izan ere, ez da kasualitatea “bigarren mailako” lanbide horietako langileen zein bezeroen artean emakumezkoen kopurua nabarmen altua izatea.

Genero-harremanek herriko egitura ekonomiko, sozial zein espazialean izandako eragina aztertuko dugu, komertzio txikietako jardunari erreparatuz, egitura sozioekonomiko hori ikusarazteko eta balioesteko asmoz.

Hala, dendek, tabernek eta zerbitzuek identitatez hornitu dituzte erdigune historikoa eta auzoak: kalea⁵ biziarazi dute, eta ildo horretatik ikertu dira merkataria eta bezeroen bizimoduak zein harremanak. XX. mendeko testuinguru historikoaren bilakaeran genero-harremanek ezarri dituzten rol eta lan-banaketak nola ga-

⁵ *Kalea* esapideak *auzoarekin* kontraposizioan du zentzua eta herri-erdigunearen sinonimotzat erabiliko dugu, oñatiarrez esanahi hori baitu.

ratu eta eraldatu diren aztertu dugu, eta baita horrek komertzio txikian izandako isla ere. Dendetako langile eta bezero edo erabiltzaileen artean sortzen ziren harremanetan jarri dugu fokua, harreman horien bitartez sortzen diren elkar-babesteko sareak⁶ ezagutarazteko. Uste baitugu espazio horiek emakumeen agentziarako⁷ gune garrantzitsu izan direla.

XX. mendean zehar komertzio txikiak Oñatiko herriari egindako ekarpenean eta herritarren memoria kolektiboan⁸ utzitako aztarnetan sakonduz, herriko memoria historikoaren⁹ atal berri bat idatzi nahi izan dugu.

1.1. Gaiarekiko hurbilpena

Gaiaren azalpenean jaso den moduan, ikerlan honen abiapuntu orokorra hau da: gure herriko historia ikuspegi feministatik aztertuz gero, ohartzen gara historiak komertzio txikia ahaztu duela, herriaren garapen eta sostengurako oso garrantzitsua izan bada ere, eta beraz, ahanzturan egon dira langile, bezero eta laguntzaile gisa merkataritzan jardun duten herriko emakume guztiak. Horregatik, emakume hauen bizimodura gerturatu, haien errealitateak eta herriari egindako ekarpen hirukoitza —sostengu ekonomikoa, sozioemotionala eta espaziala— ezagutu eta argitara ekarri nahi ditugu.

Aurretiaz plazaratutako arrazoiez gain, ikerketa hau egiteko arrazoi pertsonalak ere baditugu: Oñatin komertzioak dituzten familietatik gatoz, haien egunerokotasuna eta herritarrekin izandako harremanak gertutik bizi izan ditugu. Horregatik gure etxeetan ikusi ahal izan dugunaz harago, herriko dendarien errealitatea, eta be-

⁶ Elkar babesteko sareak “modu iraunkor batean funtzionatzen duten elkarren zaintzan eta elkartasunean oinarrituriko pertsonen elkartzean lirakeke” (Esteban, 2016: 269).

⁷ Agentzia kontzeptua Sherry Ortner-ek (2006) garatu zuen *Anthropology and Social Theory: culture, power and the acting subject*, (Duke University Press, Durham) liburuan: agentzia eta boterearen arteko harremana ikertu du. Erresistentziaren modu bat litzateke agentzia, subjektuaren ahalduz.

⁸ Memoria kolektiboa talde jakin batek bizi izandako esperientzia esanguratsuen oroitzapen hautatuen talde-erakuntza dugu, oraindik memoria historikora jauzi egin ez dutenak, historia ofizialak bildu ez dituenak. Memoria-mota horrek gomuta-leku jakin batzuk gorpuzten ditu: memoria kolektiboak jada badiren espazioei esanahi sinbolikoa eman eta gomuta-leku bilakatzen ditu (Nora, 1997).

⁹ Memoria historikoa, aldiz, talde batentzat gertukoegi izateari utzi eta jada “gainditutzat” hartzen diren gertaeren erakuntza dela adierazi izan da, nolabait historia ofizialak adosturiko bertsoa biltzen duena. Memoria historiko horrek gotorlekuak eraiki ohi ditu, oroitzapenerako espazioak eraiki egiten ditu (monumentu, museo eta abarren bitartez) (Nora, 1997).

reziki espazio horretan jardundako emakumeena, ezagutu nahi dugu. Eta batez ere haien lana argitara ekarri.

Bestalde, ikerketa hau egiteko motibazio politikoa ere badugu. Oro har, Oñatiko historiari aritzerakoan oso gutxi dira hizpidera ekartzen diren emakumeak. Gizon historialarien interpretazioak jaso ditugu, baina guztiz ezezagunak zaizkigu gure herriko emakumeen ibilbideak. Herriko emakumeek izandako okupazio eta preokupazioak gure herriaren historia dira eta herritarren memoria kolektiboan egotetik memoria historikoan egoterako jauzia egiteko garaia badela uste dugu. Bide horretan eskertu nahiko genuke Udalak egin duen ekarpena, Selma Huxley Barkham beka abian jarrita.

1.2. Helburuak eta hipotesiak

Datozen lerroetan ikerketa honen helburuak azalduko ditugu:

- Oñatiko historian herriko komertzio txikiaren ekarpena ezagutu eta argitaratzea. Zehazki erdigune historikoaren identitatean izandako eragina eta horren sostenguan izandako funtzioak.
- Oñatin XX. mendean herrian izandako merkataritzaren inbentario bat egitea.
- Komertzio txikian lan egiten zuten emakumeen lana eta bizimodua ezagutu eta errekonozitzea.
- Komertzio txikian langile eta bezeroen artean garatu ziren harremanak aztertzea. Berezi emakumeen artekoak.
- Lan, bizimodu eta harreman horiek genero-begiradatik aztertu. Hau da, eremu hauetan gizon eta emakumeei egotzen zitzaizkien eginkizun, jarrera, balore eta rol bereizketek emakumei nola eragiten zieten aztertzea.

Helburuei jarraiki, honako hauek dira gure hipotesiak:

- Lan-eremu honetan emakumeen presentzia handia izan da historikoki, enplegua eta etxeko lanak uztar-garriak zirelako. Hala, dendak pribatu eta publikoaren arteko bitarteko espazio izan dira:
 - ▶ Komertzio txiki gehienak familia negozioak izan dira, eta are gehiago, denda gehienak familia-etxetik oso gertu egon dira. Ondorioz, familiako emakumezkoen ohiko enplegua izan da merkataritza.
- Oñatiko herriaren historian eta sozioekonomian komertzio txikiaren ekarpena handia izan da:
 - ▶ Oñatiko komertzio txiki dendariek herriko familien sostengu ekonomikorako eragile laguntzaileak izan dira.

- Denda batzuetan diruaren erabileraz gain, gero ordaintzeko aukera zegoen eta trukea gauzatzen zen. Hala, momentuan dirurik ez zuenak ere kontsumitu ahal izaten zuen.
- Baserritarren ekoizpena herriko merkatuan txertatzeko bitartekoa izan da komertzio txikia, eta hortaz, landa-eremuko herritarren jarduera ekonomikoa industriaren gailentasunaren aurrean balioesteko bide.
- ▶ Herriko dendak emakumeentzako sostengu sozioemozionala ahalbidetzen zuten espazioak izan dira, baita elkar babeserako sareak sortzeko zutabe ere:
 - Emakumeen arteko topagune izan dira dendak. Batik bat gizonezkoena zen espazio publikoan, etxetik at elkarrekin harremantzeko zuten espazio bakarrenetakoa ziren dendak.
- ▶ Komertzio txikia izan da Oñatiko erdigune historikoa biziarazi duena. Hein handi batean bertako dendei zor zaie egun Oñatiko erdigune historikoak duen zentralitatea, bai herriaren lurralde-antolamenduan, bai herri-kohesioan, bai kanpo-proiektzio sinbolikoan.

2. METODOLOGIA ETA IKERKETA-TEKNIKAK

Aurreko atalean zehazturiko gai, helburu, hipotesi eta interesguneei erantzuteko, eta horiekiko koherente, datozen orrietan ikerlanaren egitura eta egikaritze-teknikoa azaltzeari ekingo diogu.

Abiapuntu gisa, ikerlariok gure burua kokatu behar dugu, ezagutza kokatua, tokikoa, baita ezinbestean. Teresa del Valle (2004) antropologo feministak horren harira egiten duen azalpena oso baliagarria da:

“el saber situado forma parte de una metodología que recoge aspectos especialmente cualitativos, y permite el acceso a aquellos que no son tan evidentes como es el universo de los significados y de los símbolos. El resultado es por lo tanto una mirada reflexiva que puede dar lugar más tarde a recogida de otros datos y por ello a análisis más pormenorizados tanto cualitativos como cuantitativos” (2004: 8-9).

Azpimarratu beharra dugu, gu biok, Irati eta Jone, 24 urtez gure bizitokia izan den Oñatiz ari gatzaizuela, gure familia eta auzokideen bizipenez ari gatzaizuela; alegia, hautematen¹⁰ ditugun, oroitzen ditugun eta egunero-kotasunean bisitatzen ditugun dendez ari gara. Ikerketa-objektu honekiko behaketa parte-hartzailea, beraz, orain bi urte gaian interesatu ginenetik egin dugu. Hori horrela, hemen aurkeztera gatozenak hausnarketa horien egiaztatze serio eta ordenatua izan nahi du.

¹⁰ Del Vallek idatzi du: “en la percepción sentida están las emociones, la memoria” (2004: 10).

2.1. Planteamendu metodologikoa

Antropologian bi metodologia erabiltzen ditugu: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Ikerketa honetan zehar biak erabili ditugu. Metodologia kuantitatiboa, batik bat, denden inbentarioa egiteko baliatu dugu, kantitate eta kopuruetan erreparatu nahi izan denean. Horretarako, hainbat iturritara jo dugu, dokumentuetara kasu batzuetan, eta ahozkoa beste zenbaitetan.

Gainontzean metodo kualitatiboa erabili dugu. Behin inbentarioa egin ostean, denda horietako emakumeen bizimoduan, haien lanak, familiarekin harremana, bezeroekin edo herriarekin zeukaten loturan arakatu nahi izan baitugu. Hau da, gaiaren inguruan subjektuek izan dituzten bizipenen eraikuntza diskurtsiboak¹¹ ez ezik, praktikei ere erreparatu diegu eta egiteko moduan jarri dugu fokua, batik bat.

Gainera, errealitate hori lehen pertsonan jaso nahi izan dugu, protagonista izan ziren eta diren emakume horien ahotik. Horretarako metodologia kualitatiboak eskaintzen dituen zenbait teknika erabili ditugu. Batik bat sakoneko elkarrizketek eta talde-elkarrizketek izan dute protagonismo handiena. Baina behaketa parte-hartzailearen teknika ere oso erabilgarri egin zaigu.

Ikerketa hau begirada antropologikotik egin da eta diziplina horrek eskaintzen dizkigun baliabide metodologiei esker soilik izan da posible: “la antropología se ha especializado en una forma de escritura en que se entrelazan

¹¹ Praktika diskurtsiboa kultur sistemaren parte garrantzitsua da; konbentzio sozial eraginkorra da hitza, mundua ikusteko modu jakin bat azaleratzen eta aldi berean birsortzen duena.

ideas, teorías, citas, testimonios, y donde los informantes son considerados expertos y tienen el mismo estatus que los autores y las teorías” (Esteban, 2011: 470).

2.2. Diseinu teknikoa, ikerketa-ardatzak eta lekuan lekuko lanaren garapena

Gure proposamena Oñatiko emakume dendarien errealtatea emakume dendarien ahotik, eta dendarekin harremanetan zeudenen ahotik, jasotzea izanik, gure ikerketan pisu handia izan du landa-lanak. Gauzak horrela, lan-prozesuari dagokionez, lehenik eta behin, herriko denden garaiko errealtatearen argazki orokor bat eskuratzeko asmoarekin inbentario bat osatu dugu¹² eta behin hori egin ostean, denda horiei bizia ematen zieten protagonistekin jardun dugu, haien egunerokotasuna jasotzeko.

Atal honetan, beraz, ikerketa-prozesuaren nondik norakoak azalduko ditugu. Kronologikoki ikerketa hasi genuenetik gaurdainoko prozesua deskribatuko dugu.

2.2.1. Dokumentazio-lana: gaiaren inguruko dokumentazioa bildu eta analizatuz marko historiko-etnografikoa osatu genuen. XX. mendeko Oñatiren testuinguru historikora hurbildu, egondako dendak identifikatu, herriko espazio fisikoan kokatu (inbentarioa osatu) eta bertako jabe eta langileak identifikatu genituen. Erabilitako baliabideak hurrengoak izan dira:

- Udal artxiboa: 1) Matrikula Industrialen erregistroa (1890-1980); 2) SIADECOn “Perspectivas derivadas” azterketa sozioekonomikoa (1975) eta horren berrikuspena (1982).
- Hirigintza Saila: Orto argazkiak (1968-2010); Hirigintzako Obra eta Irekiera Baimenen erregistroa (1970-2000).
- Oñatiri buruzko hainbat ikerketa-lan: *Memorias de aquel Oñati*, Juan Zubia (2004); *Gerrako Garrak Oñatin* (2011); *Oñatiko emakumeen azterketa kuantitatiboa*, Lukene Astigarraga (1990).
- Emakumeen historiaren inguruko hainbat ikerketa, bailarakoak, Euskal Herrikoak zein Estatuakoak. Xehetasun gehiago bibliografia atalean daude.

Datu dokumental eta erregistro datuen fidagarritasun falta dela eta, ezinbestekoa izan genuen herriko berrie-

maileen bitartez eskuratutako informazioa. Hurrengoak izan dira berriemaileak: Maribi Arregi (komertziaria eta aritua), Garbiñe Garai (Laixan elkarteko kidea), Mari Carmen Olalde (Kale Zaharreko bizilaguna), Nicolas Ugarte (komertziari eta aritua), Jerardo Elortza (historialaria) eta Jose Antonio Aspiazu (historialaria).

Bestalde, herriko kontuen, pertsonen eta denden inguruan etengabe gure galderak erantzuten jarduten duten gure familia kide eta lagunak ere gogora ekarri nahi ditugu. Elkarrizketa informal horiek ezinbestekoak izan zaizkigu urtebeteko prozesuan unean uneko zalantzak argitzeko, eta oro har, herriko ezagutzaren prisma zabaltzeko.

Bestalde, izan ditugun zalantza metodologikoak argitzeko hainbat adituren laguntza jaso dugu: Aintzane Rincon, epaimahaiko kidea eta historialaria; Maialen Garmendia, metodologia kuantitaboko irakaslea EHU; Karmentxu Intxaurrea, soziologoa; Izar Salaberri, Oñatiko Udaleko artxibozaina.

Azkenik, lanaren azken fasean lanaren inpresio orokorra eman digute eta hobetzeko proposamenak egin dizkigute Jone Miren Hernandez EHUko antropologiako irakasleak eta Iratxe Retolaza EHUko euskal literaturako irakasleak.

2.2.2. Sakoneko elkarrizketak

Behin, gaien, lekuan eta denboran kokatuta, eta herriko denden inbentarioa osatuta landa-lanari ekin genion. Landa-lanean hautatutako teknikak izan ziren sakoneko elkarrizketak, talde-elkarrizketak eta behaketa parte-hartzaileak. Metodologia kualitatiboari dagozkion tresna teknikoaren artean ohikoenak dira: elkarrizketa bakoitzak bere baitan aztertzea, eta aldi berean, egokia iritzi genion elkarrizketa ezberdinen arteko analisi konparatiboak datu-oinarri baliagarri gisa erabiltzeari.

Landa-lanaren fasea luzeena eta aberasgarriena izan da. Hasiara batean zehaztutako plangintza moldatu genuen eskuragarri geneukan dokumentazioa ikusita: aurrerago aipatu dugunez, Udal Artxiboko Matrikula Industrialen Erregistroa ez-oso eta ez-fidagarria zirela iritzi, informazioa beste nonbaiten bilatu behar genuela erabaki genuen.

Elkarrizketatu kopuruari dagokionez, aurreikusten genituen 10 elkarrizketak Oñatiko komertzio txikiaren heterogenotasuna islatzeko nahikoa ez zirela iritzi kopuru hori handitzeko beharra sentitu genuen. Hartara, guztira, 10 beharrean, ia 70 elkarrizketa egin eta aztertu ditugu. Informatzaile horiek guztiak beharrezkoak izan

¹² Onartu behar da, hala ere, datu falta dela eta, inbentario hau amaitu gabea dela. Gure proposamena aurrerantzean osatzen eta zerrendara dendak gehitzen joatea da.

zaizkigu inbentarioa osatzeko, baita etnografia osatzeko ere.

Horietatik hogeita hiru *Ahotsak.eus* atariko elkarrizketak ziren, ia gehienak herriko emakume merkatariei eginak. Interesgarria izan zen horiek entzutea, landa-landaren lehen fase gisa eta gure elkarrizketak prestatzeko. Emakume horietako asko jada ez daude gure artean eta haien hitzak jasotzeko modu eraginkorra izan da. Honako hauek dira *Ahotsak.eus* webgunetik jasotako testigantzak:

- ❖ **Pilar Barrena Kortabarria** (1922-2014). Kuba tabernako kontuak.
 - ❖ **Miren Galarza** (1918-2008). Galarza farmazioa-drogeria.
 - ❖ **Maria Luisa Olalde** (1925-2012). Kastillo taberna eta jolaslekua.
 - ❖ **Maria Jesus Aberasturi** (1946). Taxi gidaria.
 - ❖ **Maria Arregi Idigoras** (1922). Azokako kontuak.
 - ❖ **Mari Jose Bastarrika** (1952). Onceko kupoi saltzailea.
 - ❖ **Malen Berakoetxea** (1912-2001) eta **Iñaxi Madinazkoitia** (1909-1995). *Mikelaherrero* mertzeria.
 - ❖ **Eustaki Bergara** (1917-2016). Atzeko kaleko arraindegia eta Garay lantegiko ekonomatoko langilea.
 - ❖ **Eugeni Sukia** (1910-2001). Amaya jatetxea (batzokia) eta Donostiako errekadista.
 - ❖ **Eugeni Olalde** (1936). Araozgo Zumalde taberna eta estankua.
 - ❖ **Bittori Igartua** (1919-2016). Oñatiko lehenengo estetika zentrua.
 - ❖ **Angeles Olalde Sillerona** (1923-1997). Olalde zapata denda.
 - ❖ **Maria Alberdi Plantxadoria** (1912-1997). Plantxatzailea.
 - ❖ **Miren Iraola Txapa** (1920-2012). Txapa sifoi eta zerbeza hornitzailea.
 - ❖ **Franziska Altube** (1913-1998). Baserriko kontuak.
 - ❖ **Bixenta Arregi** (1937-2018), **Isabel Arregi** (1931) eta **Maria Pilar Arregi** (1943). Diortxuena taberna.
 - ❖ **Felisa Enparanza Felisatxo** (1911-1996). Radio Loyola; joskintza irakaslea; botoi eta liburu denda.
 - ❖ **Maritxu Txintxurreta** (1918-2014). Baserritarra eta esne-saltzaile ibilia.
 - ❖ **Rosario Kortabarria** (1908-2014). Baserritarra eta esne-saltzaile ibilia.
-
- Bestalde, elkarrizketatuen profilean ere moldaketa batzuk egin ditugu: hasiera batean dendariak ez ezik bezeroak ere elkarrizketatzea proposatu genuen. Ala baina, merkatariei egindako elkarrizketatan konturatu ginen emakume dendariak ere bezeroak direla, eta bezero moduan beste dendez ere jarduten zutela. Horregatik eta landa-lanak gehiegizko dimentsioa hartuko zuela iritzita, bezero hutsei elkarrizketarik ez egiteko hautua hartu genuen.
- Elkarrizketekin hasi eta berehala, horiek etorkizunean izan zezaketen garrantzi eta erabilgarritasunaz jabetuta, elkarrizketak audioz ez ezik bideoz ere grabatzeko erabakia hartu genuen. Horretarako, ikus-entzunezko ikasketak egiten ari den Nerea Alonso izan dugu lagun. Honako zerrrenda honetan jasotzen dira sakoneko elkarrizketaren teknikaren bidez elkarrizketatutako pertsona guztiak:
- ❖ **Maribi Arregi Zufiria** (1943). Juanitosa eta Maibi dekorazio-denda.
 - ❖ **Pilar Lazkanoiturburu** (1927). Umerez gozotegi eta taberna.
 - ❖ **Dorita Sukia** (1947). Txarriduna taberna.
 - ❖ **Esther Moyua** (1947). Naparrena tabernako kontuak.
 - ❖ **Mari Tere Goñi Ugarte** (1947). Goñi taberna eta ostatua.
 - ❖ **Margari Basterrika** (1954). Izarraitz taberna.
 - ❖ **Carmen Iñurrategi** (1936) Egaña okindegiko langilea eta neskamea.
 - ❖ **Bittori Anduaga** (1929). Illarramendi okindegia.

- * **Kontxi Zelaia** (1952). Zelaia janari-denda eta BM.
 - * **Maite Urmeneta** (1965). Arregi elektrizitatea.
 - * **Jose Andres Leturia** (1952). Lukasena dendakoa.
 - * **Ana Mari Martinez de Iturrate Milikua** (1932). Milikua janari denda.
 - * **Asun Arroyo** (1971). Kuttun lentzeria.
 - * **Lurdes Gorostidi** (1958). Portalekua janari denda; Errekalde janari denda; Garai harategia.
 - * **Teresa Zubia** (1938). Ultramarinos Uribarri.
 - * **Klarita Rodriguez** (1955). Klarita zapata dendako kontuak.
 - * **Maritxu Maiztegi** (1939). Miguel Lizarralderen harategia.
 - * **Mertxe Esnaola** (1940). Garaikoetxea kafetegiko langilea.
 - * **Itziar Unamuno Altuna** (1962). Altuna estankua.
 - * **Joseba Ugalde** (1961). Casa Egañako langileen iloba.
 - * **Maria Pilar Egaña** (1924). Casa Egaña.
 - * **Mari Carmen Urrutia** (1947). Garbi drogeria eta Urrutia arropa denda.
 - * **Asier Martin Urmeneta** (1975). Kantue zapatagilea.
 - * **Nieves Izurtegi Biteri** (1945) Azokako saltzailea.
 - * **Maria Nieves Aiastui** (1932) eta **Francisca Aiastui** (1934). Azokako barazki saltzaileak.
 - * **Izaskun Aldanondo** (1967). Sesiñena ileapaindegia.
 - * **Maria Ejea Marin** (1955). Azokako txarkutera postuko saltzailea.
 - * **Arantzazu Txintxurreta** (1959). Txintxurreta jostailu denda eta Guztiz eder estetika zentroa.
 - * **Iñas Gereta** (1963). Gereta ardoak.
 - * **Maria Jose Mendizabal** (1965). Mendizabal kirol-denda.
 - * **Javier Urcelay** (1958). Kaio zapateroaren kontuak.
 - * **Amaia Moyua** (1933). Lirain edertasun zentroa.
 - * **Juanita Odriozola** (1926). Aixkirri mertzeria.
 - * **Consuelo Torres** (1963). Ziber-mintzalekua eta Iturritxo taberna.
 - * **Martxelin Markuleta** (1927). Baserritar sailtzailea eta eroslea.
 - * **Fatima Ugarte** (1948). Santos-Etxeberria tela dendako langilea.
 - * **Rexu Letamendi** (1938). Jokin haurrentzako arropa denda.
 - * **Angelines Pato** (1943) eta **Ricardo Fernandez** (1970). Fernandez arraindegia.
 - * **Agustin Garai** (1958) eta **Anton Garai** (1960). Garai harategia.
 - * **Begoña Markuleta** (1972) eta **Arantxa Markuleta** (1966). Marku arropa denda.
 - * **Maria Jesus Lopez** (1943), **Ecequiel Abascal** (1943) eta **Margarita Abascal Lopez** (1971). Barkillero.
 - * **Ines Lizarralde** (1940). Trianako dendatxua.
 - * **Lurdes Garcia**. Ugari mertzeria.
-
- 2.2.3. Talde-elkarrizketak**
Merkataritzako bereizgarri bat da belaunaldiz belaunaldi negozioarekin segitu dutela hainbatek. Erreleboa eta belaunaldien arteko ezberdintasunak azaleratzea interesatzen zitzaigun, hori ibilbidearen isla baita. Horretarako talde-elkarrizketa teknika hautatu genuen.
- Francisco Ferrándizek (2011), talde-elkarrizketetan, parte-hartzaileek elementu komunak konpartitu ditzatela aholkatu du. Kasu honetan, familia eta dendako bizi-esperientzia komunak dituzte. Are gehiago, elkarguneak izanagatik, euren arteko iritzi-ezberdintasunak egon daitezkeela aurreikusten da. Dena den, interesatzen zaizkigun honako osagai hauetan arreta jartzea: pertsona horietako bakoitzak, konpartitzen duten egituraren duen tokiaren arabera, besteekin (eta euren posizioarekin) elkarrekintzan sortzen diren irudikapen, jarrera, jokabide eta diskurtsoak. Hartara, hainbat talde-elkarrizketa egin ditugu:
- * **Kontxita Urtaza** (1944), **Tere Urtaza** (1946),

Carmen Etxeberria (1926) eta **Consuela Etxeberria** (1932). Urtaza mertzeria *Kirriñ*.

✧ **Adela Guridi** (1955), **Maidar Erostarbe** (1989) eta **Agurtze Inza** (1977). Adela ileapaindegia.

✧ **Cristina Bikuña** (1952), **Susana Elorza** (1954) eta **Ane Zumelaga** (1987). Olalde zapata denda *Sillero*.

✧ **Esther Moiu**a (1945), **Lierni Altube** (1972) eta **Saioa Altube** (1981). Moiu altzairu denda; Barue dekorazioa; baserrien zaharberritzea.

✧ **Maritxu Maiztegi** (1929), **Carmen Maiztegi** (1935), **Ana Maiztegi** (1973) eta **Miren Maiztegi** (1971). Goikobenta estatua.

✧ **Igone Ugarte** (1971) eta **Nicolas Ugarte** (1944). Kale Zaharreko ileapaindegia.

✧ **Maixabel Biain** (1951) eta **Olatz Aristi** (1965). Kooperatiba.

2.2.4. Behaketa parte-hartzailea

Sakoneko elkarrizketaz eta talde-elkarrizketaz gain, informazio-bilketa eta kontrastaziorako teknika bat gehitu diogu ikerketa-lanari: behaketa parte-hartzailea.

Urbanoaz, kaleaz ari garenez, hori aztertze behaketa parte-hartzailearen egokitasuna iradokitzen du Raul García (2014): “La interrelación entre el entorno material del espacio público urbano y sus sujetos usuarios, pero también por la condición de lo urbano como institución social caracterizada por su vital liquidez, precariedad y continuamente cambiante, la observación participante deviene técnica idónea” (García, 2014: 60).

Espazio publikoko ekintza sozialaren behaketa efikazia handiagokoa gertatzen da elkarrizketaren teknikekin alderatuz gero. Hala baieztatu zuen Ulf Hannerz (1986): “A través de la observación participante es posible llegar a percepciones del comportamiento que la gente no verbaliza con facilidad, y los datos que se obtienen se pueden centrar mejor en las relaciones y su contexto que en individuos abstractos” (Hannerz, 1986: 343).

Behaketa parte-hartzailearen bidez, beraz, kaleaz eta dendez emakumeek egun egiten duten erabilera jaso dugu eta baita egiteko moduaren berri jaso ere: “Esta diversidad de momentos de las observaciones nos han permitido captar las diferencias en los usos, su intensidad y su morfología, para incorporar al análisis los

distintos ritmos urbanos que forjan los procesos de apropiación del espacio público” (García, Ortiz eta Prats, 2014: 32).

Ikerketa honetarako gauzatutako behaketa parte-hartzaileak modu informalean egin ditugu soilik: gure bizitokiak eta komertzioaren gertutasuna kontuan izanda, eta gu geu merkataritzako erabiltzaile garenez, landanari eskainitako hilabetearen sarritan ariketa etnografiko hau modu ez jarraian egin dugu, ordutegi ezberdinetan eta dendetan zein kalean zebiltzan emakumeengan arreta jarriz eta herritar gisa haiekin elkarrizketa informalak izanez.

Laburbilduz, ikerketaren eszenifikazioa aurrez aurre bizi izan dugu landa-lan honetan eta erabilitako teknika ezberdinen bitartez emakumeek merkataritzaz duten memoria kolektiboan sakondu dugu, dendari eta bezeroen ikuspuntu eta bizipenak uztartuz. Esan beharra dago errazagoa egin zaigula elkarrizketatuei aspektu materialez galdetzea (dendaren sorrera urtea, egunerokoa, jarduera ekonomikoa eta kalea/dendaren erabiltzaileak), teknikaren helburua haien ulergarria baitzen. Komertzio txikiko kapital sinboliko eta lotura afektiboez galdegindakoan, ordea, galderak ez dira erraz ulertu eta erantzunetan ez dira gehiegi luzatu emakumeak. Alabaina, hutsune hori behaketa parte-hartzailearen bitartez bete dugu, informazio baliagarria eskuratu baitugu.

Elkarrizketa guztiak haiek eroso sentitzen ziren hizkuntzan egin ditugu. Hala, badira gutxi batzuk gaztelan. Euskaraz egin diren artean ere batzuk Oñatiko euskalkian egin dira eta beste batzuk elkarrizketatuen jatorrizko euskalkian.

Hortaz, emakumeen testigantzak norbere hizkuntzan eta euskalkian jaso dira eta hala aurkezteko hautua egin dugu. Izan ere, berezko dituzten hitz eta esateko moduak tokiko kulturaren parte direla deritzogu. Marshall Shalins-en (1976) arabera, tokiko hizkuntzak paisaia konkretu bat osatzen du, eta ikerketa honek paisaia horren formak aztergai dituzten gero, Oñatiko herrian hitz egiten diren hizkerak forma horren osagai direla ulertzen dugu (Shalins, 1976; in Aguilar, 2004: 125). Hala izanda, batetik, gauzen izendapenak elkarrizketatuek azaldu moduan jaso ditugu lanean, originaltasuna bermatze aldera. Bestetik, euskara eta gaztelaniaren arteko hizkuntza-txandakatzea ere lanera ekarri nahi izan dugu.

Elkarrizketatuen hitzen anonimotasuna bermatzeko hautua egin dugu, arrazoi nagusi bategatik: emakume merkatarien kolektiboa orain arte ikertu gabea izan da, memoria historikoan haien ekarpena errekonozitu

ez zaienez esan daiteke ahaldundu gabeko kolektiboa dela, hots, merkatari askok ez dute haien testigantza balioesten. Are gutxiago publikoki herrian zabalduko bada. Hori horrela, oraingoz merkatarien identitatea gorde eta haiek esandakoak kode bidez aurkezteko erabakia hartu dugu. Bestalde, testigantzetan ageri diren izenak ere faltsuak dira.

Lanaren hedapen prozesuan sortu daiteke testigantza batzuk izen-abizenekin argitaratzeko aukera. Hedapen prozesuaren inguruko informazioa eranskinean jaso dugu.

3. MARKO TEORIKO-HISTORIKO ETNOGRAFIKOA

Ikerlanaren planteamendu orokorra egin ondoren, ikergaia sakondu nahi dugu. Atal honen helburua da ahalik eta modu ulergarrienean testuinguratzea XX. mendeko merkataritza arakatzean azaldu diren prozesu zehatzak. Informazio-iturri askoren hustuketa eta kontraste-lana abiapuntu izanik, bi atal nagusi bereizi ditugu: lehenik, *koordinada* historiko-etnografikoei buruzko azalpen argigarriak emango ditugu, XX. mendeko Oñatiko emakumez; bigarrenik, *koordinaden ehundura* deritzon atalean, ikerketaren oinarriko kontzeptu teorikoen azalpena egingo dugu, hiru ildo hauetan sakonduz: (1) dendak, bitarteko espazioak, (2) komertzio txikiko jarduera ekonomikoa, eta (3) emakumeek elkar babesteko sorturiko sareak.

3.1. Merkataritzaren koordinada historiko-etnografikoak

Oñati Deba ibarrean Gipuzkoako haran zabalean kokatzen da: Oñatiko lurraldea natur ingurune hedatuak, 15 baserri-auzok eta herrigune historikoak osatzen dute. Baserri-auzoei dagokienez, Caro Barojak (1975) adierazi zuen bezala, “el paisaje vasco típico se caracteriza claramente por la dispersión y densidad de las habitaciones humanas” (1975: 30). Alabaina, Barojak (1984: 30) *herria* deritzo euskal bizitzaren oinarri sozial, ekonomiko, administratibo eta erlijiosoa osatzen duen nukleoari. Definizio horrekin bat egiten dugu, eta Oñatiko erdigune historikoa gainerako lurraldearengatik bereizi edo/eta horri kontrajartzea baino, Oñatin erdigune eta periferia ugari daudela deritzogu: auzo-gune bakoitzak bere erdigunea du eta erdigune historikoak ere ez dira espazio homogeneoak. Oñatiko erdigune eta auzoen errealitatea jaso da ikerketa honetan: hala ere, merkataritzari dagokionez,

oro har, erdigune historikoak zentraltasuna du, praktika eta errepresentazio¹³ interesgarriak eskaintzen baititu, geroago zehaztasunez aurkeztuko ditugunak.

Zentralitateak askotarikoak izan daitezkeela erakusten du Teresa Del Valle (2014) Tolosako erdigune historikoaren gainean idatzitako artikuluan. Hura erreferentziat hartuta, Oñatiko erdigune historikoak ere hiru zentralitate-mota dituela deritzogu: zentralitate fundazionala, zentralitate aktiboa eta zentralitate fisikoa. Elkar elikatzen duten hiru aspektu izanik, hiruren azalpena egingo dugu, baina ikerketa honetan zentralitate aktiboan jarriko dugu arreta.

Jatorrizko izaerak ematen dio erdiguneari historiko ize-nondoa: Oñatiko jatorrizko gunea XIII. mendekoa da eta mende horren amaieran edo XIV. mendearen hasieran sortu zen zabalgunea: “garai honetan sortu ziren Kale Barria¹⁴ eta Atzeko Kale, kale horietan nagusi baitira eraikuntza zainduak, material onekoak eta lerro soilekoak” (Soto, 2014: 3). Zabalgunearen kale nagusia dira

¹³ Henri Lefebvrek (1974) *La production de l'espace social* lanean espazioaren nozioan hiruko banaketa kontzeptuala proposatzen du: (1) praktika espaziala: hautematen dena da, eguneroko bizitzan gertukoena, hots, kale eta dendetan gertatzen dena, eta herritarrek horietaz egiten duten erabilera; (2) errepresentazio-espazioak: bizitako espazioak dira, espazio fisikoek biltzen dituzte bizi-esperientziak sistema sinboliko konplexuak gainjarriz, eta horiek kodifikatu eta irudi zein iruditegien ostatu bihurtzen dituzte; (3) espazioaren errepresentazioak: kontzebitutako espazioak dira, botere-harremanei eta produkzioari lotutakoak, ezagutza zientifikoaren ideologiak ekoizturikoak dira: arkitektu, planifikatzaile, hirigile eta abarrena (Lefebvre, 1974: 42-43 eta 48-49; in Delgado, 2013: 2).

¹⁴ Kale Barria (KB), Atzeko kale (AK) eta Kale Zaharra (KZ) laburdura bidez adieraziko dira aurrerantzean.

beraz, kale horiek: “eskualde bakoitzeko herri garrantzitsuenen herrigunetan komuna den ezaugarrien artean, kale nagusi bat edo gehiago eta hauek zeharkatzen dituzten zeharkako kaleak daude” (Baroja, 1984: 33). Kale Barria, Atzeko Kale eta Kale Zaharra forma erdi-zuzenekoak izan dira. Zeharkakoak, aldiz, irregularragoak, Patrua Kale, Arantzazuko Ama, Bakardadeko Ama edo Lope de Aguirre kaleak, kasu.

Herrigunea multzo monumental errekonozitua da eta maila ekonomiko altuko familien etxe¹⁵ eta jauregi arraridunak ugariak dira erdigune historikoan. Bestalde, familia-abizenez ezagutzen da etxeetako bakoitza. Hori horrela, esan daiteke zentralitate fundazionalako espazio honetan, iragana presente dagoela: “la urbe se mira a sí misma para evocar su pasado” (Del Valle, 2004: 11).

Zentralitate aktiboari dagokionez, erdiguneko kale nagusiak, jauregi, etxe, kale-baserri, taberna, jatetxe eta komertzio txikiak josiak egon dira XX. mendean zehar, eta hala izaten jarraitzen du gaur egun ere. Hala, erdigunea ekipamendu instituzional, erlijioso, kultural zein komertzialaren batasunaren produktu dela jakinda, ikerketa honetan merkataritzan jarriko da fokua, kalearen zentralitate aktiboan zein kalearen identitatean egindako ekarpena ageriko egiteko asmoz:

“la centralidad tiene que ver con frecuencia de actividades que sean reconocidas como relevantes por sectores de la población. Y más aún cuando dichas actividades se erigen en referencias identitarias de la ciudad. Ejemplos de la centralidad activa serían los mercados, el comercio, las sociedades” (Del Valle, 2004: 11).

Familia-abizenez ezagutzen diren etxe askoren beheko pisuan, komertzio txikia kokatu izan da, eta XXI. mendera arte horiek familia-negozioak edo zerbitzuak izan dira. Ibilbide historiko luzeko dendak, handienak, eza-gunenak eta garrantzitsuenak kokatu izan dira erdigunean: oñatiarrentzat *instituzioak*¹⁶ izan dira.

Auzoet hitz egiten dugunean ez bezala, erdigune historikoaz jardutean talka gertatzen da iraunkortasunaren edo betierekotasunaren eta aldaketaren artean. Bada,

begi bistakoa da aldaketak jazo direla, kolektibitateak eta pertsonen bertako irudi ustez finkoak izan arren. Erdigunea, lehen aipatu bezala, herriak bere historiari, tradizioari erreferentzia egiten dion lekua izanik, literaturak, herritarren ahotsak iraunkortasuna, aldaketarik eza, esleitzen dio, eta gertatutako aldaketak ikusezin iraunarazten dituzte. Izan ere, gune horren aldaezintasunak ez du soilik tokiaren iraunkortasuna adierazten, baita espazio horri lotuta dauden pertsonen ere (Del Valle, 2004: 17).

Bada, lurraldea eta herria mugimenduan daudela azpimarratzeari garrantzitsu deritzogu: “como aquella ciudad que se construye y se reinventa, que busca formas nuevas de identificarse, que interpreta su pasado, que lo rescata en unos momentos, que lo transforma en otros” (ibidem). Mugimendu horri esker biziraun dute erdigune historikoetako kaleek, komertzio txikiak eta herritarrek.

Laburbilduz, komertzio txikiaren egonkortasunak eta bilakaerak eragina izan dute erdigune historikoan zein Oñatiko auzoen idiosinkrasian, hots, Oñatiko sostengu espazialean. Hori aztertzea izango da ikerketa honen xedeetako bat.

Abiapuntu gisa kalearen eta denden nongotasun fisiokoaren deskribapena eginda, espazio hori *toki* bilakatzeari izango da hurrengo lerroen helburua. Izan ere, Yi Fu Tuan-en arabera, “espazioa toki bilakatzeko da definizioa eta esangura dituenen” (1977: 136). Espazioari esangura ehundura sozialak ematen dio, Oñatiko erdigune historikoa, herritarren ahotan “*kalia*” bihurtuz eta komertzio txikia “*dendak*”. Denda bakoitza toki bat da bere horretan eta erdigune historikoa toki askoren erdigune da, aldi berean.

Bada, komertzioz komertzio egindako ibilbidea jaso dugu lan honetan, zeinaren bidez berreskuratu nahi den erdiguneko bizimodua eta ehundura soziala. Finen, oñatiarren memoria kolektiboa.

3.2. Ikerketaren kokapen teorikoa

Ikerketa hau, Euskal Antropologia Garaikidearen tesuinguru historiko eta espazialean kokatzen da. Korronte ideologikoari dagokionez, ikerketaren hautaketa zein ikerketa-prozesua pentsatzeko Antropologia Feministaren begirada izan dugu ardatz, eta gorputzetik egin da. Bestalde, Espazioaren Antropologiatik hartutako kontzeptu eta teoriak aplikatuko ditugu lan honetan. Emakumeen memoria-riketa kokatua da, beraz.

¹⁵ Erdiko kalean familia batzuek belaunaldiz belaunaldi etxearen jabetzari etsi diote, XX. mende hasieran bertan bizi ez arren; izan ere, haietako asko Espainiako edo Euskal Herriko hiriburretan bizi ziren. Etxe hauek XX. mendera arte udan okupatzen zituzten eta erdigunea udatiar dirudenez betetzen zen.

¹⁶ *Instituzio* esapideak erreferentzia egiten die Oñatiko hizkeran funtzio garrantzitsua jokatzen zuten edo erreferentziazkoak ziren pertsonen edo tokien.

XX. mendetik egun arteko merkataritzak eta Oñatiko emakumeek paraleloki izandako ibilbidea uztartu ditugu, eta bien arteko harremana izan da azterketa-ildo nagusia: zehazki, aspektu ekonomiko, sozioemozional eta espazialean sakondu dugu.

Jarraian, denda, taberna eta zerbitzuak *instituzio* bilakatu dituen ehundura sozial eta ekonomikoan sakonduko dugu.

3.2.1. Merkataritzaren tokikotasuna

Arjun Appadurai-ren (1997) arabera, antropologiak eginkizun garrantzitsua izan du tokiaren¹⁷ produkzioan, existentzia sozialaren dimentsio espezifiko gisa, giza taldeek tokikotasuna produzitzen duten teknika kulturalak ikertuz: “la producción de vecindarios siempre es algo anclado históricamente y en consecuencia es contextual” (in Giglia, 2012: 143). Herriko komertzio txikien tokikotasuna sortzen duten teknika kulturaletan arakatu da etnografia honetan. Hots, XX. mendean Oñatiko emakumeek denda hauetan izandako bizi-praktiketan sakonduko dugu.

Espazioaren antropologiaren ekarpen teorikoek bitarteko deskriptiboak zein analitikoak eskaintzen dituzte. Izan ere, tokiaren kontzeptuak ikergeraia lokalizatzea ahalbidetzen du eta eskala murrizta bada ere (ez dago toki absoluturik, baizik eta egoera ezberdinetan lan egiteko aukera), mugikortasun analitiko handia ahalbidetzen du. Bestetik, antropologiaren jatorrizko ideala errekuperatzen du *lekuak*, hots, subjektuek inguru partikularretan hitz egitea, horien ikuspegi eta esperientziatik (Aguilar, 2012: 120).

Hala, Oñatiko merkataritzaren *tokikotasun esanguratsuan*¹⁸ sakonduko dugu hurrengo lerroetan, komertzioaren hiru aspektutan arakaturik –kokapenean, ehundura lokalean eta lotura afektiboan–, erdigune historikoan ehundutako hiru sostengu azaleratzeko

¹⁷ Ulf Hannerz-ek (1998) honela azaltzen du: “lo local sería visto como la fuente de la permanencia de hábitos, costumbres, tradiciones, formas de valorar y nombrar el mundo en común.(...) Lo local, por otra parte, es también el terreno en el que se desarrolla la vida cotidiana; de ahí adquiere una consistencia basada en el tiempo común, en la memoria compartida” (in Aguilar, 2012:118-119).

¹⁸ John Agnew (1987) geografo politikoak *tokikotasun esanguratsua* izenpetzen dituen espazioak dira eta honako ezaugarri hauek dituzte: (1) lehen aspektua kokapena da. Koordinada bidez kokatua izan daitekeela esan nahi du. Hala, nongotasuna duen existentzia material bati dagokio. (2) Bigarrena aspektu lokala da, hots, harreman sozialetarako, norbanakoen bizimoduaren inguru materiala. (3) Azkena tokiaren zentzua da, eta tokiarekiko dagoen lotura subjektiboari egiten dio erreferentzia (in Cresswell, 2004: 7).

–ekonomikoa, sozio-emozionala eta lurraldea–; finean, Oñatiko emakumeen memoria kolektiboaren atal bat kontatu nahi dugu.

Ikerketa honetan tokiaz, oro har, eta zehazki kaleaz eta dendez ulertzen dena ezin argiago jasotzen du Doreen Massey-k (1993) *A Global Sense of Place* liburuan: (1) tokia ez da kontzeptu estatikoa, baizik eta prozesuzkoa, eta bertako hartu-eman sozialak izaera aldakorrekoak dira. (2) Tokiek ez dute mugarik, bereizketa enkapsulatzaileen zentzuan. Mugak kontutan izatea interesgarriak da kanpoarekin kontraposizioan sortzen baita tokia. Zentzu horretan, erdiguneko merkataritza auzoekin elkarrekintzan pentsatu da. (3) Tokiek ez dute identitate bakarra: barne-gatazkez gainezka egon ohi dira. Komertzio txikiaren sostengu hirukoitzak sortzen duen lotura afektiboaren ondorioz, dendak eta kaleak identitatez hornitzen dira. Hala, herritarren artean lotura afektibo hori bizitzeko hainbat modu egon badaudela jakinda, eta ikerketaren mugak kontuan izanda, emakumeen artean aniztasuna bermatu dugu klase, jatorri eta bizitokiaren arabera. (4) Azkenik, lekuen bereizgarritasuna erreproduzio etengabearen dago, eta ez da historia luze baten baneraketaren emaitza soil (Massey, 1993: 65-69).

Dendak, bitarteko espazio

Oñatiko komertzio txikiaren ikerketa lokalizatua da hau, eta Espazioaren Politika Ekonomikoaren (EPK) korronte teorikoarekin bat egiten dugu: ikerketa-ildo honetan aztergaiak klasea, generoa, arraza eta kultur harremanek eraikitako inguruan nola erreproduzitzen diren aztertzen da (Low, 1990: 485). Aitzitik, XX. mendeko merkataritzak jendartearen produktu eta produktore gisa funtzionatu izan du, hots, egitura sozialen aldaketak eragindako berrikuntzen isla da, eta era berean, praktika ekonomiko, sozial, politiko zein kultural horiek sustatu eta iraunarazi ditu.

Setha Low-en (1990) eta Manuel Castells-en (1983) arabera, EPK ikerketek espazioa baldintza materialen eta kontrolaren mekanismo soziopolitikoaren sortzaile eta produktutzat daukate: “spatial forms (...) will be produced by human action, as are all other objects, and will express and perform the interests of the dominant class according to a given mode of production and to a specific mode of development” (Castells, 1983: 312).

Teresa Caldeira-ren (2002) arabera, hirian beti existitu izan da segregazioa eta ezberdintasuna, eta horiek esfera publikoaren parte izan dira, eta horren zabal-kunderako ekarpena egin izan dute (Caldeira, 2000; in Salcedo, 2002: 6). Susan Fainstein-ek (1994) adierazten duen moduan, gutxiengo etniko edo/eta sexualak eta

jendarteko kolektibo behartsuenak espazio publiko moderno, ireki eta demokratikotik baztertuak izan dira (1994: 19).

Michel Foucault (1977 eta 1980) autore postestruturalistak boterearen mikrofisikaz jardun zuen, eta hala dio: “[Aro modernoan] los espacios públicos pasaron de ser el lugar del castigo real a un espacio de vigilancia”. Alabaina Rodrigo Salcedok (2002) erresistentziarako gune ere badirela dio: “identificar el panóptico con el espacio público moderno parece a primera vista difícil: parques públicos, amplios y abiertos bulevares y mercados parecen precisamente ser puntos de concentración y anti-disciplina” (ibidem: 9).

Hala, merkatua eta komertzio txikian kontrol eta disziplinak tokia duela kontuan hartu behar da. Baina, era berean, bat egiten dugu Jane Jacobs-ekin (1961) espazio publikoan kontrolaren edota zaintzaren alde egiten duenean, guztion erabilera eta gozamenerako izango bada: “la seguridad en las calles, por vigilancia y mutuo control, suena mal en teoría: en la vida real no es un mal” (in Salcedo, 2002: 12).

Kaleen zaintza, horien erabilera publikoa eta irekia ziurtatzeko funtsezkoa dela argudiatzen du Jacobsek, zeregin horretan komertzio txikiek izan duten funtzioaren aitortza eginez: “el requisito básico para que esa vigilancia exista es una cantidad sustantiva de tiendas y otros espacios públicos a lo largo de las veredas de un distrito” (ibidem).

Komertzio txikiaren presentziaren bidez espazio egitura hegemonikoaren zaintza eta diziplina ezartzen den aldi berean, anti-diziplina eta erresistentzia ere aurki daitezke (Fainstein, 1994; Castells, 1977; Harvey, 1973; De Certeau, 1984). Egiturak iraultzeko lanabes dira praktika erresistenteak eta bilakaera historikoaren irakurketa honetan berebiziko garrantzia dute. *Practica de la vida cotidiana* (1984) liburuan De Certeau erresistentziaren mikrofisikan jartzen du arreta, testuinguru sozial osoan presente dagoena, eta beraz, baita espazio osoan ere:

“si es cierto que la malla disciplinaria se hace en todas partes más clara y extensa, es entonces más urgente descubrir cómo la sociedad en su conjunto resiste qué procedimientos populares (también minúsculos y cotidianos) manipulan los mecanismos de la disciplina para ajustarse a ellos y al mismo tiempo evadirlos, y finalmente qué formas de operar utiliza la contraparte, los consumidores (¿los dominados?) en el silencioso procedimiento de configurar un orden socio económico.(...) Estos procedimientos y usos de los consumidores com-

ponen la red de una anti-disciplina” (De Certeau, 1984 in Salcedo, 2002: 13).

Kasu honetan komertzio txikiaren testuinguru espazialean, XX. mendeko Oñatiko emakumeen egunerokotasuna jarriko da erdigunean, batez ere, etxekoandreen eta emakume dendarien enkontruan sortzen zen agentzian arreta jarrita, edo anti-diziplinazko sarean. Izan ere, egituraz baino kontraegituraz, formalaz baino informalaz eta memoria historikoaz baino memoria kolektiboaz ari garen honetan, interesgarria iritzi dugu Pierre Bourdieu-ren (1989) hausnarketa: “spatial structure itself is hegemonic but its appropriation and social definition in domestic practice are not” (Bourdieu, 1989: 2 in Low, 1990: 490). Bada, egitura sozialaren aplikazio erreala, eta etxekoandreek errekaduen eguneroko eginbeharretik egindako apropiazioa da etnografia honen interesguneetako bat.

Bestalde, emakumezkoengan fokua jartzean, espazioan genero-harremanak nola islatzen diren aztertzea da ikerketa honen helburuetako bat, azken urteetan hazten doan ikerketa esparru feministan ekarpena egiteko asmoz. Shirley Ardener-ek (1993) aipatu bezala: “durante los últimos años, la relación de las mujeres con el espacio está adquiriendo mayor protagonismo dentro de la discusión feminista” (Ardener, 1993; in Montón, 2000: 53). Hala, Jacqueline Coutras-ek (1996) azalarazitako hausnarketa bati erantzun nahi zaio: emakumeak espazio publikoan presente egonagatik, horrek ez du emakumea ikusgaiago egin. Ikerketa hau, beraz, emakumeen ikusgaitasunerako ariketa bat da.

Gaian sakonduz, espazioa genero-ikuspegitik aztertu dutenek, Manuel Delgadok (2007) kasu, premisa nagusi hau garatu dute: espazio publikoa gizezkoekin eta espazio pribatua emakumezkoekin lotzen da, eta bien artean oposiziozko harreman hierarkikoa eraikitzen da:

“la forma moderna de darse la división de lo público y lo privado se produce en paralelo a la que enfrentará, de un lado, la racionalidad normativa –equilibrada, imparcial, universal–, y, del otro, el ámbito de los afectos y las pasiones –imprevisible, heterogéneo, caótico–. Al mismo tiempo, la división simbólica de los secos en ciernes encontraba que mientras los hombres eran depositarios “naturales” de aquella razón normativa, la mujer debía asumir como labor fundamental el mantenimiento del hogar” (Delgado, 2007:230).

Ikuspegi hori espazio zein genero-harremanen analisi postestruturalista batean kokatzen da, eta gure ustez, gizon eta emakumeen bizitzen analisi mugatua egiten

du: teoria kritikoaren korrante antropologikoarekin bat egingo dugu, eta genero-harremanak bizi-praktika gorpuztu gisa ulertuko ditugu (Stolcke, 2003). Dolores Julia-nok (1992 eta 1998) defendatu izan duen bezala, ekitea, klase zapalduen kasuan, maiz, egitura sozialaren aurka egitea da. Hala, subjektibitate eta norbanakoen azterketak, eraldaketa sozialerako abagune diren bizi-estrategia konkretuen berri ematen digu, Mari Luz Estebanen (2008) arabera. Hori espaziora ekarrita, esan daiteke publiko eta pribatuak modu berezian moldatzen dutela genero bakoitzak, biak ala biak, emakumeen zapalkuntzako sistemaren bitartekoak izanik: hots, espazio pribatua, publikoaren protesia edo luzapena dela ulertuz: “para las mujeres, lejos de oponerse, la esfera de la vida pública y la de la vida privada, se complementarían de manera perversa, y lo harían precisamente en calidad de instrumentos de dominación del continuo Dios- Estado-padre” (Delgado, 2007: 233-4).

Hala, genero-harremanak eta espazioak, publiko-pribatua, elkarrekintzan ulertuko ditugu:

“en la medida en que el lugar no se cierra en sus límites físicos, sino que se abre a la dimensión de la significación y la experiencia, resulta una categoría relevante para la comprensión de procesos en donde la diferencia, el conflicto y la negociación son importantes. Trabajar con la noción de lugar lleva implícito asumir la importancia de un punto de vista relacional y contextual” (Lacarrieu, 2007 in Aguilar 2012: 140).

Ikerketa honetako eszenatokia osatzen duten espazioak *continuum* batean kokatuz gero, *kalea* espazio publikoan kokatzen da: nagusiki gizonen eremua izan dela suposatu arren, ezin daiteke irudikatu leku homogeneotzat, ez eta estatikotzat ere, baizik eta genero-arteko negoziazioaren, gatazkaren, botere(tze)aren zein erresistentziaren eszenatoki moduan. Alta, Jose Guillermo Zubia Guineak Oñatiko bizitza honela deskribatu zuen mende hasieran: “La vida social de Oñati de esa época, como había sido durante muchos años y en otras comunidades, la desarrollaban los hombres en el trabajo y en la taberna, las mujeres en la iglesia y en los mercados y lavaderos, y todos ellos en la calle” (Zubia, 2002: 10).

Hori horrela, emakumeen ikuspegitik gizonen botere-gunea izan denak zer esanahi dituen eta zein esperientzia sorrarazten dizkion, zein puntu arte izan den espazio baztertzaila edo inklusiboa, eta horri aurre egiteko sortutako agentzia ikertzea izango da ikerketa honen xedea.

Hizpide ditugun dendak, berriz, familia-negozioak izaki, ‘bitarteko espazio’ gisa definituko genituzke. Izan ere, aurrerago esan bezala, denda familia-etxetik¹⁹ gertu kokatu izan dira (kasu askotan beheko solairuan), dendariak etxearen luzapen gisa sentitzeraino, baina aldi berean publikoa (irekia) dela ulertuz.

3.2.2. Merkataritzako jarduera ekonomikoa

Komertzio txikiak ari garenez, merkataritzari, hots, jarduera ekonomikoa bati egiten zaio erreferentzia. Hau da, zerbitzuen sektorean presentzia nabaria duen lan-arloa izanik, komertzio txikiak herriaren garapen ekonomikoan egindako ekarpena ukazina da. Nolanahi ere, ikerketa honetan herriko aberastasun monetarioan egin duen ekarpena baino, dendariaren lan-baldintzak eta dendari zein bezeroen artean egon diren tratu ekonomikoak interesatzen zaizkigu.

Ikerketa honetan, Yolanda Jubetok (2003) ekonomiaz emandako definizioan oinarritzen gara: ekonomiaren funtsezko helburua bizitzaren iraunkortasuna bermatuko duten baldintza egokiak aztertzea da. Hori horrela, oñatiarren bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko dendek izandako funtzioa aztertzeko, lehendabizi, *lana* kontzeptuaz zer ulertzen den azalduko dugu: lanaren kontzeptu zabala hartuko da ardatz, emakumeek eginitako lan eskerga aintzat hartuz eta lan-enplegu dikotomiak sortzen dituen genero-ezberdintasunak ezabatuz. Maialen Apezetxea eta Mikel Ozaitak (2014) *Hernaniko emakume langileak iruditan* ikerlanean emandako azalpenarekin bat egiten dugu:

“mendeetan zehar ‘lan’ kontzeptua lan ordainduarekin lotu da, ofizio bat edukitzearekin (enplegua), hau da, etxetik kanpo egiten zenarekin. Gainera, honek jendartean prestigioa eman izan du. Lana ordea, kontzeptu zabalago batean kokatu beharra dago, esfortzu fisikoa edota psikologikoa eskatzen duen jarduera jarraitu gisa. Azpimarratu beharra dago, emakumeei atxikitu zaien lanak, gutxietsiak eta ikusezinak egon diren bezalaxe, biziraupenerako eta sistemaren jarraipenerako ezinbestekoak izan direla; zaintza kasu. (...) XX. mendeko herrialde industrializatuetako eredu, familia nuklear fordista izan da. Honela, lanaren banaketa sexuala, kontratu sozial gisa gailendu zen. Gizonaren rola “etxera ogia ekartzea zen” eta emakumeak aldiz “etxea zaintzearen eta kudeatzearen” rola bereganatzen zuen. Bi zeregin multzo horien artean

¹⁹ “El espacio social de la casa, el espacio doméstico (junto con todas las actividades que se desarrollen en su interior) se tildará de privado al definirse desde el yo masculino” (Montón, 2002: 46).

hierarkia bat dago, jardun maskulinoei inplizituki balioa erantsiz eta jarduera femeninoak baliogabebetuz. Eredu hau, erregimen frankistak eta orduko zein egungo sistema kapitalistak sustatzen dute, jendarte iruditegi bat sortuz. Baina hori errealitatek urrun egon da: emakumezkoak hiru sektoretako produkzio sistemetan parte hartu izan baitute” (Apezetxea eta Ozaita, 2016: 102).

Egiturazko dikotomia hori, praktikan ez da hala izan, bigarren mailako ekonomia bat existitu baita, emakumeek zaintza-lan ez ordainduak egiteaz gainera, orduko edo lan-aldi partzialeko enpleguak izan baitituzte, asko eta asko merkataritzan. Azken batean, lan erreproduktibo ez-ordainduen artean kokatzen dira errekaduak, eta horregatik dira ikerketa honen ardatza. Pertsonen eguneroko sostengurako beharrezko produktuak (elikagaiak, arropak, etxe-tresnak, etab.) eskuratzeko arduratu izan dira emakumezkoak XX.mende aurretik.

Komertzio txikian erosi ahal izateko emakumeek garatu dituzten estrategia ekonomikoak izango dira ikerketa honetako interesguneetako bat. Komertzio txikian gertatu den salerosketa ondasunen trukaketan oinarrituta egon da, eta ondasunaz ulertzen dugu bizitzaren bizi-raupenerako baldintza material zein afektiboak eskuratzeko bitarteko oro.

Hori horrela, kontsumo moduetan jarriko da fokua, testuinguru horretan dendari zein bezeroen *habitusari*²⁰errepertuz, eta horrek herritarrengan sortzen duen kapital material, afektibo zein sinbolikoan²¹ arreta jarritz. Izan ere, 1960ko hamakardaz geroztik kontsumoak garrantzi handia hartuko du jendartean: “la nueva economía funciona apelando a la distinción (Bourdieu, 1984) y a la creación de identidad a través del consumo” (Salcedo, 2002: 18).

²⁰ “Habitus como sistema de esquemas de percepción y de apreciación, como estructuras cognitivas y evaluativas que adquieren a través de la experiencia duradera de una posición en el mundo social. El habitus es a la vez un sistema de esfuerzos de percepción y de apreciación de las prácticas. Y, en los dos casos, sus operaciones expresan la posición social en la cual se ha construido. En consecuencia, el habitus produce prácticas y representaciones disponibles para la clasificación, objetivamente diferenciadas” (Bourdieu, 1997: 107-108).

²¹ “Capital simbólico no es otra cosa que el capital económico o cultural conocido y reconocido” (Bourdieu, 1997: 112).

3.2.3. Emakumeek *elkar babesteko sareak*

“Ekonomia edo estatua gobernatzen duten praktika eta mekanismoak ulertzea bezain garrantzitsua izan daiteke laguntasuna”

(Lomnitz, 1988 in Cucó, 1995: 132-133).

Ikerketa honetan, beraz, Oñatiko emakumeek herriko komertzio txikian sortu duten lotura afektiboan, hots, espazioaren ehundura sozialean ikertu nahi dugu. Izan ere, sinetsita gaude merkataritza emakumeen arteko topagune izan dela, eta horren ondorioz, elkar babesteko sareak ehuntzeko eszenatoki nagusi. Laguntasunaz, sostengu sozioemotionalak eta elkar babesteko sareez arituko gara datozen lerroetan kontzeptu horien azalpenean sakontzeko asmoz.

Laguntasuna bizitzeko eta ulertzeko moduen bilakaera ulertzeko Josepa Cucóren *La amistad. Perspectiva antropológica* (1995) lanean oinarritu gara. Antropologian, ahaidetasunarekin alderatuz gero, oso gutxi ikertu da adiskidetasuna, eta egin denean, diskurtso hegemonikoa laguntasun erromantikoarena izan da (Silver, 1989: 260). Autoreak bildutako etnografiaren bidez, laguntasunak kapital sozial gisa duen potentzialtasuna azaltzen digu. Maiz, pobrezia egoeretan bizirauteko edo posizio pribilegiatuak eusteko eta indartzeko erabiltzen den kapital gisa, alegia. Begirada hori oso emankorra da dendari testuinguruan emakumeen arteko elkarrekintza oro ulertzeko. Hori ezin baita egiturazko terminoetan edo instituzio formalen bidez azaldu, baizik eta harreman-sareetan eta praktika sozial konkretuetan aurkitzen dute haien espresioa.

Cucó (1995: 25) laguntasunaz ematen duen definizioan, lehenik, laguntasuna eraikuntza soziala eta kulturalki moldatua dela argitzen du. Hala, laguntasunaren forma eta edukiak egitura²², kultura²³ eta historiaren²⁴ testuinguruaren arabera dira. Bigarrenik, gizarte bakoitzaren barnean, laguntasuna eta laguntasun-moduak lau egiturazko faktoreen arabera moldatzen dira: ahaidetasuna, generoa, bizitza-zikloa eta mailaketa soziala. Bada, faktore estrukturalen garrantzia oso handia da, horiek sortzen baitituzte kultura eta gizarte-egiturak

²² Egiturazko testuinguruaz ulertzen da posizio sozialen arteko lotura egonkorra (Cucó, 1995: 25).

²³ Testuinguru kulturala gizarte edo talde batek elkarbanatzen dituen sinesmen, balore eta sinboloak dira (Cucó, 1995: 25).

²⁴ Egiturak eta kulturak denbora historikoaren arabera aldatzen dira eta baita gizarte jakin batean elkarbizitzen diren azpitaldeak ere (Cucó, 1995: 25).

aplikatzen dituzten debeku eta aukerak. Azkenik, faktore horien inpaktu bateratuak moldatzen du norbanakoaren espazio soziala²⁵.

Laguntasun ez instituzionalizatu edo harreman informal baten inguruan ari gara, beraz, denden testuinguruan ehundutako emakumeen arteko harremanez ari garenean. Laguntasunaren baldintzetako bat pertsonen arteko berdintasuna da Graham Allan-en (1989) eta Larisa Lomnitz-en (1988) arabera: “para nosotros supone traducir la idea de igualdad como una relación en la que no tienen cabida ni la jerarquía ni la autoridad” (in Cucó, 1995: 29). Hala ere, Cucó defendatzen du berdintasuna ez dela anti-instrumentalizazioaren sinonimo. Instrumentalizazioa aldebikoa izan daiteke berdintasunezko harreman batean. Bi kontzeptuen nahasketa gertatzen da mendebaldeko gizartetan, laguntasunaren diskurtsoak harremanaren emozio kargan jartzen baitu indarra (1995: 29-30). Hala ere, Cucó dio laguntasunak bietatik duela, espresibotik eta instrumentaletik: bi aspektuak, emozionala eta instrumentala, laguntasunaren ezaugarriak dira, eta beraz, gizarte guztietan ageri dira, mendebaldeko mundu garaikideko gizarte indibidualizatuetan, kasu (ibidem: 49).

Harreman informal horiek bizitza publikotik at eta egin-behar instituzional neketsuen aurrean, babesleku bat dira norbanakoentzat, eta hortik dator laguntasuna sektore sozial pertsonal eta pribatuan lokalizatua egoitea (Paine, 1969: 514 in Cucó, 1995: 51).

Bestalde, laguntasuna plurifuntzionala da, David Gilmore-n (1975) arabera; edozertarako balio dezake eta itsasgarri dinamiko sozial gisa funtzionatzen du gizarte integratuz komunitate geroz eta atomizatuagoetan (1975: 322 in Cucó 1995: 51). 1970eko hamarkadan gizarte moderno industrialetan errotiko aldaketak gertatu ziren eta industrializazioak eta urbanizazioak eragin sakona izan dute mendebaldeko gizarteetako harreman sozialetan, baita Oñatin ere. Horren adierazle garbientako bat pertsonen isolamendu kasuak areagotzea da: horrek bereziki kolektibo jakin batzuei eragin zien, besteak beste, nagusiei, dibortziatuei eta etorkinei (Cucó, 1995: 20).

Ezberdintasun sozioekonomikoa eta genero-ezberdintasunak, espazioan isla konkretu bat dute, segregazioa-

rena: “la desigualdad socioeconómica, pero también la de género, se traduce en segregación espacial” (Delgado, 2007: 230).

Ildo beretik, Betty Friedman-ek, *La mística de la feminidad*-en (1965) salatu zuen Estatu Batuetan zonifikazio eta urbanizazioak emakumeengan herri-erdiguneetara mugitzeko askatasun murrizketa bat zekarrela. Baita emakumeak geroz eta etxe isolatuagoetan zokoratuak aurkitzen zirela ere, eta halakoetan etxeko elkarbizitzaren eredu patriarkalak inposizio-maila gaindiezinak eragiten zituen.

Ildo beretik Barry Wellman-ek (1992) emakumeen komunitateak gizonen aldean pribatuago gisa deskribatzen ditu: “las amistades entre mujeres estaban organizadas en redes más informales, que se desplegaban fundamentalmente en el seno del hogar, donde estas se visitaban entre sí en grupos reducidos para proporcionarse compañía y ayuda doméstica” (in Cucó 1995: 76-77).

Emakumeen harreman afektiboen irakurketa horri kritika egiten dio Gilmorek (1982) lan honetan, aurrerago aipatu den moduan. Emakumeak bizitza publikotik bahituak aurkezten zaizkigu, “alienadas de una sociedad a la que, en gran medida, mantienen, alimentan y reproducen” (1982: 195; in Cucó 1995: 75). Alabaina, 1970eko hamarkadaz geroztik emakumeen arteko sozializazioari buruzko ikerketak egin ziren: erakutsi zuten Mediterraneo eta Ekialde Hurbileko literaturak emakume-sareak erabat gutxiagotu izan dituela (ibidem: 77).

Europa hegoaldeko kulturetan, Sara Uhl-ek (1991) ikeritu bezala, emakumeen arteko laguntasuna potentzialki familia bizitzaren perturbatzaile bezala ikusi izan da. Emakumeek senideen arteko harremanez gain lagunak izan ezin zituztela esaten da. Gainera, etxearen isolamenduaren ondorioz, emakumeek familiaz kanpoko harremanak izateko zituzten zailtasunak kontuan hartuz gero, uler daiteke laguntasuna gizonen arteko zer-bait bezala ulertu eta ikertu izana, eta emakumeen arteko laguntasun-ereduak ezkutuan eta gutxietsiak egon izana.

Laguntasun-harremanen zabalpena baino ez diren antolakuntza eta sare informalak, 1950eko hamarkadan eta 1960koaren hasieran ikertu zituzten antropologoek, eta ildo berri horretan genero-ikuspegiak zeresana izan zuen:

“los énfasis teóricos planteados desde los estudios de género han co-ayudado también a invertir algunas de las tendencias y presupuestos teóricos do-

²⁵ Norbanakoaren espazio sozialtzat ulertzen da “norbanakoak gozatzen duen autonomia gradu erlatiboaren esparrua, gutxiago edo gehiago mugatua” (Allan, 1989: 47). Hau da, pertsonen aukeretan eragiten dituzten mugak. Testuinguruok egiturazko faktoreetan eragiten dute, horien arteko harremanean eta norbanakoak bizi diren espazio sozialean (Cucó, 1995: 25).

minantes en la antropología, especialmente aquellos que hacían referencia a la importancia de las instituciones formales y a la primacía de la estructura sobre el sentimiento” (Cucó, 1995: 21).

Bada, lagun-sareen gaineko ikuspegi androzentrikoa iraultzen hasita hiru garrantzizko gertakari azpimarratu zituzten: laguntasunak eta bestelako lotura informalak pertsonen jarreran eragina dutela, pertsonak loturok erabiltzen dituztela egunerokotasunean aurre egin behar dieten hainbat gatazkari aurre egiteko eta harreman horien bitartez, norbanakoek instituzio sozialen eta erakundeen muga hertsia gainditu ditzaketela, horiei aurre egin beharrean.

Dendetako esparruan emakumeek trukaturako denbora, kontu, miseria edo poztasunek, finean, bizitza afektiboaren sostenguak, bezero eta dendarien arteko zein bezeroen arteko elkar babesteko sareak ehundu ditu. Kontzeptu horri dagokionez, Mari Luz Estebanek (2016)²⁶ emaniko definiziotik hau uler daiteke: lagun-sare informal hauetan maitasuna egon dela, betiere maitasuna ulertzeko modu erromantikotik at:

“maitasuna kontrol sozial eta ezberdintasunerako gunea den bitartean, ezagutza, agentzia eta erresistentziarako eremu pribilegiatua ere bada, batez ere, bizitzari begiratzeko eta baloratzeko maitasunaren betaurrekoak erabiltzen ikasten duten emakumeen artean” (Esteban, 2016: 269).

Emakumeen arteko lotura afektiboak erromantizatu gabe, behar, ahalmen eta interes batzuen arabera aukeratzeko bidelagunei deritzogu “laguna”. Hala, elkar babesteko sareak “modu iraunkor batean funtzionatzen duten elkarren zaintzan eta elkartasunean oinarrituriko pertsonen elkartzeari litzateke” (2016: 269). Hurrengo ezaugarriak dituzte: (1) emakume horien artean dagoen konpromisoa besteen behar emozional eta materialekiko. (2) Bai teorian bai praktikan ere, familia-erakundearen alternatiba diren harreman-estrategia osagarria garatzen dute. Eta, (3) azkenik:

“elkar babeste sinboliko eta praktikoa mota hori harago doala, zeren elkarbizitzari, sexualitateari, politikari... dagozkion eredu sozial hegemonikoetatik at, banakako proiektuak eta bizimoduak garatzeko beharrezkoa den babesa eta sostengua bermatzen baititu. Proiektu horiek gizartearen gaitzespena

eragin dezakete eta babes hori funtsezkoa da. Hau da, defentsiboak baina, aldi berean, apurtzaileak diren estrategia emozional eta materialez ari gara” (ibidem: 270).

Hots, emakumeen arteko sostengu sozioemozional zein ekonomikoaren bitartez elkarren agentzia sustatzen duten elkar babesteko sareak azpimarratu nahi ditugu. Norbanakoen arteko elkartzeko eta elkarrekotasun-motak askotarikoak izan daitezkeela baieztatzen du Estebanek. Ikerketa honi dagokion kasuan sortzen diren laguntasun-harreman konkretu horiek, egituraren arrakaletatik ihes egiten duen zerbait dira, eta beraz, diziplina antropologiko gehienek aztertu gabeko zerbait. Ikerketa honek, aldiz, fokuari azpian kokatu nahi ditu, horiek pentsagai, eztabaidagai bihurtu.

²⁶ “Maitasun-harremanak eta elkar babesteko sareak edo komunitateak: emakume feministen esperientziak” artikuluan familia-eredu hegemonikotik at kokatzen diren emakumeen arteko maitasun-harremanak ditu aztergai.

KOMERTZIO TXIKIAREN ETNOGRAFIA

I. ATALA: XX. MENDEKO EMAKUMEEN HISTORIA

“El nuevo mundo industrial contemporáneo, consolidado a lo largo del siglo XIX en Occidente, fue una «fábrica de género» construida de forma paralela a la modernidad” (Nash, 2012: 33).

Atal honetan XX. mendeko emakumeen ibilbidearen laburpen bat egin nahi dugu: horretarako aipatuko ditugu Estatu-legeak, Euskal Herriko emakume-eredu ezberdinak eta Oñatiko herriko berezitasunak. Emakumeen autonomian eragin duten erregimen politikoetan zein jendarteko ideologia hegemonikoetan sakonduko dugu. Azkenik, diskriminazioaren kontra erresistitzeko emakumeek erabilitako baliabideei erreparatuko diegu, hobeto ulertzeko emakume merkatari eta etxekoandreen errealitatea.

4.1. Emakume-eredua I: etxeoandre apala

Borboitarren monarkiak (1875-1931) herritarrak jazarri zituen. 1876ko konstituzioak katolizismoa ezarri zuen Estatu erlijiotzat eta horrek emakumezkoak azpiratu zituen. Legea eta Eliza, biak eskutik, emakumeentzat ez zegoen eskubiderik (Bussy Genevois, 1993: 203).

XX. mende hasieran emakumeen bazterketa legalki baimentzen zuten hiru oinarri finkatu ziren: 1870eko Kode Penala, 1885eko Merkataritza Kodea eta 1889ko Kode Zibila (Hernández, 2008: 292). Jabetza eta herentzia jasotzeko eskubidea debekatzen zitzaie, baita hezkuntza jasotzea, lanbide liberaletan jardutea eta soldata jasotzea ere (Nash, 2012: 34).



Emakume senideak etxe atarian.

1804ko Frantzian Kode Zibilaren bitartez ezarri zen emakume ezkondua senarraren menpeko zela. Lege hori hainbat herrialde europarrak bereganatu zuten ondoren (Nash, 2012: 35). Hala, 1889ko kode zibilean, 57. artikulua ezarri zuen: “senarrak emaztea babestu behar du eta emazteak senarra obeditu”. Senarra zen, beraz, emaztearen jabetzaren administratzailea eta bere ordezkari legala, zeinak senarraren baimenik gabe ezin zuen ezein ekitaldi publikotan parte hartu (Nash, 2012: 35-36).

1870ko Kode Penalak ezarri zuen senarra desobeditzea edo hitzez jazartzea kartzelaratuaz izateko arrazoi zela. Emaztea erasotzekotan edo adulterio kasuetan senarra, ordea, “zigortua” zen. Orduetik finkatzen da, beraz, “generoen arteko moral sexual bikoitza” eta bide ematen zaie pasio-hilketei (Nash, 2012: 36).

1885eko Merkataritza Kodearen arabera emakume ezkonduak ez zuten autonomiarik lan egiteko, soldata izateko; beraz, ez ziren bere soldataren jabe. Senarraren baimena behar zuen jarduera ekonomiko eta komertzialetan aritzeko, ez bazen etxeko kontsumorako (Hernández, 2008: 293).

XX. mendeko lehen bi hamarkadatan hainbat lege onartu ziren, emakumezkoaren parte hartzea lan merkatuan zehazteko. Horietako batzuk hauek dira: “Ley sobre el trabajo femenino” (1900), emakume haurduna erditu baino lehen eta ondoren babesteko legea (1907), ema-

kume eta haurrek industria osasungaitzetan lan egiteko debekua (1908), gauzez lan egiteko debekua (1912), deskantsurako eta esertzeko eskubidea (1912) edota emakume eta haurren lan-jarduna 10 ordura mugatzeko legea (1913) (Loza, Ruiz eta Tranche, 2011: 31).

Oro har, lege horietako batzuk emakumeentzako faborezkoak izan ziren, baina sarri oztopoa ziren gizonen pareko baldintzetan lan egin ahal izateko (Hernández, 2008: 294). Gainera, arrazoi ekonomikoengatik askotan enpresariak ez zituzten arauak betearazten.

XIX. mendeko herentzian zetorren etxeko emakume, ama eta andregaiaren irudia. Izaera femeninoaren ardatza zen amaren maitasuna: goxotasuna eta besteeenganako dedikazioa. Etxekotasunaren diskurtsoaren arabera emakumeak etxeko izakiak ziren (Armstrong, 1991). Emakumeek zoriontasuna eta garapen pertsonala etxean aurki zezaketen, bizia familiari emanda (Nash, 2012: 45).

Maskulinitateak, aldiz, norbere interes eta indibidualismoak ardatzen zituen. Gainera, enplegua zen gizonaren garapen pertsonalerako bertute gorena (Nash, 2012: 41 eta 44). Maskulinitatearen bi ezaugarri horiek XX. mende osoan iraun zuten. Ikerketa honetan emakumeei erreparatu diegu eta horiek gizonetakoekin izan dituzten harremanei. Hala, gizonetakoengan ez da sakondu, ezpada zeharka irudikatze maskulinitatearen eta merkataritzaren arteko harremana.

4.2. Emakume-eredua II: emakume modernoa

Lehen Mundu Gerraren (1914-1918) ondorio azpimarragarrietakoa izan zen emakumeak lan-merkatuan txertatu izana. Gizonezkoen faltan emakumeen eskulana beharrezkoa zen. Espainiako Estatuak gudan zuzenki parte hartu ez zuenez eraginak ez ziren bertan horren agerikoak izan. Nolanahi ere, hiri handienetara iritsi ziren oihartzunak eta horrek femininotasunaren irudian eraldaketa bat eragin zuen: "etxeko aingeruaz" gain "emakume modernoaren" eredua hedatu zen. Aldaketa horren adierazle izan zen, esaterako, *garçonne* ile-orrazkera. Ikerketa honen izaeragatik, ezin izan dugu sakondu Oñatin eredu horrek izan zuen presentzian. Interesgarria litzateke, halaber, etorkizunean ikerketa-bide horri eustea.

Hortaz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ideia txertatu zen jendartean, baina oinarrian bi sexuak biologikoki ezberdinak zirela eta bata bestearen

osagarri zirela pentsatuz (Nash, 2012: 65). Erljioa eta zientziak babestutako diskurtsoa zen "diferentziaren berdintasuna".

Espainiako Estatuan errotiko eraldaketarik ez zen izan: itxurazko aldaketa bat izan zen, baina amatasunaren garrantziak ukazina izaten jarraitzen zuen. Emakumea eta ama izatearen arteko lotura banaezina zen: emakumearen funtzio erreproduzitzailea eta haurrak izateko gaitasuna bere patu bakarra ziren (Nash, 2012: 39). Hor-tik dator amatasun sozialaren ideia: "el deber femenino desbordaba la propia maternidad biológica para abarcar una social. Los sentimientos maternales de aquellas mujeres sin hijos que podrían desarrollar una misión social de servicios a la sociedad" (Nash, 2012: 68).

1920ko hamarkadan amatasunaren alorra profesionalizatu zen. Hala, emakumeen jakintza historikoa baztertu eta osasungintzako profesionalen esku-hartzea gailendu zen: zientzia. Amaren baliogabetasun sozialaren ideia hedatu zen eta emaginen zeregina gutxietsi (Nash, 1993: 634).

Patriarkatuaren oinarrien arabera, emakumeak, beste guztiaren gainetik, ama (emazte, alaba, arreba) dira, ama potentzialak, eta horregatik bizitza eman eta sostengatzeko betebeharra dute: seme-alaben jendarteratzeaz arduratu eta familiaren ongizatea bermatu behar dute. Eskubide gutxi aitortzen zitzaizen, ordea, eta horri aurre egiteko emakumeek botere propioa erabili zuten: merkatu, denda eta auzoetako lagun-harremanak baliatu izan dituzte sartzeko, debekatua zitzaizen espazio publikoa okupatzeko. Finean, boterea borrokatu dute euren botereaz edo agentziaz (Ramos, 1993: 647).



Argazki zaharren bilduma - Oñatiko Udal Arxiboa

Ahizpa eta neskameak etxean.

Diskriminazio sozial, politiko eta kulturala eraldatzeko nahia zuen XX. mende hasierako emakumeen mugimenduak. Hala ere, heterogeneoa izan zen eta oinarrian genero-diferentziaren ideologiarekin bat egiten zuen. Hezkuntza eta lan eskubideak izan ziren borroka horren aldarri nagusiak. Finean eskatzen zen gizonezkoentzako "hiritartasun politikoa" eta emakumeentzako "hiritartasun soziala" (Nash, 2012: 141-142).

1920ko hamarkadaz geroztik, feminismo berdinzalea eta sufragista hedatu zen Estatuan: oinarri laikoa zuen, eta besteak beste, prostituzioa debekatzea, kulturala garatzea eta legeak eraberritzea eskatzen zen (Bussy Genevois, 1993: 206). Emakumeen bizitzan erabakiorrak ziren berrikuntza horiek Oñatin zein eragin izan zuten ez dugu aztertu, ez baitagokio gure gaiari. Halaber, etorkizuneko ikerketa ildo interesgarri bat dela uste dugu.

4.3. Miguel Primo de Riveraren diktadura (1923-1930)

XX. mende hasieran emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapenak eta antolakundeak ugaritzen hasi ziren beraz Estatuko hiriburuetan: Asociación de Mujeres Españolas (1918) sortu zuten, besteak beste, María Espinosa, Benita Asasek, Clara Campoamorrek eta Victoria Kentek. Juventud Universitaria femenina-ren (1919) ondorengorri zen La Unión de Mujeres de España (1920), aurrekoa baino ezkertiarra. eta María Lejárraga buru zuena. La Cruzada de Mujeres Españolas (1921) mugimenduak, Carmen de Burgosen lidergotzarekin, eta El Lyceum Club-ek (1926), besteak beste, sufragioaren aldeko lehen manifestazioa deitu zuten..

Indar politiko horren kontra erantzun zuten gobernuak eta Elizak. Horren adierazle da Acción Católica de la Mujer-en sorrera, 1930ean 100.000 bazkide zituen (Loza, Ruiz, eta Tranche, 2011: 29)

Alabaina, Miguel Primo de Riveraren diktadurak emakumeen oinarriko bi eskubide ekarri zituen: 1924ko dekretuan familia buru ziren emakumei (alargunei, esaterako) herri-mailako hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea eman zitzaion. Bestalde, *Asamblea Consultiva* zeritzan gobernu-taldean emakume batzuek parte hartu zuten. 1930ean diktadorearen heriotzak lehenaldiko *status quora* itzuli zuen jendarte (Bussy Genevois, 1993: 203).

Primo de Riveraren heriotzaren ondoren, Alfonso XIII-ren erreinua egoera ahulean zegoen eta bere desager-

pena aurreikus zitekeen: 1931ko hauteskundeek demokratikoki eragin zuten aldaketa.

4.4. II. Errepublika (1931-1939)

1931n abiatu zen II. Errepublikarekin Erregimen Zaharra eta Elizaren egitura iraultzeko apustua egin zen. Horrek emakumezkoentzat aurrerapauso handiak eragin zituen: emakumeak diskriminatzen zituzten hainbat lege baliogabetu ziren.

Espania europartzeko ahaleginean hainbat pauso eman ziren. Emakumeen eskubideei dagokienean nagusia sufragio unibertsala izan zen. Orokorrean alderdi ezkertiarak kontra azaldu ziren: apaizek emakumeak menderatzen zituztela uste zuten emakumezkoena boto kontserbadorea izango zela argudiatzen baitzuten. Hala ere, Victoria Kent eta Clara Campoamor-en arteko kongresuko eztabaida luze eta famatuaren ostean, 1931ko urrian sufragio unibertsala onartu zen.

Familiari dagozkion hainbat erreforma ere egin ziren: ezkontza zibila eta dibortzioa legeztatu ziren. Gainera, enplegua duten emakumeek amatasun aseguruia eskuratu zuten.

Emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna arlo legalan ezarri izanak ez zuen, ordea, emakumeen diskriminazioa desagerrarazi (Nash, 2012: 37-38): jendartearen ideologiak, hezkuntzak eta kulturak rol tradizionalak iraunarazi zituzten; alegia, emakumearen rol pasiboa eta gizonaren izaera aktiboa:

“Había otra forma, menos llamativa pero más eficiente, de profundizar y perpetuar el rol pasivo de la mujer y su subordinación al hombre: a través del conjunto de principios, valores e ideas que se fomentaban desde sus medios de influencia de masas (prensa, educación...) y en los que establecía los arquetipos ideales de su sociedad: el hombre motor de la civilización, la mujer ligada a ideas de domesticidad siempre pasivas: amante esposa, buena madre, casta enamorada, pilar del hogar...” (Hernández, 2008: 294).

Gutxiengo batek txalotu zituen erreformak eta indar politiko kontserbadorea indartzen joan zen. Emakumei aktiboki parte hartzeko deia luzatu zieten: presoak eta familiak zaindu zituzten, eta gainera, Elizaren alde egin zezaten, bozka bidez. Instrumentalizazioa izan zen ala ez, egun eztabaidatzen den afera da.



20ko hamarkadako hezkuntza mistoa.

Eliza eta eskubiko indarrak aliatu ziren, eta horren ondorio da 1934an Falange Femenina erakundea sortu izana. Pilar Primo de Riverak zuzendua eta misio honekin: “Pero la principal misión de la Sección Femenina debía ser poner en pie un nuevo modelo de femineidad y adoctrinar a las mujeres para que se adaptaran a él con un «silencio entusiasta»” (Loza, Ruiz eta Tranche, 2011: 79).

Elizak gogor ekin zuen emakumeen eskubideen eta autonomiaren kontra, hala nola kirolaren kontra edo hondartzetako nudismoaren kontra.

4.4.1. Hezkuntza

XX. mende hasieran Espainiako Estatuko emakumeen %71a analfabetoa zen eta gainontzekoak sinatu baino ezin zuen egin (Hernández, 2008: 291). Derrigorrezko hezkuntza pixkanaka-pixkanaka ezarri zen XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera XX. mendearen hasierara arte, 1910etik aurrera derrigorrezkoa izan baita Bigarren Hezkuntza. Idoia Etxeberria eta Martin Elexpuruk *Lan eta lan emakumea Bergaran* (2014) ikerketan ondo jaso zuten, hezkuntza sistemaren bilakaeran mugarri zenbait:

“1857. urte arte, hezkuntza ez zen derrigorrezkoa, ez neskentzat ez mutilentzat. Moyano Legeak eka-

rri zuen derrigorrezko hezkuntza, 6 urtetik 9 urte bitarteko umeentzat. 1909ko beste lege batek, berriaz, 12 urtera luzatu zuen derrigorrezko hezkuntza. Hala ere, dezente kostatzen zen lege hori beteaztea. Izan ere, haurrek lanean jartzen zituzten, lantegi zein baserrian. 1925. urtean, umeak eskolara bidaltzen ez zituzten gurasoei isunak jartzen hasi ziren” (ibidem: 17).

“Hezkuntza sistemaren goi mailetara iristea XX. mendeko emakumeen lorpen nagusien artean dago. (...) Sasoi batean familia oneko alabak ere ez zuten goi mailako ikasketarik egiten; pianoa, pintura eta horrelakoak ikasi ei zituzten. Izan ere, emakumeek etxetik kanpo lan egitea ez zuten begi onez ikusten, are gutxiago aberatsak izanda” (ibidem: 41).

“Emakumeek egin zituzten goi mailako lehen ikasketak pertsonen zaintzarekin lotuta daude: Magisteritza eta Erizaintza. Lan horietan titulurik gabe ere jardun zuten askok lehenago, eta emakumeentzat lan apropos moduan zeuden ikusita. Idazkari-tza ikasketak ere bazeuden, baita merkataritzakoa ere” (ibidem: 42)

“Espainiako Estatuan 1872an sartu zen lehen aldiz emakume bat unibertsitatean ikasketak egitera.

Hasieran, ezin izaten zuen klasetara Joan, probokazioa ei zelako mutilentzat; gero, irakaslearen ondoan esertzen ziren (1895 arte). Gainera 1910 arte baimen berezia behar zuten” (ibidem: 44).

Susperraldi ekonomiko eta industrialarekin egoera nabarmen aldatu zen hirugarren sektorean Espainiar Estatuan: emakume merkatariak, irakasleak eta administrazioako langileak kopurutan hazi ziren (bereziki Correos eta Telegrafoak). Hala ere, askotariko traba moral, sozial eta legalek emakumea mundu modernora integratzea eragozten zuten (Hernández, 2008: 291):

“XX. mendearen hasieran ikasketei ez zieten gaur egungo garrantziarik ematen. Mutilen kasuan, ogibide bat ikasi, eta lehenbailehen lana aurkitzea zen ohikoena. Eta nesken ikasketei oraindik eta garrantzi gutxiago ematen zieten. Josten eta kontuak egiten ikasten bazuten, nahikoa zuten. Guraso askorentzat doktrina jakitea inportanteagoa zen eskola baino” (Etxeberria eta Elexpuru, 2014: 18).

“Nesken jakintza mailari ez zitzaion behar besteko garrantziarik ematen, etxea eta familia gobernatzen jakitearekin aski zutela uste zelako” (ibidem: 259).

4.4.2. Lan-merkatua

Estatu mailan emakumezkoen lan-merkatuko egoerari erreparatuta, XIX. mende erditik XX.mende hasierara hobekuntza nabaritu zen. Hala ere, ez ziren asko lanerako sarbidea zuten emakumeak:

“XX. mende hasieran emakumeen %70 16 eta 25 urte bitartean ezkontzen zen: haien patua ezkondu edo moja sartzea zen. Enplegua izateko garaian emakumeen %14,5ek soilik zuten bat. Gehienak nekazariak ziren eta gainerakoak neskameak, jostunak, dendari edota maistrak. Kasu guztietan, gizonezko lankideen funtzio berdinak izanagatik, soldata baxuago zuten; askotan erdira ere ez zen iristen” (Hernández, 2008: 291).

1903an, oro har, lanbide anitzagoetan zebiltzan emakumeak eta lanbide liberaletan gehiagok jarduten zuten: moja, maistra, jostun, dendari edo jabe eta zerbitzariak ziren (Lasa Astola, 2011: 83), eta beraz, ez dira inongo erregistro ofizialetan ageri.

Komertzio txikian ere emakumezkoak ziren nagusi. Denda horiek familien ekonomiaren sostengu ziren (Lasa Astola, 2011: 88-89). Mendek aurrera egin ahala geroz eta denda espezializatuagoak zeuden: demogra-



Iñudeak.

fia-hazkundeak eta kontsumoak gora egitearekin batera gertatu zen eta eskutik ekarri zuen dendari-laguntzailearen figura (gazteleraz *dependienta* modura ezaguna).

Tradizionalki existitutako ezkutuko ekonomia hedatua zegoen eta emakume gehienek parte hartzen zuten: hortaz, etxeko-lanetan eta jarduera osagarri batean jarduten zuten (Lasa Astola, 2011: 89).

Neskame, zerbitzari, dendari-laguntzaile, lisatzaile, jostun edo garbitzaileak “etxekoandre” gisa zeuden erregistratuta: *sus labores* jarduerapean. Baina jakin badakigu emakumeek “etxetik kanpo” ere zerbitzuak eskaintzen zituztela (Loza; Ruiz eta Tranche, 2011: 34).

4.5. Gerra Zibila (1936-1939) eta merkataritza

*“Sakeau ebein, en nombre de la patria,
de dios y del rey”*

Etnografiaren atalean sakon azalduko dugu Gerra Zibilak merkataritzan eta emakume merkatariengan izan zuen eragina. Datozen lerroetan, laburki azaldu nahi dugu, oro har, herriko emakumeengan Gerra Zibilak eragindakoa. Gehiago sakondu nahi bada *Gerrako Garrantzak Oñatin* liburua interesekoa da.

Emakumeak saiatzen ziren gerraren kaosaren erdian errutina ezartzen: egunerokoa normala izan zedin saia-

tzen ziren babesleku, eskola eta etxearen artean. Oñatin, Geretako bodega babeslekutzat erabili izan zutela jakin dugu: "Geretako bodegia gerran refugixoa ona, euran terraza azpitan. Orduan zan el mejor refugio de Oñate. Pasaiten zianian danok hara atxintxika. Hantxe egoten ginan geldik eta akordaitten naiz gauza batzuk gordeta be egon ziala han" (E30²⁷).

Izan ere, hainbat denda arpilatu zituzten eta desjabe-tzeak ere gertatu ziren. Zaila da izenen zerrenda bat egi-tea, kasu bakoitza ezberdina izan zelako. Arpilatu zituz-ten denden artean daude Juanitosa eta Milikua. Amaya Batzokiko jatetxea eta beste hainbat, bestalde, betiko itxi behar izan zituzten; Kaio zapata-denda eta Nappar-na taberna 1943 arte itxi zituzten: "Herrietan denda da-nak hustu zittuen geldittu zianak. Hau neretako eta hau neretako... como eran los amos de todo. Zoratu in zan jentia hemen. Zoratu!" (E51).

Gerra Zibilaren ostean herria bi bandotan zatitu zen, galtzaileak batzuk, irabazleak besteak. Galtzaileek mota askotako zigor eta errepresioak sufritu behar izan zi-tuzten, baina ahizpatasun-eredu asko ere garatu ziren: baserrietan kalekoak hartu zituzten zaindu eta elikatze-ko; eskolak etxeetan eman zituzten; denda, taberna eta zerbitzuetan lanean segi zuten; autoritateen umiliazioa eta boikota sufritu arren aurrera egin zuten; kartzelan zeuden kideen zaintza eta sostenguaz arduratu ziren. Finean, gudaren kaos eta indarkeriaren tartean ahalik eta modu duinenean bizitza aurrera eramateko elkarta-sun sareak ere sortu ziren.

Gerra Zibila anai-arreba arteko guda bat izan zen. Fami-lia askotan bi bandotako senideak zeuden, eta horrekin bizitzera ohitu behar izan zuten. Galtzaile atera zirenak frankisten bandoko senideak izateak sarri gerraren zu-rrunbiloan gudaren kalteak txikitu zizkieten. Hala nola dendako ondasunak gorde zituzten frankistek, bando bereko kideek denda arpilatu baino lehen; eta abar.

4.6. Frankismoa

Francoren tropek guda irabazita, 1939. urtean, 1889ko Kode Zibila ezarri zen berriz (Lasa, 2011: 118): Ley de Enseñanza Primaria-rekin neska eta mutikoen hezkun-tza bateratua debekatu zen eta sistema berria ezarri. Sistema berriarekin, gehienek 12 urterekin eskola uztea erraztu zen (Aiape, 2009; Bussy Genevois, 1993: 218). Arrazoi ideologiko eta moralengatik neskak Bigarren

Hezkuntzara igarotzea oztopatu zen. Bigarren Hezkun-tza (batxilerra) egin nahi zuten neskontzat errebalida lortzeko baldintza bat ezarri zen 1953an: Escuela del Hogarren ikastea.

Bestalde, emakumeek ezingo diote negozio bati ekin, senarraren baimenarekin ezpada. Kontu korrante pro-piorik ere ezin zuten izan.

Kode Penalari dagokionez, abortoa ilegalizatu zen eta ohaidetza zein adulterioa egitea zigortzen ziren. Prost-ituzioa, aldiz, legala zen (Bussy Genevois, 1993: 218). 1944 eta 1963 artean, senarrek emaztearen ohelagunak hiltzea ere baimendu zen. Gainera, 1938an onartutako lege-zko banaketak eta bigarren ezkontzak deuseztatu zituzten, eta ezkontza zibilak erlijioso bihurtu zituzten (Lasa, 2011: 118).

Azkenik, emakumezkoak 25 urte arte ez ziren adinez nagusiak eta ezkondu arte aitaren etxean bizitzera behartzen zituzten; edo moja sartzen ziren (Bussy Ge-nevois, 1993: 218).

Emakumeentzako Servicio Social delakoa ezarri zen 1937tik aurrera. 17 eta 35 urte arteko emakume guztiek egin behar zuten, sei hilabetez: gizonezkoen soldaduz-karen pareko zerbitzua litzateke. Helburua zen emaku-meei formakuntza politiko eta soziala ematea: etxeko lanetan, sukaldean, josten eta etxeko ekonomian nola aritu irakasten zitzairen. Erlijio katolikoan formakuntza ere jasotzen zuten, baita "formación de espíritu nacio-nal" delakoa ere (Lasa, 2011: 118).

Derrigorrezkoa zen zerbitzu hori, oposaketetan parte hartu, tituluak eskuratu edo funtzionario publiko izate-ko. 1945etik aurrera gidabaimena edo pasaporte ateatzeko, edo elkarte kultural, kirol elkarte edo antzekoe-tan parte hartu ahal izateko ere beharrezkoa zen.

Oñatin, Maritxu Ibarrondo zen arduraduna eta sukalde ikastaroak Teresa Letamedi Silleriak ematen zituen. Gaur egun Gaztelekua dagoen eraikineko lehen solai-ruan zegoen:

"Ni fanda nau pasaportia atarateko. 3 edo 4 egun fan nintzan servicio social ittera. Pasaportia emu-teko, has hecho el servicio social, has servido al es-tado. Obligauta!" (E1).

"Ni fanda nau, pasaportia atarateko. Lurdesera fa-teko aitta amakin, eta ez neukan, akordaitten naiz 3 edo 4 egun fan nintzan. umiak eukiko neben... gero gañera Falangeko medalla bat emuten otzuen. Fa-ten zan kozinera Teresa Sillera eta akordaitten naiz

²⁷ Horrela adieraziko dira elkarrizketatuen hitzak, kode bidez.

suffle itten ikasten egon nintzala harekin. Gero in bizeben kanastillak, 3-4 txaketatxo umientzako. Gero eurak emungo ebein jente pobriari edo... 3 hilabete edo. Pasaportia emuteko, has hecho el servicio social, has servido al estau. Obligauta” (E30).

4.6.1. Ikasketak

1960ko hamarkada arte neskek ikasketak uzten zituzten 12 urterekin, mutil eta nesken artean bereizketa eginez: “Lehen pentsaitten zan neskak ez ebeila estudi-xau bihar. Inportantzia gehixau emuten xakon mutilari” (E38-2).

Ohikoena hori zelako edo familiak hala behartuta, eskola utzi eta lanean hasten ziren: fabriketan, zerbitzari edo neskame. Hala, maila ekonomiko baxu eta ertaineko neska guztiek zuten enplegua gaztaroan.

Txokolate fabriketan, Garay edo pila-fabriketan neska asko ibili izan dira. Herriko ostatu eta taberna guztietan zituzten astebururako zerbitzariak kontratatuta, eta neskameak etxe ugaritan zeuden. Batik bat, maila ekonomiko ertain-altuko etxeetan edo familia handia zenean.

Aipatzekoa da garai hartan, asko joan zirela neskame Frantziara. Haurrak zaintzen dirua irabazteko, eta gainera, frantsesa ikasteko aukera ere bazen: “Nik bi- neben estudixaittia, enfermera edo holako zeoze. Eta aittak ezta pentsau be! Ez klaro! Ze mutilak zian los primordiales! Eta neskak ba hoixe etxian... Eta nik esan neben: nik zerbait in gurot! Ta ba Frantziara!” (E44-1).

1938 urtean Francoren erregimenak Fuero del Trabajo delakoa ezarri zuen. Bertan “estatuak ezkondu- tako emakumea tailer eta fabrikatik askatzen zituela” ezarri zen. Beraz, emakumeentzako lanuzte behartua ezarri zen: hau da, emakume ezkonduak enplegua utzi behar zuten. Desobedituz gero, familiarentzako diru-laguntzak mozten zitzaizkien (1946), argudiatuz haien zeregin nagusia ama izatea zela. Bazegoen salbuespenik, hala ere: dendari, jostun, maistra edota emaginei, besteak beste, ez zitzaien debeku hori aplikatu (Loza, Ruiz eta Tranche, 2011).

1961 arte iraun zuen debekuak. Urte horretan onartu zen “Ley sobre derechos políticos, profesionales y laborales de la mujer”, eta ezkondu- ta egon arren enpleguari eusteko baimena eman zen. Legeak baimendu arren, jendarte- an praktika hori hedatuta zegoenez, askok eta askok lana utzi zuten 1960ko hamarkadan. Hortaz, 1970eko hamarkadara arte, enplegua zuten emakume helduak ezkongabeak edo alargunak ziren; edota fami-



Emakumea errekadutan Etxaluzen mende hasieran.

liako dendan lan egiten zuten:

“Tabernara de sirvientas asko, danak soltera etor- ten zian, eta behin ezkondu- ta lana izten ebein. Hombre! Es que antes era una deshonra para el hombre, como que no podia mantener...” (E3).

“Ze ia 1960xan edo fabriketan ebitzen emakumiak be itxi in bihar izaten zittuain euran lanak ezkon- tan zianian... orduan ze aukera eukain andrak lana itteko? Edo euran lana sortu, ala bestela etxian gel- dittu! Ez dau besterik!” (E14).

“Mujeres 10 años mayor que yo ya no pudieron tra- bajar. Las que tuvieron suerte de tener comercio pues alli y sino a coser!” (E4).

Izan ere, joskintzan neska ugari zebiltzan mendearen erdialdean eta askoren irtenbidea eta ogibidea izan da orratza:

“Etxeko andrak? emakume pilla bat... ene... asko!”, “las chicas que trabajaban desde los 16 o 18 años, se casaban y salían de la fábrica, dejaban de trabajar” (E32-1).

“Gure balaunaldixak jarraitu eben lanian behin ezkondu- ta be. Baña ni akordaitten naiz koopera- tibatan ez ebein izten ezkondu- ta segitterik!” (E63)

Zerbitzari eta neskameen kasuan lege moral- a zen: zure senarra ez den beste gizon baten etxean bizitzea edo gi- zon artean lan egitea, tabernan kasu, emakume onaren moralaren kontra zihoan.

1972. urtean biztanleriaren %90k Lehen Hezkuntzako ikasketak zituen eta %10ak Bigarren Hezkuntzakoak. 1992. urtean Oñatiko emakumeen %65,4ak beren ikasketak utziak zituen, gazteenen artean erabaki propioa izan zela iritzita eta nagusien kasuan norberarenak ez diren arazoengatik. Hala, ikasketak uzteko kanpo-arrazoak arbuizatu zituzten emakumeen kopurua nabarmen igotzen da 41 urtetik gorako emakumeen artean (1992. urtean), eta hori testuinguru historikoko egitura sozialari zor zaio (Astigarraga, 1992):

“Etxeko andre izateko hezten zen emakumea eta familiarek ez zizkieten horrenbeste aukera eskaintzen alabei ikasketekin jarraitzeko. Semeari, ahal izan ezker, prestakuntza hobea eskaintzen zioten” (Astigarraga, 1992: 37).

“Las mujeres –especializadas culturalmente ahora en los dominios del afecto y la sexualidad domésticos– asumirían la estratégica tarea de mantenerlos satisfechos. Nos hallamos ante la invención del ‘ama de casa’, concreción de un código social que excluye a la mujer de los espacios públicos y la condena a permanecer atada a esa esfera doméstica de la que se la hace guardiana y mantenedora” (Delgado, 2007: 231).

Eta horrek espazio publiko eta pribatuaren arteko generoen arteko ezberdintasuna ekarri zuen, materialki zein sinbolikoki:

“Vía pública y privada quedaron divididas como dos ámbitos separados, configurando una organización social sexista que ha asignado a las mujeres el trabajo doméstico, el cuidado de los hijos y de la familia, y a los hombres el espacio de lo público, y por lo tanto, el trabajo remunerado, la política y el poder en general! (Rubiales, 2003; in Apezetxea eta Ozaita, 2014: 64).

“División simbólica que, en el plano de las prácticas sociales tanto como en el de las proyecciones mítico-rituales, remite a lo curvo, lo interior, lo húmedo, lo oculto, lo privado, lo bajo, lo trasero, lo cotidiano, etc.” (Delgado, 2007: 233).

Hala ere, emakumeak ez ziren lanik gabe gelditu. Teorian etxeokonde ziren askok errekonozitzen ez zitzaizkien enplegu bat izan dute: modu autonomoan jostuntzan aritu izan dira, jada aipatu bezala. Finean, ezkutuko enpleguak edo ordukako enpleguak izan dituzte ezkondu ondoren, familiako ekonomian aktore ekonomiko ere izanik.

Negozioak zituzten familietako emakumeak “etxean” (familia-negozioan) enplegatu izan dira eta ezkondu arren bertan jarraitu ahal izan dute: WLehen dedia emakume askondako salidia izan da. Ze fabrikak ta baeuzen, Pillak, Garay baña generalmente gizonak lan itteko. Eta dendara ba zamurrau jostunak edo peluke-ras edo holako zeoze. Algo mas femenino!” (E44-1).

Hori da dendari askoren kasua: ez dira etxeokondeak izan, baina etxetik oso gertu fisikoki zein sinbolikoki da goen negozioa langile izanda, dendariak eta etxeokondeak izan dira. Horrela, merkataritzan emakumeak oharkabe igaro dira, gizartearen eta legearen begietan.

Orduan emakume ezkondu batek bere negozioa sortzea ez zen ohikoa; ematen zitzaiona onartzea, soilik, baimentzen zitzaion. Ezkongabe eta alargunei, ordea, onartzen zitzaion jarduera ekonomiko publikoa izatea edo abaraztea.

4.6.2. Diruaren kudeaketa

Hori horrela, frankismo garaian, gazterik (14, 16 edo 18 urterekin) ikasteari uzten zioten neskek, lan egiten hasteko: “Lehen hala zan, ohittu itten zara. Danok hasi ginan lanian!” (E32-1), “neskak lanera eta dirua etxerako, por ayudar. Familixiandako laguntzia eta gero zuretzako pagia” (E32-2). Izan ere, gazterik emakumeek dirua irabazi arren, diru hori gurasoei ematen zieten eta kopuruaren atal bat besterik ez zen izaten paga, hots, norbere aisialdi edo kapritxoetan gastatzeko dirua.

Hala, ezkondu aurretik irabazitako diruaren jabe aita izaten zen, eta ezkondu ondoren enplegua uzten zuten askok, gizona zen etxera dirua ekartzen zuena. Laburbilduz, botere ekonomiko gizonaren eskutan egon da: 1992. urtean, oraindik ere, emakumeen %50ak ez zuten inolako diru-sarrerarik (Astigarraga, 1992: 25). Eta hori argi dute guztiek: “El poderío .dirua beti gizonak!” (E32-2):

“Gizonak manejaitten eben dirua. Andrak ibiltten zian diru justuakin. Oso andra gutxik erabiltten eben dirua. Osea dirua oin ebaltzen dogun moduan. Zeatik etzian egoten dibortziuak? Nora joaten zian? Bueno, alde batetik ezin zian fan dozena erdi umekin, era la que menos tenia!” (E1).

Diruaren jabetza gizonak izan arren, diruaren maneia emakumeek edo gizonak izan zezaketen. Horren gainean errealitate ezberdinak daude: egunerokoan dirua kudeatzen zuena emakumea zen batzuen iritziz: “La organización de la casa siempre la mujer. Gizonak ekarri baina... La mujer aquí ha sido muy trabajadora, fina y

ahorradora” (E32-3). Baina bistan da denetariko kasuak egon direla: “Gobernua emakumiak? Segun! Gizonak beak manejaitten eben dirua... errentia eta “ (E2).



Nekazari familia.

4.6.3. Isolamendu geografikoa

Bakardadea emakumeen bizitzan presente zegoen, gehienbat alargun eta 42-61 urteko emakume ezkonduen artean (Astigarraga, 1992: 106): 10 emakumetik 2k adierazi zuten batzuetan bakarrik sentitzen zela, gehiengoak etxekoandreak, langabetuak edo ikasleak zirelarik. Izan ere, aurretik aipatu bezala, nahiz eta etxea-espazio pribatua, familia nuklearra- gizonaren atsedenerako “emakumeak gobernatzen zuten espazio/negozio” gisa aurkeztu, errealitatean zapalkuntzarako esparru gorena izan da. Nancy Fraser-ek (1990) deskribatu bezala, familia honako hau da:

“Lugar de cálculo egocéntrico, estratégico e instrumental así como el lugar de intercambios, habitualmente exploradores, de servicios, trabajo, dinero y sexo, por no mencionar que, frecuentemente, es el lugar de coerción y violencia” (Fraser, 1990 in Delgado, 2007: 234).

Merkataritza zerbitzuetatik geroz eta urrutiago bizi dira gazteak Oñatin. Auzoetako zerbitzuak desagertu dira, beraz landa-eremuko biztanleria osoak erdigunera mugitu behar du erosketak egitera. Erdigunea, bestalde, geroz eta zabalagoa da: 1960ko hamarkadatik gaur egunera arte eraiki diren funtzio bakarreko etxebizitza poligono ugari dago. Garai horietan eraiki zirenetan sustatu zen merkataritza eta hala, oinarritzko zerbitzu

batzuk badituzte (okindegia, janari-denda, fruta-denda) XXI.mendean sortu diren etxebizitza poligonoetan, ordea, ez dago merkataritzarik. Eta bertan bizi diren gehienak gazteak dira. Hala, landa eremua zein auzo berrienak emakumeentzat espazio baztertzailagoak dira, oraindik ere, haiena baita praktikan erreproduktzio-lanen ardura (Col.lectiu Punt6, 2017).

Emakume baserritarren kasuan areagotzen zen isolamendu arriskua, baserriaren isolamendu geografikoaren ondorioz. Testigantza batek hau jasotzen du: gaztetan familiak engainatuta askoz zaharragoa zen gizon batekin ezkonarazi zuten. Ferian barazkiak saltzen hastearrekin batera berreskuratu zuen bizitza emakumeak: “Tolosan, baserri haundi baten bizi zan gizona, eta suegria be hantxe! Hasiera baten ez eben gura hara faterik... Baina gerora, 4 ume izan zittuan.Txofer be ikasi eben, berduria saltzera bajaitten zan ferixara eta tira...azkenian pozik” (E62).

Aurrerago Oñatiko urbanizazio-prozesua azalduko dugu, etxebizitza poligonoek herrian izan duten presentzia ikusarazteko, eta esandakoaren haritik, horiek emakumeen bizitzetan izan duten inpaktu negatiboa bistartzeko.

4.6.4. Emakume-eredua III: Ezkondu perfektua

“Una buena esposa siempre conoce su lugar”
(Nash, 2012: 167).

Etxeko eta etxekoen ardura amak eta alabek zuten: lanak egiteko eta senideen garapen pertsonal egokirako erantzukizuna zuen emazteak. Seme-alabak bide zuzenetik joatea, garaia iritsitakoan senar-emaztea aurki zezaten bultzatzea, senarra pozik izatea, gurasoak zaintzea eta seme-alabak mundura ekartzea, auzokideekin harremanak egitea eta familia izena garbi mantentzea, eta abar. Askok ziren garai hartako emakumeen ardurak eta gehienak ez dira ahoskatzen. Ezagunenak beti dira lan praktikoak: garbitasuna, txukuntasuna eta erreproduktzio-lanak: “Gure etxian desdeluego gizonak ez daue iñ bapez! Nere anaiak be ez daue iñ sekula ezer! Dana.. kaltzetiñak, zapatak, mudia egunero egunero ipiñitta. Nik eta amak! 4 anae eta ni giñan eta dana guk! Hombre dan-dana!” (E44-1).

Baliabide kultural berriek, komunikabideek eta moda aldizkariak femininotasun-eredu berri bat hedatzen lagundu zuten: etxekoandre-ama zoriontsuarena. Ama izatea garapen pertsonalerako bide bakartzat zuten eta emakume gisa bizitza zoriontsu bat izateko hautu nagusia (Nash, 2012: 167).



Andrés Arlanzón argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Ahizpak etxekolanetan.

Familiaren zaintza eta etxearen gobernu "misio sakratua" zen. Batetik zegoen senarra eta seme-alaben zaintza: emakumea zen seme-alaben integrazioaren eta garapen pertsonalaren arduradun nagusia. Senarrari ere bere denbora eskaini, kasu egin eta zoriontsu egiteko betebeharrak implizituak zuten. Horren adierazle da 1955ean *Housekeeping Monthly* aldizkarian argitaratu "Etxekoandre onaren gida":

"Salúdale con una sonrisa cálida y demuestra la sinceridad de tu deseo de complacerle. Escúchale. Puede ser que tengas una docena de cosas importantes para contarle, su llegada no es el momento. Déjale hablar primero- recuerda, sus temas de conversación son más importantes que los tuyos-. Haz que la tarde sea suya. Nunca te quejes si llega tarde a cenar o si se queda fuera toda la noche. [...] Pónle cómodo. Déjale reposar en un sillón cómodo o descansar en el dormitorio. Que tenga una bebida fresca o caliente lista para él. Arregla su almohada y ofrécete para quitarle los zapatos. Habla en un tono bajo, tranquilizador y agradable. No le hagas preguntas sobre sus actos y cuestiones su juicio o integridad. Recuerdate: es el jefe de familia y como

tal siempre ejerce su voluntad con justicia y veracidad. No tienes derecho a cuestionarle" (in Nash, 2012: 168).

Hala, emakumearen lana (bakarra) etxeko lanak zirela ezarri zuten Erregimen Frankistak (Nash, 2012: 49):

"La organizacion de la casa siempre la mujer! Gobernau beti andrak! Gizonak etxera ekarri baina andrak organizau!" (E32-3)

"Andrak erosten euein, andrak pentsaitten euen, etxeko ekonomia guztiak andrak eruatzen zittuain!" (E14).

Etxeko ekonomista zen emakumea eta senarraren diru-sarreraren arabera bizi-maila bat kalkulatu eta eskaintzea zen bere ardura. Frankismoko autarkia garaian (1939-1959) aurrekontu familiar estuarekin bizitza duina izatea lortu behar zuten. Garai desgarritan (1959-1975) prezioak are gehiago igo ziren eta soldadak berdintzat mantentzen ziren, beraz, aurrekontuaren kudeaketa zorrotza egin behar izan zuten: "En épocas difíciles muchas familias han salido adelante gracias a las muje-

res. En ese sentido la mujer ha sido muy inteligente! Ha sabido ahorrar y comparar!”(E33-3).

Etxeko lanei dagokienez, egiteko moduak asko aldatu dira azken 50 urtetan. Esan behar da zorua garbitzea, harrikoa egitea, sukaldatzea, arropak garbitzea, etxea txukuntzea eta abar ez zirela gaur egungo lan berdina: lan nekeza eta gogorra zen.

Zoruak, esaterako, egurrezkoak ziren, eta, eskuz eta be-launiko garbitzen ziren, ez baitzegoen fregonarik. Harri-koa ur hotzarekin egiten zen ur-berogailu sistema instalatu arte, arropak garbitzeko labaderora joan beharra zegoen, euria edo eguzkia ari, eta abar:

“A los lavaderos llevamos las sabanas, mantele-
ria, y todo en barreños a lavar!” (E3).

“Mi abuela decia que la lavadora rompía la ropa y
mi pobre madre lavando todo a mano!” (E17).

1960ko hamarkadan aurrerapen teknologikoak gertatu ziren eta emakumeen lana dezente arindu zuten, zentzu askotan: jabonatzeko lehen garbigailua sortu zen, plantxa elektrikoa eta ekonomika, lehen berogailua...

Bestalde, egunero egiten zen sukaldean: *lapikua* prestatzen zen. 1950eko hamarkadara arte, gutxienez, astero etxean ogia egiten zen. Gainera, ortua lantzen zen barazki, arto eta babak izateko.

Izan ere, maila ekonomiko baxu eta ertaineko familiek behar-beharrezkoa soilik erosten zuten dendan: “Oli-xua eta produkto sikua” (E2). Gainerako produktuak, ogia, barazkiak, fruta... etxean bertan ekoizten ziren askotan. Izan ere, familia askok autokontsumorako baratza propioa izan dute, baita erdigune historikoan ere: “Ez neukan dirurik eta dana ortuan in bihar. Ezin neben fan erostera” (E2). Baina erdiguneko lurra urbanizatzen joan diren heinean kaletarrek zituzten baratzak galtzen joan dira.

4.6.5. Sozializazioa

Emakumeen betebeharrak asko ziren; nolahi ere, lan eta ardura horien artean bilatu izan zituzten sozializatzeke, lagunekin egoteko eta plazererako tartekak. Kasu ezagunena auzolanak dira: gizon eta emakumeen topagune garrantzitsuak zirela jakin badakigu, baita zaharren eta gazteen arteko topagune ere (Etxeberria eta Elexpuru, 2014).

Aipatu bezala erlijioak ere esku hartu izan du emakumeen autonomian, XX. mende osoan zehar, baina are



Auzoko erromeria.

nabarmenago mende hasieratik frankismoaren amaierara arte. Hala, kontsigna katolikoek sustatzen zuten emakumeentzako gogoeta une bat: “por la tarde cuando una madre saca a pasear a sus hijos, puede meditar sobre su vida, y recobrar de este modo la tranquilidad perdida” (Barrau 26 in Romo, 2006: 104).

Emakume helduak elkar topatzen ziren mezetan, umezain zeudenean, josten zuten bitartean, baita erreka-duak egiten zituzten bitartean ere (Del Valle, 2004). Momentu horiek harreman informalak egiteko berebiziko garrantzia zuten.

Ikerketa honetan erosketak egitean sortzen ziren harremani erreparatuko diegu: erreka-duak egiteko etxetik irten edo baserriarren kasuan kalera jaisten ziren. Beste kasu batzuetan emakume saltzaileak etxeraino joaten zitzaizkien: arrain-saltzailea, ogi-saltzailea, eta esneduna, besteak beste:

“Ogixa etxera etorten zan, ogixa erostera bajaitten zianian todos los cuentos, claro orduan kalian itten zan. Ez euen ascensorerik bez, igo bihar zian barri-
ketan; esniakin etxeri etxe etorten zian y la lechera tambien traia cuentos. Eta arraina be kaleik kale. Hara bajaitten ziñanian emakumiak berba asko itten ebein auzokuakin! Pero a cambiau...y el ascensor a quitau mucho el hablar!” (E63).

Dendara joaterakoan dendariarekin eta gainerako bezeroekin hitz egin ohi zuten eta denbora pasatu: “con Rosarito en la trastienda nos montabamos unas...” (E17).

Denboraren kontzeptua oso bestelakoa zen mendearen azken laurdenera arte: “aisialdia” eta “denbora libre” ez ziren existitzen, ezpada aberatsentzat, eta are gutxiago emakume langileentzat. Domeka deskantsurako eguna zen fabrikako langileentzat eta hori zen akaso, aisialdiari gehien hurbiltzen zitzaion momentua.

Gaur egungo asteburu “librea”ren faltan, eguneroko betebeharren bueltan sortzen ziren tertulia eta momentu lasaia aprobetxatzen zituzten emakumeek: etxean edo etxetik hurbil topatzen zuten elkar, banku, izkina edo mostradore inguruan.

Marko teorikoan aipatu bezala, lagun-sare informaleen garrantzia gakoa da ikerketa honetan. Izan ere, mende erdira arte emakume askok ez zuten laguntasun egitura formalik. Adibidez, kuadrilla:

“Nere amak kuadrilla kuadrillia...ez. Bezeruak! Bezeruak zian bere lagunak! Eta Auzokuak!” (E14).

“Emakumiak kuadrillan baino lehen jostelekutan ero egoten zian, baina kalia gutxi. Emakumiak beti lanen baten. Lagunak be lanekuak” (E2).

Aisialdi momentu hauek oso ezberdinak dira neskatilen artean edo ezkonduen artean:

Neskatillak

Hezkuntza eta harreman-sarea lotuta egon dira, mende erditik gaur egunera arte: eskola eta institutuko kideak izango ziren gerora kuadrillakoak. Mende hasieran jaiotako emakumeen kasuan, maila ekonomikoak eta bi-



Mende hasierako neska taldea plazan.

zitokiak eragina zuen lagun-taldean. Maila ekonomiko ertain eta altuko neskatilek osatzen zuten *kolegixoko* lagunekin kuadrilla. Maila ekonomiko baxuko neskek eta baserrikoak, lagunak jostelekuan edo auzoan egiten zituzten. Neskatilatako kuadrilla desegin egiten zen ez-konduetakoan:

“No había cuadrillas de mujeres como ahora, pero no como ahora, quizás en un cumpleaños. Como la mujer no ganaba dinero pues estaba un poco más sometida en ese aspecto” (E15).

“Mientras las amigas de confianza de las mujeres difícilmente sobreviven al matrimonio, no ocurre otro tanto con los de los hombres, que suelen continuar viéndose en el mundo masculino de los bares: la cuadrilla es para toda la vida” (Cucó, 1995: 93).

Dorothy Jerrome-ren (1992) arabera, bizitzaren bi muturretan paralelismo bat gertatzen da laguntasunak duen balioari dagokionez:

“En ambas las actividades de la amistad incluyen ‘ayuda y soporte mutuo, intimidad emocional y consecución conjunta de los intereses compartidos’. Aquí, cuando el transcurso del tiempo de los individuos ven disminuidos sus otros roles- ya sea el retiro laboral, la pérdida del cónyuge o el abandono de los hijos del hogar paterno- los roles informales como la amistad asumen un significado especial” (Jerrome, 1992; in Cucó, 1992: 97).

Hori horrela izanda, helduaroan gizonek lagun-sarea berreskuratzen dute, baina halakorik sekula izan ez duten emakumeek ez dute aukera hori. Diferentzia horri buruzko ikerketa egin zuen Sara Uhl-ek Escalonan (Toledo, Espainia) eta Oñatin gauza bera gertatu zela esan daiteke:

“[Para] Los hombres de más de 65 años de edad, el retiro ha supuesto un aumento de tiempo que pasan con los amigos. En contraste las mujeres de la misma edad están bastante de acuerdo en que durante su juventud no habían tenido grupos de amigas per se y que su vida amical después del matrimonio se hallaba circunscrita por su entorno familiar y doméstico” (Cucó, 1995: 100).

Belaunaldi gazteagoen artean hezkuntzari dagokionez klase ezberdintasuna lausotu arren, genero-ezberdintasunek bere horretan zirauten, eta horren ondorioz, hezkuntza ez zen emakumeentzako lehentasun gisa ulertzen. Eskola utzi eta lanean hasi arren, lagun-talderi eutsi zioten, haien amek ez bezala:

“El modelo de amistad femenina de las que hoy son mujeres maduras entre 40 y 65 años, fue muy diferente del de la generación anterior: tenían sus propios grupos de amigas, generalmente compuestos por cuatro o cinco chicas. Estos no desaparecían al iniciarse el cortejo formal sino que derivaban en pandillas de novios y novias que entre sí eran amigos” (Cucó, 1995: 101).

Ohikoena zen igande arratsaldetan kalean lagunekin paseatzea, erromeria edo dantzaldira joatea. Kalean gora eta behera paseatzen zuten eta plazan Bandak jotzen zuenean dantzaldia izaten zen; neskek bikoteka egiten zuten dantza edo mutilek “mesedez” eskatuz gero mutilekin:

“Domekatan musikia egoten zan plazan eta 8 pieza dantza ittera. pasiaua gero kalia eta atzeabe dantza ittera. Hori gazte gaztetatik. Aitta ama danak egongo zian illaran eta gu erdixan. Eta apur bat nagusixuauak giñala gustaitten xakun mutil batekin dantza in eskero domekia konpleto! (barre)” (E12).

Auzoetan ere izaten ziren erromeriak igande arratsaldetan. Auzo batzuetakoak ospe handikoak gainera. Ekitaldi hori izaten zen sarri neska-mutikoak elkar ezagutzeko toki bakarrenetakoa. Idoia Etxeberriak eta Juan Martin Elexpuruk (2014) *Lan eta lan emakumeak Bergaran* lanean diotenez, “gizonezkoek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan egiteko, soinu-joleei ordaintzeko. Emakumeek ez” (ibidem: 234).

Gauean neskek betiere goiz erretiratzen ziren etxera gurasoen kontrola handia izaten baitzen.



Neska taldea soka-saltoan.



Mende hasieran, baserriko ezkontza ospakizuna.

Ezkontduak

Lehen aipatu den moduan, ezkontzeak aldaketa handia eragiten zuen emakumeen bizitza sozialean, batik bat 1970eko hamarkadara arte. Txikitako lagunak utzi, gurasoen etxetik alde egin edo ez, familia bat osatu eta seme-alabak izan... Etxekoandreentzat aisialdia ez zen existitzen.

Elizara joatea egiteko garrantzitsua zen gazte zein nagusientzat. Ohitura horrek mendearen azken laurdenera arte pisu handia izan zuen eta harrezkero galtzen joan da.

Mende erdiaz geroztik, domeka arratsaldea ezkongaiarekin pasatzen zuten emakumeek. Paseo bat eman edo zinemara joatea oso ohikoa zen. Zinema mutuaren garaiak igarota, zinema amerikarrak garrantzi handia izan zuen (Loza, Ruiz eta Tranche, ibidem: 34) eta oro har, maitasunezko filmek izaten zuten arrakasta handien. Etxeberria eta Elexpuruk diotenez, zinema “mundura irekitako leiho zabalena eta norberaren kezkek, beldurak eta ametsak proiektatzeko gune magikoa zen” (Etxeberria eta Elexpuru, 2014: 222).

Hainbat bikote elkartuta, kuadrilla berriak osatzen zituzten eta irteera txikiak ere egiten zituzten, batez ere mendira: Urbiara joateko ohitura handia zegoen ezkongaietan. 1970eko hamarkada inguruan, bikotearekin edo bikote-kuadrillan tabernara sartzan hasi ziren emakumeak. Lehen aldia zen gehientzat: “estudiantiak kanpora urten gebenak gu hasi giñan joaten tabernara, kuadrilliakin, nobixuakin edo. Baina ezizu pentzau



Andrés Arlanzón argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Neska taldea mendian.

txikiteuan zuen ibiltten zarein mouan e. ezta pentzau be, etzan normala " (E1).

Frankismoaren azken urteetan bazegoen Oñatin euskaltzale eta kulturzalez osatutako talde abangoardista bat: Oñatz. Emakumeak eta gizonak, ezkongai izatetik harago lagunak izateko eta aisialdia bizitzeko beste modu bat hedatu zen taldearen barruan, eta gutxina-gutxinaka hori jendartearen hedatu zen. Ez dugu talde honen ibilbidean gehiago sakonduko, baina interesgarria litzateke etorkizunean horri eustea.

Azkenik, udako oporrak zeuden. Frankismoaren amaierarekin batera iritsi zen "el nuevo mundo". Bizimodu europarrera egokitzeko saiakeran, aisialdi-eredua ere aldatu zen herrian. "El veraneo" edo udako oporretan kanpora joateko tendentzia sortu zen: "Guk ezagutu genuen el veraneo: hemengo taxista bat hartu eta Zarautzera edo Lekeitiora hamabost egun" (E21).

Hala ere, esan behar da tendentzia horren jarraitzaileak maila ekonomiko ertaina edo altua zuten familiak izan zirela. Oso bestelako uda igarotzen zuten langile-familiek eta baserritarrek.

Alargun eta ezkongabeak

Gehien ezagutarazi den alargun edo ezkongabeen bizimoduan "senarraren falta" da ardatza. Etxera dirua ekarriko zukeen inor izan ezean, emakume hauek langileak izan dira, ezinbestean, eta asko, merkatariak. Aisialdi murrizta eta etxeari edo dendari lotutako bizimodua izan dute gehienek. Ahizpa ezkonduaren seme-alaben bueltan edo gurasoen zaintzaz arduratuz igaro izan dituzte bizitzak, kontatzen digutenez. Hala, 1970eko hamarkadaz geroztik udako oporretan kanpora irteteko ohitura hasi zenean, asko Oñatin gelditzen ziren, nora edo norekin joan izan gabe:

"Nere tiak ez zuen lagunik izan; astean zehar den-da eta asteburuetan ez zuen ezer. oporrak? veraneo hasi zenean, abuztuan hamabostaldi bat egiten zuten lan, goizez lan eta arratsaldez itxi. Eta hurrengo hamabostaldian Oñatin que no quedaba ni los gatos, itxi behar izaten zuten baina orduan ez zuen ezer egiterik" (E21).



Patxi Elorza argazki funtsa-Oñatiko Udal Artxiboa

Bi neska plazako dantzaldian.

Badago, ordea, beste errealitate bat, 1980ko hamarkadatik aurrera nabarmendu zena, oro har: emakume alargun eta ezkongabeek autonomia sozial eta ekonomikoa zuten eta zaindu beharreko etxe-senar eta seme-alaba gabe, aisialdirako denbora gehiago zuten. Hori haien alde baliatu izan zuten askok eta ezkonduerai zailagoak zitzaizkienak egin izan zituzten: bidaiatu, norbere kapritxoetan dirua gastatu, beste emakume alargun edo ezkongabeekin sare estuak eraiki eta planak egin, bakarrik bizi, eta abar. Senarra ez izateak, finean, ate batzuk ireki dizkie emakume horiei:

“Ama zan etxekoa, lagunakin egoten zan asteberkaeran baina senarraren eskutik. Eta astean zehar ez ze ez zuen astirik. Baina aita hil zanian bai, de los 80 palante, izan zuen denbora librea” (E21).

“Agostuan zerrau itten geben faten ginan Maitere eta bixok, Europatik ba dana. Neri gizona hil xatenian eta beari arrebria ba Maitere eta bixok gara intimas amigas. Faten gara Soralezera eta egoten gara kartetan eta...” (E47).

4.6.6. Eguneroko errekaduak

Errekadutara irtetea errutinaren parte zen; egunero zegoen zerbait erosteko beharra. eta hala, kaletik buelta ematen zuten. Elkar agurtu, azken notizien berri izan, eta airea hartzeko momentua zen emakumeentzat:

“Eguneroko bueltatxo honek bizittasuna emuten dozt. Bi egun itxitta inddau, bai? Eta nun sartu be ez nekixen! Ni Arantxari eguneroko bisitia eindda pozik” (E62).

“Nik fruteixian neukan gertuko emakume bat, ba egunero errekaekin gora ta behera, ezta? Eta nik esaten neben nire artian “Joe honek ez daki itten astian behin errekaekin!”, eta neuk egun baten preguntua in notzan “Zelatan hola egunero... konprak ta?”, “Ah! Eske bestela etxetik urten be eneken ingo!”. Orduan pretestua zan egunero eukittia porruak... osea ez hartzeia aste danerako konprak, sino egunerako konprak ta urtetia!” (E26).

Hala izan da Angela Gliaren (2012) iritziz: kontsumoa etxetik irteteko bitarteko bat da, identitatea sortzeko bide bat izan da, aipatu kontsumismoaren fenomeno hedatzen hasi aurretik ere bai. Kontsumismoarako joera sortu zenean, publizitate agentziek emakumezkoak zituzten jopuntuan: hura zen konkistatu beharreko kolektiboa, haiek baitziren etxeko ekonomiaren arduradunak. Hala, etxerako produktuen kontsumitzaile sutsuak bilakatu nahi izan zituzten, eta hein batean, baita lortu ere (Nash, 2012: 167). Erostearen bidez identitate bat sortzeko, sare bat egiteko modua aurkitu zuten emakumeek.



Argazki zaharren bilduma - Oñatiko Udal Artxiboa

Mende hasieran, kale barriako emakumeak balkoietan.

Lukene Astigarragaren (1992) ustez, 1970eko hamarkadara arte, emakume helduen gehiengoa etxeoandreak izanik, astean zehar etxean bertan igarotzen zuten denbora gehiena: %61ak astean zeharreko denbora librea ere batez ere etxean edo paseatzen ematen zuen, eta %11k erdialdean. Asteburuetan, aldiz, %23ak etxean eta %44ak erdialdean, lagun, senar edota seme-alabekin (ibidem: 141). Aisialdian kalera bakarrik irtetea, beraz, ez zen emakumeek egiten zuten aukera. Senar edo seme-alabekin, aldiz, bai: “En muchísimos casos, la mujer casada no sale: ‘le sacan’” (Delgado, 2007: 242).

Errekaduak egiteko, aldiz, ateratzen ziren emakumeak etxetik, egin beharren barruan kokatzen baitzen jardun hura. Ordena sozialaren arabera justifikatuta zegoen ateraldia zen, eta beraz, jendartearen begietara lasai egin zezaketen zerbait izan da. Hala, goizeko lehen orduetako istant batez, dendarik denda, marrazten zuten errutinazko ibilbidea, espazio pribatuaren atea itxi eta kalera ateratze hura, bitarteko espazio zein espazio publikoaren okupazioa zen:

“El aspecto ordinario de los espacios urbanos, la manera como son usados por sus practicantes, en términos más bien femeninos, precisamente por la preponderancia allí de lo concreto, lo heterogéneo, lo cotidiano, lo sensitivo, el cuerpo. La trama urbana es percibida y vivida en tanto que universo de intersticios, grietas, ranuras, agujeros, intervalos” (Delgado, 2007: 251).

4.7. Desarrollismoa

Frankismoaren bigarren etapan (1959-1975), Estatuak harreman internazionalak normalizatu zituen, beste ekonomia batzuekin hartu-emanak hasi zituen, eta horrekin batera kulturalki irekiera bat gertatu zen. 1970eko hamarkada trantsizio aro bat izango da aldaketa-prozesu hori gertatu bitartean, eta Estatua zein herriarrak, poliki-poliki prestatu egingo dira emakumeen funtzioaren errekonozimendu sozial handiago baterako: “urrezko” 1960ko hamarkadan jazoko da hori (Lasa, 2011).

Erregimen politiko zaharkitu bat eraldatu nahian, 1959an abiatuko da “garapenerako bide japonesa” deritzana. A. de Miguelek honela deskribatu du: “industrialización con feudalismo, ciencia con jerarquías tradicionales, potencia económica con paternalismo social”. Garapena, Ongizatea eta Zoriontasuna izango dira aro berri horren aldarriak, baina praktikan bi ereduaren arteko nahasketa bat gertatuko da: balio tradizionalak eta

sekularizazioa uztartzen hasiko dira, kontsumo-gizartea, materialismoa eta produkzio eta erreproduzioaren razionalizazioak bat egingo dute katolizismoaren mandamentuekin. Eredu femeninoaren aldaketa estetikoak izan zen, izan ere, erabakigarria zen guztiak berdin jarraitu zuten (Romo Parra, 2006: 97-98).

Emakumea eta lanaren inguruko eztabaida, aldiz, industrializazioarekin batera azaleratu zen: lana zen etxetik kanpo egiten zena. “Zaindu eta lan egin, egin ahal ditzake emakumeak biak batera?” galdera egiten hasi zen jendartearen. Baina errealitatean ordurako ohikoa zen emakumeak etxe barruan zein kanpoan lan egitea. Ez, ordea, enplegu bat izatea.

Hori horrela, eztabaidaren planteamendua oinarrian faltsua zen: emakumeen bizitzak ez ziren “etxetik kanpora” leku aldatu, toki batetik bestera baizik (Loza, Ruiz eta Tranche, 2011: 29).

Alabaina, industrializazio-prozesu guztiek ekarri zuten etxea eta lanlekua bereiztea, gizon zein emakumeentzat. Eskulanaren merkantilizazioak kontzeptu berria sortu zuen: ez bada soldatarik ez da lanik (Loza; Torrado; Tranche, 2011: 29).

Lantoki handien agerpenarekin, emakume eta gizonen rola birdefinitu eta zurrundu ziren: asimetriko bihurtu ziren eta hori espazioan islatu zen. Lantokiak maskulinoak ziren eta etxea, berriz, femeninoa (ibidem: 31).

4.7.1. Emakume-eredua IV: Hiritarra

Poliki-poliki beste emakume eredu bat azaleratu zen 1970eko hamarkadako Euskal Herrian: eskubidedun hiritar sentitzen hasiko dira emakumeak eta espazio publiko eta pribatuak eraldatuko dituzte (Romo, 2006: 94). Espainiako Estatuan Demokraziaren eraikuntzan ematen ari ziren pausoen bide beretik, emakumeek haien askapen-bidea erdietsi zuten.

Emakumeei libre izateko nahia eta kulturalki jantzeko zein pertsonalki hazteko hauspoa eman zien lan-merkatuan jarraitzeak. Jarraitu diogu, emakumeak mende osoan zehar sartu izan baitira lan-merkatuan, baina ondoren aterarazi zituzten. Bestalde, unibertsitatean eta herrigintzan parte hartzen hasiko diren emakumeek aire berria ekarriko dute herrira.

Baina, oro har, enpleguak askatasuna eman zien belaunaldi berriko emakumeei: autonomia ekonomikoa izatearekin batera, senarrarekiko zein seme-alabekiko beste toki bat hartu zuten jendartearen. Emakume autonomo hiritar gisa definituko dute euren burua 1950eko



Emakumeak denda sarreran.

hamarkada amaiera aldera jaiotako emakume belaualdi berriek (Ramon, M, 1993: 669):

“Las mujeres se han incorporado en masa al mundo laboral y lo han hecho en no pocas ocasiones asumiendo lugares de responsabilidad, lo que ha implicado una relativización de lo que hasta ahora había sido una reclusión en el hogar o sus alrededores, es decir el barrio o el conjunto residencial. Las mujeres también han podido beneficiarse masivamente de las virtudes prestigiadoras del desplazamiento, la itinerancia y el viaje” (Delgado, 2007: 237).

Bestalde, belaunaldi berdintsuko emakumeen artean ezberdintasun sozioekonomikoa nabarmen handitu zen: soldatapeko lana zutenak eta ez zutenak. Ekonomikoki independenteak eta gizonarekiko dependienteak. Hori horrela, egun 60-70 urte bitartekeko dituzten belaunaldiko emakume asko, urteak pasata damutu egin ziren enplegua utzi izanaz: “Y luego la gente, menuda pena. Decían, en menuda hora hemos dejado” (E32-

2). Izan ere, enplegua izan ala ez izatearen arteko diferentziaz ohartu ziren emakumeak: “La independencia económica vale mucho!” (E32-2).

Emakumeak enpleguratzea baldintza batekin baimendu zuten botere instituzional zein herritarrek: etxearen ardura ez alboratzea izan zen oinarritzko premisa. Hau da, emakumeentzako lanaldi bikoitza ezarri zen, eta genero-ezberdintasunaren eredu modernoari hasiera eman zitzaion.

4.7.2. Lan merkatura itzulera

1980ko hamarkadan jada ez zen ezkondu eta ezkongabeen artean ezberdintasunik egiten. Hala, emakumeek lanaldi bikoitzaren zamari aterabidea bilatu zioten: enplegua eta zaintza-lanak uztartzeko emakume langileek beste emakumeen laguntza behar izan zuten eta hala izaten jarraitzen du. Emakume nagusiek, amen amek, zaindu (izan) dituzte bilobak, edo emakume langabeek haurrak zaintzeari ekin zioten: “Gure kuadrillako gehixenak andrak hartu geben, gure edade ingurukuak. Eta eurok pozik, ze sueldotxua irabazten hasi zian... eta hori desahogo bat da” (E32-2).

Etzekoandre asko eta asko “lan txikiñetan” (E33-2) hasi ziren, hots, ordukako edo lanaldi erdiko enplegutik; hala, prestakuntza-maila baxua zuten emakumeek²⁸ kualifikazio txikiagoko lanpostuetara zuzendu beharra izan dute: jostintzan, familia-laguntzan lana (pertsone adindunen eta haurren zaintza), garbitasuna, zerbitzari eta merkataritzan (Astigarraga, 1992: 45): “Muchas se agarraron a la costura. Hubo muchos talleres donde enseñaban a coser. O de dependientas, donde Santos o Malen Letamendi ” (E32-2).

Horrek aukera berri bat eman zien emakume helduagoi. 40-50 urteren bueltako emakumeek enpleguari uko egin zioten, etxeaz arduratzeko: orain seme-alabak hazita zituzten eta enpleguari uko egiteaz damutzen ziren. Independentzia ekonomikoa behar-beharrezkoa zitzaien, seme-alaben unibertsitate gastuei aurre egiteko edo gorakadan zetorren aisialdi-eredu kontsumistan parte hartu nahi bazuten. Hala, etxeak garbitzeari eta haurrak zaintzeari ekin zioten.

Azpitarragarria da, gainera, seme-alabak hazi arren, emakume horiek ez zutela “ama rola” utzi: arduratzen ziren seme-alaben ikasketek, lanbideez, garai hartako egoera politikoaz, drogaren hedapenez, langabeziak... (Del Valle, 2001: 117).

²⁸ Nagusien kasuan familiak ikasketak uztera behartu zituztelako eta gazteen artean erabaki propioz (Astigarraga, 1992).

Merkataritzaren feminizazioa

1965. urtean hirugarren sektorean enplegatu gehien zituen herria zen Oñati, eskualde mailan, Bergarekin batera. 1972an hala izaten jarraitzen zuen. SIADECOren arabera, bi herri horien tradizio eta historiarekin bat dator zerbitzu-sektore garrantzitsua izatea (gorte karlisten egoitza, zentro kulturalaren izaera unibertsitatearen bidez). Sektore horretan kokatzen dira merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalak, zerbitzu ofizialak, irakaskuntza eta erlijioa. Lehen hiru alorrak feminizatuak izan dira eta azken hirurak maskulinizatuak (fraile eta agustino kopuru altuarekin).

1975. urtean emakumeen %60ak industriean lan egiten zuen, eta %40ak zerbitzuetan. Gizonek, aldiz, % 80ak industriean, %15ak zerbitzuetan eta %5ak nekazaritza eta abeltzaintzan. Alabaina, zerbitzuetako langileen %48a gizonezkoa zen, eta %52 emakumezkoa. Zentro erlijiosoen tamainak eragiten du estatistika horretan, gizonen alde. 1980an sektoreko langileen %72a ziren merkataria, eta emakumezko langileak %60a ziren, eskualde mailako portzentaje altuena.

Hirugarren sektorean 1960ko hamarkadatik 1980ko hamarkadara arte hazkunde etengabea jazo zen, SIADECOren azterketa soziokonomikoan jasotzen denez (1982)²⁹: 1979. urtean langileen %20,6a enplegatuta egotetik, 1986an %30,4a egotera igaro zen. Merkataritzan, ordea, hazkundera 1970eko hamarkadan apaldu zen: 1960ko hamarkadan 119 langile zeuden, 1973an 211 eta 1979an 201. Baina ostalaritza, zerbitzu pertsonal eta bankutan hazkundera progresiboa izan zen. Hala, 1986. urtean, besteak beste, honako denda hauek zeuden Oñatin: 63 janari, edari eta tabako denda; 33 jantzigintza, oinetakoak eta larru-denda; 15 altzari eta etxerako tresna-denda; 9 drogeria, perfumeria eta botika; eta abar (Ramirez de Okariz, 1994: 68).

Laburbilduz, 1980ko hamarkadan industria eta komertzioaren arteko genero-arrakalaz hitz egiten da: industriaren maskulinizazioaz eta komertzioaren feminizazioaz.

Kontziliazioa eta emakume merkataria

Emakume dendariak historikoki uztartu dituzte etxe-koen zaintza-lanak eta dendako lana. Hori izan da, finen, dendan aritzeko baldintzetako bat 1980ko hamarkadara arte.

Ordura arte merkataria gehienek etxea gertu izan dute; gainera, familia-eredu hedatua izan da, eta ama, izeba edo koinata laguntzeko prest izan dituzte, eta haurrak adin batetik aurrera jolas librean aritzen ziren. Hori horrela, bi lanaldien uztarketa posible zen, zailtasun eta esfortzuak alboratu gabe.

1970-1980ko hamarkadaz geroztik eredu sozioekonomikoa aldatzen da eta kontziliaziorako beste eredu bat sortuko da, fabriketako emakumeena: industriean lanean haurdunaldi- eta amatasun-bajak izango dituzte, eta ondoren, irabazitako soldatarekin, haurrak hezteko emakume bati ordaindu ahal izango diote. Merkataria, aldiz, autonomoak dira eta ez dituzte eskubide horiek izango. Lan egin gabe ez dago kobratzerik, eta gainera, autonomo-tasa ordaindu behar da. Honezkerok etxea eta denda ez daude ezinbestean gertu eta soldata ez da lantegian bezain altua beste emakume bati ordaintzeko. Hala, haurdun eta lanean egon izan dira merkataria, haurra izan eta bost egunera mostradore atzean, zaintzaileak haurra ekarritakoan atzeko partean titia ematen, eta gainera, dirua irabazi gabe:

“Nik bi haurdunaldixakin... azkeneko egunerarte lanian!” (E43-1).

“Nere aitta jubilaue zanian, hau ia jaixoa zan orduantxe eta hiru ume, eta neska bat etxian ipini bihar neben eta beste mutil bat bihar neben ee (dendan). Osea, beste batendako lana in bihar neben. Orduan erretirau in nintzan” (E40-1).

“Neri zaintzaliak ekarten nontan umia dendara titixa emuteko. Ta baten bat sartu ta han itxi bihar umia negarrez, atendittek!” (E38-2).

4.7.3. Hezkuntza

Erregimen frankistaren azken urteetan hezkuntza-politikak aldatu ziren, analfabetismo-tasa jaitsi zen, eta unibertsitatean emakumeen presentzia pixkanaka areagotuz joan zen (Apezetxea eta Ozaita, 2014: 94).

1970eko hamarkadan gazteak zirenak, 14 urtetik harago ikasten zuten. 1975. urtean gizon eta emakumeek Bigarren Hezkuntzako ikasketak egiten dituzte, paretsu (SIADECO, 1980). Modako ikasketa izan zen orduan kontabilitatea eta administrazioa: ordura arte erabat maskulinoak izandako enpresa-bulegoak, industrializazioaren gorakadarekin batera, emakumez betetzen hasi ziren. 1957tik, Bachillerato Laboral Femenino sortzearekin batera, nesken ibilbide profesional bat onartu zen: idazkari eta kontulari langilea.

²⁹ *Perspectivas derivadas* txostena SIADECO aholkularitzak egin zuen Oñatiko Udalarentzat 1975. 1982an txostenaren berrikuspena egin zen.

Industriaren behar bati erantzuteko justifikazioarekin eman zitzaizen emakume gazteei, beraz, ikasketa “batzuk” ikasteko zilegitasuna. Oñatin bertan eskaintzen zen formazioa izanik, bide errazena zen askorentzat idazkari eta kontulariarena.

Izan ere, ikasketa guztiak ez zeuden berdin ikusiak. Emakumeak unibertsitatera joatea ez zen ohikoa, are gutxiago Hego Euskal Herrian, unibertsitate publikorik ez zegoela: “Nere ahizpia Valladolidera fan zan unibersidadera. Zeatik hemen orduan como provincias traidoras, unibertsitate publikorik ez euen. Francok kendu in zittuan eta fan bihar zan a Universidades privadas pagando un monton” (E40-1).

4.7.4. Migrazioa

Emakumeen migrazioa etengabea izan da historian zehar. 1940 eta 1950eko hamarkadetako eskasiak landa-eremua astindu zuen eta hirietaranazko exodoa gertatu zen Espainiako Estatu osoan (Ramon, M, 1993: 665). Ondorengo hamarkadetan exodo hori areagotu egin zen, eta emakumeak, bakarrik edo senarrarekin iritsi ziren. Gehienak gazteak ziren eta Oñatiko kasuan fabriketan lan egiten hasi ziren (Ramon, M, 1993: 666): “mis padres vivieron en un principio en triana. Y solía decir mi padre, para que veas la diferencia, que comían en una caja de jabón lagarto, porque no tenían mesa” (E36-3).

Oñati, 1950. urtean 7.225 biztanleko herria izanik, hurrengo urteetan hazkunde demografiko azpimarragarria jazo zen, eta hazkunde esanguratsua 1960 eta 1965 urteen artean, eta 1970.enean jazo ziren. Urte horietan Oñati aurreko 50 urteetan baino gehiago hazi zen, eta badirudi igoera horren arrazoia kooperatiben ezarpena izan zela, nahiz eta igoera Deba Garaiko beste herrietakoa baino apalagoa izan: “hona poliki-poliki etorri zian. Ez Legazpi eta Mondrauera mouan... hara autobuskarak allegau zian. Imagináu, hemen Garaiñekuak neska bila fan bihar izan zian Macoterara (Salamanca), faltia euelako” (E32-3).

Industrializazioak bultzaturiko etorkin “uholdea” (1960-1975) Oñatiren kasuan “olatu” bat izan zen, eta besteak beste, Euskal Herriko beste lurraldeetatik zein Espainiako Estatuko Gaztela eta Leon, Extremadura eta Galiziatik etorritako pertsonak eragindakoa izan zen, 1982. urtean, 10.884 biztanleko herria izatera iristeraino (Ramirez de Okariz, 1994: 34). Kopuruz gizon gehiago etorri zen, baina aldea ez zen nabarmena izan (SIADECO, 1980). Hala ere, emakume migrarien errealitatera hurbilduta, Begoña Gorosperen (2006) arabera, migrazioak ikuspegi androzentristatik aztertu dira “emakumeen

migrazio prozesuak, orain arte gizonezkoen immigrazio prozesuen laguntzaile gisa, bere familiaren baitan uler-tuz; eta ez beren interes propiodun pertsona gisa” (Gorospa, 2006 in Apezetxea eta Ozaita, 2014: 112). Hala, deigarria da Oñatira “lehenengo iritsi zirenen” izenak gogoratzean elkarrizketatuek emakume izenak nabarmendu izana: “Isidra Palacin, Josefina Martin... horretxek izan zihan lehenenguak eta harein ostian etorri zian familixakuak eta ezagunak” (E32-3).

Espainiako Estatutik etorritako emakumeen kopurua herriko emakumeen %13a zen, eta gehienek 31 urtetik 60 urte bitarteko adina zuten (Astigarraga, 1992). Bestalde, %14,6a ziren Gipuzkoako beste herri batzuetatik Oñatira etorritakoak, eta horietako gehienak aipatutako urtean 36-50 urte zituzten. Bada, emakume horien adina dela eta, suposa daiteke gehienak ezkontuta zeudela, izan ere, 1986. urtean 26 eta 30 urte bitarteko emakumeen %76,8 ezkontuta zegoen. Tendentzia hori 26 urte bete ondoren hasten zen emakumeen artean eta 31 urte betez geroztik nabarmen hazten zen. Alabaina, ezkontzeko adina 6 urteren buruan asko igo zen, 1992. urtean 26 eta 30 urte arteko emakumeen %40 soilik baitzegoen ezkontuta (ibidem: 19-20).

Herritarrak harremantzeko eta saretzeko balio izan du kaleak: gizonen kasuan mende hasieratik, eta 1970eko hamarkadatik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, baita emakumeentzat ere. Komertzio txikia, klase baxu eta ertaineko emakumeen babes-sarearen parte izan da, bizitzako zailtasun pertsonal, ekonomiko eta abarrei aurre egiteko garaian laguntza eskatzeko tokia izan baita. Izan ere, klase ekonomikoak eragin zuzena du aliatuak bilatze horretan, Graham Allan-en (1989) ustetan, “klase ertaineko egiturazko baldintzek lagunak egiteko beharra sortzen die” (1989: 18). Komertzio txikia, aldiz, bereziki emakumeen territorio babestua izan da, orain dela bi hamarkadetatik hona gizonezkoak bezero gisa poliki-poliki berau okupatzen hasi diren arte.

4.7.5. Urbanizazioa

Aurrerago aipatu dugunez, gune monofuntzionalak, hots, industrialdeak eta etxebizitza poligonoak emakumezkoentzat ez dira gizonezkoentzat bezain seguruak. Are gehiago, lanaldi bikoitzagatik egunero distantzia luzeak egin beharra, emakumeentzat lan-karga handia da. Loleku huts diren etxebizitza poligonoak hori sustatzen dute, eta merkataritzak, aldiz, bizitza erraztu.

1950-1980. urteen artean 2.080 etxebizitza eraiki ziren (Ramirez de Okariz, 1994: 74). Aipa ditzagun banan-banan eraikitako gune berriak eta gogoeta egin dezagun horien eraginaren inguruan.



Oñatiko erdigunearen hazkunde-prozesua. Eneko Soto (2014)

1950eko hamarkadan hasi ziren erdigunearen periferian industrialdeak handitzen: ordukoak dira Otadui zuhaitziaren ezkerretatik Kasablanka auzo arteko industrialdea eta Berezaoko poligonoa. 1960ko hamarkadan erdigunetik hurbil bizitoki berriak eraikitzeari ekin zitzaion: Roke Azkune auzoa, Euskadi-etorbidea eta Kurtzebidetako pisuak, Etxaluzeko etxea berriztu eta atzean eraikitako auzogune berria (Martzelino Zelaia eta Lazarraga kalearen artean), Olakua auzoa eta Errekaldereen hasiera.

1970eko hamarkada hazkunde ekonomikoko garaia zen eta aurreko hamarkadari jarraiki, Errekalde auzoa eraikitzen amaitu zen, eta San Lorentzo auzoa eraikitzen hasi ziren. Bi kasuetan, lehendik existitzen ziren baserriek (San Lorentzo ermitaren inguruan eta tunel parean, eta Moiuua kalean barrena) obraren azken fase-ra arte iraun zuten, baina azkenean horiek ere desagerrarazi ziren.

Garai hartako aurreikuspenak zein ziren jakiteko, SIADECOK egindako azterketa sozioekonomikoari erre-

paratu diogu: hazkunde ekonomikoaren aparretan zegoen Oñati, lehen sektore urriarekin (%5,3) eta hirugarrena oparo (%38), baina are industria indartsuagoarekin (%60). Oñatik 10.729 biztanle zituen 1975ean eta *Perspectivas futuras* txostenean 1987rako aurreikuspena egin zuten: 17.270 biztanle izango zituen Oñatik. Bistan da aurreikuspen horiek ez zirela bete, 2018an, 11.000 biztanle inguru baititu.

1980ko hamarkadan gazte langabeziak gogor jo zuen Oñati. Zubillagako etxe zaharrak bota eta horien tokian lantegiak egin ziren. Suhiltzaileen parkea ere eraiki zen eta Belatxarako gasolindegia ere ordukoa da. Hezkuntza-zerbitzuak ere garai hartan berri ziren: Herri Eskola sortu zen eta Txantxiku Ikastola San Juan kaleko mojen komentura igaro zen.

Merkatu zaharra itxi eta berria egiteko obrak hasi ziren hamarkadako azken urteetan. Oro har, arrabaletan (San Juan kale, Triana, Zubibarri, Mendiko kale) etxeen berrikuntza-lanak eta bideak egokitzeko lanak egin ziren.

1990eko hamarkadan autoen presentzia handitzen joan zen eta bideak egokitu egin behar izan ziren. Portu kale ingurua berritu zen eta oinezkoentzat ez ezik autoentzat egokitu zen. Gineena eta Elorza etxeak mantenduz, Garai fabrika handitu zen. Orbeeneko etxea berritu eta Antixena parkea jendeari zabaldu zitzaion. Uribarri eta Arantzazun ostalaritzaren aldeko apustua berretsi zuten, eta jatetxe berriak sortzeaz gain, aparkalekuak egokitzeko lanak egin ziren. Hamarkada hartan auzogune berri bat egin zen: Bidebarrieta. Erdiguneko paisaia erabat aldatu zuen obra hark, eta trianatik plazarako bidexka eta inguruetakoa ortuak desagertu ziren.

XXI. mende hasieran Motxon kaleko etxeak eraiki ziren eta barianterako bi sarrera berri egin: San Juan auzotik eta Herreratik. Bidebarrietarekin amaitzearekin batera Auzabarri eraikitzeari ekin zitzaion eta aurrerago Ugalkalde, Kale Goierna eta San Martingo etxe berriak etorri ziren. Azken lan aipagarrienak izan dira Ulmaren bi kokagune berriak, MUren fakultate berria Ibarren eta Kasablankako etxe berriak.

Laburbilduz, mende erditik hona, Oñatik ez dio hazteari utzi. Egokitu da garraioberri berrietara, industriaren eskakizunetara eta etxe beharretara. Ibilbide horretan merkataritza estankatuta gelditu da eta azken urteetan behera egin du supermerkatuen irekiera erraztu baita. Hala, zerbitzuek okupatu dituzte auzo berrietako bebarruak edo hutsik daude, auzoak lo leku huts bihurtzeraino. Bukatzeko, erdiguneko berdeguneak desagerrarazi direla aipatu behar da, eta auzoetatik erdigunera jaitsi dela jendea. Horrek, auzoetan denda, taberna eta zerbitzuak gutxiagotu ditu, nabarmen.

4.7.6. Edertasuna

Bi emakume-ereduren arteko trantsizioak sekula ez dira errazak izan: ama-alaben arteko talkak izan ziren, ezin ulertuak. II. Errepublikan hazitakoek, Diktaduran hezi izan zituzten haien seme-alabak. Haiek izandako hezkuntza-ereduarekin zerikusirik ez zuen eredu batean hezi zituzten, beraz, belaunaldi berriak. Errepresioa Estatutik zetorren kasu hartan, gogor, eta baita herritar kontserbadoreen aldetik. Frankismoan hezitako emakumeentzat, era berean, zaila izan zen ikustea haien alabak frankismoaren azken urteetan eredu berri baten alde egiten zutela.

Erroan egon den barne-erabatia izan da ondorengoa: gure burua zaindu edo besteak zaindu? 1920ko hamarkadan zein Errepublikan azaleratutako modak eta hautsitako hainbat eskema, frankismoak lurperatu zituen. Eliza eta Sección Femeninaren instrukziopean eta errepresio sexualean hazitako emakumeek ikasi zituz-

ten 10 mandamentuak: birijintasuna eta apaltasunaren balioak. Emakumeen sexualitatearekiko mespretxua ikasarazi zitzaion, baita hilerokoa edo haurdunaldia ezkutatu beharreko gorputz-prozesuak direla ere.

Baina diktaduraren bigarren fase batean, 1960ko hamarkadan, garrantzia berreskuratuko du emakumeen edertasunak, gorputzaren zaintzak eta lirain egoteak. Oraingoan, senarrarentzat egin beharreko esfortzu gisa ulertuko da: sukaldatu, garbitu, zaindu eta lirain egon. Salduko den ereduak da etxeko teknologiarekin pozik bizi den emakumea, dinamikoa, moderno eta trebea. Hortzetako eskuilak, makilajea, lurrinak, koloretako soinekoak, gona laburragoak eta kolorea, kolore asko azalduko dira. "Para lucir hay que sufrir!" esaerak oso ondo adierazten du garai hartan emakumeen edertasuna ulertzeko modua.

1970eko hamarkadako gazteak erakartzen dituen, aldiz, prakak, tabakoa eta tabernak izango dira: sozializazio mistoak bi generoak hurbildu zituela dirudi. Baina, emakume lirainaren ereduak nagusi izaten jarraitu zuen: horren adibide da ileapaindegi eta estetika zentroen gorakada. Era berean emakume zein gizon gazteak kirola egiten hasi ziren: mendizaletasun handia sortu zen.

Frankismoaren kontrako oposizioak, 1960 eta 1964. urte bitarteko krisi ekonomikoak eragindako migrazio-uholdeak, atzerriko turismoak, euskalgintzaren berpizteak...aire berrituak ekarri zituzten herrira. Kontzientzia soziala piztu zen eta horren eskutik feminismo hitzak eztanda egin zuen (Bussy Genevois, 1993: 220).

Mugimendu feministen lehen aldarrikapenak izan ziren: eskubide erreproduktiboak, emakumeekiko legedia diskriminatzailea deuseztatzea, abortoaren eta dibortzioaren legeztatzea, emakumezkoen sexualitatearen zilegitasuna, jaiotze-tasaren kontrola eta horretarako planifikazio-zentroak zabaltzea, emakumeen aurkako indarkeria salatzea, etxeko lanen errekonozimendua eta "sus labores" izendapena deuseztatzea, besteak beste.

4.8. Trantsizioa (1975-1982)

1975ean Francisco Franco hil eta 1978. urtera arte Trantsizio izendapenarekin ezagutzen den aro politikoa garatu zen Espainiako Estatuan. Esperantza eta ilusio handiko garaiak izan ziren, baita aldarrikapen euskaltzale eta feminista handikoak ere.

1978an Konstituzio demokratikoa ezarri zen eta urte berean deuseztatu ziren hainbat lege diskriminatzaile, besteak beste, adulterioa eta antisorgailuen aurkakoa (Nash, 2012: 217). Irakaskuntza mistoa berrezarri zen urte berean, eta oro har, haurtzaindegi eta planifikazio-zentroak zabaltzeari ekin zitzaion.

Oñatin, 1975ean ez zegoen haurtzaindegirik, eta SIADECOK egindako azterketa sozioekonomikoan ez zuten baten beharraren alde egin: “con ello no entramos en la discusión de la conveniencia de la necesidad de creación de guarderías para permitir una progresiva incorporación de la mujer al trabajo (...) las opiniones de los psicólogos, pedagogos, etc. son muy divergentes a este respecto (...)”. Horrekin garbi uzten da garai hartan ez zegoela normalizatuta zaintza-lanak soldatapean egitea. Are gehiago, osasungintzako gizon profesionali ematen zitzairen horren inguruan iritzia emateko zilegitasuna, eta aldi berean, lanaldi bikoitzaren kargari aurre egin behar izan ziotela emakumeek, babesik jaso gabe.

4.9. Emakume-eredua V: ardura hirukoitza

Lanaldi bikoitza jasangarria ez dela, kontziliaziorako neurriak behar direla, gizonen erantzunkidetasuna gako dela eta abar aipatzen diren garaiotan, kalera atera besterik ez dago egoeraren erradiografia egiteko:

“Los itinerarios femeninos suelen ser preferentemente los mismos que antes: ir de compras, llevar o recoger a sus hijos a la escuela, etc. El mercado, la tienda, el jardín infantil o las puertas de los colegios siguen siendo esferas espaciales casi específicamente femeninas y puntos a partir de los cuales la inmensa mayoría de mujeres organizan cognitivamente el resto de la morfología urbana. Todo ello no es sino resultado de que las tareas propias del ‘ama de casa’ son todavía ejercidas abrumadoramente por las mujeres, aunque deban éstas distribuir su tiempo disponible con las obligaciones de un puesto de trabajo y con la atención a los planos del ocio y la cultura en que redimirse de tareas domésticas que el entorno sociocultural –y ése sí que es un factor nuevo– tiende a menospreciar cada vez más” (Delgado, 2007: 238).

Emakumeei ez zaie ezkon daitezen eskatzen; sustatzen da, ordea, bikotekide heterosexuala bilatzea. Aisialdi propioa eta bizitza kulturala izatea baimentzen zaie, are gehiago, esfera publikoan parte hartzea sustatzen da. Alabaina, kontziliazioaren aldeko neurri efektiboak

urriak dira, eta jendarteko ideologia oraindik ere patriarkala da. Horren ondorioz, emakumeengan jarritako exigentziek gora egin dute XXI. mendean: arlo profesionalen maila ona izan behar dute eta kompetentziaren merkatuan lehiatu, 30 urteak igarota ama izateko grina izatea saritzen da, eta era berean, etxearen funtzionamendu egoki baten aldeko ardura hartu behar du, eta beharra balego baita bikotekidearena ere. Azkenik, pedagogia-lan handi baten emaitza da ondo ikusiak daudela emakume ekintzaileak: kirolariak, emakume kulturalki jantziak eta kulturzaleak, herriko partaidetza foroetan aktiboak, solidarioak, haur eta adinekoekin lagunkoiak eta emakumeen eskubideen alde daudenak. Finean, emakume eredu europarrak izan behar du profesionala, ama eta inguruarekin arduratsua. Errealitate-ra eramanda ez da antzetzen batere paper erraza.

II. ATALA:

KOMERTZIO TXIKIAREN ETNOGRAFIA

5.1. Sorrerak

Atal honetan komertzio txikian negozioa ipintzeko edo negoziotan aritzeko arrazoiei erreparatuko diegu. Emakume saltzaileen motibazio pertsonal eta kolektiboak azalduko ditugu, ezberdinak direnak testuinguru historikoaren arabera.

Oro har, dendak senar-emazteek ipini izan dituzte. Nolanahi ere, merkataritza azpisektorearen arabera ekin-tzailea bata edo bestea izan da. Oñati mende hasieran bailarako gune komertziala zela kontuan izanda, jakin badakigu, dendariak Oñatin jaioak edo inguruetatik etorritakoak zirela: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaitik bizitza hobe baten bila etorritako hainbat senar-emaztek ipini zuten taberna edo denda. Espainiako Estatutik etorritako migranteak ere izan dira merkatariak: ezagutu dugun lehen kasua Barkilleroarena da, 1930eko hamarkadan du sorrera: “la gente de la zona nuestra, todos se vinieron aquí de barquilleros. De la zona del Pas (Kantabria), o a aquí o a Francia” (E36-2).

Merkataritzan hasteko motibazioa ekonomikoa izan da, beti: bizirauteko ogibide baten beharretik dator denda edo taberna ipintzea, etxez etxe saltzea edo zerbitzu bat eskaintzea. Senarra zuten emakumeen kasuan, haren izenpean ezkutatu da bere jarduna. Ezkongabe eta alargunen kasuan, ordea, emakumeen izen-abizenak azaleratu dira.

Dendari alargunen kolektiboa oso zabala zen mende erdira arte: senarraren faltan emakume helduen joera zen, merkataria gisa hastera. Besteentzat josi edo zerbitzatzen zutenak asko eta asko dira, eta horiekin batera

denda ipini zutenak. Josefa Antonia de Garicano, Julia Uriarte eta Isabel Milikua aipatuko ditugu adibide gisa:

- Bigarren karlistaldian (1872-1876) Josefa Antonia de Garicanoren senarrak, Juan Candaudap-ek, ezkutatu behar izan zuen, eta Josefak hartu zuen hiru seme-alaben ardura osoa. Semeak seminarista Amerikara bidaltzeko determinazioa hartu zuen emakumeak eta gastuei aurre egiteko denda ipini zuen Urrutxuko etxearen bebarruan: *Juanitosa*, Juanitoren alarguna. 1911tik gaur egungo lekuan eza-gutzen da.
- Julia Uriarte 1940an senarrarekin eta seme-alaba txikiarekin etorri zen Elgeatik Oñatira. Gutxira senarra hil egin zen eta orduan Gasteizera errekadista hasi zen eta seme-alabak ahizparen kargu uzten zituen. Gero, ahizpa eta bien artean denda ipini zuten: Comestibles Uriarte. Terek, alabak, jarraitu zuen ondoren, 1999ra arte.
- Isabel Milikuaren aiton-amonek XX. mende hasieran gozotegia ipini zuten: bolauak eta karamelozko gozoak egiten zituzten. Haien seme-alaba ezkongabeek segi zuten ondoren, eta janari-denda ipini zuten. Isabelek “droguería perfumería” ipintzearekin amesten zuen, baina gerraondoren, senarrak ihes egin behar izan zuen eta seme-alabak aurrera ateratzeko janari-dendaren ardura hartu zuen, Ana Mari alabaren laguntzarekin. 45 urte egin zituzten, 1990era arte.

Gerra testuinguruan etxera dirua ekarriko zuketzen senarren faltan, emakumeek burujabe aurrera egin dute

familia-ekonomiarekin. Gerra Zibilaren osteko lan faltak, eskasiak eta gorrien aurkako jazarpenak ere emakumeak ipini zituen negozio-buru: gorriak zirelako ez zieten lana ematen pertsona askori, orduan, emazteek denda txikiak ipini zituzten, aurretutako diruarekin, bizimoduarekin aurrera segitzeko.

1960ko hamarkadatik aurrera irekitako negozioak ez ziren sortu izan ataka larritik irteteko, aukera ona zela ikusi zutelako baizik. Hala, komertzioaren dibertsifikazioa hasita, emakume bakoitzak zuen bizi-historia eta zaletasunaren arabera aukeratu egiten zuen zein sektoretan lan egin. Bereziki edertasun-zerbitzuak eta jantzien sektorea aukeratu izan dituzte bokazioagatik:

“Dendan hasi nintzenian gustora, ondo sentitzen nintzen, erropia ta... ama be beti joskina ta... neri tela artian egotia beti gustau izan xat!” (E35-1).

“Neri asko gustaitten xaten zainketia. «*Eta zeatik ez zara apuntaitten estetikako kurso batera?*» Estetikako kursua iñ ta ia hola doiat 28 urte!” (E26).

Mende erditik aurrera, komerzioko lana emakumeak enpleguratzeko aukera izan da. Senarraren soldataren osagarri bat irabazteko modua izan da, besteak beste, etxe bat erosteko edo seme-alaben ikasketa gastuei aurre egiteko: “Lirain ipini neben ezkondu eta gero e, neskatillak hasi zian estuixaitten, batekin etzan nahiko eta ipini neben behian” (E30).

Negozio bati ekiteko baliabide ekonomikoak ez dituzte guztiak izan. Hala, banketxeei mailegua eskatu behar izan zieten, “zorretan” egoteak estigma handia zuen garai hartan. Jakina, banketxeko zuzendariaren ezaguna edo laguna izateak erraztu egiten zuen dirua lortzea. Eta egoera askoz zailagoa izan zen kanpotik etorritakoentzat:

“Permisua eskatu eta ipini neben: pico y pala hartu eta ittoa kendu geben. Gizonak tremendako disgustua hartu eben, ze orduan prestamoric etzan eskaketan. Bizi guztirako zorretan egongo zinala pentzaitten zan eta. (...) Baina Banco Vizcayako zuzendaixa zela laguna zan, Jexux Ibarrondo, ha jabe in zanian esan noztan: *lasai, nik bakitt eta bueltan jasokotena*” (E2).

Aipagarria da merkataria familia askotan negozio bat baino gehiago izan dituztela. Hori da, esaterako, Ur-taza *Kirriñ* familiakoen kasua: mertzeria, harategia eta jatetxea izan zituzten. Edo ostalari batzuen kasuan, taberna-jatetxeaz gainera ostatua ipini zuten: “Behian restaurantia ta tabernia. Jateko ta afaltzeko ta dana.

Ta goixan pensinua. Dendia be bazan. Eta tabernia eta dendia. Frutak ta... danetik!” (E5).

Gainera, belaunaldiz belaunaldi mantendu da sarri merkataria izaera, produktua aldatu edo ez: “Bi anaiek itten ebein sillak, eta hortik dator sillero”.

5.2. Familia-negozioak

Komertzio txikiaren ezaugarri nagusietako bat da familia-negozioak izan direla. Espainiako Estatuan, 1950eko hamarkadan zeuden denden %80ean familiek lan egiten zuten (Gago, 2003: 473). Dendako lana pertsona baten enplegu individual gisa ulertu ordez, familiako kide askok parte hartzen zuten: senar-emazteak edo emakumeak soilik, eta seme-alabek zein beste senitartekoek ere.

Familia produkzio-unitate bezala ulertu da mendean zehar eta azken hamarkadetan desagertu da ikuspegi hori: senide-harremanak dituzten pertsonak, etxe berean bizi dira eta aurrekontu batekin bizi dira. Hala, denda, taberna edo zerbitzua aurrekontu horren hornitzailea da eta familia buruaren izenean dago. Hala ere, senide guztiak lan egiten dute negozioan (Gago, 2003: 16).

Familia-negozioetan, beraz, denda, taberna edo zerbitzuko ekonomia eta etxeko ekonomia estuki lotuta egon dira: merkataritza jardueratik izandako irabaziak familiarentzat dira. Mozkinak horrela banatuko dira: gehiengoa bideratzen zen jardueraren erreproduktziora, merkantzien erosketara eta zergak ordaintzera. Beste kopuru garrantzitsu bat familiako kideen behar pertsonalak asetzeko zen: elikadura eta jantzi premiatarako. Azkenik, dirua geldituz gero, hori bestelako beharretarako izan da: familiaren beharrak, erreformak, ikasketak, aisialdia... (Gago, 2003: 552).

Familia-negozioa izanda, senideek ez zuten soldata priorik jasotzen lanagatik. Familia osoak egiten zuen lan bertan eta hortik bizi zen, mende hasieratik erdira arte (Gago, 2003: 554-555).

Guraso dendariak zituzten haurrak dendan hazi eta hezi izan dira; enplegua eta zaintza-lanak uztartzeko modu bakarra izan da haurrak ere dendan egotea, jolas egitea eta lan egitea. Haur eta gazte askoren bizipenen eszenatoki izan ziren, beraz, dendak eta tabernak:

“Parafarmacia esaten xakon gauzak, hor euzen sacaleches, lavativak gomazkuak, gu umiak giña-

nian faten ginan hara ze orduan tabu zian gauza horreik, oin ez!, bueno...gu han ibiltten ginan (barrre)” (E1).

“Ni akordaitten naiz zela faten giñan hara errekauek eruatera eta emuten oskuen azeitunak! Bueno guretzat ha zan onena” (E37-2).

Jendearekin tratuan hezten ziren haurrak:

“[Txikitan] beti kolaborau itten geben dendan... Gero Nik 11 urte neukanian amari bizkarretik ope-
rau otzain (...) eta orduan geldittu nintzan 11 urte-
tik nere aittajunakin bakarrrik dendan eta orduan
hartu zan neska bat, lehenengo dependentia, ma-
dalena eguna zan gañera” (E14).

“Neri esaten doztai `chica, ¿cómo sabes tanto?’,
aber gure dendan danetik saltzen zan, danetik. Or-
duan gura barik ikasi itten zebeu, ez zebeu gura li-
bururik ikasteko, egunero bizi zebena. (...) nik beti
esaten dot, yo enciclopedia viviente” (E1).

5.2.1. **Zu lanera!**

Familiaren sostengurako oinarrizko jarduera zen den-
da, taberna edo zerbitzuan guztiek lan egiten zuten.
Neska-mutikoek eskolatik irtendakoan laguntzen zuten,
oro har, baina neskei gehiago exijitzen zitzairen:

“Neskallaak! Etorri zatezei!”, eta iasta! Ba lanera!”
(E38-1).

“Dependienterik kanpokuak? keba keba. Ho-
rreik... ezta zorotuta bez! Etxekuak zetako dia ba?
Ze lehen holakotxe pentsakerak zian.. etxeukuak
etxerako dia, lanerako! Ta gu be ba txiki txiikitatik
lanera! (...) Jolasten eon biharrian ba hantxe lan ta
lan! Sakuak bete ta bete ta bete!” (E14).

Behin 12-14 urte izanda, neska eta mutikoen artean be-
reizketa egin eta neskak eskola uztera behartzen zituz-
ten gurasoek. Alaba ondoan izateko beharra izaten zu-
ten amek, sarri, zailtasun ekonomiko, osasun-arazo edo
aitaren heriotza zela eta. Joera orokor horrek 1960ko
hamarkadara arte iraun zuen:

“Ni hasi nintzen 14 urtekin ETEOn eta handik ur-
tebetara atzeabe itxi iñ bihar izan neben zen ere
ama gaixotu zan ta orduan ia ba ni berriz fan bihar
izan nintzen dendara lanera. 15 urtekin nik hartu
neben dendian arduria” (E14).

“Orduan amak etara ozkun eskolatik eta dendara.

Amak esan ozkun: *itxi inbiozue, dendan biu*. Eta
bialketan ozkun partikularretara” (E9).

“Mi vocación frustrada ha sido peluquería...yo
soñaba toda la barra lleno de secadores, ta nere
ama: *“ez ez ez, tienes que ir a San Sebastián a
aprender el oficio y no, no hay dinero, tienes que
empezar a trabajar en casa. 14 urtekin. Ta hola hasi
nintzan tabernan. Eta esan notzan amari: jo ama,
lo que más pena me da es dejar el piano... Porque
me gustaba mucho la música...y “e? Ahí tienes 11
metros y medio de mostrador para tocar el pia-
no” esan noztan amak. Como diciendo a trabajar!
Como no había “ (E3).*

“13 urtekin hil zan nire aitta, eta orduan kolegixotik
atara nontan amak lana ittera. Me tocó trabajar!”
(E5).

5.2.2. **Lan-banaketa**

Merkataritzan lan-banaketak egiten ziren parte har-
tzen zuten senideen artean. Oso nabarmenak ziren ge-
neroaren araberako lan-bereizketak: senar-emazteek
lan egiten zuten kasuetan, emazteak bigarren mailako
papera zuen atetik kanpora; jabetza senarrarena zen.
Alabaina, emakumeek lan gehiago egiten zuten familia-
rentzat: dendako lanaz gainera etxeko lanak beregain
hartzen baitzituen, oso-osorik (Gago, 2003: 477).

Lan-banaketa ezberdina izan da azpisektorearen ara-
bera. Esanguratsua da, esaterako, harategi eta arrain-
degien kasua. Arraindegi eta harategiak senar-emaz-
teen negozioak izan ohi dira, oro har. Gizonezkoa izan
da negozio-burua eta emaztea laguntzailea, nahiz eta
kasu askotan gizonak bezainbeste lan egin. Harakin lan
konkretu batzuk (haragia zatikatzea, kasu) gizonak egin
ohi zituen, eta beraz, izena eta estatusa berak hartzen
zituen.

Zapata konpontzaileak, elektrikariak edo arotzak gizo-
nak izan dira kasu guztietan. Bakarka edo beste gizon
batekin lan egin izan zuten 1960-1970eko hamarkadara
arte; garai hartan zerbitzuari denda gehitu zioten askok,
batez ere produktuak areagotu zirelako. Dendari-lane-
tan haien emazteek jardun zuten, zereginak ondo berei-
zirik. Adibidez, Arregi elektrizitatea. Apustu hori egin ez
zutenek negozioa itxi zuten gerora eta fabrikan lanean
hasi ziren: adibidez, Kaio zapataria.

Antzerako zerbait gertatu zen jantzigileekin: sastreak
gizonak ziren eta oihalik ez zuten saltzen, josi egiten
zuten bakarrik. Oihalak ugaritu zirenean zerbitzuaz
gainera dendan oihalak saltzen hasi ziren eta orduan

emakumeen funtzioak garrantzia hartu zuen. Harrezkero jantzigileen lana gutxiagotu eta desagertu egin da eta "egindako arropak" nagusitu dira. Egindako arropak gailendu ahala sektorea feminizatu egin da.

Laguntzaileei dagokienez, lanbide maskulinoetan seemeen laguntza hobetsi izan da eta horrek erreleboan eragin zuzena izan du. "Especializazio edo lanbidearen jakintza" beharra egon den kasuetan (harakina, arotza, bizargina, elektrikaria, eta abar) ohikoa izan da behar izan denetan langile mutil bat kontratatzea: *aprendiza* edo ikasle moduan ezaguna: "guk be beti ezautu du beste mutil bat lagunketan. Pagauta ta hola baña lo eta bertan etxian gurekin. Etxekua mouan!" (E37-2).

Janari-denda, autozerbitzu eta denetariko dendetan emakumeen presentzia nabarmen altuagoa izan da. Gizonak, laguntzekotan, fabrikako lanaren ostean egiten zuten, 1970eko hamarkadaz geroztik: "mi marido trabajaba en la fábrica y me ayudaba con el mercado los sábados" (E25).

Gizon eta emakumearen lana eta enpleguaren arteko eztabaida jazo arte, hots, 1970eko hamarkadara arte, kasu gehienetan senarrek ez dute familia-negozioan inolako inplikaziorik izan: "Aittak bere lana eukan ta hara ez zan etorten ezebezetara" (E14).

Autozerbitzuetako lana ez da espezializatu izan, beraz, ez da aprendiz egon, ezta senideez gain kontratupeko langilerik ere. Kasu honetan errekaduak egiteko neska gazteak behar izaten ziren. Lan horren truke oso diru gutxi ordaintzen zitzairen nesken amei eta sarri egoera ekonomiko zaila zutenak edo aita galdu zuten neskak izaten ziren:

"Ni geratu nintzan 8 urtekin aitta barik eta 10 urtekin edo esaten noztain: *hara, zelako neskatila politta eta eruango dozu hau hara...* eta hori ezta kriada egotia... ama alargun geratu zan eta eztaipa penia emungo notsain edo... errekauak itteko esaten noztain" (E8).

Errekadista gazte izateko arrazoiak asko ziren: batzuen kasuan erdigunetik urrun bizi ziren eta egunero eskolara joan ahal izateko, kaleko etxe batean apopilo gelditzen ziren. Trukean dendan, tabernan edo zerbitzuan lan egiten zuten: "Korosokuak euki neben pasteleixan, repartuak itteko eta bittartian eskolara faten zian. Beste bat Zubillagakua be bai" (E2).

Zeharo ezberdina da Barkilleroaren kasua: denboraldi bakoitzaren hasieran Kantabriara joaten zen herriki-deei lana eskaintzera:

"Me acuerdo contado por mi abuelo, que cuando iba a empezar la temporada, iba a un pueblo de Cantabria, a Ontaneda. Iba a un bar, se ponía en la mitad del bar y decía: «*bueno, a ver, necesito tres chicos, quién quiere trabajar de tal tal mes, con tal sueldo, comida y cama gratis?*» y se traía a la gente. Y así vino el padre, y mis tíos" (E36-1).

Ostalaritzaren sektoreak ere badu berezitasuna: familia-negozioak ziren, baina jai egun edo feria egunetan izaten zen lan pilagatik lanerako etxetik kanpoko jende gehien behar izan du. Langileen atalean sakonduko dugu.

5.2.3 Erreleboak: bidea eginda

Atal honetan merkataritzan belaunaldiz belaunaldi gertatu den erreleboari erraparatuko zaio.

Mende hasierako tendentzia 1960ko hamarkadara arte luzatu zen: negozioari ekindako emakumeek alabak lotu izan dituzte zeregin horren jarraipenerako. Behartu izan dituzte alabak, denda edo tabernan segitzera, eta bide batez etxean gelditzera. Izan ere, familia-negozioa eta etxea soka beraren bi hari mutur izan dira. Hala, egun erretiratuta dauden emakume gehienak eta erretiratzear daudenak, ez ziren borondatez lanean hasi, baizik eta haien amen agindupean. Are soldata propioa izan gabe, lehen urteetan.

Etxea eta komertzioa lana uztartu izan dituzte emakumeek, eta, behar eta ahal izatekotan neskameak izan dituzte. Hala, neskame horiek, komertzioan ere inplikatuta izan dira kasu askotan: haurra eta amona zaindu edo egunaren arabera mostrodorean bezeroez arduratzen ziren.

Garai berean, merkataritzan aritzen ziren gizonak (harakinak, zapatariak, jantzigileak, eta abar) soldata propioa izatea bilatzen zuten. Hau da, lehen aipatutako gastuen mailaketa horretan, hirugarren mailako gastuetarako (aisialdirako) dirua izaten zuten gizon guztiak. Laburbilduz, kaxoitik dirua hartzeko eskubidea aitortzen zitzairen. Horregatik, denda/taberna/zerbitzuko gizon bat egon da, eta ez gehiago. Horren adibide garbia da honako hau: harakinen familian seme guztiak harakinak baziren, bakoitzak denda bat zabaldu izan du: "Anbrosiok (anai zaharragoak) eukan karnazixa bat han Arrasaten, ta gero Alfonsok (beste anai batek) zabaldu euen Elgoibarren, baña anaia ezkondu zanian aitta Oñatira etorri zan" (E37-1).

Emakumezko batzuk errelebo "behartu" horrekin konforme daude eta ez dute kargatzat bizi. Jarrera hori

1970eko hamarkadara arte gertaturiko erreleboetan nagusitzen da. Garai hartan emakume helduek etxetik kanpo publikoki lan egitea ez zen ohikoa eta emakumeen ikasketei ez zitzairen garrantzirik ematen: “Haxe in bihar nebela pentzau eta kitto. Orduan ni etxian gelditu nintzan eta ez euen etxetik fateik, bat beti etxian aitta amak zainketako eta” (E12).

Alabak etxean eta dendan gelditzera behartzeko joerak egoera zailetan ipini zituen emakume asko. Erresistentzia-maila ezberdinak agertu zituzten emakumeek eta ama guztiak ez ziren berdinak. Kasuak kasu, esan behar da, emakume gazteei bizitza gogoz kontra norabidetu zietela eta testigantza horiek gogorrek dira gogoratzen:

“20 urterekin tiak Riojako comerciante batekin hasi zuen zerbait: gertatu zuen arrioa eta ari ziren pentsatzen ezkontzean. Hor sartzen da en escena bere ama eta esan zion ez zitzaiola batere gustatzen mutila Errioxakoa izatea... española izatea. Eta atzera bota zuen ezkontza. Eta orduan tiak esan zuen: *“bueno ba nere aukera bukatu da, ni ya bizi honetan... lanera dendara”*. Guk uste dugu Errioxakoa izatea eskusa bat izan zela eta amonaren helburua tia etxean gelditzea zela” (E21).

1970eko hamarkadaz geroztik gertaturiko erreleboetan emakume bakoitzaren nahia hobeto islatu izan da: oro har, emakumeen ikasketa eta lan-eskubideak errespetatzen hasiko da jendartea. Alabaina, trantsizio horrek harrapatu zituen emakumeak kontziente dira bidegabea izan zela egin zitzaiena:

“El negocio lo empezó mi padre. Mis hermanos estudiaron y a la que no le gustaba el negocio le tocó quedarse. Yo como no estudié pues aquellos se fueron a la fábrica y alguien se tenía que quedar. A mi no me consultaron si quería, e. Toma! patí! pero a mí nunca me ha gustado” (E36-1).



Merkatari belaunaldiak.

Frankismoaren bigarren aldira arte seme-alaben artean egiten zen ezberdintasuna: mutilengan ikasteko grina pizten zen, baina neskeengan ez. Ikasketa-faltak lan ez-espezializatueta aritzera kondenatu zituen emakume horiek, eta merkataritza aukera bat zen:

“Ni hasi nintzen 14 urtekin ETEOn eta handik urtebetetera atzeabe itxi iñ bihar izan neben zen ere ama gaixotu zan. 15 urtekin nik hartu neben dendan arduria” (E14).

“Orduan amak etara ozkun eskolatik eta dendara. Amak esan ozkun: itxi inbiozu, dendan biu” (E9).

“Desde los 14 empecé a venir, cuando deje la escuela, a ayudar. Al mayor le gustaba la mecánica, el segundo pues se montó por su cuenta y yo como no tenía otra cosa y no tenía estudios, seguí yo” (E25).

Trantsizioak eta 1980ko hamarkadak ekarri zituzten ideia eta balio berriek tendentzia hori desagerrarazi zuten. Ikasketen aukera zabaldu eta lan egiteko eskubidea hedatu zen emakumeentzat. Denda jada ez zen emakumeen enpleguratzeko modu bakararra, are gehiago, Oñatin bertan industriarako joera handia zegoen. Hala ere, merkataritzak emakume belaunaldi berriarentzat aukera ona izaten jarraitzen zuen.

Negozio familiarrarekin jarraitzeko inertziaz edo sentimentalismoz, administrari-lana gustuko ez izateagatik, fabrikak kontziliaziorako aukerak eskaintzen ez zizkielako eta bestelako arrazoiak zirela medio hartu zuten zenbaitek gurasoen erreleboa: “Ni hasi nintzen en los años 80, y por decisión propia, pero también por inercia. Negoziua euen ta a tirar palante!” (E28).

Belaunaldi berriaren iritsierarekin familia-negozioren funtzionamendua problematizatuko da: etxeko eta dendako ekonomia bateratuaren adierazle zen kaxoia ez dute egokitzen joko. Haien lanaren irabaziak familia osorako izateak haien independentziarentzat muga zekarren. Eta arrazoi horregatik, emakume askok ez zuten gurasoen erreleboa hartu: “Eske nik hor eneben irabazi dirurik. Horretxeatik ni ezkondu nintzen eta fan nintzen ze ikusten neben nik han 30 urte egoten banintzen sekula ez nebela ezer ingo. Orduan ba... alde iñ bihar etxetik zerbait gura baldin bazeben eukittia zuretako” (E14).

Aitaren ofizioarekin jarraitzeko obligaziorik ez da egon gizonen artean. Industria gizonentzat aukera onena zela pentsatuta gurasoek ez dute semea jarraitzera behartu. Beraz, gizonen kasuan ikasketak gustuko ez zituztelako, ofizioa gustuko zutelako edota sentimentalismoagatik izan da. Hala ere, familiako tradizioa jarraitzei garrantzia eman zaien.

tzia emateagatik gutxi jarraitu dute, gehienek aukera profesional egokitzat zutelako edo besterik ez zutelako:

“Gu mutikuak giñenian eurok asumiuta eukain jarraitu ingo gebela karnazixiak. Hor aldaketa haundia izan zan trantsiziño garaixan: hor guk ia 15-16 urte hor ia mentalidadiak asko aldatu zian! ia entzuten zian beste mezu batzuk, kuestionaiten zian gauza gehixau. Lehen ondiok diktadura ilun horretan ez euen besterik! Eta danok isilik! Eta negozio bat martxan euela ba hori seguruaua zan. Eta gero ia ba telebista dala, musikia eta komunikabi-diak diala, protestak egon zian hor nik uste dot hasi zala gauzak gehixau aldaketan” (E37-1).

“Eurak 4 izan dia, ta bakarrik beak jarraitu dau. Ze honek itxi iñ eben ikasketak eta orduan etxera lan-nera! Ikastia etxakon gustaitten ta etxian euen lana ta egon zan momentu bat gehixau gustaitten xakola etxetik kanpora lana ittia, fabrikan edo. Ikusten eben bere lagunak ta 7-8 ordu lan iñ ta ondo. Ta bea ordu pill. Baña en los años 80 le pilló el paro que hubo ta te quedas!” (E10).

1970eko hamarkadatik mende amaierara arte erreleboaren ohitura arintzen joan da, bai gizonezkoen artean bai emakumezkoen artean. Mende amaieran, kasu askotan gurasoek ez dute nahi izan seme-alabek segitzetik. Haien bizi-proiektu propioa garatzeari. Alabaina, merkatarien seme-alabak komertzioan hezi izan dira, bizi izan dute, eta alaba batzuek tradizioarekin jarraitzeko hautua egin dute:

“Ba txikittatik gura barik ikasi itten dozu. Zapatuan hasi nintzan ordu gutxi, txikittan gustau itten xaten, kajak atara eta... Oin 5 urte hasiko nintzan serixo baina sartu-urtenak in dot, nerian be in dot lana, kanpua be egon naiz (...) nik euki dot zalantzak, nik eztoz gura euran mouan denpora libre barik: nik gurot asteburu bat libre eukittia. Baina sentimentalmente dendiak tiraketan dozt” (E38-3).

“Gurasuak be enostain gura derrigorrez sartzia, ez dakizu manixa hori de ni pelukeria naiz, zu be pelukeria izango zara. Betik esan dostai nere eleziñua zala eta ikasteko zeoze” (E43-).

Ez da kasualitatea egun tradizio familiarrarekin jarraitzen dutenak emakumezkoak izatea. Familiarekiko atxikimenduak, aiton-amonak eta gurasoen lanari jarraitzea emateak neskak erakartzen ditu, mutilak baino gehiago.



Argazki zaharren bilduma - Oñatiko Udal Artxiboa

Neskamea.

5.2.4. Emakume langileen sarea

Emakume dendariak dendako lanaz aparte etxearen ardura ere izan dute. Hala ere, lan horietarako beste emakume batzuen laguntza izan dute, kasu gehienetan senide batena: ama, ahizpa edo koinata. Haurrak zaintzeko, adibidez:

“Koñatia neukan, umiak asko lagunketan noztan ze gizona etzan sartzekua” (E2).

“Gure lagunak hartu daue andrak umiak zaintzeko. Ni por ejemplo amakin arreglau naiz” (E32-1).

Inguruko faltan, XX. mende osoan zehar, dendari eta ostalariek beste emakumeen laguntza eskatu izan dute, hori bai, soldatapean. Askotariko lanetarako eskaini izan dute euren burua emakumeek: haurrak zaintzeko, josteko, garbitzeko, lisatzeko, zoruari argizaria emateko, txerriaren tripa garbitzeko, eta abar:

“Nosotras no íbamos al río. Teníamos quien iba al río, a hacernos las ropas nuestras” (E22).

“Neskak faten zian kanpora neskame. Gurian be etxia haundixa, dendia eta hori. Neskamia geukan eta faten zan beste emakume bat lagunketara plan-txia itten eta hola” (E1).

“Eskolara faten ginan baina ebaikotzetan fallait-ten geben, txarrixa hiltten geben, bai? Akordaitten naiz zela faten ginan tripakin barreñokariakin, malatuera: han andra batek garbiketan ozkun. On-raita ondoko labadero ondora” (E53).

“Nik niñera bat hartu neben eta urte batzutan di-rua irabazi barik egon nintzan: 10 urtetan dirua mobitten, nik kobraiten nebena niñeriari emu-ten” (E10).

Lan horiek puntualak izan zitezkeen, goian aipatu beza-la, edo iraunkorrek ziren: neskame *kriada* neska gazte bat izanez gero, hura 24 orduz etxekoan zerbitzura bizi zen. Azken horiek kontratatu izan dituzte maila ekonomiko ertain eta altuko familiek. Merkatari etxeetako neskameek, gainera, beharra zegoenean dendako lane-tan ere laguntzen zuten.

Merkatari emakumeek ez zuten eszedentziarik hartzen haurrak zaintzeko. 1970eko hamarkadaz geroztik, ordea, ohikoagoa bihurtuko da, batez ere jantzi eta osagarrien sektorean: “Cuando tuve a los niños el primer año sí trabaje. Luego ya había empezado mi hermana pequeña a trabajar y mi hermano también y entonces pues nada, yo hice un *impass*” (E23).

Jantzi-dendetan errazago egin zaie dendariei enplegua utzi eta haurra hazitakoan dendara itzultzea. Gainera, ordezkoko emakumeek kasu askotan dendan lanean jarraitu dute: bi pertsona lanaldi osoan egoteko adina lan ez egon arren, bien artean eramangarriago egin zaie, esaterako, haurrak gaixotuz gero ordezkoko bat izateko aukera zuten bi langile izanda:

“Haurdun gelditu arte nik in neben. Gero haurdu-naldixa be in neben jaixo zan Olatz eta honek in noztan urtebete nere estendentzia, hasi zan jornada osuan lanian. Oin hiru urte hasi naiz jornada er-dixan. Ezpazan egun batzutan bixok egon biharra dakuna, eskaparatiak aldatzen edo generua allait-ten danian, biharra euenian faten nintzan baina bestela egunero bea egoten zan” (E35-1).

“Pertsona bat kontratatzeke orduan neri inportan-tea iruditzen zitzaidan nire semea gaixorik egon ezkeroko beari deitu eta bea joan ahal izatea” (E13).

5.2.5. Jabetza eta negozio izenak

“El nombre el marido pero aquí la que ha currau y la que ha llevau todo adelante la mujer” (E3).

Komertzioaren jabetza eta izenari buruz jardungo dugu atal honetan. Mendean zehar, 1980ko hamarkada arte, komertzioaren jabetza pertsona batena izan da: kasu gehienetan gizon familia-burua zen titularra (Gago, 2003: 174). Ezin dira ahaztu emakumeek ondasunak izateko izan dituzten debeku legalak, bai mende hasieran, bai Francoren diktadura osoan zehar.

1975ean SIADECOK egindako azterketa sozioekonomi-koak datu adierazgarriak jasotzen ditu: komertzioan zebiltzan langileen gehiengoa emakumeak dira, baina jabe gehienak gizonezkoak dira.

1980ko hamarkadaz geroztik emakume jabeen presen-tzia areagotu zen, hainbat arrazoiengatik. Batetik, le-galki emakumeei ondasunak izatea baimendu zielako Estatuak. Bestetik, orduan erreleboa hartutako alabek haien izenean ipini zituzten negozioak: familia-nego-zioa baino, ibilbide profesional pertsonal gisa ulertuko da denda, taberna edo zerbitzuko lana. Azkenik, hain-bat azpisektore feminizatutako gorakada izan zuten, hala nola ile-apaindegiak, estetika-zentroak, jantzi-dendak edo osagarri-dendak. Eta horiek emakumeen jabetza izan dira.

Izendapenei dagokionez, hainbat motako izenak izan dituzte mendean zehar Oñatiko denda, taberna eta zer-bitzuek. Izen ofizialak eta ezizenak izan dira kasu guztie-tan. Are gehiago, mende hasieran komertzio guztiek ez zuten izen ofizial bat eta izena jabearen abizenetik edo ezizenetik ipintzen zioten herritarrek.

Belaunaldiaren arabera denda edo tabernak izen ez-berdina izan zezakeen. Tradizio luzeko komertzioetan ezizenek mendean zehar iraun dute. Adibide asko dau-de: *Sillero* Olalde zapata-denda, *Juanitosa* Arregi osaga-riak, *Kaio* zapataria, *Kirriñ* Urtaza harategia eta mertze-ria, eta abar.

Aipagarria da “viuda de” kasua: emakume alargunek dendaren ardura zuten kasuan, gizonaren abizena-ri eusten zion ofizialki komertzioak. Udal erregistroan “viuda de” ipintzen zen gizonaren erreferentzialtasunari eusteko eta hala, emakumearen izen-abizenak ez ziren inon ageri.

5.3. Funtzionamendua

5.3.1. Denda barrutik

Denda gehienak familia-etxearen behealdean kokatzen ziren XX. mendean. Etxea eta denda konektatutako bi espazio izan dira eta horregatik bien arteko muga lausoa izan da. Espazio publikoa eta pribatua nahasten ziren bertan: denda publikoa zen eta etxeak pribatu izateari uzten zion bezeroen presentziarekin, askotan mostradorearen edo etxearen atea igarotzen baitzuten (Gago, 2003: 175).

Mende hasieratik egon diren janari eta jantzi-denda gehienek kaletik zuten sarrera. Hau da, denda itxura garaikidea izan dute, urte luzeetako komertzio egonkorrak izan direlako. Beste denda askoren sarrera bebarrutik izaten zen. Ohikoa zen, gainera, bebarru berean bi denda egotea; batak kalera ematen zuen eta besteak etxearen atzeko aldera edo atzeko kalera: Kale Zaharra, San Anton kale, Kale Barria eta Atezko Kalen gertatu da gehienbat. Kale batetik besterako pasadizoak ere bazeuden, Milikuako etxean, esaterako: *kikilimeo* deitzen zioten: “Galarzeneko farmaziara bebarrutik sartzen zinan eta han eguan bentanatu batetik atenditzen ebein” (E32-4).

Mostradorearen atzean almazena eta etxearen sukaldia zeuden: azken hori familiako senideak elkartzeko topagunea izan da. Bertan egin dute bizimodua:

“Guk danok bazkaldu ta afaldu tabernan itten geben. Gu etxera bakar-bakarrik faten giñan lo itteko” (E6).

“Hoixe zan gure bizimodua. Ze bertan, gure aittak ifiñi eben sukalde bat eta gela bat be bai bi literakin eta haxe zan gure bizimodu dana. (...) Eta almazen hortan iñ zana zan zatittu, almazenerako zati bat hartu eta bestian in zan sukalde bat, bi gela bo gela bat baña bi kortiña batekin e? Bi literakin” (E14).

Janari-dendatan, esaterako, produktuak almazentzeko toki gehiago behar izaten zenez, bodega ere izan ohi zuten: txoko ilun eta hotza zenez, bertan gordetzen zen olio depositua edo arrautzak mantentzeko kutxa (*huevera*). Olio behetik gora, mostradorera, igotzen zuten hodi bidez.

Merkataria testuinguru familiarrean egon izan da, eta beraz, denda irekiera ordutegitik kanpo zabaltzen zuen, eta are etxea ere. Kaleko atea itxita egon arren, denda une oro zabalik zegoen. Atezko atetik sartu edo deitzea-

rekin nahikoa zen, bereziki janari-dendetan: “Bebarrutik zabalketan geben dendia, domekantan, etxe zaharrian sukaldia behian geukan eta: Pilaaar (ohiua) edo Ave maria!” diar itten ozkuen atetik” (E12).

Dendaren espazioan espazio publikoa eta espazio pribatua bereizi behar dira: bezeroez arduratzeko tokia ziren mostradorearen inguruak. Bertan jabeak, langileak eta bezeroak elkarrekin bizi izan dira. Atzealdea edo bil-tokia, produktuak gorde edo lantzeko toki bat izan da: etxearen erabiltzen zuten eta erdi-publikoa zen, langileen konfort gunea finean (Gago, 2003: 154).

Denda ostea dendaren arabera pribatuago edo publikoago izan da. Izan ere, etxearen luzapena zen dendari-entzatzat, eta konfiantzazko bezeroak bertara sartzen ziren kasu batzuetan: eseri eta hitz egin edo kafesne bat hartzeko tokia zen. Baita dendariaren senitartekoak dendan denbora pasa zeudenean ere, bertan egon ohi ziren: “Gure etxia izan zan lagunak etorten ziana, sukaldian egoten ginan eta ederki pasaitten geben” (E12).

Adineko pertsonen kasuan, dendari ohiak izanik kasu askotan, espazio horretan gustura sentitzen ziren, eta nolabait, zahartzaroa bere ohiko gunean, dendan, igarotzeko aukera ematen zuten:

“Tia Angelesek atenditzen eben eta aittajuna han eskina baten, edo eguraldi ona itten baeben han atian, jentiarri konbersasiñua emuten” (E38).

“Gizonan aman lagunak etorten zian, Teresa Silleria eta, 8 o andra, eta barriketan itten ebein atzaldia” (E8).

Bi espazio horien gertutasunak emakume dendariak dendako lana eta etxearen lanak uztartzea ahalbidetzen du: sarri denda ostean zegoen sukaldian gertatzen zuten bazkaria, bertan bazkaltzen zuten eta seme-alabak inguruan izatea ahalbidetzen zuten:

“Familixa danak beheko sukaldian bazkaitten du, eta erropak garbittu eta plantxia, dana. Eztakit euran sukaldierik sekula ixutu dauein be...” (E2).

“Dendan egon bittarian lapikua ipintten neben sukaldian eta bazkaldu eta afaldu bertan itten geben bi familixak” (E42).

Horregatik diogu komertzio txikian emakumeak enpleguratu izan direla, emakume gisa ezarri zitzaizkien bete-behar eta roletik gehiegi urrunduz gabe egin zezaketela lana baitzen.

Bestalde, denda, taberna eta zerbitzu gehienak herriko erdigunean kokatu izan dira: *kalean*. Salbuespena izan dira janari-dendak eta tabernak. Azken horiek egunero-ko bezeroak izan dituztenez auzo historiko eta berrietan ere egon izan dira. Gainera, auzo askotan familia berak zuen taberna eta denda edo estankoa. Adibidez, Olabarrieta, Araotz eta Arantzazuko kasuak.

Hala ere, auzo berrietan, Roke Azkune, Euskadi-etorbi-dea, Errekalde, Olakua eta San Lorentzo auzoetan, sortu ahala horietan ere janari-denda bana zabaldu zen, gutxienez. San Lorentzoren kasuan, hura gune komertzial bat izateko aurreikuspena izan zuten konstruktoreek, eta hasieran etxe beheak merkataritzarako promozionatu zituzten:

“Ikusi bere garaixan San Lorentzon be zenbat zabaldu zian, denda pillatxo bat; panaderiak, una tienda de pieles, aquella de deportes, ropa de niños, zapatería, embutidos, otra de chuches y no queda casi nada! San Lorenzo empezó con mucha vida pero no duró ni 10 años” (E10).

Aurreikuspen horiek ez ziren bete eta espazio gehienak ixten joan dira. Denda hauek iraun dute: Errekaldeko denda, supermerkatuak Eroski eta BM, taberna ugari, eta hainbat osasun eta edertasun-zerbitzuek.

Merkatariaren eta dendaren arteko harremana aztertzeko garaian, esanguratsua da 1980ko hamarkadez geroztik etxea eta denda ez direla gertu egon. Kokalekua estrategikoki pentsatu izan da, komertzioaren arabera preferentzia emanez auzo berriei edo erdigune historikoari:

“Ni Salorentzon bizi arren Atzeko kalen jarri gendun denda. Atzeko kale herriko erdigunean dau ta...” (E13).

“Eta ba egixa esan esfuerzo haundixa, ze diru asko balixo eben lokal honek be baña lekuak mereziu dau! Ze hona jentia oso zamur sartzen da” (E26).

Eskaparateak

“Un escaparate vende más que un dependiente!”

Eskaparatea garrantzia irabazten joan da 1960ko hamarkadaz geroztik, bereziki jantzi-dendetan. Hori baino lehen ez zen ohikoa eskaparatea izatea, produktueta aniztasun gehiegi ez zegoelako, beraz, sorpresarako aukera gutxi. Gerraosteko eskasia pasata eta susperraldi

ekonomikoaren olatuarekin batera herrira iritsi ziren produktu berriak. Janari-denda tradizionalak autozerbitzu bihurtzen joan ziren eta berritasun hori kaletik hauteman nahi zen. Oihal-dendetako aukera, gailu elektriko berritasuna eta abar erakutsi beharra zegoen:

“Partiendo del aforismo popular ‘el que no anuncia no vende’ el escaparate se presentaba como un elemento indispensable para la venta en todo momento, pero mucho más en los años cincuenta, en un momento en que la cultura de la imagen va creciendo considerablemente y la atracción del producto llega por partida doble, la vista y el mensaje, además del precio” (Gago, 2003: 159).

Hala, denda askok obra egin eta eskaparatea ipini zuten. 1980ko hamarkadaz geroztik ireki diren denda guztiek izan dute eskaparatea:

“Guk geukan bi maniki eta gero ba asmau in bihar! Udaberrixan udabarrikua eta neguan negukua! Oso zaila zan, pa reflegar ta atraitteko jentia ta zela ipiñi! Baina oso inportantia zan ze horrek itten dotzue atrapau!” (E44-1).

“Eskaparatiak oso inportantiak zian, oso,oso! Ni gogoratzen naiz eskaparatia aldatzen nuenean ia hurrengo egunian etortzen ziala: “Ui ba ikusi dot hau ta...” (E13).

Kaxoia

Denda, taberna eta zerbitzu gehienak familia-negozioak izan dira, 1980ko hamarkadara arte. Horrek esan nahi du familia-negozioko ekonomia eta etxeko ekonomia batera joan direla eta horren isla izan da kaxoia: irabazitako dirua kaxoira zihoan eta gastu guztiak bertatik ordaintzen ziren. Dendan lan egiten zuten etxekoek ez zuten soldata finkorik, baina familia-etxean bizi zirenez bertako gastuak ordainduta zituzten. Hala, behar izaten zutenean “kaxoitik” dirua hartzen zuten: “Han ez euen iñor kobraitzen ebenik. Han danak kajatik urteten zan. Han ez euen soldatarik eta ezer. Etxekuak eta etxerako eta listo. Besterik ez! Gure amak esaten oskun “Neskallak! Dirua bihar bozue neri ez ibili eskaketan, hor dakozue kajia ta hartu!” (E14).

Hala ere, kaxoitik norberaren gastutarako dirua hartzea, familia bakoitzaren arabera hobeto edo okerrago ikusita zegoen. 1970eko hamarkadatik aurrera alabak ekonomia kudeatzeko modu hori problematizatuko dute: haien autonomia ekonomikorako muga gisa ikusten zuten.

Jabeak, hots, pertsona bakarrak eta gehienetan gizonak kotizatu izan du:

“Kotizau aittak, amak ez. Eta bea gaixotu zanian nere izenian ipini zan eta 7-8 urte kotizau neben” (E12).

“Sekula ez eben kotizau nere amak. 13 urte ibili zan eta... nik ez dakitt... lehen derrigorra ez dakitt ze puntotaraiño izango zan Ez dakitt aurreraketako dirua edo zetako... ze 64ian emakumiak kotizaitten egoten zian” (E14).

Gainera, zergak ordaintzearen ohitura ez zegoen hedatuta eta zerga horien gaineko ezjakintasun eta deskonfiantza handia zegoen. 1963an gizarte segurantzaren sortu zen eta garai berean langile autonomoen eskubide eta betebeharrak ezarri ziren. Ordura arte, funtzionamendu tradizionala gailendu zen: senide guztiek kobratu gabe lana egitea (Gago, 2003: 561). Ordutik aurrera merkataritzaren profesionalizazio-prozesu bat gertatu da eta horrekin batera, langileen lan-baldintzen eta zergen formalizazioa.

Ordutegia

Dendari guztiek azpimarratzen dute komertzioan aritzea lan polita bada ere, lan gogorra zela, dedikazio handikoa. Ordutegi komertziala oso zabala zen:

“Era mucho trabajo, yo por ejemplo si iba a las 8 de la mañana, cerraba a la 13.30 y volvíamos a abrir a las 16.00 hasta las nueve, como habían alimentos lo que se dice perecederos, por ejemplo fruta que había que tirar de un día para otro y a pagar a los bancos y demás iba yo, yo me hacía cargo de las cuentas” (E15).

Lanak bi alde zituen; bata, denda irekita zegoen bitartean bertan egon eta bezeroak artatzea, eta bigarrena, atzeko lana, kasuan kasu ezberdina: “lehen: ama, zenbat ipini xatzu horrei? hainbeste! eta...apuntaitten geben, lapitzakin eta han kobraitteko. ama mostradorian eta ni kajan” (E12).

24 orduko zerbitzua eskaintzea 1960-1970eko hamarkadan desagertu zen, salbuespenak salbuespen. Edozein ordutan tinbrea jotzea edo domeketan atzeko atetik artatzea amaitu zen, dendarien bizitza pribatuaren alde. Bi eguneko asteburuak eta denbora libre izateko ohitura hedatu zen, aisialdia zer zen ezagutu zuten emakumeek. Hala, larunbat arratsaldetan ixteko hautua egin zen 1970eko hamarkadan: “Zapatu arratsaldetan be lana itten eben dendatan Domekia bakarrik

izten zan. Zapatua lortu zanian izteia atsaldia ia izan zan guretako bueno! Bakaziñuak hartzeia latxe! Algo..buf! Inkreible!” (E14).

Aurretik aipatu bezala, domeka deskantsurako eguna zen, ofizialki, baina praktikan janari-dendak zabaltzen zituzten. Ohitura horrek 1960-1970eko hamarkada arte iraun zuen:

“Eta domekatan be zabalketan zan dendia baina atzetik, ze jentiak ez eukan frigorifikorik eta “bixar ensaladilla inbiot” eta “ba etorri”. Orduan etorten zian oilaskua edo maionesia eroatera” (E9).

“Eta domeketan... zela bertan bizi zian honeik beti baten bat ate joka! O gatza, o azukarra o loquesea! Domeka goizetan be pendiente... De la tienda! Beti etorten zan baten bat eta...” (E42).

Okindegiak kasu berezia izan dira eta izaten jarraitzen dute: astegunez janari-dendek baino goizago zabaldu izan dute. Gainera, larunbat eta jai egun goizetan ere lan egin izan dute (Gago, 2003: 328).

Bezeroari egokitutako zerbitzua ematearren, bizartegiak domeketan zabaltzen zituzten eta astelehenetan itxi. Auzoetatik meza nagusia entzutera jaisten ziren baserritarrek, bueltatxo aprobetxatzen zuten orrazkera konpondu eta bizarra mozteko. Horregatik, jai egun goiza lan eguna zen bizarginentzat. Ile-apaindegiek astelehenetan ixteko ohiturari eutsi diote mende osoan zehar, baina mende erditik aurrera domeketan lan egi-teari utzi zitzaion.

Espainiako Estatuan 1950eko hamarkada amaieran hasi ziren merkatariek ordutegia murriztu nahian: motibazio hori zetorren, batetik, merkatariek bizitza pribatua izateko desiotik, denbora libre gehiago izatearren, eta bide batez, “lana” eta “etxea” bereizten hasi zen, gutxinakagutxinaka. Horrek eragin zituen bezeroen kezak eta salmenten beherakada, baina ohitura berrietara azkar ohitu zen jendea (Gago, 2003: 326-327).

Ordutegiari dagokionez, ostalaritzak izan du ordutegi zabalena: taberna eta jatetxeak egunero zabaltzen zituzten, eta are gehiago, jai egunetan zegoen mugimendua gehien:

“Yo a mi madre le decía: yo ya sé que no somos ricos y que tengo que trabajar pero yo quiero trabajar como todos los demás, de lunes a sábado, baina domekatan plazan musikia jotzen eta ni han ta-ta... eso me dolía en el alma... porque esa edad no te venía más” (E3).

“Bai, gogorra. Todos los trabajos son duros, baina taberniak no tiene hora y perdíamos de sueño” (E53).

“Esklabua bai. Urte askuan, asteko egun danak igualak ziran, gabonetako juntaitten giñan afaitteko edo, eta se acabó. Beranduago gizona gaixoketan hasi zanian, hasi giñan egun bat ixten, eta horrek libertade pittin bat emuten ozkun” (Elizondo, Kontzejupetik 3 zbkia).

Ostalaritzari buruz ondoren sakonduko dugu.

Biajanteak

Herriko merkatariak kontaktuak izan dituzte kanpotik produktuak eskuratzeko: *biajanteak* deitu izan zaie, eta oro har, Estatu osoko gizon gazteak izaten ziren. Hala ere, emakume gutxi batzuk ere aritzen ziren zeregin horretan. Egiteko garrantzitsua zuten, produktore eta saltzailearen arteko zubi-lanak egiten baitzituzten. Merkatariarentzat informatzaile fidela zen *biajantea*, merkaturuko tendentzietan buruz jakiteko. Saltzea zen haien helburu nagusia eta horretarako *muestrak* ekartzen zituzten:

“Eta gero euen representante bat Bartzelonatik etorten zan, Inglada, maleta batzuekin, badakitzu eulixak karamelora faten dian mouan? Ba holaxe faten giñan, ekarten eben piezak terziopelo gorrian eta mostradore gañian zabaldu itten eben eta eskaketan geben hau hola eta hola eta pedidua hola hola itten geben” (E1).

Enpresa, lantegi edo biltegien ordezkariak ziren *biajanteak* eta Estatuan barrena bidaiatzen zuten, saltokiz saltoki saltzen.

Dendariekin zuten harremana estua izaten zen. Maiztasunez bisitatzen zituzten saltoki bertsuak, eta beraz, denboran harremana estutzen zen dendariekin: zer behar zuten galdetu, produktuen inguruko berrietasunak komentatu eta eskaera jasotzen zuten. Bisitak solasaldiak izaten ziren eta elkarrizketatutako dendari gehienek oroitzapen politak dituzte:

“Agustín, quien tenía un gran comercio en Kalezaharra Lasena, era un gran amante de su pueblo y solía acompañar con frecuencia a los viajeros de comercio, a los que enseñaba algunos monumentos de la villa” (Zubia, 2002: 41).

“Ostegunetan. trin-trin, Santos! zan agradablia, berba danetik: “que tal están ustedes? ha pasau esto o lo otro” (E12).

Merkatariarentzako zita garrantzitsuak izan ohi ziren feria espezializatuak: XX. mende hasieratik joan ohi ziren gizon merkatariak, zaldiz, produktu ferietara. Mende erditik aurrera joaten hasi ziren emakumeak, batez ere ehungintza eta edertasunarekin lotuta: gehinbat arropa eta kosmetika saltzaileek eta ile-apaintzaileek bidaiatu dute, eta haien artean harremanak egiteko balio izan die. Baita beste toki batzuetako merkatariak ezagutzeko ere: “Luego íbamos a cursillos de cosmética y te relacionabas con otras compañeras, intercambiabas impresiones, siempre aprendías algo de esa gente. solíamos ir a Torremolinos, de Revlon, Juvena...” (E23).

5.3.2. Jatekoak

Atal honetan jardungo dugu janari-dendei buruz: komertzio txikiko azpisektore hedatuena izan da mende amaierara arte eta produktuaren arabera denda ezberdinak izan dira, besteak beste, denetariko dendak, autozerbitzuak, harategiak, arraindegiak, okindegiak eta gozotegiak.

Alor honetan etxez etxeko salmentak ere izan du bere garrantzia: esne-saltzaileak eta arrain-saltzaileak aipagarriak dira.

Azkenik, plazako bi subjektuz jardungo dugu: barkilleroa, eta barazki- eta fruta-azoka.

Ultramarinoak eta janari-dendak

Emakume asko enplegatu ditu sektore honek, eta era berean, emakume jabe dezente egon da historian; hala ere, hainbat kasutan egon dira dendak senarraren ize-nean eta langilea emakumea izan.

Azpisektore anitza eta hedatua izan da. Janari-dendak erdigune historikoan eta auzoetan aurkitzen ziren mende hasieratik. *Ultramarinos* edo *comestibles* kategorien arteko bereizketa eginez gero, *ultramarinoak* kale nagusietan zeuden eta *comestibleak* arrabal eta auzoetan. “Ultramar”-etik inportatuta ekarritako produktuak saltzen ziren dendei zeritzen *ultramarino* eta esan daiteke janari-denden sektorean kategoria gehien zutenak zirela.

Gerraosteko udal erregistroan janari-denda gutxi ageri dira, 1960an batez ere. Jakin badakigu, 1940 eta 1950eko hamarkadako eskasiak eta arrazionamenduak denda horietan eragin zuzena izan zutela. Desjabetzeak eta arpilatzeak ere sufritu zituzten batzuek, aurrerago aipatuko den moduan. Hala, jazarpen frankistaren ondorioz, denda batzuen jarduera erregistratu gabe egon zitekeela uste dugu eta horri zor zaiola erregistroko informazio-falta.



Egaña denda.



Francisca Murua, Egaña janari dendako sortzailea.



Kontxesen denda portalekuan.



Jesus Mari Arzuaga funtsa - Oñatiko Udal Artxiboa

Fruta denda.

Auzo berriak sortu zirenean, 1970 eta 1980ko hamarkadetan, auzo bakoitzean janari-denda bat ipini zuten, gutxienez, eta are gehiago hedatu zen azpisektore hau.

Barazki eta fruta dendak mendearen azken laurdenetik aurrera zabalduko dira. Aurretik fruta eta barazkiak bertako ekoizleek eramaten zituzten denetarik

dentatara: garaiaren garaiko fruta eta barazkiak kontsumitzen ziren eta Oñatin ekoiztakoaz aparte oso fruta gutxi kontsumitzen zen. 1980ko hamarkadan hasiko da jendea fruta gehiago jaten eta ordurako Espainiako Estatu osoko hornitzaileak iritsiko dira herrira.

2000an sortu ziren gaur egun herrian ezagutzen ditugun fruta-denda gehienak eta guztiak gizonen jabetzan:



Miguel Lizarralde eta Maritxu Maiztegiren harategia.

Bernardo Zurutuza, eta Jose Luis Vesga. Dendan emakume langileak dituzte, hala ere. Azpimarratzekoa da: azken hamar urtetan ireki diren fruta-dendak pakistandarrek ireki dituzte.

Harategiei dagokienez, mende hasieran udal erregistroan sailkapen bat egiten zen: haragi freskoa eta hirugihar eta olio-saltzailea. Lizentzia ezberdinak ziren, eta beraz, baita ordaindu beharreko zerga ere.

Harakinen sektorea maskulinizatua izan da mende osoan zehar eta horren isla da jabe ia guztiak gizonetakoak izan direla. Salbuespena izan zen Benita Oñate, hirugihar eta olio-saltzailea: 1890 eta 1900 bitartean jardun zuen. Mende oso bat igaro zen emakume jabeak azaldu arte: 1980an Arantxa Palacin, 1990an Edurne Ayastuy eta 2000an Eva Lopez.

Hornitzaileak herrikoak zein kanpokoak izan dira: haragi-kontsumoa altua zen garaietan, herrian ez zegoen ganadu nahikoa, eta beraz, kanpotik ekartzen zen. Bertako baserrietako ganadua, *matadeixara* (San Juan kale) oinez ekartzen zuten.

Negozioak gizonen izenean egon arren, harategi gehienetan emakumeek lan egin dute, gehienak familia-negozioak izan direlako: guri iritsi zaizkigun testigantzak mende erditik aurrerakoak dira eta horien artean aipagarriak hauek: Miguel Lizarralde eta Maritxu Maiztegi, Tomas Lizarralde eta Anita Lizarralde, Juan Mari Garaien eta Milagros Letamendi, Joxe Plazaola *pototo* eta Maritxu, Patri eta Asun, eta abar.

Erdiguneko kale nagusietan kokatu izan ziren harategi gehienak eta arrabaletara hedatu ziren gutxi batzuk, XXI. mendean: Jexux Odriozola, Tarsicio Osés, Antxon...



Carmen Gutierrez eta Lupe Urteagaren arraindegiko kaxak, etxe atarian.

Arrain-saltzaileena berezitasun handiko taldea da: udal-erregistroan ez dira ageri mende erdira arte. Izan ere, ordura arte kalerik kale saltzen zuten arraina kostaldeko emakumeek: *txantxote* arrasatearra eta *bermeania* oroitzen dituzte herritarrek: "*Sardina viva! Viva!*" haien oihiak. Mende erdialdean azoka egunetan Guadalupe Uribarri eta Kaximira merkatu zaharraren sarrean jartzen ziren.

1960ko hamarkaz geroztik, furgonetarekin etxex etxe saltzen zuten hainbatek: Antonio Fernandez eta Angelines Pato senar-emazteek, eta Roman Moyuak eta Marcelinak. Portura joan izan dira, goizaldean, arrainaren enkartera. Bertako giroa azken hamarkadatan maskulinizatu da, izan ere, kostaldeko emakume askok bertan saldu izan dute XX. mendean. 1960ko hamarkada amaieran, kaleko salmentarekin amaitu nahi izan zuen Udalak eta merkatu zaharreko postu finkoetara lekualdatu zituzten. Ordurako kalean arraindegia ere baziren: Prexen eta Gregori Madinabeitia, Lucas Igartua (San Anton) eta Carmen Gutierrez, eta Lupe Urteaga ama-alabek (Maiatzak 1).

Auzo berriak sortu ahala, harategiekin gertatu bezala, bi kokatu ziren Errekalde eta Olakuan. 1980ko hamarkadarako kaleko salmenta desagertu zen eta negozio batzuk itxi ziren. Fernandezek jarraitzen du garai hartatik eta XXI. mendekoa da Kresala.

Okindegien sektorean tradizio handiko negozioak ditugu: Eskolatxo, Irizar eta Egaña. Okin-lana lan maskulinoa izan zen XX. mendean eta hala izaten jarraitzen du. Hala ere, salmentan emakumezkoak egon izan dira.

Mende hasieran guztiak kale nagusietan eta gizonen jabetzan azaltzen dira, besteak beste, Illarramendi: Gregori eta senarra kanpotik etorri ziren, ondoren Jose



Andrés Arlanzón argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Okina.



Anita eskolatxo ogi banatzailea kideekin.

semeak eta Frantziskak zeramaten, eta azkenik, seme Miguelek eta haren emazte Bittori Anduagak jardun zuten. Errotak auzoetan zeuden eta auzoetan ogia egiten zela badakigu. 1920an bi emakumeren izenak azaltzen dira: Petra Arregi eta Justa Galdos.

Eskolastika izeneko emakumea etorri zen Oñatira semearekin mende hasieran; Andres zuen izena Eskolastikaren semeak eta Eskolatxo ezizena ipini zioten. Hala ezagutu izan da mende osoan Eskolatxo okindegia.

Hainbat ogi-klase zeuden: 4 librakua, librakua, panpota, pistolak sopa egiteko, eta abar.

Gerraostean irina lortzeko zailtasunak zeudela dakigu eta irin zuria baino irin beltzeko ogia jaten zela maila apaleko etxeetan. Tremesa, arto irinez egindako ogia ere garai hartan jaten zen. Horrez gain panpota izeneko ogi bigun bat jaten zuten aberatsek gosaritarako. Gerra ondoren jateari utzi zitzaion, antza.

Gozogileen sektorean hainbat negozio egon dira mende hasieratik, jakina denez: *txokolateixak*, *konfiteixak* eta *pastelerixa* ezagunak zeuden Oñatin. *Txokolateixak* industria txikiak zirenez ez ditugu lan honetan landu. Hala, konfiteria eta pasteleriak aipatuko ditugu.

Teresa Arkauz Madinagoitia gozogile eta sukaldari aparta ezaguna zen mende hasieran. *Konfittero* janari-dendari izena eman zion aurreko belaunaldiak: txokolatea eta konfiturak egiten zituzten Patruie Kale eta Kale Barriako izkinan. 1937tik aurrera Garaikoetxea kafea izango da herriko kafetegi dotoreenetako bat: bolauak eta pastel peregrinoa ziren produktu izarrak.

1960ko hamarkadan Teresa Umerez *Sillera* sukaldari eta gozogilea ezaguna zen eta aurrerago Pilar Lazkanoiturbururen pastel eta izozkiak. Garai hartan Rufina Letamendi Bikuña ere jardun zuen.

Egaña okindegia mende hasieran sortu zuten Carmen Aldazabal eta Norberto Egañak. Ogia egiteaz gain esne-opilak *bolluak* eta bolauak ere egiten zituzten. Egaña

familiako gizonen artean gertatu da erreleboa eta haien bueltan beti lan egin izan dute hainbat emakumek: Carmen Aldazabal, Maria Luisa Azurmendi eta Mari Tere Mendizabalek, besteak beste. Maria Luisa hasi zen karapaixoa egiten, baita euskal pastela, petitit suis eta pastak ere. Karapaixoa ogizkoa zen hasieran eta gozoa ondoren: "Karapaixuari señaia ipini bihar izaten gotsan, arrautzian azpitan ipitten gotsan papel txiki-txikitxo bat... ze baserritar bakoitzak bere txorixo eta arrautzak ekarten zittuen, haretzekin egiteko" (E7).

Azkenik, Barkilleroa aipatu nahi dugu. 1930eko hamarkadan Pedro Lopez eta Margarita senar-emazteak Oñatira etorri ziren. Kantabriako sorterrian barkilloa egiteko tradizioa hona ekarri zuten, hortik datorkio ize-



Margarita Lopez eta lehengusina 30ko hamarkadan plazan saltzen.



Ecequiel Abascal Arantzazun saltzen.



Margarita Lopez saltzen, atzean haurrak dituela.



Ecequiel Abascal plazan saltzen 60ko hamarkadan.



Jesus Mari Arzuaga funtsa - Oñatiko Udal Artxiboa

San Miguel kooperatibako irekieran haurrak begira

na: Barkillero. Mantekazko izozkia, koreanoak, barkilloa eta bestelako gozoak egiten zituzten. Artisau-lan horrek denbora asko behar izaten zuen eta okinekin gertatu den moduan, salmenta-orduez gain lan asko egin dute:

“Se trabajaba cara al público más luego en casa. Toda la vida he conocido a mi padre o a mi abuelo trabajando, si no era haciendo helaus era haciendo

coreanos, sino almendras. El ciclo no terminaba a las 20.00-20.30 cuando se llegaba a casa. Se seguía en casa” (E36-3).

Familia-negozioez jardun dugu, oro har, baina badira bi salbuespen aipatu beharrekoak: San Miguel Kooperatiba eta Garaiko ekonomatoa. San Miguel Kontsumoko Benefizientzi Lankidegoa 1918an sortu zen, Kale



San Miguel kooperatiba 6ko hamarkadan.

Zaharra 27an eta 1960ko hamarkadatik Kale Barria 8an dago. Langile-talde batek sortutako kooperatiba horren xedea zen elikagaiak merkeago eskuratu eta komertzializatzea. Bazkideek egiten zituzten asanbladen eta kudeaketaren bitartez eraman da mende batez negozioa aurrera, eta horrez gain, langileak ere izan ditu hasieratik: Jenobeba Aramburu, Lorenza larza eta Juanita, besteak beste. 1960ko hamarkadatik 1970ekora bitartean, herriko lantegi asko bazkide egin ziren, eta beraz, langi-

le guztiak merkeago eros zezaketen kooperatiban. Ondorengo krisi ekonomikoarekin utzi egin zioten bazkide izateari eta ordutik bazkide guztiak norbanakoak dira.

Hijos de Juan de Garai lantegiak ere izan zuen janaridenda propioa, Arantzazuko Ama 1ean. Autozerbitzu bat zen, harategi eta guzti, eta soilik Garaiko langileek eta senideek eros zezaketen. 1992ko uholdeen ostean itxi zen.



Kooperatiba berria.



Kooperatibarako sarreran emakumeak errekadutan.

Graneletik autozerbitzura

Janari-dendek produktuak kilotako zakutan erosten zituzten eta bezeroek gramoak behar izaten zituzten, beraz, paketetan ipini behar izaten zen guztia. Mende hasieratik gerraondora arte gauzatu zen funtzionamendu hori, eta beraz, komertzio txikiko adierazle nagusietarikoak.

Bilgarri gisa erabiltzen ziren zatar-papera (*estraza*) edo paperezko poltsak. Likidoetarako (hots, olioak, esnea edo ardorako) erosleak bere botila berrerabiltzen zuen. Paketeak egin, pisatu, botilak bete... dendariaren eguneroko esku-lana zen:

“Lehen dana eskuz. Ba zela saltzen zian ba saltzen zian igual 100 gramo kafe Dana pisura! Dana... kantidade txikiñak gehixenak. Dana zan eskulana” (E14).

“Galletak, potetik, erosten zian!” (E32-4).

Erosleak dendariari eskatu behar izaten zion guztia eta horrek bien arteko harremana estuagoa izatea zekarren:

“Mostradore bat eta generua atzian. Eta gero jentian atzian baita baña ia paketetan ta guk jarten gebenian ipiñtten geben baldan eurak hartzeko. Eta eurak hartzen zittuain gauzak eta gero gu mostradorian kalkulaitten. Lehengotan eskuz eta gero ia makina txikitxo batekin... ba hoxe! Kalkuladora bat txikiña “ (E14).

Autozerbitzuak administrazioak bultzatu zituen, 1960ko hamarkadan, janari-denden funtzionamendua hobetzeko asmoz. Ultramarinoak egin zuten lehenik aldaketa (Gago, 2003: 101).

Denda antolatzeko modu berri horrek aldaketa nabarmenak ekarri zituen. Salmentarako espazioa eraldatu zen: mostradoreak eta atzeko apalek ezaugarritzen zuten dendaren itxura aldatu zen eta apalategiz bete zen denda. Espazio berean toki gehiago egin zen eta produktuak kaxa eta paketetan aurkeztea ere berritasun bat izan zen. Aldaketa nabarmenena izan zen produktuak dendariari eskatu behar ez izatea eta norberak hartzea (Gago, 2003: 120). Sistema aldaketa hori berrikuntza handia zen herrietan:

“Sarrerria, etxe zaharrian, behebarrutik geukan. eta gero ipini geben kaletik, en el 63. denda barrixa bihurtu zan lehengo denda Oñatin ‘autoservicio’ reboluziño bat. Biajante batek esan ozkun: «vais arreglar la casa? poner en tipo autoservicio, ahora es lo que viene!»” (E12).

“Ba ha zan estanterixak ipini eta otzarak jarri sarre-ran eta orduan jentia hartzen eben eta bukaeran pagau. Baina esaten dotzut igual oindala 45 urte” (E32-4).

Erosteko eredu berriak bazuen lotura denbora aprobetxatzearekin, eta beraz, merkatariaren eta eroslearen

harreman sendoa lausotu eta azkartu nahi zen. Erdi mailako klasearen nahia zen, lana eta aisialdiko denbora bereiztea, eta denbora aurreztearen ideia hedatu zen jendartean.


Kontserba-moduak

Produktuak fresko kontserbatzeko hozkailuak eta izozkailuak ez zeudenez produktu freskoen erosketa egunero egiten zen. Horrek dendari eta bezeroen arteko harremana estua izatea zekarren, ondoren sakonduko den moduan. 1960ko hamarkadan, gailu teknologikoen agerpenarekin iritsi ziren hozkailuak, telebista, lisatzaile elektrikoa, sukalde elektrikoa, eta abar: "Eta gero ipini ebein be bai frigorifiko haundixa, yogurrak eta oilaskua saltzeko. Ze jentia hasi zan oilaskua jaten... eta orduan: *frigorifikua ipini biu, esan eben amak*" (E9).

Esnea etxez etxe saltzeko ohitura desagertu egin zen harrezkero, eta jogurtak agertu ziren. Jan-ohiturak ere aldatu ziren, besteak beste, domeketan ensaladilla rusa eta oilaskoa jateko ohitura hedatu zen, eta haragi-konsumoak behera egin zuen. Arraina, aldiz, sarriago kontsumitzen hasi zen.

Herriko ekoizleak: baserritarrak

Bezero bakarrik ez, emakume asko produktu ekoizle eta saltzaile ere izan dira: "Abenidako dendan errekadu asko egitten neben nik. Ordutik sobraitzen xakuna, berduria, hantxe hartzen noztain eta gero nik handik generua erosten neben. Halako negoziuak ebalten geben!" (E62).



Herriko produktuak.

Auzo-gunetako ortuetan hazitako barazkiak, esnekiak, frutak eta animaliak kaleko dendetan edo hileko lehen ostiraleko ferian saldu izan dituzte XX. mendean zehar emakume zein gizon baserritarrek: "Bildotsak goizian goiz eruan bihar zian karnazixara, bizirik han hiltteko, eta astuakin faten ginan. Orduan frigorifikorik ez egue-nez saldu itten geben, dana etxian ezin gebelako gas-tau" (E41-1).



Argazki zaharren bilduma - Oñatiko Udal Artxiboa



Argazki zaharren bilduma - Oñatiko Udal Artxiboa

Mende hasierako azoka eguna.

Mende erdia baino lehen emakumeak astoan joaten ziren Legazpiraino gaztak saltzera. Baina baita Lukasenera, Kooperatibara, Milikuanera ere. Eta jarduera berekin jarraitu zuten gerora alabek ere.

Emakume baserritarrak, aldiz, zapatu goizetan jaisten ziren kalera eta arrautzak, oilaskoa edo barazkiak saltzen zituzten dendetan. Irabazitako diru horrekin ondoren generoa erosi ahal izaten zuten:

“Orduan kategoixia eukain hemengo dendak eta karo, baserritarrak etorten zian zapatutan, astuakin. Gizonak bakarrik ferixa egunian. Etorten zian emakumiak erosten ebein biharrezko gauzak, jana, artillia jerseixak itteko, kamisetak edo baina gizonak erosten ebein ferreteixako gauzak, bisagrak, tatulua ifitteko edo, holako gauzak etorten zian inguruko baserri askotakuak, ez bakarrik Oñatikuak. Ze zapatutan etorten zian Gabirikuak, sagarrak saltzera eta harekin irabazittako diruakin ba biharrezko gauzak bai ferreteixan, benenua, edo hazixak. Eta Mondrauetik etorten zian plazara berduria saltzera baina hazixak gure etxian erosten ebein. Eta Bergaratik gutxi baina Legazpittik eta Brinkolatik asko! (E1).

Ohikoena zen denda bakoitzak bere baserri hornitzaileak izatea, dendarako zein etxerako: “Me acuerdo de los burros perfectamente aquí e... dejaban aquí el burro y a entregar la leche en las casas... cada casera tenía sus casas “ (E4).

Esneak badu berezitasun bat; produktu freskoa eta egunekoa izanik, erdigunetik urrun egon diren baserriei ez zien merezi esne apurra saltzeko ibilaldi luzea egitea.

Gertuko auzoetako baserrientzat laguntza ekonomikoa handia zen esne-salmenta:

“Haxe izan zan baserriko zeik onena, ayudarik onena. Esnia. Ta esniakin domeketen zeukan dirutxua. Eta hor Araotztik eta Goimendiñik ta urriñetik ta ezin zian etorri Urrin! Ta hareik inbidixia eukitten euein! Hareik merkaura etxian euzen arrautzok, ollaskuok eta ahal dauen dana ekarri, baña guk esniakin egunero! Eta kintzenia domekan esniana haizaten zan onena! Defensarik haundixena baserri-xana haretxek!” (M64).

Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena industrializatu baino lehen produktuak agortu egiten ziren edo gutxieenez, kantitate mugatua zegoen: “Gastaiten zanien pues no hay! Eta sasoi baten ba igual udazkenian txahalak be gutxitxuau egoten zian, ze gastau itten zian”.

Azokak

Salerosketarako plaza ezagunena ganadu-feria, eta fruta- eta barazki-azoka izan dira. XX. mendea baino lehenagotik datorren zita da feria: zapatutan ospatzen zen, herriko plazan. Ganadu-feria, berriz, Santa Marina plazan izaten zen.

Bertako zein inguruetako saltzaileak etortzen ziren: Arabako mandazainek zerealak ekartzen zituzten, Elgeako mendizerra igarota. Goierriko emakumeak, *kiputzak*, Aurrekomendiko auzobidetatik etortzen ziren fruta eta barazkiak saltzera (Zubia, 2002: 42). Eta Oñatiko hamabost auzo historikoetako baserritar ugari jaisten ziren, salerostera.

Espainiako Estatu osoan, gerraostean, merkatuak eraikitzeari ekin zitzaion eta Oñatin *merkatu zaharra* eraiki zen eta horra lekualdatu zen feria: asteazkenetan eta larunbat goizetan egingo zen aurrerantzean ere. 1990. urtean azoka berria egin zuten, egun ezagutzen duguna, eta hara aldatu zituzten saltzaile guztiak.

Oñatiko baserritarrak zein inguruetakoak etorri ohi ziren feria eta merkatura. Merkatu zaharrean postuak definituta zeuden, eta besteak beste, barazki-saltzaileak, landare-saltzailea, harakinak, arraindegia, oihal-saltzailea, kinkalleroa eta karamelero etortzen ziren. Janari-denda zutenek ere jar zezaketen postua, eta noski, larun-



Ganadu feria Santamarina plazan, mende erdian.

bat goizetan mugimendu handia zegoenez plazan, estrategia ona zen denda hara lekualdatzea.

Baserritarren fruta eta barazkiak saltzeko ohiko lekua izan da merkatua: lurrak emandako “soberakinak” ekonomizatzeke modua izan da. Ez zen, beraz, baserrien diru-iturri nagusia, osagarria baizik:

“Zer saldu gutxi eukitten geben ta, zerbait saltzeko bageukan saldu ta... diruak hartu, ta eurak be aguro gastaitten gittuan ta etxera!” (E65).

“Askok hola berduria baserrixan baeukain gehixuau edo ba orduan zapatun baten fan eta bestian ez ta hola; etxian sobra eukainian ba zapatuan plazara fan!” (E66).

Ganadu-ferian nekazaritza eta abeltzaintzarako produktuak salerosten ziren: ganadu txikia eta handia, pentsuak eta aleak, besteak beste. 1801etik ganadu-azoka astero egin beharrean hilean behin egitea erabaki zen: hilaren lehenengo egubakoitzean.

Azoka-eguna, haatik, emakume baserritarrentzat egun berezia zen: ez bakarrik saldu egiten zutelako, baizik aitzakia ona zelako kalera jaitsi, errekaduak egin eta ezagunekin topo egiteko. Hala, Herriko merkataria eta tabernarientzat egun garrantzitsua izaten zen feria-eguna, baserritar asko hurbiltzen zirelako.

Gizonezkoentzat *ferixa-eguna* bereziagoa zen, Jerardo Elortza eta Xabier Zelaiak kontatzen dutenez:

“Santa Marinatik bueltatxoia egin, lagunekin elkartu, nobedadeak komentatu, eguerdian tabernaren batean bazkaldu edo arratsaldean afari-merienda asmatu; eta egun ederra igaro ondoren, ilunkaran edo gau aldera etxera, berandu samar batzuetan. Hori bai, gizonezkoek bakarrik gozatzen zituzten halako egunak, etxekoandreak baserria zaintzen geratzen ziren bitartean” (*Kontzejupetik*, 287zbk).

Lagunekin kale-bazkaria edo *frittadatxoa* egin, meza nagusia entzun edo bizarginarenetik pasatzeko eguna izaten zen, beraz, *ferixa-eguna*:

“Baserriko jentia feixa eguna aprobetxaitten ebein. Batzuk ia goizetik agerketan zian kalia, eta beste batzuk autobusian. Lehengo bezeruak, hurriñen euzen baserritako jentia. Atian itxoitten. Goizian jente gaztia, baserriko jente gaztia. Eurak mezia entzun mezia derrigorra zan e? Euran mezia entzun eta meza ondorian uetakuia iñ, Naparrenan, Urubilen o lokesea, eta tapa tapa tapa etxera. Eta



Joxuena baserriko postua Herri Egunean.

uetan izaten zan meza nausixa. Eta baserri hortako zaharra goittik behera. Trikitxiñ, gaztia etxera eta zaharra behera mezetara, meza nausixa entzuztera. uetan izaten zan” (E43-2).

1970eko hamarkadaz geroztik, auzoguneak husten hasten dira, eta geroz eta ekoizle gutxiago zegoen. XX. mende bukaerarako galtzear zegoen ganadu-ferixia “baserrietako bizimodua eta ekonomia aldatu ahala”. Barazki eta fruta azokari dagokionez, ordea, batzuek profesionalizatzeko hautua egin zuten eta plazako merkaturan postu finkoak gailentzen eta bertako ekoizleak gutxiagotzen joan ziren, egungo itxura hartzeraino.

Postua jartzeagatik guztiek ordaindu behar izaten zuten, baina 1980ko hamarkadan bertakoei kobratzeari utzi zitzaion. Hala, kanpotik postua jartzera zetozenek soilik ordaintzen zuten. Merkatuaren gainbeherari aurre egin eta bertako ekoizleak erakartzeko asmoz, 2011tik aurrera herriko ekoizleei ordaindu egiten zaie, merkatura joateagatik.

1990. urtean merkatu berria inauguratu zen eta saltzailleen iritzian ez zuen babesik izan: finean, gaizki diseinatutako espazioa dela eta saltzailleak bi pisutan banatzeak onurarik ez dakarrela diote:

“Antes ahí estábamos, caseras, venteros, y el de la ropa, que había un pequeñito frontón, que ahí metían al los fruteros, al fondo. y luego estábamos allí, en un chamizo que había que bajar las escaleras (...) con los años, sanidad obligó a que pusieramos puestos cerraus. gastaron dinero y conseguimos poco. Aquí nos metieron, y luego ahora... para nosotros no se podía arriba” (E25).

Ohiko azoka eta ganadu-feriaz gain, San Migeletako feria nagusia egiten zen, Santa Marina plazan: “Astebete irauten zuen eta era guztietako baserri-produktu eta



Gereta ardoak.

tresnak ekartzen zituzten bertara salgai” (Elortza eta Ze-laia, 2018). Lekualdatu egin zen geroago “trantsizio-garaian Herri Eguna ospatzen hasi zenean, unibertsitate aurrera eta inguruetara” (ibidem).

Edari-hornitzaileak

Gehienak familia-negozioak izan arren, sektore maskulinoa izan da orokorrean. Herrian hainbat ekoizle eta hornitzaile zeuden. Orokorrean sektore maskulinoa izan da.

Ardo, likore, zerbeza eta bestelakoen hornitzaileak hiru ziren mende hasieran eta bakarria emakumea: 1890ean Dolores Irazabal (Plaza, 1). Mendea aurrera joan ahala hornitzaile kopurua hazi zen eta 1950eko hamarkadarako bost zeuden herrian. Horietatik bakarria zen emakumea: Josefa Busto Garcia (KB 32), Naparrena tabernako jabea ere bazena. Orduz geroztik Miren Iraola Billar *Txapa* aritu zen sifoi-hornitzaile bezala.

Gereta eta Ilarión Umerezen bodegak ziren herriko ardo-hornitzaile nagusiak: ardoa zahargitan (*pellejo*) edo barriketan ekartzen zen eta tabernariak botiletara pasatzen zuten. “Entonces el vino venía en `obres`, pellejos. No venía en cajas o en botellas como ahora. Y te traían de guereta o de ilarión” (E3).

Hauek zuzeneko salmenta ere egiten zuten: etxeetarako erosteaz gain, ardo-saltzaileek taberna funtzioa ere bazuten, poteatzaileentzat, baina ez zen haien jardun nagusia.

Garraioan gertaturiko aldaketak zuzenean eragin zien hornitzaileei:

“Repertura lehelengo karretillakin. Ta gero furgonetiakin” (E58).

“Nere aitta hasi zan Land Rover batekin ta euki eben langile batzuk... ta eukan kotxe txiki bat, autocarro holakotxe bat, ta etorten zan hemen kargau ta hau eruan biozu hara, ta hau hara ta hola” (E27).

5.3.3. Errekadistak

Errekadista ugari egon da mendean zehar Oñatin; Bilborako, Gasteizerako eta Donostiarako bana. Herrian erosterik ez zegoena hirietatik ekartzen zuten eta horrela bizimodua atera. Bertako produktuak hirira eramaten zituzten. Gerraostean lan horretan ziharduten gehienak emakumeak ziren; gerora, ordea, sektorea maskulinizatuz joan da.

Eugeni Sukia errekadista hasi zen, gerra garaian pairatutako errepresioari aurre egiteko: senar-emazteek Batzokiko taberna zeramaten eta gerra piztu zenean, 3 haur zituela eta haurdun, senarrak ihes egin behar izan zuten. Aterabidea bilatu behar zion egoerari eta:

“Txarridunarian karnazixia egon da, bildots denporan, ebaikotzetan bialketan zian bildots asko trenez Bilbora. Eta Bilbon gerria hasi zanian ezin zan bildotsik bialdu eta orduan Oñatin asko euen. Gure parientiak Donostian restaurana eukain eta horreik esan noztain: «zeatik eztozu ba bildots batzuk ekarten? Hemen salduko dozu»” (E53).

“Eta gero jentia hasi xaten eskaketan ekarrikozu gizonan erropak kartzelatik? 8 preso baldinbazian 8 poltsa zian. 5 peseta zakua eruatia eta 5 peseta ekartia kobraiten neben. Cartak erriel 2. Eta gainera erropia eta txokolate, galleta. 20-25 kg eruan-go neben burugañian” (E53).

Urte bat igarota hasi zen Donostiara astelehenetik larunbatera, egunero joaten: “Goizeko 8.00etan bujero onduan, Oñatiarra euen, oin kontxitan tabernia dauen lekuan. Hantxe. Eta gero 20.00-20.30ttan deskargaitten geben, han egoten zan karrotxua etxekua edo bestela behe barruan eta hartzen gindduen, karrotxua bete-ete in eta etxeraino” (E53).

Araotzeko arrautzak eta baba gorriak Donostiako jate-teeetara eramaten zituen, Bixente Ugarte diputatuari zegokion *mantequilla* errazioa ekartzen zion, pinudiekin lotutako lizentziak eskuratzeko paperak egiten zituen, edota bankuen korrespondentzia guztia herritik hirira eramateaz arduratzen zen.

Harrezkero jantzi eta oinetako asko ekarri izan ditu enkarguz: poltsak, lore-erramuak, kapelak alkilerrean edo erosita, ezkontzetarako... Oñatin aurki ez zitekeen guz-

tia eskatzen zioten: *"ya me traerías un par de zapatos de San Sebastián? si me traerías la talla 37...."* Edo *"y ya me traerías una tela?"* (...) Neri gustaitten xatenak ekarten neben eta bastante azertaitten neben. Hemen ez euen eta!" (E17).

Otzara pila hartu eta Brinkolatik Donostiara trenez egiten zuen joan-etorria.



Milagros Letamendi dendan.

5.3.4. Jantzekoak

Jantzekoan multzoan kontuan hartu ditugu jantzigile eta jostunak, oihal-dendak eta arropa-dendak, mertzeriak eta zapata-dendak.

Jantzigintzari dagokionez, aldaketa handiak eman ziren xx.mendean. Mende hasieran arropak eskuz egiten zituzten jantzile eta jostunek. Lehenengoak gizonezkoak ziren eta bigarrenak emakumeak.

Desarrollismoaren garaian, bi ofizioek beherakada nabarmena jasan zuten, egindako erropen hedapenagatik. Harrezkero guztiz feminizatu zen sektore hau. Mendean zehar mantendutako ezaugarria da erdigune historikoan kokatu izan direla negozioak.

Udal erregistroan hainbat lizentzia zeuden, ehungintzari lotuta: jantzien salmenta, puntuzko arropen salmenta, haur-jantzien salmenta, mertzeriak, egindako arropak eta kamiseriak, besteak beste.

Jabetzei erreparatuz jakin dezakegu XIX.mendean feminizatutako sektorea zela hau: 1890 urtean negozio jabeen artean 3 emakumezko zeuden: Guillerma (plaza 8); Dolores Irazabal (KZ7) eta Leonarda Balanzategi (KB5). 1937 urtean ordea, jabe gehienak gizonezkoak ziren eta bakarra zen emakumea: Rita eta Juliana En-

paranza (AK). Mende erditik aurrera joera hori aldatu eta sektorea feminizatzen hasi zen. 1950 urtean emakumezko jabeak ugaritu ziren: Rita Emparanza Bengoa (AK); Paula Guridi Chinchurreta (KZ 1); Maria Jauregialzo Anduaga (KZ 22); Antonia Lizaurre Larrañaga (KZ 27) eta Maria Juana Maiztegui Barrena (Fr. M Santos 27).

Sastriak eta jostunak

Erdiguneko kale nagusietan zituzten tailerrak, sektorearen estatusaren adierazle, eta gizonezkoentzako arropak egiten zituzten. Artisauak ziren eta joskin onak izan behar zuten zerbitzu egokia emateko.

Ofizioa aitetatik semeetara transmititzen zen. Paraleloki, joskinek ez zuten ikusgarritasunik eta amek alabei irakasten zieten. Zilegizko ofizioa zen bata, "emakumeen betebeharrak edo denbora-pasa", bestea.

Etzetan edo lokal bat hartuta jarduten zuten. Etxez etxe ere joaten ziren, makina eskuan hartuta. Emakume askok zuten ofizio hau, gehienak ordea ezezagunak dira.

Bajuak hartu edo atera, gonak estutu edo gorputzari egokitu. Galtzak bakarrik josten zuenik ere bazen: Carmen Garai, Patrukekalen. Behebarruko leihotik galdeztzen zuen: "zer bihar?", galtzak jaso edo itzuli. Paketextoarekin batera ipini ohi zuen: *"las medias bien lavadas serán mejor remendadas. 2 peseta"*.

Pazientzia handiarekin eta zehaztasunez lan egiten zuten, profesionalki. Oso gaizki ordaindutako lana zen ordea eta sarri presiopean lan egin behar izaten zuten, egun berezietan guztiek nahi baitzuten soinekoa estrenatu.

"Baina oso gogorra. Lan asko, zenbat gau...korputz egunian soñeko baxia estrenaitten geben. Santu guztien egunian abrigua, eta gero trajia esaten zan aste santurako. Eta karo, danak gura ebein. Tia maritxua eta tia baxilik zenbat gaupasa. Eta oingo makinari ez e! Eskuz gauza asko" (E40-1)

Batzuk "corte y confección" ikasi zuten, baina beste askok etxean edo auzoko emakumeren batekin ikasi zuten; ohikoa zen neskak eskolatik atera ondoren edo bazkal ondoan emakumeren batekin josten ikastea: "tardes perdidas ba Arantxana faten nintzan ikastera" (E44-1)

Jostelekuak ere bazeuden, *Mikela Herrero*rena, kasu; Mikelaren apendizek bere enkarguak egin bitartean ikasten zuten, debalde. Felisa Enparanzak dio, bere tailerrean neguan 12 neska elkartzen zirela:

“Hasi nintzan neskak hartzen. Lehengo zkin gero 3 kin. Ia 12 neskara be aiauta nau neguan. Ze oiturgia zan, neguan, baserriko neskak, kalera josten ikastera etortia. Pittintxo bat eskua hartzera. 3 hilabete edo baserriko neska gehixenak ibiltten zian kalian josten.(...) Gero kaletarrak be bai urte guttian etorten zian ikasi arte. Ebaitten ta dana, kortia ta dana!” (E61)

Jantzigileek ere emazteekin elkarlanean lan egiten zuten sarri. Lan banaketa eta hierarkia ezarrita egon arren, emakume joskinen laguntza ikusezina behar-beharrezkoa zitzairen enkarguak amaitzeko: “sea sastia berez aita zan. Amak lagundu itten otzan. Itten otzan ba sonbrilau ta... lagundu! Ojaliak eiñ ” (E44-2)

Pantalonerak bazuten bereizgarri bat; jantzigileak izan gabe, gizon langileentzako prakak egitera dedikatzen ziren.

Tela-dendak

Joskin eta jantzigileen lanerako oinarritzko lehengaia zen oihala. Horiek eskuratzeko herrian denda gutxi batzuk zeuden. Herriko ezagunena Santos Echeverriaren oihal-denda zen:

“Sastre bat euen ta trajiak eta itten eben. Bertako telakin. Y muchas chicas de dependientas! Gero itxi in zan eta gero hartu eben Martin Etxeberria. Eta hasi zan alabia dirijitten hori, Marisol Etxeberria. Eta ginen 3 langile eta gero Margarita Alberdi, como la enkargada. Margarita beti han eoten zan goixan be bai baña behian be asko! Dana emakumiak! Ze gizonak... bueno... ezta pentsau be gizonak!” (E44-1)

Hala, oihala bezeroak erosten zuen eta joskinari eramanen zion. 70ko hamarkadatik aurrera profesionalizatu ziren joskin batzuk hari-dendak ipini zituzten: Lantzen eta Ugari, kasu. Beste askok etxez etxe lan egiten segi zuten, gaur egun arte.

Sektore honetan aldaketa handia eman zen 60ko hamarkadaz geroztik: egindako arropak iritsi ziren herrira eta horrek joskin eta jantzigileen lana asko gutxitu zuen: “ia inddako erropia hasi zanian, joskinak ez geukan lanik. Ezer formalik ez geukan eta!” (E31)

Hala, joskin profesionalak lan gabe gelditzen hasi ziren. Askoren hautua izan zen lanbidea uztea. Beste batzuk ordea mertzeria edo haurrentzako arropa denda ipini zuten. 1970 urtetik aurrera hedatu zen sektorea, emakumezkoen eskutik, oro har. Garai hartako komertzia-

rietako batzuk ziren: Magdalena Echeverria (KB 4); Rita Emparanza Bengoa (AK 8); Esther Moyua Ugarte; Julia Urrutia Anduaga (Bakardadeko Ama 14); Maria Zubia-girre Uriarte (AK 4); Candida Maiztegui Aguirre (KB 26).

Mertzerixa eta lentzerixak

1925 urtean agertzen dira mertzeriak, lehenengoz Udal erregistroan. Sektore hau erabat feminizatua izan da mende osoan zehar. Dendari batzuen izenak dira: Juana Maiztegui barrena, (lekunberri 33); Maria Dolores Ayastuy Arregi (Soledad 6); Dolores Igartua Odriozola (AK); Maria Zubia-girre Uriarte (Mola 8) Emilia Aguirre Larrea (KB 59); Vicenta Elorza Azcoitia (Avenida 6); Vicenta Elorza Azcoitia (Avenida 6); M. Teresa Letamendi (Soledad 9); Julia Urrutia Anduaga (Soledad 14); Tiburcia Urtaza Alcelay (KB 14). 1950 urtetik aurrera ugaritzen dira, eta bereziki 1970 urtean kopuruari dagokionez gorakada handia egon zen.



Urtaza ahizpak Consuelo Echeverria illobarekin.



Urtaza ahizpen mertzeriako irekiera lizentzia.



Teresatxo Letamendiren mertzeria.



Lurdes Garcia Ugari mertzerian.

Mertzerietan saldu izan dira botoiak, galtzak, barruko arropa, hariak etab. Eta lentzerian barruko arropa, bularretakoa, kamisetak, pijamak, etxerako bata, bainujantziak, fajak eta galtzak: “ba... emakumezkoen barruko arropa, bularretakoa, kamisetak, pijamak, bata... bañujantziak... kuleroak, fajak... kaltzetinak eta mediak ere bai. Eta gero mutilena ere bai. Pijamak eta bata, eta kantzontziloak eta kamistek” (E13).

Sektore honetan gertaturiko garapena handia izan zen 1960-1970eko hamarkadetatik aurrera. Dendariek ondo gogoratzen dituzte herrira heldutako lehen berritasunak:

“Akordaitten gara zela etorri zan generua. Egon nintzan kursilo baten 8 egun Bartzelonan. Fajas y sujetadores, en color: fucsia, rosa flamenko, amarillo y azulcelest. Fue el boom! Todo el mundo quería aquello. Porque de llevar algodoizko gauza korrientiak ba .fue un cambio radical. El boom de nuevo!” (E32-1).

Lehen *boomak* kolore eta materialearekin zerikusia izan zuen, aurrerago, 1990eko hamarkadaren hasieran, kortseteriak berritasunak ekarri zituen: “Horregatik gu jarri giñenean dendan (1990) garai horretan la corseteria hizo como un boom! Ordun ba nik ekarri nuen, ni gogoratzen naiz cacharelekin, markiakin, ba... estanpauak, koloriak... Eta klaro, jente gaztiak behintzat nahi zuen gauza hoiek” (E13).

Zapata-dendak

Zapatariak garrantzitsuak ziren XX. mendean: zapatak, albarkak zein alpargatak eskuz egiten zituzten gizonak. Erdigunean kokatzen ziren zapatari guztiak; emakumezko bakarrak izan ziren: 1910ean Jacinta Garayoa (plaza 8-9), eta 1950ean M^a Carmen Ibarrondo Oleaga.

Albarkak eta alpargatak, aldiz, hainbat dendatan saltzen ziren: janari-dendatan, harakinarenean, ardo-saltzailearenean edo bizarginenean, esaterako. Bi ofizio berezi ziren eta mende hasieratik erdialdera arte izan zuen hedapen handiena. Udal Erregistroan gizon dezentente azaltzen da, baina emakume gutxi; salbuespena da, 1937an, Ursula Lazkano Urzelai (KZ4). Angeles Olalde *Silleruenak* aitarengandik ikasi zuen alpargatagintza eta horretan jardun zuen mende erditik aurrera. Beste emakume batzuei ere irakasten ziela jakin dugu, beraz, ezkutuko merkatuan salduko zirela pentsa daiteke, edo aurrerago esan bezala, beste negozio batzuetan.

Oinetakoena sektore oparoa izan zen, herritar guztientzat beharrezko artikulua zelako. 1950eko hamarkadatik aurrera egindako zapatak hedatzen hasi ziren, eta Espainiko Estatuan Mallorca eta Alicante erreferente bihurtu ziren: zapata-eredu gutxi batzuk egotetik aukera zabalagora ohitu behar izan zuten merkatariek: “lehen eukiko geben 3-4 klase: gizonan zapatak klasikuak eta emakumienak con taconcito eta planuak” (E38-1).

Dibertsifikazioak eta material berrien asmakuntzak zapaten salmentan jarduten zirenei egin zien onura. Zapatak egin eta konpontzen zutenen lana, berriz, gainbehera etorri zen: “akordaitten naiz nere aittari asko fastidixau otzala katiuskia inbentau zanian. Ze klaro, ha ezin zan konpondu. Hori da zuk eskuz itten badozu lana eta makina bat onduan, zu alperrik zauz ia” (E29).



Maria Angeles Lizarralde "klarita" seme-alabekin.

Artisautzagintzatik salmentarako jauzia emakume langileen mesedetan izan zen: sektorean sartu ziren, saltzaile gisa. Mende erdian zapata-denda gutxi zeuden, tartean, *Silleruena* eta Clara Biainena (KZ, 1); biak ala biak emakumezkoen ardurapean.

Kasu berezia da ondorengoa: Clara Biaini bere alaba Maria Angeles Lizarralde eman zion segida, 1960tik 1996ra. Alargun geratu zenez zapata-dendaren erreleboa hartzea egokitu zitzaion Maria Angelesi, *Klarita*, ezizenez, eta hala, herriko "lehen frankizia" sortu zuen: Arrasateko eta Bergarako zapata-dendetatik ekartzen zituen enkarguak, bitartekaritza eginez. Irabazi gutxiago zituen baina ez zuen arriskatzen eta feriak ere ekiditen zituen, bi seme-alaben ardura izanda ezin baitzuen halakoetara joan. Autobusean egiten zituen egunero Arrasatera joan-etorriak eta, han ezagutu zuen, gerora bere senarra izango zena.

1970ko hamarkadan areagotuko dira emakumezkoen jabetzan dauden negozioak: Maria Cristina Ibarrondo Oleaga (Plaza 9); Elena Zubiaguirre Uriarte (AK 4); Candida Maiztegui Aguirre (KB 26) eta Rufina Ormazabal Azcarreta (KB 27).

Orokorrean, ibilbide luzeko negozioak izan dira zapata-dendak. Zapatariaren ofizioa desagertzeko arriskuan dago, aldiz. Kantue da herriko zapatari bakarra egun.



Kaio zapataria.



Juanitosa denda.

Osagarriak

Lehen beharrezaneko produktuak ez zirenez, mende bukaerara arte ez zegoen osagarri-dendarik, bere horretan. Osagarri gehienak saltzen ziren denetariko dendetan eta erlojuak eta bitxiak erloju-dendetan. Horiek erdigune historikoan kokatu izan dira betidanik.

Euritakoak, erlojuak, bitxiak, elizarako osagarriak, poltsak... denetarik saltzen zuten esaterako Juanitosenean:

"Alde batetik, ohituria euen aliantzak adibidez, gero barrutik grabau itten geben izenak eta fetxia. Eta gero nobixuak eta fabrikan hasten zanian, izaten zan pulsera bat erregalaittia nobixiari eta... erlojuak adibidez ez, ze hori relojeixan saltzen ebein. Baina gero aman egunian edo, bueno, eztoztut esaten danak ze baserritarrak ez ebein eukitten hainbeste baina fabrikara faten zianak, kateia, edo pul-

tseria amari edo nobixiari... ez danak baina askok eta askok eta orduan joieixia ondo saltzen zan.

Eta gero goixan euen beste armaixo bat mezetako liburuak saltzen zian. Oin eztia ezauketan... baina ni ezkondu nintzianian lorak eruan biharrarian eruan neben liburua, pergaminoskua erregalau noztain eta errosaixua, eta hareik zela egunero erabiltten geben mezetara fateko harekin me veía menos disfrazada! Papel eta tapa ezberdinak euzen... Eta mantillak.

Eta gero datoz karterak, neceserrak, orduan itten geben lana Ubriqueko etxe batekin (Cadiz) narrua saltzen ebeila... Polverak be.. gordeta dakot. Carey zidarra eta Carey laton..." (E1).

Modak

XX. mendean, garaian garaiko modak egon izan dira, emakume eta gizonen estetikari dagokionez. Emakumeen edertasunarekin lotuago ageri da, hala ere, mende hasieratik. Moden inguruko iritzi publikoa ez da beti positiboa izan, jarraian azalduko dugun bezala.

XIX. mende amaierako aldizkarietan irakur daitezke emakumeek moda aldizkariak irakurtzea ez zegoela ondo ikusia: *Elegancia Ilustrada* (Madril) aldizkaria irakurtzen zuten, besteak beste, Euskal Herrian. Gizonen mezuak ziren: "reparar las camisas y las medias y no dedicarse a las labores inútiles. Leer 'La cocina Casera' y abandonar los periódicos de modas. No lucir trajes que espanten a los hombres formales. Menos balcón y más costura..." (*El Bidasoa*, 1885ko azaroak 29 in Hernández, 2008: 333).

Mende hasieratik epaitu izan zituzten gizonen emakumeen janzkerak eta emakumeak modarekin "burua galtzen" zuela iradokitzen da aldizkarietan (El Buen Combate, 1911). Orduan jada ezagunak ziren maila ekonomiko altuko emakumeen arteko edertasun lehiaketak: herrietan eta hirietan egiten ziren, festetan. Emakumearen objektualizazioa eta sexualizazioa, beraz, mende hasierako fenomeno dugu. Era berean, moda izan da emakumeen ahalduntze-prozesuan akuilua eta gorputz askeen aldeko aldarriarekin batera joan da nahieran janzteko eskubidea. Erresistentziak agerikoak ziren gizonengan:

"No vemos muy cristiana, sino muy materialista tal novedad, que la juzgamos peligrosa para el decoro y vergüenza para las señoritas concursantes: que es muy propia para inspirar necia vanidad en las favorecidas y necia envidia en las del montón, no

para estimular a todas a la dignidad y virtudes de su sexo" (Hernández, 2008: 344).

Oñati landa-eremuko herria izanda, bereizi zitezkeen bi eredu: baserritarren janzkera eta kaletarrena. Lehen hiru hamarkadetan baserritar jantzia erabiliko du emakumeen gehiengo batek, baina ondoren galdu egin zen (Lasa Astola, 2011). 1920ko hamarkadako moda-aldaketak aipagarriak dira: kortsea desagertuko da eta arropa erosoagoak erabiliko dute, eta ile-orrakera berriak agertu ziren: *garçonne* estiloa, esaterako, maila ekonomiko altuko emakumeen artean. Uste denez, aldaketa horiek, ordea, ez zuten isla nabaria izan landa-eremuan eta Oñatin.

Gerra eta gerraosteko eskasia testuinguruan modak ez ziren herrian berri. Publizitateak eta komunikabideek hedapen gutxi zuten orduan, eta beraz, jantzi eta zapatak antzeratsu iraun zuten: gaztetan takoidun zapatak erabiltzen hasten ziren neskak eta 18 urtetik aurrera makilatu ere egiten ziren. Belarritakoak txikitatik ipintzen zitzaizkien (Etxeberria eta Elexpuru, 2014: 228). Higiene pertsonalak garrantzia irabazi zuen harrezkero, bereziki emakumeengan, eta hortzetako eskuilen publizitatean hortz zuridun irribarreak azalduko dira.

Arropa kopuru murrizta izaten zuten emakume eta gizonen, eta bainujantziak, esaterako, luxuzko zerbait ziren. Debako hondartzan bainujantziak alokatu egiten ziren, eta horrek adierazten du, jendeak ez zuela etxean horrelakorik. Arropa zaharrekin bainatzeko ohitura zegoen (Etxeberria eta Elexpuru, 2014: 218-219).

Moda-aldaketak susperraldi ekonomikoa eta modernizazioarekin batera etorri ziren batik bat 1960 eta 1970eko hamarkadatan: tendentzia bilakatu ziren emakumeek praktikak janztea, manga motzeko kamisetak eramatea edota ile motza nesken artean. Emakumeen historiaren atalean, edertasunaren inguruko gogoetan gehiago sakondu dugu honen inguruan: nola eragin du modak emakumeen jabekuntza-prozesuan?

Egindako arropa hedatzen egon arren, garestiago zenez, etxean jositako arropa, 1970eko hamarkadara arte erabiliko dute neska eta emakume gehienek:

"Yo te digo que mi madre me ha hecho la ropa hasta que he sido muy mayor. Te digo que un pantalón levis strauss era... buah «me han traído los reyes unos pantalones levis strauss (pozik)» (...) erosi Donostian. Aquí no había keba.. no había... y cuando ibas a una ciudad te quedabas maravillada... pero no éramos nada consumistas" (E4).



Kirrineneko taberna.

5.3.5. Ostalaritza: fonda, kafe eta tabernak

Ostalaritzaren sektorea oso hedatuta egon da mende hasieratik: erdigunean zein auzoetan hainbat taberna zeuden. Kale Barria, Kale Zaharrea eta Foruen Enparantzaren zeuden erdiguneko ostatu gehienak. *Cafeak*, aldiz, herriko plazan kokatzen ziren soilik, estatus altuko tokian.

Taberna, kafe, jatetxe edo fonda lizentziadun gutxi izan dira emakumeak eta gutxi horiek alargunak zirela uste da. Hainbat emakume jabe nabarmentzen dira garai hartan: Catalina Oñate eta Maria Ayesta (KB 11) (Fonda Catalinaren jabeak), Francisca Churruca, Rita Olalde (KB 31), Juliana Errasti (KZ 1) (Modesto Vergara-jaregiren alarguna), Ana Maria Larrea (Araotz, 70), Josefa Galdos (Uribarri, 40), Julian Erostarberen alarguna (AK 11), Luisa Agirrebengoa (Torreuzo 2) Rufina Martirena (KZ 32), Iriondoren alarguna (KZ 17), Maria Jesus Vicuña (Lezesarri 1) edota Francisca Billar (Araotz 111).

Gerra eta gerraostean sektoreak iraun zuen. 1950eko hamarkadaz geroztik nabarmen hasi zen erdigunean: XXI. mendean ezagutu ditugun taberna eta jatetxe gehienak existitzen ziren 1970eko hamarkadan.

1980ko hamarkadara arte emakume jabeak gutxiengo izan ziren: Maria Aguirrebaltategui (uribarri 68), Inocencia Larrañaga (uribarri), Facunda maiztegui (uribarri), Rosa Berastegui *Zenizero*, Estefania Amezua eta haren alaba Florentina Madina (plaza 5), Ines Iñurrategi Aranguren (KZ 26), Inocencia Larrañaga Mendizabal (uribarri) eta Maria Concepcion Lazcano Barrena. Kasu gehienetan alargunak ziren eta haien kabuz negozioa ipini edo negozioarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu zuten: esperientzia gabeak edo ekintzaileak, denetariakoak izan dira: "Ezkondu nintzanean gizonak esan

nostan «tabernia gustaitten xatzu?» eta nik ba, «beste batzuk egitten daueiña neuk be egingo dot» eta hartan hasi nintzen, 55. urtian" (Elizondo, Kontzejupetik 3. zk.).

Aipagarria da ostalaritzaren kasuan, gizonen inplikazioa ezberdina izan dela: tabernako lana, lanaz gain lagunekin sozializatzeko modua izan da, konfort gune bat. Emakumeentzat lana izan da eta ez da beti konfort gune izan. Ardura-maila handiagoa izan dute, oro har, emakumeek (izan zerbitzatzen, sukaldean edo antolatzen).

Gizonen sozializatorako eremu nagusia izan dira tabernak: langileentzako gosari, bazkari eta afariak eman izan dituzte herriko taberna-jatetxeek:

"Y luego venían todos los días a comer...si venía gente de Pilas, de Garay... y había gente de Araoz yo me acuerdo que había gente que trabajaba en Patricio Echeverría y venían por la mañana en autobús de Araoz, tomaban un café o lo que sea... tacita de anís... antes era.. café o lo que sea... y cogían el Oñatiarra para subir a trabajar" (E3).

Batzuek ostatu zerbitzua ere ematen zuten: lanera etorritako migranteak, biajanteak eta garraiolariak ziren bezero ohikoenak: "Etorten zian lehen ba Extremaduratik ta Galiziako jentia ta lanera ta lan bila eta. Eta itten zebain han lo. Epe luzerako, lanera etorten zian ta ba igual hilabetiak edo. Ta urtiak! Batzuk urtiak be bai!" (E5).

Egunero taberna erronda egiten zuten kaleko gizonak eta baseritarrek, larunbat eta domeketan. Mende hasieratik tabernak gizonen topagune zirela dakigu:

"Además de su numerosa clientela, tenía lugar en Bujero una animada tertulia formada por los hermanos Arrazola, Enrique Elorza, Pascual Elortondo, Vicente Erostequi, Telesforo el sastre, Barrutia, Renón, Elías Amezketa, Isidoro Txaketua, Carlos Izaga y Miguel Antón. Isidoro, que era propietario de una carnicería muy acreditada, acostumbrada a desayunar en Bujero a media mañana y para ello llevaba consigo una cazuela, previamente cocinada, con lo más selecto de su establecimiento" (Zubia, 2002: 58).

Mende erditik aurrera fabrikako langileek eguerdian etxera joan aurretik egiten zuten poteoa eta arratsaldean berriro: "Fabrikako birian izaten zan poteua. Lehen bastante taberna gehixau euzen e, lanetik urten eta 2-3 txikito... kao, andriak eukan mahixa gertu, jan eta batzuk artian kafia eta kopia hartuta lanera. Eta gero atzera 19.00etan urteen eta etxea fan baino lehenau txikiteora" (E63).



Bar Cepako Francisca eta Manuel senide eta bezeroekin .



Josefa Busto naparrean, karta jokoan.

Tabernari, dendari, jantzigile eta abarrek ordutegi malgua izan dute eta askok lizentzia hartzen zuten egun erdian trago bat hartzeko, dendan emaztea edo alaba utzita: "Nire aitta faten zan beste tabernetara ta be bai, a hacer su txikiteito. Tenía su hora de hacer la vuelcita con sus amigos. Los tabernaris de Oñati de uno a uno venían a donde la otra taberna" (E5).

Tabernetan ohikoa zen karta-jokoan eta tertulian aritzea. Egund berezietan gizonak kantuan egiten zela gogoratzen dute; feria egun eta jai egunetan, esaterako.

Mende hasieran langileentzako herriko tabernak hauek ziren: Cenicero, Naparra, Antxola (Patrué kale), Maleta, Luis Mandasaiñ, Bodega, Lukasena, Txurruka, Erostegui, Segundoena y Diortxuena. Aurrerago sortu ziren Charriduna, Café Universala (plazan), Cafe-Zar, Kuba, Bujero (ondoren Banco Vizcaya), García-Txikito, Manta-rraña (egun Ona) eta Kuskurrena.

Maila ekonomiko altuko gizonak, aldiz, toki konkrituak zituzten tertulia egiteko: mende hasieran Edmundo Geretarenean topatzen ziren, besteak beste:

"Junto con Bujero, este local constituyo uno de los lugares de reunión más populares y concurridos de la localidad. Debió de ser aún más animada en la época de la apluencia estudiantil a la Universidad. La bodega estaba regida por Francisco Guereta (Frasculo), y más tarde por su hijo y gran amigo nuestro Edmundo. En la tertulia 'del Litro' se juntaban, además del propietario, Vixente Larrañaga, Santos Echeverría, Jose Ramón Zulueta, Toribio Izaga, Martin Orbea, Vixente Zurutuza y Patxi Egaña" (2002: 61).

Garaikoetxea kafea ere toki eksklusiboa zen, astegunez behintzat; herriko mediku, dentista, notario eta abokatuen topagunea. Kafetegia-aren amaieran *reserbaua* zegoen, txoko gorde bat eta bertan ikusten zuten elkar:

"Garaikoetxea zan "coto cerrau": medikuek, eta abokatuek egiten zuten tertulia... hori zan bakarrik gizonantzako eta ze motako gizonantzako! Horreik ez zian biltzen edozein tabernatan... la tertulia de 13.00 a 14.00. Lan egin, la tertulia eta gero bazkaltzera" (E21).

"Garaikoetxean eguneroko jentia zan medikuak, oñatiko medikuak, abogauak, okulistik, horreik danak! Jente horreik danak egunerokuak zian! Baña asteburutan edozein!" (E19).

Emakumeen kasuan, hala ere, lanerako ezpada emakumeak tabernetan berandu arte ez dira gizonen pareko sartu izan: "Gizonak bakarrik! Andrak ba akaso ba bermuta hartzera edo eguardiko denporan edo igual bai e? Fiestetan edo Baña bestela hola gabian gizonak bakarrik! Mutilak!" (E53).

Lagunekin gosaltzera edo hurrekin neguko arratsaldetan kafetegira sartzen hasi zirenerako 1970eko hamarkada zen: emakumeen autonomia handitzearekin batera eman zuten pausoa. Hala ere, salbuespenik bada: Araotzeko emakumeek, merkatuaren ondoren, astoa kanpoan lotu eta Diortxuenean bazkaltzen omen zuten araoztarrek: kopa eta guzti.

Ardoa, kafea eta kopaz gain, bazeuden beste edari batzuk: topolinoa (zerbeza), mende amaiera aldera hasi zen kontsumitzen. Hori baino lehen, zerbeza beltza, emakume dirudunek edaten zuten bularretan esnea izateko. Domeketako vermut-a. Eta pipermina, modernoen edaria.



Margarita Iturmendi Naparrenian.

Edariarekin batera kazuelatxoak, pintxoak edo arrain sikua izaten zituzten: bildotsa, perretxikoak, tripakiak, okela gisatua, intxaurreak eta gaztainak, eta abar. Garaiaren arabera zegoena eskaintzen zen.

Irratia piztuta izaten zuten tabernetan, albistek eta musika entzuteko. Kinielak egiten ziren Txarridunan, Gurian eta Capan, besteak beste, aposturako zaletasuna baitzegoen. Gerora iritsi zen telebista: lehenengo ipini zutenek publizitate gisa jarri zuten, jendeak aparatua ezagutu zezan. Arrakasta handia izan zuen hasieratik, batez ere pelikula ikusi eta kirol-probak bertatik bertara jarraitzeko. Txirrindularitzarako zaletasun handia zegoen garai hartan eta eguerditan izaten ziren inguruetako proba guztiak. Jendetza elkartzen zen tabernetan, lanera sartu aurretik. Telebista ipini izanak, aldiz, tertulia kendu zuela uste dute askok. Iritzi horretakoa zen Guriako Esperantza:

“Lehen radixua bakarrik, partiduak eta entzuteko, orain, musika bariko taberna baten zerbait inportantia falta dala esan leike. Eta, telebisiñua



Emakume gazteak tabernan.

ipintteko gure gizonak intento bat jo baeben be, tabernia txikiña dalako edo, guk geuk eztakogu. Gaiñera neuri behintzat, kuadrilliakin konbersasiñua, mahixan pittin bat egotia gustaitten xat eta telebisiñuak hori kendu egitten dau” (Elizondo, Kontzejupetik 3. zk.).

1980ko hamarkadaz geroztik negozioaren gidari ziren emakumeek ez dute oztoporik izango erregistratzeko garaian. Eta hori kopuruan nabaritzen da: Juana Maiztegi Arregi *Goiko benta*, Celia Arregui Sagasta (Arantzazuko Ama), Maria Pilar Elorza Ayastuy *Zelai-zabal*, Maria Luisa Elorza Leturia (Zubillaga 17), Aniceta Gaztañaga Oroz (AK 26), Encarnacion Lamelas Rodriguez (AK21), Josefa Lasarte Ijurco *Ona*, M^a Concepcion Astiazaran Iturate *Txaketua* (Maiatzak 1), Esperanza Elizondo Erviti *Guria*, Sabina Guridi Iñurrategi *Torre*, M^a Pilar Lazcanoiturburu Garmendia *Umerez*, Rufina Pelejero Lopez (Arantzazu 3), Maria Dolores Guridi Arregui *Luis*, Ana Maria Ugarte Lizarralde (Olabarrieta 44) eta M^a Teresa Biain Iñurrategi *Pako*.

Elkarte gastronomikoen agerpenarekin batera, tabernetan elkartzen ziren asko elkartetara mugitu ziren 1970eko hamarkadaz geroztik. Lasai egoteko espazioak ziren. Taberneak, aldiz, mugimendu handiago zuten dagoeneko:

“Nik uste dot soziedadiak dagozen denboratik hona aldatu dala gehixen. Lehen hemen ixa arratsalde danian kartetan egitten ebeñiak baegoazen orain eztakogu halakorik. Orain pittin bat asentautako jendiak, partidatxua botateko eta sozidatetan dako bere txokua” (E68).



Pilar Lazkanoiturburu eta lankidea kafetegian.



Esperantza Elizondo Gurian.

“Dendia zarrau eta gero faten zian soziedadera, egunero; afaldu, edan, edan, edan eta etxea” (E9).

Mende hasieratik 1960ko hamarkadako susperraldira arte aberatsen kontua zen aisialdia. Hortaz, tabernara egunero joatea ez zen ohikoa. Asteburuetan zegoen mugimendu gehienen: “Astian zihar ba etzan hainbeste jente ibiltzen. Udan eta bai, baña neguan da etzan

ibiltzen. Baña asteburutan jente pilla bat eoten zan, baserriko jente pilla bat ta etortzen zan. Kartatan ittera ta hola... bai” (E19).

Lanegun arruntetan gauetz ez zuten berandu ixten. Hiru bizilagun arduratzen ziren gizonak etxera bidaltzeaz, *serenoak*: abrigo beltz bat soinean, gerrikotik farol bat eta matraka tramankulua zintzilik zeramaten. Gauetz orduak, ordu erdiak eta eguraldiaren berri emateko ardura ere bazuten: “Gabeko 24.00ttan ta-ta-ta (ate-joka) serenuak: “etxera!”. Korpus egunian eta San Migeletan ordubixak arte bakarrik. Etxera! Armallia egoten dok kalian eta “hortik gora gurozuena in!” (Zubia, 2014:64).

Zapatu eta jai egunetan beranduago ixten zuten; ohikoa zen afalosteko kafe, kopa eta puroarekin karta-jokoan aritzea, edo baserritarrek haien arteko tratuak egiteko tertuliak izatea: kopa batekin ordu luzez egoten ziren.

Aisialdi-eredua aldatzeak zuzenean eragiten dio ostalaritzari: 1980ko hamarkadaz geroztik gaueko giroa areagotu zen eta tabernetako lana etxekoekin uztartzea zaildu zitzaizen emakumeei. Seme-alabak zituzten kasuetan



Txarriduna tabernan, Pepita Urcelay, Candi, Maricarmen naparra eta Eduardo Azpiazu.

gizonek egin izan dituzte gaueko turnoak, eta emakumeek, berriz, egunez, etxeko jirarekin uztartzeko.

Industrializazioak bultzatuta etorri zen susperraldi ekonomikoarekin oñatiarren ekonomiak nabarmen egin zuen hobera. Horrek eragin zuzena izan zuen tabernetan, oso urte oparoak izan ziren.

1990eko hamarkadatik aurrera asteguneko txikiteoa berriz jaitsi zen. Batez ere beste zaletasun batzuk agertu zirelako: kirola. Hala ere, asteburuetan jendetza bil-tzen zen: ostiral, larunbat zein domeketan:

“Hemen pasaitten da agostuan bakaziñuak dirala eta gero setienbre eta otubrian jai artian nahastuta gabitzela, eta gero bajue haundixa igarten da. Izan be, beste gauza batzuk be badagoz orain, neguan eskiaittera faten dirala, polideportibua dala, beste entretenimendu batzuk be badauz, eta nik uste dot jentia denetik pittin bat egitten dauela” (Elizondo, Kontzejupetik 3. zk.).

Diotenez, gaur egungo egoeranahiko txarra da, asteburu-tako giroa jaitsi egin delako. Asteburuetan kanpora



Txarriduneko zerbitzariak Dorita Sukia erdian dela.

irteteko joera nagusitu da azken hamarkadan eta horrek ostalariei egiten die minik gehien:

“Lan asko dau, poder adquisitivo es alto orduan jentia ba asteburua aiau ta fan itten da. Normala, a disfrutar de la vida. Eta orduan herrixa geldiketan da hutsik. Eta gero vale, Herri egunian, San Migel egunian, korpus egunian bai atope, baña el día a día no nik uste dot behera doiala” (E27).

Mende erdira arte, gutxienez, ordutegiak ez ziren berdinak taberna guztietan, eskaintzen zuten zerbitzuaren arabera eta bezeroen arabera bakoitzak bere ordutegiak erabaki eta moldatzen zituen.

Zerbitzarixak

Etxeko emakumez gain kanpoko neskek hartzen zituzten zerbitzatzeko. Neskatilak zirela iristen ziren Oñatira, familiarentzat ekarpen ekonomiko bat egiteko asmoz. Gazteak izanik urte zailak izan ziren batzuentzat, ezezagunez inguraturik etxetik kanpo baitzeuden. Beste batzuek, aldiz, “mundua deskubritzeko” aukera moduan ulertu zuten.

Askok aita edo ama galdu zutelako edo gerraosteko errepresio eta eskasiari aurre egiteko lan egiten zuten: “Mi madre se quedó sin madre a los 10 años, vinieron tres hermanas a Oñate (...) alguien le dijo que en un bar de Oñate necesitaban una chica y que no pasaría hambre. Eta hori entzunda etorri zan... a servir al txarriduna” (E3).

Galizia, Extremadura, eta Gaztela eta Leondik lanera etorritako gazteak, ostatueta bizi ziren kasu askotan. Migrazio handiko garai horietan herrian ostatu-zerbitzua eskaintzen zuten etxeak asko ugaritu ziren.



Txaketueneko zerbitzariak.

Orokorrean neska gazteak ziren zerbitzari-lanetarako kontratatzen zirenak. Haietako asko, Goñinenan aritutako asko, adibidez, ostatuaren truke aritzen ziren lanean:

“Tabernan ni ta nere ama, baña gero neska batzuk be eukitten geben. Bai neska batzuk be bai. Fabrikan itten ebein lana eta gero egoten zian gure etxian debalde eta lagundu itten ebein. Galziarrak eta Extremadurakoak batik bat” (E5).

Ostatua ere bertan hartzen zutenak normalean etxeko lanak ere egiten zituzten: “Baina beti beste pertsona batekin. Jentia hartuta... serbittera tabernan eta libre baldinbaueu etxera” (E4).

Neska hauek gehinetan ezkondu arte aritzen ziren lanean:

“Ni 10 urte egon nintzen Garaikoetxean, ezkondu arte” (E19)

“Kriadan bat beti. Zeamakua o Oñatikua Eurok aspertu arte edo ezkondu arte!” (E41-2).

Hala ere, badira kasuak tabernara zerbitzatzera etorri eta etxeko semearekin ezkondu eta bertan jarraitu zutenak. Adibidez, Josefa Urzelai, Txarridunara ezkondua.

Taberna eta jatetxeak, egunerokoan, eremu maskulinoa izan dira eta zerbitzari gehienak emakume ezkongabeak izanik, gizonengandik haien burua babesten ikasi behar izan dute. Asko dira jasan behar izan zituzten eraso sexistak:

“Eta egun baten iñ nontan hola xirri, ta nik tenedoria eskuetan ta danba! Tenedoriakin begi onduan! «Ikutu ez iñ! Gauzak geldidauzenian geldidare!»” (E60).

“ni akordaitten naiz pasaitten nitzanian neskatillatxua, eguen angel korkostegi, tabernan bai? betik tabernan. Eta betik itten noztan “kulerioik bada-kozu?” eta beti gonía jasoten. Eta neretako zan... betik pasaitten neben atxintxika baten. Gizonen gauzak” (E30).

Horregatik, tabernan lanean aritzeko nortasun handikoa izan behar zela diote:

“Mostradoran dauena motxailia izan bida! Harek aurpegixa biadau! Han edozer gauza egon eta entzun bakarrik ez da iñ bihar! Kontestau be bai!” (E60-2).

“Nik 16 urte nekuala han sartu zan tabernara gizon bat ta esan noztan “Ene! Hau neskallia keizia bazan anpolaxa (gerezi mota ederra) seguru!” ta orduan neri ez xaten bape gustau ta kontestau notzan “Ta zu perretxikua baziñan benenosua seguru!”, bere lagun danak barre iñ otzain” (X).

Neska horiek egonaldi luzeak egiten zituzten taberna/etxean eta denborarekin jabeekin harreman estua izatera iristen ziren; *bigarren amak* ziren jabeak edo lankideak *ahizpak*: “Nere amantzako Naparrena era como su familia, eta egunero etorten zan bisitatxo bat edo...” (E4).

Sukaldarixak

Etxean ikasiak eta ikasketadunak zeuden: errezeta-liburuak erabiltzen zituzten zapore berriak aurkitzeko.

“Daku sukalde liburuak, oin dala milla urtekuak (ggg) eta sukalde liburua bai, pero que les gustaba gauzak como que había unas modas eta jarraitetan zian. Suffliak eta, zian oso elegantiak eta itten zian. Etzan sukalde de babak eta “ (E41-3).

“Sukaldian nire amak itten eben. Había aprendido de cocinera en Donosti y ella era la que llevaba... yo ayudándole un poco pero... la madre trabajó mucho!” (E5).

Jatetxez jatetxe ibiltzen ziren, lana zegoen tokiaren arabera:

“Trinidad egunian (Araotzeko jaixak) hareik bixak etorten zian tabernara kamarero mouan aittari lagunketara! Eta gurera etorten zan Angeles koziñeria como kocinera! Eta Araotzeko beste 4-5 bat neska, wapienak, zerbitten! Eta gure ama koziñeria... normalian, finde semanetan ta bea izaten zan koziñeria, baña Trinidadetan jaleo haundixa eoten zan ta orduan ekarten eben koziñeria, Angeles eukan izena. Oñatitik etorten zan. Ta ama ta bixak ibiltten zian” (E53).

Lan ikusezinak egon dira ostalaritzan ere. Adibidez, ur berorik ez zegoenean, astean behin edalontziak ur bero eta jaboiarekin ondo garbitzeaz arduratzen ziren emakume batzuk.

Auzoetako tabernak

Auzoetako ostalaritzak bestelako bilakaera izan du: Arantzazu, Uribarri, Zubillaga, Araotz eta Torreazoko taberna ugari iraun dute 1980ko hamarkadara arte. Laburbilduz, Arantzazun Santutegiak eragin zuzena

izan du bertako ostalaritzan. Zubillagan, aldiz, industria-
ren garapenak auzora biztanleak eta komertzioa ekarri
zuen. Torreazonan eta Olabarrietan taberna bana egon
izan da, auzo bizitzaren adierazle. Araotzeko kasua erdi-
gunetik urrun egoteak baldintzatzen du, eta horregatik
bi taberna/denda zeuden.

Kanpoko lanak eta barruko lanak uztartu behar izan
dituzte auzoetako ostalariek. Baserritarrak izateaz gain
taberna, denda edo ostatua izateak lan gehiago zeka-
rren: ardiak batu, behiak zaindu, *ittaurren* egin, ortua
zaindu, esnea banatu eta gainera zerbitzatu, ontziak
garbitu, oheak aldatu, logelak garbitu... egitekoen ze-
rrenda amaigabea zen. Anai-arreba asko ziren kasu
gehienetan eta horri eskerrak ateratzen zuten aurrera
familia.

Arantzazuko kasuan uda garaian udatiar asko izaten
zen: belaunaldiz belaunaldi etorri diren Donostiako
famiak, mendiz etortzen ziren arabarrak Ama Birji-
na ikusteko asmoz, haurren *txutxurrutxu* estularentzat
Arantzazuko airea ona zelakoan, sendatzeko asmoz ze-
tozen famiak, eta abar. Auzo horretan ostalari sekto-
reak ez du aldaketa nabarmenik izan kopuruan; mende
hasieratik eutsi diote familia-negozioek.

Auzoetako ostalarientzat domekak garrantzitsuak zi-
ren; deskantsurako eguna gizonak aprobetxatzen zuten
tabernan egon, tabakoa erosi eta elkarrekin afaltzeko.

5.3.6. Gerraosteko eskasia: arrazionamendua eta estraperloa

Gerraren ostean egoera tamalgarrian eskasia handia
zegoen. "Duruja jan biharku!" moduko espresioek ondo
islatzen dute gerraosteko produktuen eskasia hori: ara-
zoa ez zegoen erosteko ahalmenean, produktuen faltan
baizik.

Eskasia egoera horren aurrean oinarritzko produktuak
zituzten baserritarrek: kalean bizi zirenen aldean egoe-
ra horri hobeto aurre egiteko baliabideak zituzten ba-
serritarrek. Egoera hori izanik, baserritarrekin zuten
harremanari esker irten ziren aurrera kaletar asko: "ge-
rra denporan, eskasixa egon zanian, asko zalbau zian
kalekuak baserritakuatik. Orduan garixa eta iten ebein
ogixa, hemen ez eun ogirik, eta aunque sea.... famosos
jantzetxes, salbaron el pueblo!" (E32-3).

Gerraren ondotik miseria eta eskasia urteak etorri zi-
ren. Gobernu frankistak politika ekonomiko autarkikoa
helburu oinarritzko produktuen eskasari aurre egiteko
arrazionamendua ezarri zuen hamahiru urtez (1939-
1952). 178 produktuetan ezarri zen arrazionamendua,

herritar guztiek minimo bat izan zezaten (Gago, 2003:
266). Hala ere, errazioak oso eskasak ziren: ideia egi-
teko, 1943ko hiritar batek urte osorako 7 litro olio, kilo
erdi jaboia eta 3 kilo arroz zituen, besteak beste (Lasa,
2011: 117).

Urte horietan Estatuak oinarritzko produktuak interbeni-
tu zituen, eta horiek eskuratzeko herritarrek arrazona-
mendua-kartillak erabiltzen zituzten: Udaletxean esku-
ratzen zen kartilla eta hiru hiritar kategoria zeuden: maila
soziala, osasun-egoera eta familia-buruaren lanbidea-
ren arabera. Familiako kide kopuruaren arabera ku-
poiak jasotzen ziren bertan, eta ondoren, dendetan
produktuekin trukatu. Guztiek oinarritzko elikagai ba-
tzuk izatea bermatu nahi izan zuten neurri horrekin: txi-
txirioak, patatak, boniatua, azukrea, irina, bakailoa eta
oso noizean behin, membrilloa, txokolatea edo jaboia.

Hala, 1940ko hamarkada ezaugarritu zuten estraper-
loak, arrazionamendua eta ilara-luzeak. Emakumeen
bizirauteko estrategiei, ausardiari eta sormenari esker
egin zitzaion aurre egora latz horri: "No había nada!
Denda danak hustuta! Eta azukarra eta horreik be con
cartilla! Dendetan itten zan kolia eta emuten ozkuen
bale bat, hilian behin. Gramoka eta por persona. Baina
gutxi zan " (E51).

"Los de abastos" izenez ezagutzen ziren Estatuko fun-
tzionarioak, herriz herri ibiltzen ziren uzta eta abereak
jasotzen: "Euki bigeben aiuntamentuko permisia txarri-
xa hiltteko. Aguazilla pasaitten zan ikustera si estába-
mos en ley o que" (E41-1).

Ondoren, jaki horiek birbanatzen zituzten, haien iriz-
pideen arabera. Hala, hornitzaileak Oñatira banatzera
etortzen zirenean, danborrerotxok abisatzen zuten, dan-
borra joz: "Eta gero ba kamionen bat kanpotik etorten
bazan. Ba naranjakin edo tomatiaquin edo beste frutan
batekin danborreotxok jotzen eben *drroo*" (E66).

Arrazionamendua zuzenean eragin zion merkatarit-
zari: produktu-faltak eta legea bete beharrak mende
osoko egoera berezienean ipini zituen merkataria. Ins-
tituzioen eta herritarren arteko zubia ziren, eta eskasia
garaian, haiek ziren herriko hornitzaileak. Erantzukizun
handia zuten beregain eta posizio zaila zubi-lan horre-
tan: kartillak kudeatu behar zituzten eta kupoiak Udale-
txean entregatu, besteak beste (Gago, 2003: 100).

Laburbilduz, Estatuak merkataritza erabili zuen erre-
gimen berria inposatu eta arrazionamendua aurrera
eramateko. Trukean merkatariek ez zuten apenas ira-
bazirik, eta gainera, boterearen jomugan egon ziren
dendari ustel potentzialak zirelako.

Etxeetako ekonomiari dagokionez, etxeoandreek estrategiak garatu zituzten bizirauteko: janari arrazionatuak lortzeko ilarak egiteko mekanismoak, menuak eskasiara egokitzeko, jantziak birziklatzea, aroztegiako egur eta zerrauts soberakina jasotzea sua egiteko, eta abar: “Dirua baeuen baina erosteko ezebez. Salia a la mañana con cinco potes. Y para aprovechar las colas poníamos un pote en cada cola” (E47).

Esan bezala, oihalak ere murriztu egin ziren eta jendeak ezin zuen beharbeste erosi. Hala, jostuntzaz zekiten guztia praktikan ipini eta jantziak berrerabili behar izan zituzten; eskasia garaian itxura ona emateko estrategia bat izan zen: “*pasando hambre pero guapas*”: “Dendatan gastau zan dan-dana. Harixak be gastau in zian! Zakuak... patata zakuak, ttinttau bai? Eta zakuakin erropak itten!” (E51).

Arrazionamenduaren ondorio argiena izan zen estraperloa. Estatuak merkatuan zuen esku-hartze zorrotzaren eraginez, ekonomia paralelo eta klandestino bat sortu zen. Merkatu beltzean eskaria eta eskatzailearen arauak logika kapitalistarekin funtzionatu zuen.

Herritar guztiek eskuratzen zituzten estraperloz produktuak, praktika hedatua zen. Beraz, Estatuak onartu eta kontrolatu egin zuen estraperloa (ibidem, 229):

“Una vez me pasó en el estraperlo, hubo una temporada que no podíamos tener ni azúcar ni café. Mi madre fue recadista en Vitoria porque hace mucho que teníamos tiendas y yo vendía todo, pero no los tenía a la vista y cuando salió eso vino un guardia civil y me dijo, tiene usted azúcar? Ya sabe que sí y me dijo pues deme un kilo, medio kilo no me acuerdo cuánto pidió, y bueno y gracias porque si me llega a decir que no tenía le requisó todo. Y se fue sin pagarme el muy desgraciado.” (E15)

Oñatiko bide naturalak jarraitzen zituzten, mendiak igaroz, bide azkar eta motzenak egin nahian. Mendiko joan-etorri horren lekuko dira San Juan Artixa, Arrikuzko etxean edota Goikobenta, historikoki mandazainen-tzako ostatu izandakoak (Zubia, 2002: 43).

Eta emakume merkatariak aurpegi bikoitzarekin jokatu zuten eta testigantza ugari dago:

“Nosotras pusimos un poco más tarde la tienda, mi madre solía decir que había policías secretos para pillar a las recadistas, el interventor les hacía una seña y las mujeres ya sabían que los policías estaban ahí entonces tiraban las cosas por la ventana y luego, a la noche volvían a recogerlo. Si les llegaban

a pillar, tenían multas y hasta cárcel por andar con eso” (E15).

“Gu hasi giñanian garai txarra zan. Ni fanda nau Bergarara hola, como de estraperlo gañera ixilik ekarri bihar zan eta ekarritta nau: garbantzuak, kafia, txokolatia... txokolatia gerekana egonda, aman primuak zian, aun y todo baina Bergaratik ekarri bihar ogixan papel zurixakin, izen barik ez ezebe. Trenian bakarrik 14-15 urteko neskatillia. (...) nik tia bat neukan han karnaxiakin eta harek eukan amistadiak eta handik ekarri ahal zala. Hareik eukain amistadiak almenista batzuk eta “ (E12).

“Guk ipintten geben errotan izaria, han guardia zibilak euzenian, azkontegitik ikusi deihen han guardia zibilak euzela, kontraseña! Ez etorteko gurera!” (E60-1).

Estraperloaren praktikak janari-dendetan izan zuen eragin handiena. Eskasia eta miseria garaietan jatekoari, oinarriko produktu gisa, ematen baitzaio garrantzi handien. Hala ere, bigarren mailako behar bezala kokatuta egon arren, oihaldendetan ere egon ziren estraperlo kasuak: “Ni akordaitzen naiz kontrabanduan ekarten ebeila “medias de nailon”. Portaleko atetik sartzen zian, hartzen gotsain eta gertuko jentiarri saltzen gotsan” (E31). Ehungintzan erreferente zen Bergarako herria gertu izateak estraperlo hau erraztu zuen.

Oro har, alargun askoren ogibidea izan zen estraperloa: emakume sareak zituzten, bata bestearen babesaz errazago aritzen zirelako legalitatearen itzalean.

5.3.7. Zerbitzuak

Zerbitzuen sektoreak ez du produktuen salerosketarekin egiten negozioa, langilearen ezagutza edo eskulana saltzen du. Oro har, sektore maskulinizatua da. Gehientzuenek erdigunean lan egiten zuten. Funtzionamendu ezberdina izan dutenez, atal berezi honetan landu ditugu:

Etzetresnak eta lehengaiak

Sail honetan biltzen dira: ferreteria edo burdindegia, sukaldeko tresneria eta bestelako artisauak: *sillera*, *hojalaterua*, *txatarrerua*, *kinkallerua*. Artisau, saltzaile eta erosle, azpisektore hau gizonezkoena izan dela uste da.

Nolanahi ere, *ferreterietako* edo burdindegiko jabe ere izan dira hainbat emakume historian: erregistratutako lehena Josefa Antonia Garicano (AK 14) izan zen: men-

de hasieran jardun zuen. Garai berean Mariana Agirrek (AK 8) katxarroak saltzen zituen (Felipe Ayastuik jarraitu zion). 1937an sei ferreteria erregistratu ziren, inoizko kopururik handiena. Horien artean zegoen Vitorina Sarasola Olalde (Bakardadeko ama, 8) eta 1950ko hamarkadan Marina Arrazola Idigorasek eman zion jarraipena.

Hojalateroak edo *latorrigileak* areagotu egin ziren mende hasieratik 1960ko hamarkadara arte, gerora gutxi-naka desagertu egin ziren. Olaldetarrak izan ziren herriko *silleroak*, gerra ondoren arte.

Ehizarako munizioa pare bat tokitan aurki zitekeen mende erdi aldera, besteak beste, Angeles Aldanondo Muruarenean (KB 39).

Sukaldatzeko egurra edo ikatza behar izaten zen. Eraikitzekeo teilak, adreilua eta igeltsua. Orturako ongarriak, garbitzeko lixiba edo motorrentzat gasolina, besteak beste. Horiek guztiak erdiguneko komertzio txikian aurki zitezkeen 1970ko hamarkadara arte.

Elektrikariak

Suak elektrizitateari tokia egin zion XX. mendean zehar, eta 1970eko hamarkadarako elektrikari ugari zegoen herrian; guztiak gizonak. Aipatu behar da, hala ere, elektrikariek etxez etxe lan egiten zuten bitartean, denda emakumeek jarduten zutela: Felix Arregiren denda, esaterako, Maria Pilar Murgiondo eta laguntzaile bat aritzen ziren. Horrez gain, 1940an Elvira Cardenal de Rossetek (KZ 57) negozio baten ardura zuen. Azken horren inguruan ezin izan dugu gehiago jakin.

“Irratia izan zen lehena iristen komunikabideen alorrean. Gerra garaian etxe batzuetan bazegoen: «Radio Paris klandestinamente entzuten geben. Madariaga desde París. Y el padre Olaso. Etxeik etxe ibiltten ginan ha entzuteko. Recien inventada la radio zeñek eukan dirua ha erosteko?»” (E51-2).

Gailu elektrikoak era nabarmenean hedatuz joan ziren 1970eko hamarkadaz geroztik. Elektrikariek dendetara produktu berriak ekarri zituzten, eta hala, telefonoa, telebista edota etxerako gailuak etxeetara iritsi ziren.

Azpi sektorearen arabera emakumeen presentzia eta garrantzia agerikoagoa edo ezkutukoagoa izan da; elektrikarien munduan ezkutuan egon dira, izan ere, zerbitzua ematen zuena elektrikaria zen: senarra edo aita.

Dendan gailuak saltzea eta kontabilitatea eramatea bigarren mailakoa zela zirudien: ez zen hala, ordea. Aurrerapen teknologiko handia bizi zen garai hartan,

berritasunetara egokitu, etengabe produktu berriei buruz ikasi, eta arriskatzeko hautua egin behar izan zuten emakume kontulariek:

“Aitta jubilau zan negoziua semian izenian jarri ebenian. Nahiz eta dana amak eruan arren (...) ama al pie del cañón llevando el negocio hasta los 79 egon zan” (E10).

“Amak be etzeben kotizau: `cara a la ley´ ez eben existitten. Hori bai, lana iñ tanto como el padre ze dendia eta kontabilidada beak eruatzen eben” (E10).

Zerbitzua izan da negozioaren motorra, eta are gehiago, garaiotan, produktuak edonon merkeago aurki daitezkeenean. Etxez etxeko zerbitzua ematen duten elektrikariek adineko jendearen errealitatearekin egiten dute topo: bakarrik daude asko eta asko, eta elektrikariarengan babesa bilatzen dute:

“Eta guk saltzen du no por el producto, porque damos un servicio: kolokau, esplikau, te llaman, fan, esplikau bla-bla-bla...” (E10).

“Hay mucha gente que está sola. Igual seme-alabak euki arren be o kanpuan o lanian ta jente asko dau bakarrik. Y no tienen miedo de llamarle a Mikel igual porque no ve los canales eta «ya voy!» y un poco de mimitos. Gero ta gehixau dau horren biharra. Gu be aiauko gara, porque pensamos que no nos va llegar baña guri be kosta ingo xaku edade batetik aurrera barrixak ikastia!” (E10).

Garraiobideak: trena, *diarixua* eta bizikleta alkilerrak

Oñatiko trena 1919an inauguratu zen eta 1967ra arte egon zen martxan. Horrek San Prudentziorekin lotzen zuen herria. Handik Bergarara Ferrocarril de Vascondosekin joan zitezkeen. Eta Gasteizera Anglo-Vasco linearekin. Bestalde, Brinkolan Ferrocarril del Norte har zitezkeen Donostiranzko edo Madrileranzko bidea hartzeko.

Alabaina, urte luzez *diarixuak* erabili izan ziren garraio-bide gisa: hiru zaldik bultzatutako gurdia zen, hamar bat lagunentzako tokiarekin (Zubia, 2002: 44).

Beranduago La Oñatiarra sortu zen. Bulegoa Lukasena etxeko behean zuen. Autobus, kamioi eta auto zerbitzua eskaintzen hasi zen, Hipólito txofer zuela (Zubia, 2002: 46).

Arantzazu eta Araotzekoak diarixuan jaisten ziren herrira eta Zubillagakoak, berriz, trenez edo autobusez:



Angeles Aldanondo eta Alicia, naparreneko zerbitzaria, Korpus egunez

“Araoztarrak diarixuan faten giñan, urtiagainetik. Billo-ba astuakin Urtiagain gainera fan errekaui bila, astuan kargau eta etxera” (E31).

Bizikletari dagokionez, gerra aurretik inor gutxi zuten bizikleta bat etxean, baina gerraostean alokatzen hasi ziren lanera joateko edo jolaserako. *Alkilerra* zeritzan zerbitzuari: “Jentia lanerako hartzen eben bizikletia eta bueltan berriz ekarten eben. Etzan para ocio, zan “medio de transporte”. Hasiera baten “alquiler de bicicletas” zan ta alkilerra fango zan pittinka-pittinka bukaketan eta bizikletak saltzen. Del alkiler a la venta!” (E28).

Autoz baino lehenago jendea bizikletaz edo motorrez mugitzen zen herri eta auzoetan. Bizikleta baten kostua altua zenez, bat erosi baino alokatu egiten zuten askok eta askok. Alkiler bana egon ohi zen Kale Barrian eta Kale Zaharran; eskura egon behar zuten langileek bizikletak behar baitzituzten lantokira joan-etorria egiteko. Baita neska-mutikoek asteburuetan jolasteko ere.

Alkilerra eta erreparazioa, dena bat izaten zenez, gizonak aritu ziren lanbide honetan. Bakarra gidatu zuten

emakume batek: Angeles Aldanondo Muruak (KB 39). Berak eraman zuten negozioa bere senarra hil ondoren.

1967an trena kendu zutenerako, motorrak hedatuta zeuden eta auzoetako gizon askok zuten bat. Emakumeek, ordea, ez hainbeste, baina bada atzeko parrillan behar zena lotu eta errekadutara motorrean jaisten zenik.

Oro har, mugikortasunerako baliabideak izatea, emakume auzotarren bizitzetan erabakiorra izan zen, izan ere, emakumeen menpekotasuna iraunarazteko tresna garrantzitsua izan da garraiorako oztoppo, Manuel Delgado (2007) antropologoak dioenez: “La movilidad han sido uno de los grandes argumentos para reificar la condición subalterna de la mujer, sometida simbólica y materialmente a los imperativos puntos estáticos como son la tierra y la casa” (Delgado, 2007: 249).

1980ko hamarkadaz geroztik autoa hedatu zen, eta horrekin batera mugikortasunerako aukerak zabaldu ziren. Era berean, tailerrak erdigunetik auzoetara lekualdatu ziren eta gizonezkoen arloa izaten jarraitu du, gaur egun arte.

Estanko eta paper-dendak

Egunkariak, liburuak, aldizkariak estankoetan saldu izan dira historikoki: 1940an Estanku zaharren (Plaza, 10) eta Altunan (KB 23) saltzen zituzten. Ondoren Ibarrendon (Plaza, 9) eta Irizarren (Plaza 5) ere.



Altuna estankoa kanpotik.



Altuna estankoan, Petra Lazkano-iturburu billobarekin.

Bulego-materiala ere saltzen zuten, baina denetarik saltzen zuten dendetan ere aurki zitezkeen: estilografikak, Parker eta marka bereziak...

Saltoki guztiak gizonen jabetzan egon arren, jakina da emakumeek lan egin izan dutela. Hala, 1970-80ko hamarkadetan guztiak emakumeen jabetza izatera pasa ziren: Maria Cristina Ibarrodo Oleaga, Concepcion Ugarte Aguirre *Estanku zahar*, Pilar Altuna Iturburu eta Gloria Irizar Zumalde jatorrizko jabeen alabak izan dira. Horietako batzuen alabek jarraitzen dute egun.

Felisa Enparanza Galdosen (KZ 4) kasua, ordea, ezberdina da: joskina izaki, botoiak forratzen jarduten zuen. 1970eko hamarkadan egunkariak saltzeko lizentzia lortu eta liburu-denda ipini zuen: egunkariak saltzeaz gain, komiki eta liburuak trukatzan zituen.

Oro har, mende erditik hona arloa feminizatu egin da.

Arotzetik dekoratzailera

Artisaugintza XX. mendean zehar galdu da, garapen teknologikoak industrializazioa ekarri baitu, baita altzairugintzan ere. Herriko arotz eta ebanistek enkarguz egiten zituzten lehen etxeetako zoruak, leihoak, atepak, altzariak eta abar.

Barueko arotzak erreferente izan ziren: (6) Pio eta Migel Elorza, Rufino Moiu... Bertan ikasi zuten herriko erakuntza enpresetako langileek: Construcciones Ugarte, Egaralur, eta abar.

Etxearen azpian tailerrak zituzten, eta egun Euskadi etorbidea dena, haien ortuak eta zerrategia ziren. 1950eko hamarkada amaieran Euskadi-etorbidea erakitzekeo proiektua abian jarri zen, eta erabat aldatu zitzaizen etxe ingurua eta ogibidea:

“Baruetik Zirrinkañeko etxera hor pareta haundi bat euen, ate haaaundi bat eta gure aittak eta han eukain zerrerixa haundi bat eta sei ortuak. Avenidia in eta kamiñua pasaitteko expropiatu inozten (...) geratu zian etxiakin eta Avenidan lokal banakin” (E40-1).

Arotzen seme-alaben negozioak dira harrezkero Avenidan ipini zirenak, desjabetzeak konpentsatzeko lokal bana eman baitzitzaizen: Antton taberna, Cartonajes Arregi, Moiu eta Arregi altzariak, Maritxuren autozerbitzua eta Mari Carmenen hari-denda *Piona*.

1960ko hamarkadaz geroztik kanpotik ekarritako altzariak saldu izan dira. Altzairu-denda ugari egon zen eta negozio oparoak izan ziren: Moiu, Arregi, Idigoras-Aranburu eta Pakita.

Oñatin 1960ko hamarkadan auzo berriak eraiki ziren: Euskadi etorbidea, Olakua eta Errekalde. Hala, etxean janzteko beharra sortu zen. Ordurako, gainera, etxe tresna berriak ugaritzen hasi ziren, komun zaharrak aldatu, eta ur-berogailuak instalatu zituzten. Etxearen banaketan eta dekorazioan tendentziak hasi ziren: “Paretako papela be oso modan egon zan, lurrian be moke-tak ta alfombrak” (E40-1).

Komedore edo egongelaren sorrera da orduko aldaketarik esanguratsuenak: egongelak familia biltzeko guneak bihurtuko dira, eta emakumeak sukaldea eta egongela bitartean biziko dira. Bazkari eta afaritarako mahai handi bat erdian izaten zen. Eta ontzi (*vajilla*) ederrak eta kafe-jokoa espozisiorako:

“12 plater sakon, 24 apalak eta 12 postre, fuentia, soperia, salseria... dana. Osea izaten zan 57 pieza, 12 zerbizio, mahai doteretan. Ekarten geben Bavarriatik, de la Cartuja de Sevilla eta gero Bidasoa... Eta gero “kafe jokuak”, jokura saltzen dian kafeteria azukareria... Eta hori arriorako erosten ebein” (E1).

Irratiaren albora iritsi zen telebista, 1964ko Olinpiar Jokoen garaian. Hala, egongelatako mahaia kendu eta

telebistarentzako altzariak jarri ziren: oso modan ipini ziren liburutegi luzeak.

1970eko hamarkadarako artisau altzairugileak desageru egin ziren eta altzairu-dendak hedatu ziren, 1980ko hamarkadan sei egoteraino. Gehienak gizonen jabetzan egon arren, altzairu-dendatan emakumeak aritu izan dira, gehienetan arotzen alabak. Horietako bat da Esther Moyua Ugarte (Euskadi Etorbidea, 6).

Etixerako bestelako osagarrien salmentaz arduratu izan direnen artean, emakume bat aipatu nahi dugu: Rita Empanza Bengoak (AK 6) oihal-dendan alfonbrak ere saltzen zituen.

XXI. mende hasieran dekorazioaren sektoreak aldaketa handiak bizi izan zituen: altzairuen industrializazioarekin batera merkatalgune handiek erakarri dute jendea. Dekorazioa profesionalizatu egin da, eta hortaz, altzairuak saltzetik erreforma eta dekorazio-aholkularitza ematera igaro dira herriko dekoratzaileak. Guztiak ikasketadun emakumeak dira.

Etxeak dekoratzeko tendentziak aldatuz joan dira harezkeroko, eta XXI.mendean altzaria baino aholkularitza zerbitzua eta erreformen kudeaketa da ogibidea: 2000an Barue dekoratzaileak izan ziren lehenak. Harezkeroko hainbat zabaldu dira.

Bezeroei dagokienez ere emakumeekin izan dute tratu gehien: etxearen ardura emakumeek izan dutelako, baina ordaintzeko garaian gizonaren onspena behar zen: "Erostera generalian parejia etorten zan. Lehengo andriak bistazo bat jotzen eben, baina gero zenbat balixo dauen edo "hori aukeratu dot gizon, gustaitten zatzu?" (E40-1).

Bizartegi eta ile-apaindegia

Bizargin ugari egon da mende hasieratik eta areagotu egin ziren 1930eko hamarkadaz geroztik. Guztiak gizonak ziren eta erdiko kaleetan zituzten bizartegiak. Askok alpargata, ehiza-munizioa, ikatza eta beste ere saltzen zuten eta topagune izaera ere bazuten:

"jentiak, bueno! barbeixan itten zittuain egonaldiak... Zan club social! Soziedade bat moduan praktikamente! Han etorten zian gizon pillla bat eta euren kontuak! Klaro, lehen ez euzen telefonorik ta istoixarik orduan, orduan han enteaitten zian herriko kontu danak... zan pittin bat komunikazio zentrua" (E43-2).

Bizargin eta ile-apaintzaileen kasua berezia da: aita-seme edo amatik alabara transmititzeaz gain, apendiz

bidez eman izan zaio jarraipena sektoreari. Ezagutza behar zenez "ofizioa" ikasi behar. Beraz, bokazioa eta apustu serioagoa eskatzen zuen lanbide honek.

1960-70eko hamarkadara arte ikasketa ofizialik ez zegoenez (ez behintzat hedatuta) ofizioa beste bizargin batekin lanean ikasten zen, *aprendiz* gisa. Bestalde, Mardril eta Bartzelonara ikastera joan ziren herriko emakume batzuk: Sabina Igartua eta Ana Mari Letamendi, besteak beste.

1970eko hamarkadatik aurrera, berriz, ile-apaintzaile ikasketak eskaintzen zituzten akademiak zabaldu ziren:

"Honein garaixan ez euen akademixarik ez historixarik... ni ia direkto akademixara fan nintzen" (E43).

"Lehengo apendizak! Gaur egun ia apendiz mouan sartzia delikauaua zan, ze bezeruak esaten otzuen "EEH!", ez dotzue hartzen. Orduan inbiozu lehengo ikasi ta gero hasi. Diferentia da sistemial!" (E43).

Hala ere, ikasketak izan arren ohikoa zeurea propioa ireki aurretik hainbat urtetan beste ile-apaindegi batean lan egitea izan da. Ofizioaren ezagutza gurasoengandik seme-alabengana pasatu da askotan. Horrela, Oñatiko ile-apaindegi batzuetan 2-3 belaunaldi dihardute lanean. Adibidez: Ugarte, Sesiñena edo Ion.

Hasiera batean bizarginak ziren. Izenak berak dioen moduan bizarra terminotik dator, bizarra moztea baitzen haien zeregina. Bezeroak soilik gizonetakoak ziren: "Andria sartu zan mundo horretan beranduau. Andrak etxian mozten ebein eta mundo hori gizonetakoana izan da..." (E43).

Salbuespen moduan *garçonne* erara ilea moztea gustatzen zitzaieen emakume batzuk: "Emakumezko batzuk ke les encantaba el pelo llevar cortau a lo garçon" (E67).

Baina, orokorrean, emakumeek ez zuten ohiturarik ilea apaintzeko. Emakumeek diru propioa ez izateak eta gerraosteko austeritatea iraunarazteak eragina zuten erabaki horretan:

"Ule luzia ta moño bat iñ ta aurrera!" (E34-1).

"Emakumiak urtian behin. Urtian behin permanente bat iñ eta atzera melenia luzatu arte!" (E34-1).

Gizonetakoak, berriz, sarri joaten ziren eta oso koketoak omen ziren:

“Ohitturak berriz, normala izaten zan hilian behin ulia moztea. Eta tartian segun batzuk arreglo bat o kogotia garbittu edo edo bizarra kendu neska edo nobixia ikusi biabaebain kuriosotxuauau fateko ta orduan barbeixara fatia zan ba bizarra kendu, garbittu sartzen zan dana! Informaziñua, garbittu bat ta elizia be gizonak be oso koketuak... gure izaten ebein fatia txukun” (E43-2).

“Oin emakumiakin itten dan mouan, guk lehen bodatan gizonetzkuakin itten geben lan asko” (E43-2).

Emakumeak susperraldi ekonomikoarekin batera, haiek ere etxetik kanpo lanean hasi eta haien diru propioa irabazten hasi ahala hasiko dira ile-apaindegitaro sartzen: “Cuando la mujer empezó a introducirse en el mundo laboral. Hortxen hasi zan pelukixara gehixau etorten. Apur bat emakumia hasi zanian lanian edo orduantxe! Eta ez bakarrik hori. Janzkerak be bai. Janzkerak be noiz aldatu zian? En los años 50-60 hor hasten da aldaketan “ (E67).

Jada itxurari garrantzia gehiago ematen hasiko zaio eta horrek edertasunera bideratutako zerbitzuen gorakada ekarriko du. Baita jantziak eta modarena ere:

“Emakumiak eurak be bai euran dirua irabazten hasi zianian ba ia ba lanian ta ia umiak be eskolataro ta faten gehixau ta dana aldatu zan! Hor etorri zan tremendako kanbixua. Hor azkenian dana aldatu zan. Andrak gehixau urteten, andrak tabernetara sartzen Lehen bestela andrak edaten hori etorri zan con la revolución industrial! Hori dana batea etorri zan! Hori ia ba gure ama ta. Hasi ziala ia fabriketan ta lanian. Ba ia hasten zara fabriketan lanian, ia kafe bat hartzen dozu lagunakin ia dana inplikaitten dau! Ia uliari be gehixau beketan zatzu! Gehixau dakozu ekonomikamente. Ia bixak lanian ta orduan gehixau hasten zara mundo horretan eta ia hasten dia pelukixak eraitten“ (E43-1).

Garai honetan Oñatin emakumezkoentzat hainbat ile-apaindegi irekiko dira: lehen emakume ile-apaintzailea 1930eko hamarkadan erregistratu zen: Josefina Balzategi Zirioestegi (Moyua 28). Ondorengoak izan ziren Maritxu Ugarte Aiastui (KZ 32) eta Juli Arregi *makalenera* (Ramon Irizar 3). 1960ko hamarkada arte ez zen gehiago egon. Isabel Arabaolaza (AK 12) eta Ana Mari Letamendi Garai (AK 2) izan ziren hurrengoak. 70ko hamarkadan beste hiru gehitu ziren: Rosario Goenaga Urcelay (AK 11), Sabina Igartua Igartua (KB 53) eta Maria M. Zabaleta Urcelay (Maria Irizar 1). 1980an beste bi hasi ziren: Toñi Perez Alonso (Euskadi Etorbidea 10) eta

M^a Angeles eta M^a Jose Jauregialzo ahizpak (AK). 1980ko hamarkadarako erregistroan bi bizargin zeuden soilik eta ile-apaintzaile ugari.

Jada *barberia* izena aldatzeko beharra sortzen da eta barberiatik edo bizartegitik ile-apaintzaile bezala auto-izendatzen hasiko dira:

“Barbeixa terminuak bai diskriminaitten dau barbeixia da gizonak. Eta hor hasi zian sortzen mixtuak. Andria hasi zan sartzen hor mundu hortan ta orduan barbeixa terminua ez zan egokixa. Ze izenak esaten dauen mouan zan bizarra Ta orduan ba pelukeriak abarkaitten dau dana! Gizonak eta andria! Ta azkenian pittin bat hori da eboluziñua Ta eurak hasi zian ia euren buruari pelukero deiketan! 70. hamarkadan edo ia pelukeria!” (E43).

Bezeroen profilean aldaketak gertatu dira, eta baita langileen profilean ere. Tradizionalki oso sektore maskulinoa izan da bizarginena eta bezeroak ere gizonetakoak ziren. Arloan emakume profesionalak sartu ahala emakumezko bezeroak ere ugartu dira, eta egun oso sektore feminizatua da.

Modak eragin zuzena izan du zerbitzu honetan: orrazkeretan estilo-aldaketak izan dira mendean zehar, hala nola, *garçonne* ile-orrazkera (1920ko hamarkadatik aurrera), Hippy garaian ile eta bizar luzeak (1960ko hamarkada) eta garaian garaiko pertsonaia famatuek zeramatzen orrazkerak: Adela Cantalapiedra, Julia Oteroren ile motza, Los Angeles de Charlyren melena, eta abar.

Europa mailan berritasunak Ingalaterratik zetozkien ile-apaintzaileei: teknologiaren aurrerapen handia gertatu zen 1970eko hamakada amaieran: lehorgailuak, plantzak, *rizadorak*...

Koloreak ere ugartu ziren garai hartan: kolore beltza, ilehoria eta kastañoa izatetik, “beltz urdina” eta “beltz biolin” tonuak sortu ziren.

Sektore honen ibilbidea oparua izan da eta horren adierazle da auzo berrietan ile-apaindegi berriak sortu eta erdigunekoak mantendu izana. Gaur egungo ile-apaintzaileek artistatzat dute euren burua: forma, estilo eta koloreekin lan egiten duten artistak.

Drogeria eta lurrin-dendak

Drogeriak mende hasieratik zeuden, tamaina txikiagoan: hau ere sektore feminizatua izan da. 1925ean Viuda de Anacabe (KZ 26) da erregistratutako emaku-



Garbi drogeriako ahizpak.

me jabe bakarra. Gerra ondorengoak dira Galarza (KB 6) eta Urrutia ahizpenak (KB 54).

1960 urtean gorakada egon zen, produktuak areago-tzearekin batera: garbitasuneko produktuak zein edertasunekoak ugaritu ziren.

Mende erdian lurrinak saltzen ziren denetariko denda batzuetan. Upeletan izaten zituzten likidoak eta bezeroek etxetik ekarritako botilatxoan eramaten zituzten. Lurrin artisaua zen, Juanitosenean, esaterako, biltegian bertan egiten baitzuten.

Urrutia ahizpek sortu zuten lehenengo lurrin eta kosmetika denda Oñatin. Haien ohiko bezeroak ziren, esaterako, Pila fabrikako ingeniarien emazteak. 1960ko hamarkadan, industrializazioaren hastapenetan, Oñatiko maila ekonomikoa igotzen hasi zela oroitzen dute. Eta nola hori edertasunaren sektorearentzat hauspo izan zen; produktu eta zerbitzu berriak eskaintzeko aukera.

Drogerian saltzen ziren produktu asko, denetariko denda eta supermerkatuetan saltzen hasi ziren mende bukaeran, 1990eko hamarkadaz geroztik. Horregatik espezializazio hori desagertu zen.

Edertasun-zentroak

Edertasun-zentroak, ile-apaindegia ez bezala, edertasunaren *boom*arekin sortu ziren, emakumeen eder-

Instituto de Belleza Lirain

Invita a Ud. a conocer sus instalaciones de SAUMIXOZÓN, MASAJE Y MECANOTERAPIA.

Será un placer recibirle en nuestro establecimiento y ofrecerle nuestros servicios de:

MASAJE CORPORAL MANUAL
" VIBRATORIO
TRATAMIENTO CELULITIS
" OBESIDAD

SAUNA MIXTA INDIVIDUAL CON OZONO
ELIMINACION TOXINAS-MECANOTERAPIA

20/005159.7

LIRAIN c/ Zumalacárregui, 24 - Bajo Teléfono, 781259

Lirain estetika zentroaren iragarkia.

tasun-eredu berriari erantzuteko. Hasiera batetik oso sektore feminizatua izan zen, bai bezeroen aldetik, baita langileen aldetik ere: "Gehixenak emakumiak bai! Mutiak be bai baña bueno %5era be ez dia aiauko!" (E26).

Amaya Moyua Suquiaren (AK 24) gimnasioa lehen izan zen herrian: 1962an zabaldu zuen, eta 1978ra arte egon zen zabalik:

"Gela baten geukan gimnasia itteko eta gero euzen aparatuak: bizikleta bat, remuak, gero beste rollo bat hankalatraban jasoteko eta gogorketako. Eta gero beste bat zirturan ipini eta bibraziñuakin itteko. Gero sauna, humedo. Kamillatxo batekin onduan, kuartotxo baten. Beste kuarto baten masajia itteko eta" (E30).

Bittori eta Sabina Igartua ahizpek ile-apaindegia eta aurpegiko tratamenduen zerbitzua ipini zuten.

Gorputza zaintzeko kultura hedatu gabe zegoen emakumeen artean, beraz, bere bezero gehienak kanpotarrak ziren: institutuko irakasleak, ingeniarien emazteak... diru propioa izan edo maila ekonomiko ona zuten emakumeak, alegia. Garai hartan ez zegoen ondo ikusia emakumeek bere burua zaintzeko gimnasia egi-tea, eta ixil-ixilean irteten ziren zentrotik:

"Asko aldatu da ze lehen emakumiak porejemplo asko zainketan zian estetika zentrotan, ezta? Eta orduan ba udara aiaitteko zanian danak ipintzen zian zainketan apur bat eta etorten zian orduan ba aparatologia o masaje o... itten zan asko! Eta en cambio oin jente gaztiak ba gurau dau ba zumba, igari o atxintxika... itten da deporte gehixau! Eta gero be bai faten dia nutrizionistara eta kentzeintue kilo batzuk... beste era batera aldatu da!" (E26).

Edertasuna ulertzeko eta norbere burua zaintzeko moduak aldatuz joan dira, beraz, eta kirola emakumeen bizitzaren parte izatera pasa da azken hamarkadetan. Gizonen aisialdian kirola emakumeenean baino lehenago hedatu zenez, orduan hasi ziren kirol-dendak sortzen: “Lehen ez euen kirolandako produkturik, ze etzan itten kirolik. Azkenengo 50 urtetan dibersifikau da!” (E28).

Horrekin batera, gorputz osasuntsua izateko ardua hedatu da eta horren adierazle dira Oñatin azken bi hamarkadetan hedatu diren osasun-zerbitzuak: fisioterapia, podologia, nutrizionista, eko-denda, yoga eskola, eta abar. Komertzio txikiko azpisektore oparoena dela esan daiteke, beraz, zerbitzuena.

Edertasuna eta gorputzaren zaintza emakumeengan hedatu zen desarrollismoan. Aukera edo inposizioa izan zen, interpretazio ezberdinak daude, baina merkatariek positiboki baloratzen dute: diotenez, norbere buruarekin egoteko momentutxoa da emakume askorentzat ile-apaindegira, depilatzeraz edo masaje bat hartzeraz joatea. Makilatzen ikasten hasi zirenean ere, momentu hura momentu goxotzat dute dendariak:

“Le sentabas un poco en la silla y le dicas «mira te das un poco de hidratante, te das esta base y luego un poco de color, tienes la cara un poco ovalado pues te das así, tienes más hancha pues aquí y aquí más estrecha, pues por aquí...» las nociones que nosotras aprendimos les enseñabamos a nuestras clientas” (E23).

Egungo bizimodu azkarrean, eskertzen dutena isiltasuna eta baretasuna da:

“Generalian etorten da jentia ta itten du berba asko be bai. Baña baitta etorten da jentia kantzautu be bai. Eta batzutan isiltasuna be izaten da nabarmena e? jentia disfrutau itten dau isiltasunakin be bai. Osea alde bixak... Etorten dianak batzuk pentsaitten dau ba hau dala... un momento para ella!” (E26).

“Ongizatea erosteko” joera nagusitu da jendartean, hots, kontsumismoa, eta hori sumatzen da emakumeengan. Hobeto sentitzeko arropa erostea edo ile-apaindegira joatea oso ohikoa da: “Batzutan aldaketia pozik naue-lako izaten da ta beste batzutan aber pozten naizen! Kanpokaldia aldatu ezkeru aber barrukua be...” (E34-1).

Farmaziak

Farmaziek lizentzia behar dutenez, kopurua mugatua izan da: 1970eko hamarkadara arte bi, erdiko kaleetan

bana. Hiru ondoren, eta 1990eko hamarkadan laugarrena, San Lorentzo auzoan.

1960ko hamarkadara arte farmazeutiko guztiak gizonetzkoak izan ziren. Hala ere, emakumeen bitartez transmititu izan dira lizentziak: Jose Vicente Zurutuza-ren (KB 6) alaba Fermin Yurritarekin ezkondu zen, eta ondorioz, Yurritak jaso zuen lizentzia. Hori erretiratu zenean, Miren Galarza Zuluetak jarraitu zuen. Herriko lehen emakumezkoa eta bakarra izan zen farmazia baten arduradun 1903ko hamarkadan, Rosario Anduaga hasi arte. XXI. mendean emakumezkoak areagotu dira eta egun 4 farmaziatik 3 emakumezkoen jabetza dira.

Arloa nabarmenki feminizatu da, beraz, XX. mende bukaera aldera. Emakumezkoak goi-mailako ikasketak egiteko oztopoak gainditzearekin batera gertatu da aldaketa.

Bestalde, osasun-zerbitzu ugari sortu dira azken hamarkadetan. Optika, logopedia, podologia, fisioterapia, nutrizio-zentro eta hortz-klinikak areagotu dira, guztiak emakumeen eskutik.

Aisialdirako zerbitzuak: zinea, bideo-kluba, jolaslekua, bidaia-agentziak...

Zinea izan zen urte luzez aisialdira bideratutako zerbitzu bakarra. 1970eko hamarkadaz geroztik jolas tokiak sortu ziren, gehienbat gizonen jabetza zirenak. Maria Luisa Olalde Ituarte *Castillok* ipini zuen lehena Kale Zaharrean. Haur eta gazteen noizean behineko plan bat izaten zen Patxitxorenean argazki sesioa egitea. XXI. menderako ohitura hori galdu zen eta argazkilari kopurua jeitsi egin da.

90ko hamarkadaz geroztik oporretan kanpora joateko ohitura hedatu da eta bidaia-agentzia ugari ipini dira mende berrian. Arlo feminizatu hori ere. Aldi berean jostea betebeharra izatetik denbora-pasa izatera igaro da azken 30 urteetan. Hala, joste-lekuak sortu ziren: Jasone Agirrek ipini zuten besteak beste.

Mende berriko bi zerbitzu berritzaile aipatu nahiko genituzke azkenik, biak ala biak internetaren hedapenarekin desagertu direnak: bideo-klubak eta ziber-mintzalekuak. Lehena Mercedes Garin Goitiak zabaldu zuen eta hamarkada batez iraun zuen, Interneta etxe guztietara hedatu arte. Bigarren zerbitzua mende berriko migratzaileentzat pentsatua zegoen eta Consuelo Torres Romero ekintzaile Kubatarrak zabaldu zuen. Internetdun mugikorr edo ordenagailurik ez zuenarentzat beharrezko funtzioa bete zuten ziber-mintzalekuak, horiei esker migranteak haien senide eta lagunekin komunikatzea erreztu baitzuen.

5.3.8. Merkataritzaren modernizazioa

1970eko hamarkadan aldaketa politiko, sozial zein ekonomiko ugari gertatu ziren, eta horiek merkataritzaren sektorean eragina izan zuten. Hiru aspektutan bil daitezke: 1) kaxoiaren desagerpen sistematikoa, 2) baldintza legalak zorroztea, eta 3) ordutegia eta oporren afera.

XX. mendean langileen lan-baldintzetan jazotako aldaketa garrantzitsuenetakoa soldataren ezarpena izan zen. Familia-negozioa izanda ere, etxeko guztiek lan egin eta irabaziak guztientzat paradigma aldatu zen. Belaunaldi berriak ez zeuden prest debalde lan egiteko, eta gainera, merkataritza konplexuago bihurtzen ari zela ikusita, finantza-sistema formalizatzekeo hautua egin zen:

“Eta guk 18 urte geukala ikusten geben aldaketa asko etozela... en el 73 krisisakin inflaziñua. Produktuan prezia asko aldaketan zan egunero.(...) Orduan bai hasi ginala pentzaitten ia beste modutara fan bihar ginala. Jarraitu bihar geben dendan gure etorkizunian baina... ia Eroski be hasi zan En el 78 mobiu giñan Olakuara, fan ginan sozio IFA-kin. Hasi ginan 8 autoservicio eurakin. Hasi ginan enpresa bezala, gu kotizaitten.Ordurarte kotizau be ezta” (E9).

Sektorearen beste erronka bat izan zen dibertsifikazioa, konpetentzien gorakada eta merkatariairen ardurak ugaritzea. Produktuak areagotu ziren, jendartean kontsumismorako joera hedatzen zen heinean. Denda espezializatu gehiago agertu zen eta aukera zabalagoa zegoen. Era berean, baldintza legalak zorroztu ziren higie edo finantzei dagokienez. Merkatariaiek behartu zituzten dirua deklaratzera, produktuak berritzera (batez ere jakiak) eta lokala arau zehatzen arabera ipintzera.

Azkenik, merkatarien aisialdiaren afera aipatu behar da: kanpora irteteko, bidaiatzeko, eta oro har, oporrak izateko eskubidea normalizatu zen industrian. Horrek eragina izan zuen hirugarren sektorean eta dendariak baldintza berberak eskuratzeko ahaleginak egin zituzten. Belaunaldi arteko talka gertatu zen orduan: “Dana dakoi, etxakoi ezebe falta eta oin bakaziñotara! beti hasarre nere amakin eta tia Angelesekin” (E38-2).

Mende berrian, oraindik guztiz soluzionatu gabeko azia da merkatarien ordutegi eta oporrena:

“Neri gogora itten xat ordutegi hau ze nik dakot tarte bat eguerdixan baina sensasiñua dakot ni egun dana hemen nauela. Tradiziñua izan da ordutegi hori baina nere ustez... bueno oin be esan daue

Estatu mailan Europakin gura daueila parekatzia ba 18:00etarako bukatuta eukittia. Neri ondo pentzaitten xat” (E24).

5.4. Emakumia errekadutan

Merkataritzaz ari garen honetan, ezin ahaztu mostradorearen bestaldeko erosleak: ezinbesteko aktoreak izan dira denda, taberna eta zerbitzuetan. Jarraian sakonduko dugu bezeroen parte hartzean.

Komertzio txikiaren bezeroen erradiografia eginez konturatu gara familia izan dela kontsumo-unitate nagusia (Gago, 2003). Familiaren beharrak asetzeko ardura emakumeek izan dutenez, haiek izan dira komertzio txiki-kiko erosle nagusia: “la clienta era la gran protagonista del comercio y ello por una razón básica: la relegación de la mujer a las tareas domésticas íntimamente relacionadas con el abastecimiento familiar” (ibidem: 348).

Hala ere, bezeroen erradiografia azpisektoreka egitea komeni da, produktuaren arabera alde nabarmenak baitaude: bereziki, oinarrizko produktuaren erosleak izan dira emakumezkoak. Eta produktu espezializatu sarri garestiagoen bezeroak, aldiz, gizonezkoak.

Hala, janari-dendena izango da, alde handiarekin gainera, emakumezko bezero gehien izan dituen azpisektorea. Kontserba-moduak eskasak ziren garaletan, janaria erostea eguneroko lana zen: etxekoandreen errutinararen parte zen, beraz, janaritarako errekaduak egitea: “ez oin Eroskira faten garien moura ixa asterako... han gurau zan egunero-egunero fatia: Klaro!” (E42-1).

Emakume bakoitzak bere bete behar eta errutinak zituen, maila ekonomikoaren arabera aldakorrak, baina gehienek aurkitzen zuten ohiko dendara joateko momentua:

“lehenenguak zian goizeko 9.00tako mezetatik etorten zianak: lehenengo plazan periodikua, ze lehen dendetan etzan saltzen, gero hemen, eta gero ogixa erostera. Osea, periodiko, kooperatiba, panaderia, mezia. Oin gero eta jente gutxiu faten da mezetara, pero si hay novenarios o eso se nota. Goiz erdixan, danetik: ze jente askok relebuan be lana itten dau. Gero beste erreleboa etorten da 12.00tatan; umiak ikastolatik urtetan dianian, azkenengo gauzan bila, edo ogixa, edo petxuga batzuk... umiak hartuta korrika etorten dia. Eta 13.00ak inguruan izaten dia dendatan lana itten daueinak” (E63).

Bada, janari-dendak emakumeen espazioak ziren, gizezkoak errekadutan aritzea gaizki ikusteraino: arraroztat jotzen zen, eta gertatzen zen kasu urrietan gizonei lehengo artatzeko ohitura zegoen. Horiek presa izango zutelakoan edo larrialdiren bat izango zelakoan egiten zen. Emakume bezeroek eskatzen zuten lehenengo gizona artatzeko:

“bueno gizakumiak oso gutxi, claro! Lehen gañera... hura zan... gizakume bat sartzen bazan dendera beari zerbitten xakon lehengo (...) Lehengo andrak holaxe eukain pentsauta. Hareik zela egongo zian ba han erosketak itten? Derrior bat ez bazan edo larrialdi bat edo ez dakitt nik zeatik... edo... edo klaro hareindako ezin zan eon itxoitten ñor! Gaur egun ondiok gizakumiak ez dakixei itxoitten... eta lehen gutxiau!” (E14).

Emakume bezeroen presentziari dagokionez, janari-denden atzetik jantzi-dendak kokatzen dira. Etxeko guztiak txukun joan zitezten ardura ere emakumeena zen, eta bera arduratzen zen normalean etxeko guztien jantzi eta oinetakoez:

“gizonak lehen ni entro ni salgo”(E44).

“ohitturia euen andrak gizonak ikusteko zapatak eruatia etxera. Ez euen ohitturarik gizonak konprak ittera fateko” (E38-1).

Hala ere, jantzi eta zapatak ez dira eguneroko erosketen parte. Are gutxiago, eskasia urteetan, halakoetan urtean behin edo urtean bitan egiten baitziren erosketak. Askok ilusioz gogoratzen dituzte estrenaldi egunak: korpus egunean uda-udaberriko soinekoak eta errosario egunean udazken-neguko abrigoak. Aurrerago aipatu denez, data seinalatuak lan-karga handikoak izan ohi ziren herriko jantzigile, jostun eta jantzi-dendentzat.

1960-1970eko hamarkadatik aurrera ekonomia suspertu eta erosteko ahalmenak gora egin ahala, jantzien sektoreak gorakada handia bizi izan zuen, eta salmentak nabarmen handitu ziren. Gorakada hori emakumeen edertasun-ereduen loraldiarekin batera gertatu zen, estetika eta moda feminitatearekin lotu ziren garaian. Horrela, jantzi eta zapaten sektorea guztiz emakumezkoen eremu bilakatu zen, bai langileei bai bezeroei zegokienez.

Kontsumismoaren hasierarekin batera, emakumeek gastatzeko diru propioa izateak diferentzia handia ekarri zuen espazio publikoaren okupazioan, kafe eta tabernetan sartzearekin, eta merkataritzan. Izan ere, ordura arte maila ekonomiko baxu eta ertaineko emakumeek

behar-beharrezkoa erosten zuten eta gizonaren dirua norbere kapritxoetarako gastatzea pentsaezina zen.

Emakumeek independentzia ekonomikoa eskuratu zutenean haien posizio soziala igo zen: “orduan emakumiak inddarra hartu eben. Eso dio mucha categoría a la mujer” (E32-1). Eta horrek merkataritzan isla izan zuen, dendetan eskaintzen zen generoa erabat aldatu baitzen, kalitatean hobetuz, eta bereziki emakumeen gustuko produktuetan aukera aniztasuna areagotuz. Batik bat jantzigintzaren sektorean:

“lehen 3 modelo euzen, punto inglés, interlo y canalé. ietik ioera: txikiñena neskatillantzat eta haundixena amandriantzat. Kantzontzilluak be bardin (...). Y ahora 100 modelos! ¿Os acordáis de los primeros pijamas de punto? Me acuerdo que llegó Consuelo y dijo: ¡Ay qué bonito, voy a llevar! Tenía un estampado rosa... precioso... Al rato había dos [mujeres] estirando el pijama. «Yo también quiero, y yo también!» Y no había! (barre). Y luego en el año 1968 trajimos fajas y sujetadores de colores de la casa Velcor. Tres colores: fucsia o rosa flamenco! amarillo! Azul celeste! Bueno bueno... eskaparatia zan . Bum! Todo el mundo quería aquello. Fue un cambio radical! Pasar del blanco de toda la vida a esos colores ¿Sabes tú? Eso nunca se nos olvidará” (E32-1).

Egun ere, oraindik, oso sektore feminizatua izaten jarraitzen du. Dendari batzuk egoera hau poliki-poliki aldatuz doala diote, eta gizezko bezero gehiago dituztela: “gehixau saltzen da ondiokan emakumeena baña gizonana be bai, asko igo da. Lehen igual normalian ama edo emaztea etortzen zian erostera, baña ia orain etortzen dia eurak” (E13).

Gaur egun gizezko, emakumeek ez bezala, behar-beharrezko kasuetan eta denbora gehiegi galdu gabe soilik erosten dutela diote: “emakumiak nik uste dot «A ba bueno sartu ingo naiz ikustera! Ez dut erosiko ze ez daukat beharrik baña sartu ingo naiz ikustera!» Eta gizonak ez. Batzuk oso argi dute, eta izaten da oso azkar” (E13).

Emazteari oparia egiteko garaian, ohikoa omen da dendariari zerbait aukera dezan eskatzea, eta ondoren bila pasatzea. Kasu batzuetan telefonoz: “zuk ezagutzen duzu nire andrea, bere talla eta bere gustuak...” (E13).

Denda batean dendari gizona eta emakumea egon diren kasuetan, gizezkoa arduratu izan da bezero gizezko, komunikazioa hobea baita, dendarien iritziz. Era berean, emakumeak emakumez arduratu izan dira.

Adinaren faktorea ere garrantzitsua dela dio zenbaitek, hots, adin bereko dendari eta bezeroak hobeto ulertzen dutela elkar:

“orain ditudan bezeroak dia jende hori, nirekin hasi zirenak. Nire edade ingurukuak! Uste dut orain jende gaztia... be bai etortzen da. Ze igual hasi zan bere amakin erosten eta bueno... baña... nik uste dut gente gaztia bai joaten da Gasteizera edo kadena horreittan... ba aukera ezberdina badaukate” (E14).

Zerbitzuei erreparatu, azpisektore honek denboran izan duen bilakaera kontuan izan behar da bezero-mota identifikatzeko. Izan ere, jantzien sektorean gertatu lez, feminizaziorako joera handia izan du. Erakusle garbiena ile-apaindegiena da. Gizonentzat eskaintzen zen zerbitzu bat izatetik emakumezkoak nagusi diren sektore bat izatera pasa da. Estetika-zentroak bilakaera hori gertatu zen garaian hasi ziren sortzen, beraz, hasiera batetik egon da emakumezkoetara bideratuta, berau izan delarik bezero nagusia.

Bestelako kasua dugu ostalaritzaren sektorea. Ostalaritza tradizionalki gizonezkoen esparrua izan da, eta emakumezkoak mende amaiera aldera arte ez dira ostalaritzako establezimenduetan sartu, lanerako ez bazen. 1960ko hamarkadan hasi ziren lehen emakumeak tabernetara sartzen, abangoardistak ziren, eta sarri gizonek lagunduta egiten zuten. Jantzigintzaren sektorean gertatu zen era berean, emakumeak lan-mundura sartzeak eta diru propioa irabazteak eragin zuzena izan zuen bilakaera horretan.

Hala ere, gaur egun oraindik ere gizonezkoa da ostalaritzako bezero nagusia. Tabernetakoa behintzat bai, kafetegietako errealitatea kontrakoa baita egun: emakumeak dira erabiltzaile nagusi.

Etxe tresnak erosteko garaian zera gertatu izan da: “emakumeen erabilerarako” produktuak zirenez (garbigailua, xurgagailua...) emakumezkoek erosten zituzten, baina produktu garestiak zirenez, gizonek ere erosketan parte hartzen zuten. Aisialdirako gailu elektronikoak zirenean, berriz, batik bat telebista, gizonak arduratzen ziren erosketaz.

5.4.1. Baserritarrak

Esan dugu klase sozial eta jatorri guztietako jendea zela komertzio txikiko bezeroa. Hala ere, baserritarren kolektiboak ezaugarri bereziak zituen. Batik bat oinarritzko produktuei zegokien erosketetan nabarmentzen ziren kaletarrekin zituzten ezberdintasunak.

Ezberdintasun nabarmenenak bi ziren: batetik, oinarritzko produktu asko haiek ekoizten zituztenez ez zeukaten egunero erosketak egiteko beharrik; bestetik, distantzia, orokorrean erdigunetik urrun kokatuta zeudenez, eta garraibideak mugatuak zirenez, ez zeukaten egunero herrira jaisteko modurik, eta ez zen erraza egunero herrira edo auzogunera jaitea.

Jaisten zirenean, haien auzotik hurbilen geratzen ziren dendetan egin ohi zituzten erosketak. “Zonifikazio” moduko bat gertatzen zen. Oلابarrieta, Araotz, Arantzazu edo Berezaio bezalako auzoetakoek Kale Barria, Atzekok Kale eta Trianako dendetan erosten zuten; Zubillaga, San Pedro eta Aurrekomendikoek, berriz, Kale Zaharreko dendetan normalean.

Horrez gain, sarri, dendaria ezaguna edo auzokoa izateak ere eragina izaten zuen erosketak egiteko tokiaren aukeraketan:

“nere ama Araotzekua zan eta araozgo jentia geldiketan zan bertan erosketak itten. Han araozko autobusa be geldiketan zan. Akordaitten naiz fabriketako autobusa gente dana eruiten eben Araotzera eta eruiten zittuein gauzak, edo ekonomatokuak edo gure dendako gauzak eta... Eta claro hareik eruiten zittuain aste danerako janarixak” (E14).

Bada, baserritarrek erosketak astean behin egiteko ohitura zuten. Hala ere, erosketak horiek bolumen handikoak zirela diote dendariak:

“badauz zapatutako erosliak baina lehen gehixau euzen e: ze lehen merkaura be gehixau etorten zian auzotatik eta aprobetxaitten ebein” (E63).

“baserritarrak zapatutan etorten zian eta konsumo haundixa itten zan kiloka. Ze igual aste danerako eruiten euein. Baserritarrak bastante! Ze klaro baserrittan be jente asko bizi zan!” (E37-1).

Askok merkatuko eguna aprobetxatzen zuten herrira jaitsi eta beharrezkoak erosteko. Dendari batzuk egun horretan, baita aurreko egunean dena prestatzen, ohikoa baino lan gehiago izaten zuten: “nik bai banekixen ebeikozetan zala lan gehixen eoten zan momentua. Ze Araozkuak etorteko hantxe ibiltten giñelako. Orduan baserritarrak etorten zian ta ebaikotza egun dana saquak beteten. Holaxe!” (E14).

5.4.2. Dirudunak

Aipamen berezia behar duen beste kolektibo bat dirudunena da. Kolektibo hori osatzen dute herriko familia

aberatsetako senideek, ofizio liberalak zituztenek (abokatu, epaile, farmazeutiko, mediku, eta abarrek), edo mende erditik aurrera Oñatira lanera etorritako ingeniariak..

Maila ekonomiko altua izanik haien errealitatea ezberdina zen, baita erosteko ahalmena ere. Horrek guztiz baldintzatzen zuen herriko komertzioarekin zuten harremana..

Kafe eta taberna batzuetako ohiko bezeroak ziren, baita tradizio luzeko zapata eta oihal-dendakoak ere. Hala ere, dendariak diotenez, gehienetan ez ziren erostera haiek joaten: neskameak bidaltzen zituzten, eta aurreago, dendek telefonoa instalatu zutenean telefonoz eskatzeko ohitura zuten.

5.4.3. Fideltasuna

Bezeroen partetik gaur egun faltan hartzen duten fideltasuna zegoela azpimarratzen dute dendariak. Gaur egun ohitura hori galtzen ari dela diote: “lehen bezeroak zian fidelak, beti faten zianak zure dandara. Oin ia... amiga!” (E14).



Jesús María Arzuaga argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Kale barrian emakumeak errekadutan.

Izan ere, garai batean, etxeoandre bakoitzak bere erosketak egiteko ohiko denda izaten zuen. Horrek bezeroak hobeto ezagutu eta dendari-erosle harreman hobea garatzeko aukera ematen zuen. Hala, “bizi guztiko bezeroak” moduko esamoldeak ondo islatzen dute harreman leial horren errealitatea (Gago, 2003: 305): “dania! Bai dirua izteko, bai zorrak izteko, bai lagunetako edo... ikusten bazeben han zure bezerua zala... bezeroak lehen zian! Fidelidade bat eukain. Etorten zian zure dendara. Zuk emuten dozu nik be bai zuri. Zainketa banauzu nik be bai zainttuko zaut. Orduan ba... hola da! Oso harreman estuak zian! Oso!” (E14).

Leialtasun hori, gainera, gehienetan belaualdiz belaualdiz pasatu izan da. Alabek haien amak erosten zuten denda bertsuetan erosten jarraitzen zuten: “Hay mujeres que venían con sus madres y ahora vienen sus hijas” (E25).

5.4.4. Dendetako ehun soziala

Behin komertzio txikiko bi protagonista nagusiak, dendari zein bezeroak, ezagutu ostean, haien arteko harremanean sakonduko dugu. Lehenik, harreman sozialaren nondik norakoak azalduko ditugu, eta ondoren, harreman horrek tratu ekonomikoan dituen ondorio batzuk aurkeztuko ditugu.

Sozioemozionala

Komertzio txikiaren ezaugarri hau da berezoki gehien baloratzen dutena: tratu familiarra, gertukoa. Gertutasun horretan ezkututzen den zaintza etaberotasunabalaratzen dute: “zer, ondo zauz? Gaizki zauz? Kafia biozu? Pasau barrura!” (E14). Zaintza bere zentzurik zabalean ulertuta: lehenik eta behin, gertutasunak eskaintzen duen konfiantza, eta zintzotasuna azpimarragarriak dira, baita zerbitzu pertsonalizatua ere:

“los clientes valoraban, en primer lugar, la confianza mutua, la certeza de que se les iba a aconsejar honradamente y se les iba a servir un producto adecuado, en calidad y precio; se valoraba también, la disponibilidad del tendero o en su caso el dependiente, en el comercio tradicional, para atenderle en la venta y/o enviarle productos al domicilio; y por supuesto el trato deferente y casi familiar que se dispensa a todos estos clientes” (Gago, 2003: 206).

Finean, neurrira eta mimoz egindako/emandako zerbitzua:

“guk piper potia igual ezta? nik probau itten neben etxian eta jentia etorri eta “Ana baina onak gurot

e” eta “ba neri honeik etxat gustau, honeik hobiak dia” eta esan noztain, “bueno, bueno hola salduko zu” (E8).

“lehen klientia zan zeure itxeko bat. Ezin zeke en gañau. Esan zeke, gero etorri eta bixar etorri, bada kitzu etorriko dana eta” (E18).

“el mimo el cariño que que, entran por la puerta y ya sabes lo que quiere, lo que puede” (E23).

Horrez gain, dendek topagune izaera handia izan dute. Elkargune garrantzitsuak izan dira. Gagok (2003) denda definitzen du bezeroak erosi eta hitz egitera joaten ziren berriketa-leku (*mentidero*) gisa. Herriko kontuez informatzeko, informazioa partekatzeko gune aproposak ziren, beraz. Batzuek oraindik hala izaten jarraitzen dute:

“Dakot bezero bat aittajunan bezerua zana, Leazpittin etorten xatena, 8o urte baño gehixau dakona. Ta etorten da hona, nereana, ze gustaitten xako nik esatia Oñatin ze pasau dan. Ta etorten da horreatik batezbe e? Eta kontzejupetik gordeten xat “ (E43-1).

Herriko kontuez ez ezik kontu pertsonalagoez ere mintzatzen ziren:

“El comercio de antes era como más familiar: preguntabas por los hijos, si sabías que alguien tuvo familia o que alguien estaba enfermo pues le mandabas algo de la tienda: galletas o ponche...” (E15).

“Bezeruakin tratua oso ona da! Kontuak kontaitten dun lekua bai tratu goxua. Azkenian bezeruari hartzen zatzun kriston kariñua” (E43-1).

Topagune izaera horrek, dendaren bueltan sare sozial bat garatzea ahalbidetzen du: “ni mezetara faten nintzan eta bueltan errekauek itten neben. Eta han juntaitten zinan, zeoze hartzera zoiazela o kajeruan. Ta ba zer moduz edo...” (E2).

Sare horrek emakume askorentzat esanahi berezia hartzen du: dendetan dendari zein beste bezeroekin sorturiko tertuliak, emakume askorentzat sare sozial garrantzitsuak dira. Bereziki etxeoandre izanik lagun-sare txikia daukatenentzat: “komertziuak, bizitasun haundixa emun doste emakume nagusixari. Ze bestela sartzen zara etxian eta egon egon egon” (E2).

Aipatu da denda txikiek, eta bertan errekadutan egiteak, emakume askorentzat zuen esanahia. Agerian geratu denez, egunerokotasunak sortzen dituen lotu-



Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Kale barrian emakumeak errekadutan.

rak sarri elkar babesteko sareak sortzea ahalbidetu du. Elkarrekiko zaintza, entzutea eta laguntza-harremanak sortu dira dendan bueltan:

“Mujeres que habían tenido algún problema de lo que sea y: «lagundu in bioztazu Francisca, e... hau eta hau pasaitten xat» y pasaban al comedor” (E22).

“Eta batzuntzako da... ez dakitt zela esan hitza ba... desahogo edo. Zuri kontaitten dotzue euran gauzak ta bueno zuk segiu itten zatzu ta bueno... ia lasaixau...” (E34-1).

Izan ere, etxeakoandre askoren egoera zen familiaz gaindi ez zeukala lagun-sarerik. Hala, dendaria, egunero bisitatzen zutena, erosketaz erosketa haien lagun eta konfidente bihurtzen zen kasu askotan. Bartzuek etxeako egoera gogorren aurrean bertan husten zituzten barruak:

“Kao etxe askotan bizi zian 3 generaziño, ama, semia, maiorasgua eta andria... eta ama hori andriakin konpondu ala ez konpondu! Eta leku askotan oso gaizki pasau ebein emakue askok. Oso gaizki! Eta etorten zian dendara eta desaogau itten zian. Eta esaten notzan amatxori «ama ordu bat in dozu berbetan, zer esan dotzu ba?» «eztakit, baina berba itteko biharra eukan eta entzun in bihar»” (E1).

“Hay clientas que les doy un abrazo cuando las veo. Necesitan esa empatía de que tal. escucharles también, saber escucharles es importante” (E23).

Dendariak oso kontziente dira errealitate honetaz, egiten duten ekarpen sozialaz. Merkatari askoren ahotan entzun daitekeen moduan, dendari izateaz gain, psikologoak ere baziren:

“Lehen ez euen psikologo biharrik, porque en cada tienda había una!” (E38-1).

“Dendaixa eta bezeruan artian harremana zan oso politta... oin be itten du de psicólogos, baina orduan, gure amak esaten daue beti itten ebela asistentia social, psicóloga, cáritas...” (E1).

Bestalde, merkatariiek herritarrei sostengu soziala emateaz gain, haiek ere jaso egin dute. Izan ere, saltzaile edo dendari emakumeentzat bezero aurreko lana, bitarteko espazio horren okupazioa, enplegu bat izateaz gain, bizimodu bat izan da: jendearekin harremantze-



Kale zaharra 7oko hamarkadan.

ko modu bat, etxeako isolamendua ekiditeko bide bat, baina aldi berean etxetik gertu, autonomia ekonomikoa eskuratzeko bitartekoa, baina baita agentziarako, elkar zaintzeko, erresistitzeko, bizirauteko arrakala bat. Dendak elkar babesteko sareen korapiloak izan dira:

“Es allí [en el espacio público] donde la mujer ha podido encontrar nuevas formas de resistencia, muchas veces bajo el disfraz de actividades de ocio o de consumo. Los lugares públicos y semipúblicos han ampliado para las mujeres la posibilidad de construir reductor de seguridad y confianza ajenos a la familia, continuando con una vieja tradición de lugares de encuentro- lavadero, fuente, tienda,

parroquia - en que se cumplía la paradoja que ha hecho encontrar a las mujeres tantas veces fuera, en el exterior, un refugio para su intimidad que no habían logrado encontrar dentro, en ese hogar presunto reducto de autenticidad.

En ese espacio exterior ahora extremadamente dinámico e impredecible- el centro de la ciudad, otros barrios, otras ciudades-, las mujeres podían ver multiplicarse esos otros y otras con los que practicar la sinceridad y formas particulares de afectividad, otros y otras que ampliarán de manera extraordinaria ese círculo de confidentes ajenos a la vida familiar que habían constituido las vecinas, las parientas, las amigas (...)” (Delgado, 2007: 241-2).

Batzuetan, psikologoaren entzute-lanak ez ezik, gizarte laguntzailearen ere egiten zuten: gutunak idatzi, deiak eta paketeak jaso, enkarguak gorde...

“Nere amak han trianan hartzen eben nobixuan kartak eta hola...” (E9).

“Gallego batzuk ez ekixein irakurten ezta idazten. Badakitzu zeinek itten eben de sekretaria nere inguruakin? nik. Parrokuak idazten eben kartak, herrikuak eta nik irakurten notzan eta nik erantzuten notzan beak esaten ebenakin, andaluz batzuri be erakutsi notzan irakurri eta idazten” (E1).

Testigantzek erakutsi dutenez, beraz, dendak emakumeen sozializazioa eta elkar babesteko sareak eratzea ahalbidetu duten espazioak izan dira. Zentzu horretan herriari, baina bereziki emakumeei, egindako ekarpen sozioemozionala ukaezina da.

Harreman ekonomikoa

Ikusi dugunez, dendari eta erosleen arteko harremana zaintza-harreman bat izan da, elkarri entzun, eta elkarri laguntzekoa, ahal den neurrian. Ildo berean, unean uneko zailtasunen aurrean, ekonomikoki ere laguntzeko joera handia egon da dendarien partetik.

Azpisektore bakoitzak, ezaugarri propioak direla medio, bezeroen zailtasun ekonomikoaren aurrean faborezko tratua hobetsi izan du. Zorretan uztea, edo dendari askoren hitzetan *apuntea*, oso jarduera ohikoa izan da. Batik bat janari-dendetan erabili izan da: jendea egunean bizi zen, egunean egunekoa erosten zuen, eta ohitura handia zegoen gizonek soldata jasotzean ordaintzekoa, momentuan ordaindu beharrean. Soldatak, enpresa bakoitzaren arabera, astero edo bi astean behin ordaintzen ziren:

“Apuntau itten zan: “ezin dotzut pagau e, zapatuan gizonak kobrauko dau eta ekarrkortzut” konfiantzan...” (E8).

“Eta quinqueniua kobraiten ebeinian etorten zian dendara pagaittera hilian in ebein zorra ahal ebein lekuraino. Askok pagau daue 20 urtetara, ia fabrikantian urtiak indda eta seme alabak hazitta” (E1).

Diktadura-garaian bi paga extra ordaintzen ziren fabriketan: uztailaren 18an eta gabonetan. Orduan kitatzen zituzten askok zorrak: “lehen euzen jente asko ume asko eukainak eta kostau itten xakon pagaittia. Eta orduan doble kobraiten zanian, kontuakin faten ginan, gu neskatillak etxeetara. No nos gustaba nada...” (E38-1).

Zorretan utzitako guztia kontu-liburu edo koadernotan erregistratzen zen, emakumearen izenarekin, familia-abizenarekin edo baserriaren izenarekin; dendariarentzat erreferentziak zirenak, gerora apuntea irakurritakoan ondo jakin zezan nor zen. Zorretan uztearen praktika bereziki eskasia garaietan nagusitu zen. Hala, gerraostean, janari-dendetan ez ezik beste sektoretan ere, oso hedatuta egon zen: “dendan (mertzerian) gerraostian bai, baina gero ia ez. Gero beti baten bat, baina gutxi” (E32).

Praktika hau dendari-bezero arteko harreman eta konfiantzak egiten du posible: “la decisión de fiar estaba fundamentada, generalmente, en la confianza mutua entre cliente y vendedor, por eso no se fiaba a todo el mundo, dado el consiguiente riesgo que esta práctica conllevaría” (Gago, 2003: 282).

Egun, berriz, praktika hori ia desagertuta dago. Eta iraun duen lekuetan, batik bat ordaintzeko zailtasuna baino, erosotasuna du oinarri. Hala ere, baldintza ekonomiko urriko kolektiboak (atzerritarrak, esaterako), oraindik ere halako faborezko praktiken premia dute. Dendari batzuentzat hori ez da arazo bat: bezero bakoitzaren premietara moldatzea haien lan egiteko modua da, eta horrekin koherentziaz jokatzeko dute. Erraztasun zenbait eskaintzen zaizkie, tartean gustuko produktua gordetzearena:

“Sudamerikako jendiakin... lenteria asko erosten dute. Haiek aukeratu egiten du eta igual momentu horrean ez dauka dirurik ta «me puedes guardar y cuando cobre te lo pago!» Gañera ez dizute eskatzen eruatia «etorriko naiz». Haiek nik uste dut daukatela oso garbi ez direla ezagunak eta «Usted me podría guardar? Y yo vengo!». Eta nik uste dut danak etorri in diala” (E13).

“Jo, me gusta esto. Pero no puedo llevar porque no puedo. Me guardas?” alguna que otra...” (E23).

Trukea beste faborezko tratuetako bat izan da. Bereziki baserritarrekin egiten zen. Dendako produkturen baten truke baserritarrek haien baserriko produktuak ematen zizkieten: “baserritarrak ez eukain dirua eskuartian. Jatekua bai baina diruik ez eta askok itten ebein: ni akordaitten naiz adibidez familixa bat, 13 zian, babak ekarten ozkuen dendan saltzeko eta haren trukian azukarra edo kafia edo galletak libra erdi eruaten ebein”(E1).

Trukeak berandura arte iraun zuen, baina susperraldi ekonomikoaren garaitik aurrera egin zen gehiago operazio komertzial bezala, bitartekaritza gisa, faborezko tratu gisa baino: “edo ekarten otzuen igual eurak eukein gauzak saltzeko ta... “Bueno ba zuk ekarri dostazu holako gauzak, nik hainbeste ta holaxe geldiketan da e?”. Trukia! zuk ekarten dostazu arrautzak eta esnia eta nik emuten dotzut hau ta hau ta diferentzia zenbatian, ba hauxe!” (E14).

Kasu guztietan, aipatzekoa da, merkatarietara fabore bat eskatzeko garaian aurpegia ematen zutenak emakumeak zirela. Apuntea izan da, kasu askotan, etxeko ekonomia duin bat izateko estrategia. Emakumeek etxeko ekonomiaren kudeaketa txukuna egin izana, familia askoren salbazio izan da: “la mujer en ese sentido ha sido inteligente, ha sabido comprar y ahorrar. Y gracias a ello han salido adelante muchas familias” (E15).

Bestalde, dendaria batzuek herriko instituzio batzuei zerbitzua ez diete kobratu izan. Hori dendariaren esker ona adierazteko modu bat izan da. Izan zitezkeen familiako lagunak, elizgizonak, mojak, medikua, eta abar: “eta monjetara, Bidaurretara, gañera aittaittak itten otzan debalde, ez otzain kobraiten. Zela esan dotzuten nere aittaittan anaia zala gaixua, hospittalian egon zanez, monjari ez otzan kobraiten” (E24).

Janzteko produktuen kasuan apuntea bereziki eskasia ekonomiko garaietan egon izan da. Hala ere, sektore honetan, ohikoa izan da etxera probatzeko eramaten uztea: “etxera probaittera eruan eta? bai hori bai. Nik uste dut Oñatin oso inportantia dala” (E13).

Praktika horrek ez dauka fabore ekonomikoa oinarri. Hala ere, dendari-bezero arteko konfiantzaren erakusle da.

Ostalaritzaren kasuan ordaintzeko moduan bi ezberdintasun nagusi egon dira. Ostatuaren kasuan ohikoa hilean ordaintzea zen. Tabernan, berriz, aisialdiarekin lotuta egonik, eta beraz, oinarritzko zerbitzua ez



Andrés Arlanzón argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Atzeko kalean emakumeak errekadutan.

zenez, momentuan ordaintzen zen normalean: “según como les pagaban en el trabajo así nos pagaban. Bazkaixa eta. Los txikitos en mano. Momentuan. Baña los que estaban hospedaus pues según como les pagaban a ellos nos pagaban a nosotras” (E5).

Zerbitzuen kasuan, bereziki edertasunari lotutakoak, kapritxo moduan bizi direnez, soilik ordaintzeko gaitasuna dagoenean kontsumitzen den zerbitzua da. Beraz, halakoetan ez da apuntea edo trukea bezalako faborezko traturik gertatzen. Epeka ordaintzeko ohitura, berriz, existitu izan da.



Merkatarien egunerokoa atzeko kalean, mende hasieran.

Etxeko tresna, altzari eta abarren kasuan ere, kantitate handiko erosketak izanik, epeka ordaintzea oso ohikoa izan da: “saltzen zanian izaten zan, batzutan, ba hiru hilabete barru pagaukotzut. Diru asko zan ta batzuk pagaitten ebein a plazos” (E40-1).

Epeka ordaintzea, lehenagotik existitzen bazen ere, praktika horrek 1950eko hamarkadan hedatu zen. Susperraldi ekonomikoarekin batera bizitza-mailak gora egin zuenean areagotu zen: igoera horrek, jada oinarrikoak izan ez eta garestiak ziren produktuak erosteko joera hedatu zuen, nahiz eta momentuan ordaintzeko ezintasuna izan (Gago, 2003: 181). Ordaintze-sistema honen bidez erosten ziren produktuak, batik bat honako hauek ziren: garbigailuak, aspiragailuak, izozgailuak, sukalde elektrikoak, josteko makinak, irriak edota motozikletak (ibidem).

“Hacíamos también de bancos” esamoldeak adierazten duenez merkatariek banketxe edo prestamista-lanak ere egiten zituzten. Hala, eskasia eta zailtasun ekonomikoko garaietan, bezeroei eskainitako faborezko tratuhoriek herriari egindako ekarpen ekonomikoaren erakusleeriko bat dira: “orduan ez euen tarjeta de credito eta orduan dendarixak itten geben, gure moduan beste batzuk be bai, de financieros” (E1).

Bezeroekin tratua orokorrean oso positiboki baloratzen dute merkatariek. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi, tratuhorren atzeko hainbat aspektu negatibo ere. Berezi merkatariek belaunaldi berriek azaleratzen dituzte alderdi hauek. Hala, gaitzesten dituzte bezeroekiko “servilismorako” jarrerak, haien gurasoen garaitik zetozenak: bezero askoren esijentzia altuak pairatu beharra, eta bezeroak beti arrazoa duen premisaren izenean, beti aurpegi ona jarri beharra:

“Batzuk zian... 8retan igual zarraitteko momentuan? Ba orduantxe etorten zian! hortatxe bakarrik etorten zianak! Eta gañera eurak be baekixein ze ordutan etorri bizian, jende gutxien egoten zanian Zian... terribliak! batez be jende nagusixa... gure artian beti hasarre egoten giñan ze gure amak ez oskun izten zerbait esaten horreiri” (E14).

5.5. Merkatariek sektorea

Komertzio txikiak jardun dugun honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu, komertzio txikia sektore moduan ezauzgarritzea. Atal honetan, beraz, Gagoren (2003) hausnarketak oinarri hartuta, komertzio txikiaren klase-pertzepzioa eta konpartitzen dituzten balioen gogoeta egingo dugu.

Klase sozialari dagokionez, merkatariek-sektorearen aniztasunagatik, baita jabe eta langile bezala daukaten izaera bereziagatik, zaila gertatzen da guztiak klase batean batzea. Horregatik, Gago (2003), klase ‘hibrido’ gisa definitzen ditu: “presenta una ambivalencia de su posición social al no pertenecer ni a la burguesía propiamente dicha, con la que le unen ciertos intereses, ni al proletariado al que esté muy próxima” (ibidem: 523). Tarteko egoera horrek, eta sektorearen aniztasunak, beren burua klase moduan identifikatzea ia ezinezko egiten du. Hala ere, hainbat balio eta ideia partekatzen dituzte: komunitateari egiten dioten ekarpenaz kontziente dira, eta ondo egindako lanari garrantzi handia aitortzen diote (ibidem: 481).

Bestalde, ondo egindako lanarekin lotuta, beste hainbat balio ere partekatzen dituzte. Hala nola lana, zintzotasuna, bake soziala edo ekintza/jarduera askatasuna. Baita komertzioa familian eta belaunaldiz belaunaldi transmititzeko ofizio errentagarri eta duin gisa irauteko nahia ere (ibidem: 532).

Horregatik, Gagoren iritziz, merkatariek guztiakin identifikatzeko zailtasunak direla medio, ekonomiari lotutako klase-identitateaz baino egokiago litzateke/ identitate profesionalerik hitz egitea. Identitate hori lanaren kulturarekin estuki lotuta dago.

Lanarekiko eta negozioarekiko daukaten lotura afektiboa hain da handia, erretiroa hartuta ere lanean jarraitzen dutela askok (ibidem: 484). Horrelako hainbat kasu adierazgarri ditugu Oñatin ere. Edozein dendatan ikus daitezke, erretiratu eta dendako testigua pasatu arren, osasunak utzi bitartean, dendako jardunean gogotsu parte hartzen dutenak.



Kaio, Margarita eta Josepa konfittero.

Esan liteke, merkatari lanbidea, bizi-estilo bat bezala sentitzen dutela, eta ez soilik espekulaziorako elementu gisa. Horregatik, produktibitateari baino garrantzia handiagoa ematen zaie dendako eremuan sortutako harreman sozialei.

Ondo egindako lanari garrantzia aitortzea, elkarrizketatuen artean gizonezko merkatarien ahotan nabarmentzen azaleratu da: “pues la satisfacción de hacer un trabajo diferente a otros sitios, por que lo que haces lo haces con gusto y trabajar con gusto. Es difícil e, muy difícil” (E39-2).

Identitate maskulinoa lanaren bitartez elikatzen denez, dendako lanari balio txikia ematen zaion garaiotan, beren burua eta lana balioesteko beharra sentitzen dute. Hala, emakumeek ez bezala, lanaren konplexutasuna azpimarratzen digute.

5.6. XXI. mendea

Iraganaz hitz egiten dugunean orainalditik hitz egiten dugu, orainalditik begiratzen diogu iraganari. Orainaldiak, beraz, nabarmen baldintzatzen du iraganaz daukagun ikuspegi edo pertzepzioa. Gauza bera gertatzen da XX. mendeko komertzioaren inguruan jardutean: ezin garai bateko eta gaur eguneko errealitatea alderatzeko joerari eutsi.

Horregatik, egungo komertzio txikiaren egoeraren go-goeta ere egin nahi dugu. Komertzio txikiaren etorkizunaz pentsatzeko balio dezakeena.

Argi dago gizartean jazo diren aldaketa handiek eragin zuzena izan dutela komertzio txikian. Herritarrei produktu edo zerbitzuak eskaintzen dizkien negozioa izaki, ezinbesteko zaió herritarren eskaera eta beharretara moldatzea.

XX. mendea aztergai izan dugun honetan, mende luze horretan gizartearekin batera komertzioak bizi izan dituen aldaketa eta bilakaeren testigu izan gara. Ezbairik gabe, gizartea aldatu da: aldatu da ekonomia, erosteko ahalmena, gustuak, modak, harremanak, sozializatzeko moduak, garraioak.. eta horrek guztiak erosteko moduan eragin du.

Komertzio txikiari eragin dioten aldaketa nagusien artean komertzio handien agerpen eta hedapena izan da. Komertzio handien baliabideak eta eragiteko gaitasunak ezin konpara daitezke komertzio txikikoekin, zentzu horretan lehiakortasun desleiala dela uste dugu.

Horren ondorioz, gehieneko egoera nahiko tamalgarria da eta bizirautea bihurtu da haien helburua:

“Holako denda batekin ezin zara aberastu, justo justo bizitzeko lain. Soldata bat bixon artian atara eta kao gero beste gauza bat da errentia pagaittia eta hainbeste gauza dia. Hasieran zuk itten dozu zure kontuak eta pentzaitten dozu dirua irabaziko dozula, baina impuesto pilla bat dia autonomuak, zerrauta dakotzun hillabetian ezta ezer irabazten, gero eguraldixan arabera asko aldaketan dia ohiturak... eta ikusten dozu zulu be in lekela. bizitzeko lain, esan doguna, askotan aberastia ezta hobia” (E35).

Komertzio handiek eragin desberdina izan dute azpi-sektore bakoitzean. Batik bat produktuen salmentari eragin die, zerbitzuei ez hainbeste: “nik ondiok suertia dakot Amazonek ez dauela depiladora bat etxera bialketan! Eta alde horreatik ondo” (E26).

Janari-dendetan esaterako 1990eko hamarkadan hasi zen gainbehera. Batez ere supermerkatu handiek egin zieten kalte. Eroski supermerkatua ez zen oso goiz iritsi Oñatira: 1990eko hamarkadan ireki zen, baina ordu-rako Arrasaten irekia zuen eta Oñatin bertan bazituen frankiziak. Errekaldeko Erosle eta Etxaluzeko Mendu frutategia bere katearen parte ziren. Handienen iritsiera, beraz, ez zen bat-batekoa izan, prozesu bat baizik:

“Eta gañera ia kompetentzia asko. Preziuak ia hasi giñan botaten... ezer ez erabazten hasi binintzen kamioikada bat mobitten... bi denda geuzen onduan ta esan neben “*Hau ez da bizimodua. Emuten dau gerran gauzela!*” eta ez, esan neben «*Ni hau jaretera noia! Biot nik neretako lan bat. Ez dotena bihar da beste baten gañian eotia edo dependentzia hori eukittia*», ez? Gura neben ia gehitxuau bizittia, hobeto bizittia beintzet! Holako presiño barik” (E14).

Mrtinez (2015)

ezk. Opari denda. Zuriñe Mendia Landa
(1999)

Belardenda. Aurora Iñarra Leibar (2000)
Ekhi eder belardenda. Irati Galdos Mendia
(2007)

-1-

Zubiena

Jose Maria Zubia dentista
[hutsik]

-3-

Juli *makalenaren* ile apaindegia. Juli Arregi
Estetika zentrua. Amaia Ugarte

Aloña autoeskola

Makalenako elkarte

Zubibarri kalea**-2-**

Kamamuño fruta- denda eta haragi denda.
Ricardo Echeverria (1995)

Batera akademia. Leire Mugarza (2011)

atzean Euro denda bazarra. Andoni Olabide Otaegi
(2006tik)

-4-

Masaje terapeutiko jarduera. Juan Antonio Martin
Dorado (2001)

Artazi ileapaindegia

[hutsik]

Atzeko kale

Urrutxuko etxea

(*desagertuta*)

esk. Karea eta igeltsua Guriditarrek

esk. Juanitosa denda (1909-1911). Jose Antonia
Garikano

Niceta Candaudape eta Bittor Arregi (1911 arte)

-32-

Iturritxo etxea

(*desagertuta*)

ezk. Iturritxo taberna-jatetxea. Jesus Iñurritegui
"Txurruka C.B" (1989)

Consuelo Torres

atzean: Carvanas Oñati (2010)

Eco-laundry

esk. LAB sindikatua
[hutsik]

-30-

esk. Izozki denda. Jesus Corcostegui Anduaga (1990)*
Jolas leku. M^a Carmen Alvarez- Angel M^a Maniega
(1991)*

Todo a cien. Andoni Olabide

Gureleku kafetegia. Gurutz Odriozola Biain
(2014)

ezk. *Aixkirri* mertzeria. Dolores, Pilar eta Juanita
Odriozola ahizpak (1941-1953)

Mendizabal kirolaken erakustokia
[hutsik]

-26-

Demetrio Iriarte jantzigilea

Taberna. Aniceta Gaztañaga Oroz.

Boga taberna. Eusebio Palacín Bueso (1995etik)

-24-

txistulaixena

Aloña mendi k.e. taberna (2001)

Eugeni Sukia errekadista.

Lirain estetika zentrua. Amaia Moyua (1960-
1980)

-22-

Tabernak:

El Caserío

Altxaga

Goiko Txurruka. Madina Txurruka. M. Paz.

Bar Galicia.

Encarna Lamelas

Manuel Cambeses eta Mari Carmen Alvarez
senar-emazteak eta semeak: Josu eta Oskar.

-20-

Samaniego harategia

Bellotzako harategia. Sebastian Lizarralde.

Tomas eta Anita Lizarralde anai-arrebak.

-18-

Eustakio Aguirrebalzategui kandela-denda

-16-

Dionisia Uribecheberria, taberna

Eskolatxo. Escolastica/ Ignacio Aristegui/ Ugartetarrak

Naparrena atzian: Fruta-denda

-14-

Irizar okindegia. Lanberto Isasa; Miguel Irizar eta
ondorengoak.

-13-

ezk. Isabel Arabaolaza ileapaindegia (1960tik
behintzat)

Kuttun. Asun Arroyo. (1990-2004)

Bogako biltegia

esk. *Pintxeren* aroztegia

Gainditu ikasketa eta logopedia zentrua. Mirna
Gonzalez (2010)

-12-

Korkostegi zerrategia/ Jose Maria Iñurritegui
Nekazarien elkarte

-11-

Julian Erostarberen alargunaren taberna

Juanitosa (1911tik)

Bittor Arregi eta Niceta Candaudape
Ignacio Arregi eta Casilda Zufiria eta Maribi
Arregi alaba
Pedro Arregi eta Arrate Markiegi

-10-

Sesiñena ile apaindegia. Izaskun Aldanondo (2008)

Milikua

ezk. *Arantxa* Palacinen arropa denda

esk. Guria taberna. Espe

[hutsik]

-9-

ezk. Rita Enparanzaren oihal-denda.

Ene Bada erropa denda. Ainhoa Azkarate Landa
(2012tik)

-7-

esk. Nartxi Arrondo esne-saltzailea

Lizarraldetarren harategia
Eustaki Bergara eta Plaxida Lazkano.
Arraindegia.

Sesiñena bizargina eta emakumezkoen
ile-apaindegia.

Felix Aldanondo (1958-1995)

Izaskun Aldanondo. (1995-2008)

Hotz oñati elkarte

[hutsik]

ezk. Sastreria Quelle

[hutsik]

-6-

esk. Dermatologia kontsultategia. Concepción
Tamayo Victor (1999)

ezk. Luar gizonak arropa denda. M. Isabel Negreira
Cabos (2016)

Clau arropa denda.

-5-

pullangua zapata/erropa-denda/jostailu-denda. Maria
Zubiagirre Uriarte

Arkitektura estudioa. M^a Jose Mendizabal (2002)

Zapata denda. Victoria Gomez Astasio (2003)

Anaeh arropa denda. Lentzeria eta kortse denda. Ana
Isabel Pombar (2004)

Jon ander arzuaga argazkiak (2015)

Lehio denda

-2-

Mari Jose Jauregi altzo ile-apaindegia

kirriñ Ana Mari Oleagaren fruta denda

Urtaza mertzeria. Kontxita eta Tere Urtaza
(1929tik)

Lucasena Ana Mari eta Tere Letamendiren

ileapaindegia (1960-2003)

Bellotza pentsu denda. Arantxa Lizarralde eta
Miguel Ugarte

Aitor Ugarte

Lizaur kalea

1.go pisuan Soldauko baserriko Begoñak estetika
zentrua (2010 arte)

-5-

Txaloka Udal-ludoteka

-7-

Peñakoba autoeskola

-9-

Aranburu altzari-dendako erakustokia

San Lorentzo**-1-**

Iker Sukaldeak. Sukalde altzari eta tresnen salmenda
(2003tik)

-2-

esk. Sustrai fruta denda. Alberto Vasga (2008)

ezk. Aloña albaitaria

-3-

Anduaga Farmazia. M^a Rosario Anduaga (1990tik)

-4-

Mari Carmenen estetika-zentrua

Distira estetika- zentrua.

-5-

ezk. Antxon harategia.

esk. Arantza mertzeria (80ko hamarkada hasiera).
Arantxa Zubia

-8-

Jolas-tokia. Juliana Bermejo Galvan

-9A-

Patxi zapata denda. Francisco Urmeneta eta Benigna
Urmeneta

-10A-

Arraindegia. Carmen San Juan Aquizu

Artxubi taberna. Pablo Ugarte Villar

-10 B-

Lurrindegia. M^a Asunción Arregui Arregui

-11-

ezk. Berexka kafetegia. Luis M^a Anduaga

Lazcanoiturburu

Labealde okindegia

esk. Hirukar liburu-denda.

-12A-

Fisioterapia zentrua. Amagoia Garcia de Cortazar
(2013tik)

-12B-

Arantxa okindegia

-18-

Nerea fruta-denda

-29-30-

Garoa taberna jatetxea.

-29-

Leire. Kirol eta haur moda. M. Carmen Rodriguez Arga

-38-

Fruta denda

-49-

Aldapa taberna.

Ricardo Rodriguez

Demetrio Molina Duran

-47- 48-

Fruta denda. Demetrio Molina Duran

Harategia. Jose Luis Martija Leturia

Harategi-urdaitegia. Simona Sanchez Sanchez (2003)

Okindegia. Victoria Gomez Astasio (2014)

-54-

Eratu Fisioterapia zentrua. Miren Galdos (2006-gaur egun)

Ugarkalde**-1-**

Helmuga taberna. Raquel Regueiro Leon y Otro (2016)

Olakua**-18-**

Jantzien diseinua eta joskintza. Johana Madinabeitia Tejerina

[hutsik]

-9-

esk. Jaki izoztuen denda. Ana M^a Yarza eta M^a Angeles Moyua (1989)

Fotokopia-denda eta diseinua jarduera. Patricia Rigault

atzean Albaitari zentroa. Miriam Ugarte (2004)

ezk. Fernandez arraindegia

-8-

Olakua taberna. Cooperativa San Andres

BM supermerkatua (1978tik). Zelaiatarrak.

-7-

esk. Denetariko denda. Jianmei Xia (2013) /Dafu He (2016)

ezk. Koma, ingles akademia.

-1B-

Foto depilazio zentrua. Amaia Cuesta (2013-2018)

[hutsik]

-1-

Fisioterapia zentrua. Erica Caballero Calvo (2013)

Lete eletrodomestiko denda

-16-

Lizarralde kirolak. Miguel Angel Lizarralde.

-18-

Iratxo ileapaindegia

AUZOAK**Santxolopetegi****-25-**

Gasolindegia. REPSOL comercial (1994tik)

Berezaio**-x-**

Ogi labetegia.

M^a Isabel Aguirreurreta.

Larraña auzoa**-16-**

ETEO Taberna. Miguel Angel Freire Urteaga

-44-

Baserriko okintza eta artisaua. Arantxa Ugarte Ayastuy eta Mikel Uribetxeberria (2010)

Larraingain auzoa

-35- Torre Zumeltzegi jatetxe eta hotela (2012)

Zubillaga**-2A-**

Bar Zubillaga. Julian Barrena eta Eduarda Villar (1955-1975)

Zotz taberna- jatetxea. M^a Carmen Urizar (1998-gaur egun)

Garibai**-17-**

Bikoitz jatetxea. M. Belen Ormazabal (2001)

-27A-

Labetegi Pizzeria. Mikel Fernandez Linares (2015)

Torreauzo**-10-**

Etxe haundi jatetxea.

Olabarrieta

Olabatako taberna, denda, estanku eta telefonoa.

Zelabarreneko denda

-83A-

Lizar Etxe merenderoa. Damaso Arrazola Arrazola

Araotz**-25-**

Zumalde baserriko taberna eta estankua.

-2-

Araotz merendatokia. Mikel Pereda

Mantxuena taberna eta denda

Koskojuelatarren telefono-zerbitzua

Arantzazu**-11-***Sindika*. Juliana eta Florentxi. Bixenta Madinabeitia zerbitzari.

Enrique Ochoa Orueta

Pili Otxoa Ugarte

-12A-*Goiko Benta*. Jose Guridi eta Francisco Guridi anaiak.

Maria Guridi eta Facundo Maiztegi

Miguel Maiztegi eta Margarita Arregi

Maritxu eta Juanita Maiztegi. Maria Luisa Moyua

Ana eta Miren Maiztegi

-10-*Milikua* Taberna-jatetxea. Angel Milikua Yarza**-8-***Hospedeixia*. Jatetxe, hotela eta telefono zentrala. Frantziskotar Anaidia (2001)

Angela Arbizu eta Anas Odriozola

-38-Zelai-Zabal jatetxea. Alberto eta M^a Pilar Elorza Ayastuy
Jai egunetan postuak: Barkilleroak eta gazta saltzaileak:
gesaltzako maria, irratako serafina, bellotzakua etab.**Uribarri****-16-**

Soraluze Ostatua. Miguel Maiztegui Arregui (1990-2016)

-5-Txopekua. Candido Vicuña Madina
ondoko baserri baten, telefonoa.**-15-**

Tuertokua. Taberna. Miguel Maiztegui

-33-

Urriagain. Julian Corta Lizarralde

Lezesarri**-32-**

Urrintxo taberna jatetxea. Felix eta Natividad Irizar (1990etik)

6. ONDORIOAK

“Komertzio txikiaren etnografia” atalean XX. mendeko Oñatiko komertzio txikiaren nondik norakoak ezagutu ditugu. Bere ezaugarri eta bereizgarriak aztertu ditugu, sektorez sektore. Eta gaur egunera heldu arte merkataritzak, eta horrekin batera emakumeek, izandako bila-kaeraren testigu izan gara.

Gizon eta emakumeen arteko genero-harremanak oinarri hartuta, komertzio txikiak Oñatiko emakumeengan izandako eragina aztergai izan dugu. Bereziki erreparatu diogu denda, taberna eta zerbitzuek (eta bertan sortutako harremanek) haien bizitzetan izan duten garrantziari.

Ibilbide horren bitartez, ikerketaren helburuak bete dira, gaur egungo komertzioa ulertzeko gakoak aletu baitugu. Izan ere, ikerketa hau hasi aurretik proposatutako hipotesietan berresten gara: komertzio txikiaren bitartez, XX. mendeko Oñatin sostengu ekonomikoak, sozioemozionalak eta espazialak ehundu ziren, eta artikulatzaile nagusiak emakumeak izan ziren.

Komertzio txikian emakumeen presentzia handia izan da: enplegatzen dituen gizon eta emakumeen kopuruei erreparatuz gero, beste sektore batzuetan baino askoz handiagoa. Egun begi bistakoa den baieztapen horrekin abiatu genuen ikerketa: emakumeen presentzia altua eta komertzio txikiaren aitortza sozial txikia soka beraren bi mutur zirenenaren susmopean. Hartara, ikerlan honetan gertakari honen arrazoietan arakatu, eta aldi berean, historikoki komertzio txikiari egin zaion aitortza sozial txikia irauli nahi izan dugu, sektore horrek herriari egindako ekarpenak argitara ekartzeko.

Ikerketa eraldaketarako elementu bat izan da, beraz: emakume merkatarien ahalduntzerako osagaiak izan dira elkarriketak, eta lan hau hedatzea, haien lana omentzeko eta errekonozitzeko modua izango da, zailtzarrik gabe.

Emakumeen presentzia horren handia izateak baditu hainbat arrazoi: sektore honek etxeko lanak eta dendako lanak uztartzeko aukera eskaini du. Izan ere, zaintzea emakumezkoen betebeharra izanik, horrekin bateragarria izan zitezkeen enpleguak izan dituzte emakume alargun, ezkondu eta ezkongabeek: besteak beste, merkataritzan.

Sorrera ataletan xehetasunez aztertu dugu garaian garaiko emakumeen egoera sozioekonomikoa zein izan den, eta baita zein izan den dendari izateko motibazioa ere. Familia-negozioak atalean lan-banaketari erreparatu diogu, ordaintzeko moduei eta erreleboaren bilakera historikoari: ikusi dugunez, komertzio txiki gehienak familia-negozioak izan dira. Familia unitate produktibo gisa ulertuta, kide (ia) guztiek hartzen zuten parte negozioan. Negoziorearen espazioa (denda, taberna edo zerbitzua) senide guztiek bere sentitzea zekarren horrek; hots, etxearen luzapen bat zen negozioa.

Era berean, negozio gehienak familia etxearen azpian kokatzen ziren, eta sarri barrutik konektatutako bi espazio izan dira. Gertutasun horrek ahalbidetu die emakume dendariei dendako lana eta etxeko lanak uztartzea: sarri denda ostean zegoen sukaldean gertatzen zuten bazkaria, bertan bazkaltzen zuten eta seme-alabak inguru seguruan izatea erraza zitzaien.

Finean, emakumeei XX. mende osoan zehar ezarri zaien betebeharrak eta roletik gehiegi urrunduta gabe egin zezaketan lana zen. Are gehiago, industria edo neskametzak ez bezala, merkataritzako lana emakume ezkonduentzat lanbide apropostzat zuen jendarteak³¹. Baita, sarri modu informalean edo osagarri gisa egiten zen etxeko etxeko salmenta, konponketa eta zerbitzu txikiak ere.

³¹ Industrian oso berandu arte ezkondu ostean lana uzteko obligazioa izan bada ere, merkataritza-sektorean ez da halakorik gertatu.

Hala ere, emakumeentzat dendan lan egiteak ez zuen esan nahi ekonomikoki independente izatea. Izan ere, familia negozioak izan direnez, dendako ekonomia eta etxekoa bat izan dira: dendako ekonomia kaxoian oinarrituta egon da eta familiako kideek ez zuten beren lanagatik soldatarik jasotzen. Jabeak, maiz gizonetzkoak, kotizatu izan du; beraz, familia- eta negozio-buruak kudeatzen zuen etxeko guztien ekonomia. Salbuespenak dira alargun eta ezkongabeak: haiek gizonaren faltan, etxeko eta negozioko arduradunak ziren. Eta horrek materialki askatasun eta botere handia eman die. Horrek ez du esan nahi, ordea, sozialki botere hori erabili dutenik, ez baita ohikoena izan.

Funtzionamendua atalean azpisektoreka denda, taberna eta zerbitzuen analisi zehatza egin da: produktuen bilakaera, feminizazio- edo maskulinizazio-maila, eta herriko zein tokitan kokatu zen sektore bakoitza.

Emakume arduradun kasu dezente aurkitu ditugu Oñatin, guztiak oso esanguratsuak: senarraren faltan, komertzio txikian aurkitu zuten bizirauteko estrategia eta herrian nor izateko tokia. Antzeko egoera bizi izan zuten Gerra Zibilaren ondorioz gizona ihesi edo kartzelan izan zituzten emakumeek.

Denborarekin, haatik, merkataritza lanari heltzeko arrazoi eta motibazioak nabarmen aldatu ziren. 1960ko hamarkadatik aurrera negozioaren ardura hartu edo negozio bat irekitzera animatutako emakumezkoek ez zeukaten biziraupena motibaziotzat: soldata bakarrarekin nahikoa ez eta gizonaren soldataren osagarri baizik. Bestalde, jada emakumeak haien independentzia ekonomikoa baloratzen hasiko dira, eta ondorioz, dendak beharretik baino independentzia ekonomikoa eskaintako askatasun egarriz irekiko dituzte.

Ildo beretik, merkataritzaren modernizazioak bultzatuta, hainbat aldaketa gertatu ziren sektorean. 1970eko hamarkadan negozioaren ardura erreleboz hartu zuten emakume askok kaxoiaren erabilera haien independentziarako muga zela ikusi zuten, eta dendako ekonomia kudeatzeko modu berriak proposatu zituzten. Horietako askok jada ez zuten negozioarekin segi. Garai hartatik aurrera jada nabarmen gutxituko da errelebo behartuen pisua, familia negozioarekin jarraitzeko presioa. Familia-negozioak izanagatik, etxea eta negozioa bereiziz joan dira, eta senidea eta langilearen arteko muga gero eta argiago marraztu da.

Ekarpen ekonomikoiari dagokionez, uste dugu, herriko sozioekonomiari hainbat ekarpen egin dizkiola komertzio txikiak. Lehenik eta behin, esan behar dugu komertzio txikiak herriko aberastasun monetarioaren

hazkundera egin zezakeen ekarpena baino gehiago interesatzen zaizkigula jarduera ekonomikoa dendari eta bezeroen artean egon diren tratu ekonomikoa. Dendari eta bezeroen artean egondako harremanari erreparatu diogunean agerian geratu da Oñatiko merkatariek herriko familien sostengu ekonomikorako eragile laguntzaile izan direla.

“Hacíamos también de bancos” esaerak adierazten duenez merkatariek banketxe edo mailegatzaila-lanak egiten zituzten. Hala, eskasia eta zailtasun ekonomikoko garaietan, haien bezeroekin zituzten faborezko tratuak herriari egindako ekarpen ekonomikoren erakusle dira.

Faborezko tratu ohikoena, eta komertzio txikiaren identitate sinbolo handienetako bat, *zorretan ematea*³² edo *apuntea* izan da. Momentuan dirurik ez zuenak ere kontsumitu ahal izateko aukera eman izan da eta familia askorentzat aurrera egiteko ezinbestekoa izan da.

Apunteaz gain, trukea edo epeka ordaintzeko praktikak ere oso hedatuta egon dira komertzio txikiaren egunerokotasunean. Trukea bereziki baserritarrek erabiltzen zen, esku dirurik izan ez arren trukeerako hainbat produktu baitzituzten. Epeka ordaintzea, berriz, herri-tarrek produktu garestiagoak erosi ahal izateko bidea izan da.

1960ko hamarkadaz geroztik, industriak eragindako aberastasun ekonomikoren ondorioz, momentuan ordaintzeko ohitura gailentzen joan da, pixkanaka-pixkanaka. Baina aipaturiko faborezko tratu horiek ez dira sekula deuseztatu. 1950 eta 1960ko hamarkadetara arte praktika orokorra zena, egun aurrezirik ez dutenentzako salbuespeneko estrategia ekonomikoa da.

Bestalde, geografikoki Oñati bezalako herri isolatu batean, eta mugikortasunerako egungo erraztasunik gabe, herritik irtetea ez zen ohikoa. Beharrezko produktuak herrian bertan eta etxetik gertu eskuratu ahal izatea ezinbestekoa izan da. Beraz, ezin uka dakiok beharrezko ondasun eta zerbitzuak herritik bertatik irten gabe kontsumitzeko eskaini digun aukera. Herrian ez zeuden produktuak eskuratzeko errekadistak egon dira: gerraostekoak dira iritsi zaizkigun lehen testigantzak eta Bilborako, Gasteizerako eta Donostiarako bana zeuden. Hirietatik herrira produktuak ekartzeaz gain, bertako produktuak edo enkarguak hirira ere eramaten zituzten. Azken boladan maskulinizatu den lanbidea bada ere, emakumeen lanbidea izan zen

³² *zorretan ematea*: beranduago ordaintzeko aukera ematea.

bereziki gerraostean. Finean, isolatuztat daukagun gure herria hiritartzeko zubiak izan dira errekadistak.

Baserritarren ekoizpena herriko merkatuan txertatzeko bitartekoa ere izan da komertzio txikia, landa-eremuko herritarren jarduera ekonomikoa industriaren gailentasunaren aurrean balioetsi baitute. Dendek bitartekari-lanak egiten zituzten, baserritarren produktuak (barazkiak, fruta, gazta, eta abar) dendan salduz, komisio baten truke, edo ezeren truke kasu askotan.

Ekarpen sozioemozionalari erreparatuta, dendarien eta erosleen arteko harremanetan arakatzean testigantzek erakutsi dute honako hau: dendak emakumeen sozializazioa eta elkar babesteko sareak osatzea ahalbidetun dituzten espazioak izan dira. Zentzu horretan herriari, baina bereziki emakumeei, egindako ekarpen sozioemozionala garrantzitsua eta baloratu beharrekoa da.

Emakumeen auto-kontzientzia taldeen³³ agerpena baino lehenagoko formula ziren mostradore bueltako tertuliak: batik bat gizonezkoena zen espazio publikoan, etxetik at, elkarrekin harremantzeko zuten espazio bakarrenetako bat zirelako dendak. Etxekoandre edo emakume enplegudun, guztiak egin izan dituzte errekaduak, are egundaino. Hala, dendarien eta bezeroen artean, zein bezeroen artean sortutako harremanetan aliantzak eta agentzia egon dira, biak ala biak emakumeen autonomiarako gako funtsezko direnak.

Etxeko isolamenduari, lagun-sarearen gabeziari edo bizitzaren eguneroko tramei aurre egiteko sostengu sozioemozionala jaso eta eman da herriko dendetan: zailtasun ekonomikoak (diru falta, lan-eskaintzak, eta abar), sozialak (etxeko gatazkak, seme-alaben hazkuntza, eta abar) zein emozionalak (tristura, bakardadea, eta abar) elkarrekin partekatzeke ez ezik, bizipozaren trukaketa izan da dendetan.

Errekadutara ofizialki produktu-bila joaten zen etxe-koandreak dendan ere sozializazioa, notizia, babesa eta lagun-sarea bilatzen zituen. Kontsumismoa nagusi den azken hamarkadatan, aldiz, produktuak ugaritu dira, kapritxo erosteko ohitura sortu da. Hala, emakume askorentzat komertzio txikian erosketak egitera irtetea bere buruarentzat denbora hartzea da. Bilakaera historikoan ikusi dugunez, emakumeen bizimoduak aldatuz joan dira, eta, beraz, ase beharreko interes eta beharrak ere eraldatu dira. Baina, muinak berbera izaten jarraitzen

du: dendetan emakumeek identitate propioa zein kolektiboa gorpuzten dute, agentzia gorpuzten dute, eta saretzen, elkar zaintzen eta elkar babesten jarraitzen dute. Sarearen korapilo dira, dendak.

Azken boladan, kafetegiek hartu diete dendei erreleboa, emakumeen arteko topagune nagusi bilakatzeraino. Alabaina, biak ala biak, bitarteko espazio izaten jarraitzen dute, espazio publikoan emakumeek bilatzen dituzten arrakala, zulo, babesleku. `Gehiegizko urbanitateak´ disimulatzeko eszenatokiak dira edo emakumeengan horrek sortzen duen zigor soziala osatzeko toki. Hala, ondoriozta daiteke, hein handi batean, horiei esker okupatzen dutela emakumeek gero eta gehiago plaza, kalea, erdigunea. Eta bigarren mailako kaletar izaten jarraitzen dute, baina etxetik ateratzeko zeharkatzen duten kale nagusietan, emakumeak dira nagusi eta kalearen jabe.

Hirugarren ekarpena izan da espaziala: komertzio txikia izan da Oñatiko erdigune historikoari eta auzoei identitatea eta "bizitza" eman diena. Izan ere, Oñatiko erdigune historikoak herri-kohesioan duen zentralitateari eutsi badio, hein handi batean bertan kokatuta dauden dendei eta komertzioei esker da, eta haiei bizitza ematen dietenei esker.

Dendak herriari egindako ekarpenaz galdetzerakoan elkarrizketatu guztiak bat datoz: herriari bizitasuna ematen diete dendek. Herri eta auzo bat bizigarri izan dadin elementu garrantzitsua da, beraz, merkataritza: argitasuna, jendearen joan-etorria eta segurtasuna ematen dio kaleari. Kaleen zaintza, eta kale horien erabilera publikoa eta irekia bermatzeko zentrala dela argudiatzen du Jane Jacobs-ek(1961): "el requisito básico para que esa vigilancia exista es una cantidad sustantiva de tiendas y otros espacios públicos a lo largo de las veredas de un distrito" (in Salcedo, 2002: 12).

Denda, taberna eta zerbitzudun kaleak ez dira espazio publiko soilak, ezpada espazio kolektibo eta inklusiboak. Eta horrek onura egiten dio herritarren arteko kohesioari eta elkar zaintzeari. Gizon heldu eta zuriei ez ezik, besteei ere toki bat egiten die jendartean eta inklusiorako beharra beti izan da historian.

6.1. Azken lerroak

Komertzio txikiak herriari egindako ekarpena argitara ekarri dugun honetan, aurrera begira jarri eta sektorearen etorkizunaz gogoeta egin dute merkatariek.

³³ Mugimendu feminista europarraren hirugarren olatuan, emakumeak antolatzen hasi ziren: talde autogestionatu txikietan. Egunerokotasuneko esperientziak partekatzeke elkartzen ziren eta gune horiek giltza izan ziren emakume horien jabekuntza-prozesuan.

“Komertzio txikiaren etnografia” atalean sakonean landu dugu Oñatiko komertzio txikiak egun bizi duen gain-behera. Horretarako bi arrazoi nagusi identifikatu dira: batetik, bezero falta, eta bestetik, merkatari falta.

Bezero faltaren atzean komertzio handiaren lehiakortasuna dago. Baina, baita gizarteko aldaketen ondorioz bezeroen erosteko moduetan egon diren aldaketak ere. Denboraren balioa aldatu da eta erosketak egiteko orduan erosotasuna eta azkartasuna bilatzen dituzte erosle gazteek eta helduek. Horrek saltoki handietan edo internet bidez kontsumitzera daramatza erosle gazte eta helduak.

Bestalde, merkatari falta dago. Gaur egungo herriko merkatarien erradiografia eginez konturatu gara emakume helduak nagusitzen direla: erretiroa hartuko dutenak epe motz edo ertainera. Azken hamarkadatan gazteek ez dute nahi izan haien gurasoen negozioekin jarraitu, eta gurasoek ez dituzte seme-alabak horretara bultzatu. Merkatariak ez baitute uste Oñatin ondo bizitzeko sektore erakargarriena denik, batik bat autonomoen lan-baldintzak eta komertzioaren ordutegia direla eta.

Hori horrela, gazteek ez dute merkataritzan irauten (adibidez, ostalaritzan) eta gutxik ekiten diote negozio berri bati. Denbora eta baliabide ekonomikoak behar dira horretarako, eta lantegietan lana izanda ez dute uste merezi duenik. Salbuespena dira edertasun eta osasun alorreko zerbitzuak, fisioterapia eta ile-apaindegiak, kasu.

Amaitzeko, azpimarratu nahiko genuke herriko denda, taberna eta zerbitzuak emakumeentzako erresistentzia gune izan direla. Oharkabea bada ere, hainbat erresistentzia-ekintza garatu dituzte: bertan sortu eta saretu dituzten laguntasunak; trukatu dituzten notiziak, pozak zein ardurak; batak besteari eskainitako laguntasunak; eta abar. Azken batean, ezarritako ardura eta rolen birtatez, elkar babestuz eta elkar zainduz bizitza pixka bat bizigarriagoa egin diote elkarri. Finean, esan daiteke, Boterea haien botereaz borrokatzeko espazioak izan direla dendak.

Oñatiko denda, taberna eta zerbitzuek herritarren memoria kolektiboan arrastoak askotarikoak dira eta herritarrek oroitzapen kuttuntzat gordetzen dituzte: haurrak tabernara enkargu bat egitera bidaltzen zituztenean, zerbitzari askok oliba goxo bat oparitzen zieten; Egaña janari-dendan kafea txigortzen zenean Bakardako Ama inguruan izaten zen usaina; ate eta leiho irekietatik etxeetara sartzen zen ogi-saltzailearen tronpetahotsa edo *bermeaniaren* eskaintza-oihuak: “*sardinia*

merke!”; etxeko atarietako esne-marmita beteak; arrabaletan lotzen ziren astoen arrantzak; lbabe banatzai-learen gurdi handiaren gainean hurrek egiten zituzten bidaiak; bizikleta alokatuta neska-mutikoek Usako edo Ugarkaldeko putzuetara egiten zituzten txangoak; lehen jogur naturalaren zapore mikatza; San Migel edo Korputz egun bezperetan joskin eta ile-apaintzaileen lan-jardun amaigabeak; San Juan kaleko haragi fresko usaina edo aroztegiko egur moztu berriarena; txokolateixetako atzeko atean izaten zen haur pila, noiz ontza bat oparituko zain. Eskapareteek ezkututzen zituzten mostradore inguruko tertuliak, dendetako irrati-soinua edo pertsianak igo eta ixterakoan egiten zuen erdoil-zarata eta abar luze bat.

Oroitzapen horien guztien testigu izan dira gure kaleak, eta eszenatoki nagusi izan dira dendak. Memoria horiek guztiek bada, gure herriko memoria historikoaren atal berri bat idazteko bidea har dezaten, hemen gure alea.

7. BIBLIOGRAFIA

- Aguilar, Miguel Angel. 2012. "Antropología urbana y lugar. Recorridos conceptuales". In Giglia, Angela eta Signorelli, Amalia. (koord), *Nuevas topografías de la cultura*, Mexiko, Universidad Autónoma Metropolitana (Juan Pablo Editor). 113-144.
- Aiape Arbe, Andrea. 2009. *Gernikar emakumeak XX. mendean. Ahotsak eta Bizipenak* (Gernika-Lumoko Historia Bilduma VI.), Gernikako Udala, Bakearen Museoa Fundazioa, Bizkaiko Foru Aldundia eta Emakumeentzako Udal Zerbitzua.
- Allan, Graham. 1989. *Friendship: Developing a sociological perspective*, New York, Harvester Wheatsheaf.
- Altuna, Roberto, Elorza, Kepa eta Zumalde, Koldo. 2014. "Hiztegixa". In Altuna, Roberto; Elorza, Kepa eta Zumalde, Koldo. 2014. *Oñatiko euskera. Ezagutu, aztartu, egin*. Oñati, Oñatiko Udala. 179-279.
- Amitai, Etzioni. 2007. *La dimensión moral: hacia una nueva economía*, Madrid, Palabra, Serie Pensamiento 33.
- Apezetxea, Maialen eta Ozaita, Mikel. 2014. *Ilunpetik argitara. Hernaniko emakumelangileak iruditan 1939-1975*, Hernani, Hernaniko Udala, Berdintasun Saila. Eskuragarri hemen: <http://www.hernani.eus/documents/497182/1142197/ilunpetik+argitara.pdf/9732e932-8353-4303-8ee5-28277e3562e1>. Kontsulta data: 2018/11/14.
- Ardener, Shirley. 1993. *Women and Space. Ground Rules and Social Maps*. Erresuma Batua, Oxford, Berg.
- Azpiazu Elorza, Jose Antonio. 1996. *Mujeres vascas: sumisión y poder*, Donostia, R&B ediciones Haramburu.
- BBVA fundazioa. 2007. "Poblaciones de Guipuzkoa". In *La localización de la población española sobre el territorio*, Madrid, Cuadernos de BBVA. Eskuragarri hemen: http://www.fbbva.es/TLFU/dat/cd_3_poblacion_guipuzcoa_web_abierto.pdf. Kontsulta data: 2018/03/18
- Bourdieu, Pierre. 1988. "Espacio social y poder simbólico". In *Revista de Occidente*, (81), 1988, 97-119.
- _____. 1997. "Espacio social y espacio simbólico. Introducción a una lectura japonesa de la distinción". In *Capital y cultura, escuela y espacio social*, México, Siglo XXI. 23-40.
- Bussy Genevois, Danièle. 1993. "Mujeres de España de la república al franquismo". In Duby, Georges, Perrot and Michelle. 1991. *Historia de las mujeres en Occidente*. Madrid, Taurus.
- Caro Baroja, Julio. 1975. "Formas de población propias del País Vasco". In Caro Baroja, Julio, *Los Vascos*, Madrid, Edit. Istmo.
- Castells, Manuel. 1983. *The city and the Grassroots: A Cross-Cultural Theory of Urban Social Movements*, Berkeley, Universidad California Press.
- Caldeira, Teresa. 2000. *City of Walls: Crime, Segregation, and Citizenship*, São Paulo, University of California Press.
- Cresswell, Tim. 2004. *Place. A short introduction*, Massachusetts, Blackwell.
- Cucó, Josepa. 1995. *La amistad. Perspectiva antropológica*, Barcelona, Icaria Institut Català d' Antropologia.
- Coutras, J. 1996. *Crise urbaine et espèces sexuées*, Paris, Armand Colin.

- Col.lectiu Punt6. 2017. *Entornos Habitables. Auditoria de seguridad urbana con perspectiva de género en la vivienda y el entorno*. Eskuragarri hemen: http://www.punt6.org/wp-content/uploads/2016/08/Entornos_habitables_CAST_FINAL.pdf. Kontsulta data: 2018/10/10
- De Certeau, Michel. 1984. *La invención de lo cotidiano 1. Las artes del hacer*, Mexiko, Universidad Iberoamericana.
- Del Valle, Teresa. 1985-. *Mujer vasca imagen y realidad*. Bartzelona, Anthropos.
- _____ (koord.). 2001. *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*, Madril, Narcea.
- _____. 2004. "Identidad y cambio urbano en Tolosa (Guipuzkoa). Una reflexión desde la antropología social". In *KOBIE, Serie Antropología Cultural*. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia (XI), 5-30. Eskuragarri hemen: [http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/04/ondarea/Kobie/PDF/5/Kobie_11_AC_IDENTIDAD%20Y%20CAMBIO%20URBANO%20EN%20TOLOSA%20%7BGIPUZKOA\)_UNA.pdf?redirido=1](http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/04/ondarea/Kobie/PDF/5/Kobie_11_AC_IDENTIDAD%20Y%20CAMBIO%20URBANO%20EN%20TOLOSA%20%7BGIPUZKOA)_UNA.pdf?redirido=1). Kontsulta data: 2018/03/15
- Delgado, Manuel. 2007. "La mujer de la calle". In Delgado, Manuel. *Sociedades movilizadas. Pasos hacia una antropología de la calle*, Bartzelona, Anagrama, 225-261.
- _____. 2013. "El espacio público como representación, Espacio urbano y espacio social en Enri LeFebvre", Oporto. Eskuragarri hemen: http://www.oasrn.org/pdf_upload/el_espacio_publico.pdf. Kontsulta-data: 2017/07/9.
- Denby, Edwin. 1965. "In ancient Italian town the narrow main street". In Denby, Edwin, *Dancers, Buildings and People in the Streets*, New York, Horizon Press.
- Dominguez, Pilar eta García-Nieto, Mari Carmen. 2009. "Franquismo: represión y letargo de la conciencia feminista, 1939-1977". In Anderson, Bonnie S. eta Zinsser, J.P. *Historia de las mujeres. Una historia propia*, Bartzelona, Crítica, 11-85.
- Elias, Nerea eta Gorostizu, Ainara. 2008. *Eta gerra etorri zen. 36ko gerraren eragina Ataungo eguneroko bizimoduan*. Gerriko. Lazkao. Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia, Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- Escobar, Arturo. 2001. "Culture sits in Places: Reflections on Globalism and Subaltern Strategies of Localization". In *Political Geography* (20), 139-174.
- Esteban, Mari Luz. 2008. "Etnografía, itinerarios corporales y cambio social: apuntes teóricos y metodológicos". In Imaz, E. (arg.), *La materialidad de la identidad*, Donostia, Editorial Hariadna. 135-158.
- _____. 2011. *Crítica del pensamiento amoroso*, Ediciones Bellaterra, Bartzelona.
- _____. 2016. "Maitasun-harremanak eta elkar babesteko sareak edo komunitateak: emakume feministen esperientziak". In Hernandez, Jone Miren eta Esteban, Mari Luz (koord.) (2016): *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropología*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea. 260-275.
- Etxeberria, Idoia eta Elexpuru, Jose Martin. 2014. *Lan eta lan emakumea Bergaran, XX. mendearen lehen erdiko bizimodua*, Bergara, Bergarako Udala.
- Fainstein, Susan S. 1994. *The City Builders: Property, Politics and Planning in London and New York*, Britainia Handia, Blackwell e International Journal of Urban and Regional Research.
- Feld, Steven eta Keith Basso (arg.). 1996. *Senses of Place*, Santa Fe, Nuevo Mexico, School of American Research Press.
- Ferrándiz, Francisco. 2011. *Etnografías contemporáneas: Anclajes, métodos y claves para el futuro*, Bartzelona, Anthropos editorial.
- Foucault, M. 1977. *Discipline and Punish: The birth of the prison*, New York, Vintage Books.
- _____. 1980. *Power Knowledge: Selected interviews and Writings 1972-1977*, New York, Pantheon Books.
- Fraser, Nancy. 1990. "Qué tiene de crítica la teoría crítica? Habermas y la cuestión del género". In Benhabib, S. eta Cornella, D (arg.), *Teoría feminista y teoría crítica*, Valentzia, Edicions Alfons el Magnànim. 48-88.
- Friedan, Betty. 1965. *La Mística de la feminidad*, Bartzelona, Sagitario.
- Gago Gonzalez, Jose Maria. 2004. *El pequeño comercio en el periodo autárquico (1939-1959): el caso castellano*. Doktorego tesia. Madril, Universidad Autónoma de Madrid.
- García, Maria Dolors; Ortiz, Anna eta Prats, Maria (arg.). 2014. "Introducción". In *Espacios públicos, género y diversidad. Geografías para unas ciudades inclusivas*. Bartzelona, Icaria. 21-51.

- García Ferrer, Raúl. 2014. *URBANITAS Y URBANISMOS. Recorridos etnográficos para entender la interrelación entre entornos contruidos y usuarios en el espacio público de Barcelona*. Doktorego tesia. Bartzelona, Universidad de Barcelona.
- Giglia, Angela. 2012. *El habitar y la cultura. Perspectivas teóricas y de investigación*. Bartzelona, Anthropos. Mexiko, División de Ciencias Sociales y Humanidades, Universidad Autónoma Metropolitana de Iztapalapa.
- Gilmore, David. 1975. "Friendship in Fuenmayor: Patterns of integration in a atomist society". In *Ethnology*, XIV (4), 311-124.
- Godelier, Maurice. 1983. *Antropología y Economía*, Bartzelona, Anagrama.
- Gogoratu Guran Taldea. 2011. *Gerrako garrak Oñatin*, Oñati, Oñatiko Udala.
- Goitisoló Zumaran, Leire eta Nicholson Gorostiaga, Amaia. 2011. *Atzoko hitzak josten: emakumeen ahotsakaz historia kontetan*, Elorrio, Elorrioko Udala.
- Hannerz, Ulf. 1986. *Exploración de la ciudad. Hacia una antropología urbana*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.
- _____ 1998. *Conexiones transnacionales. Cultura, gente, lugares*, Madril, Cátedra.
- Harvey, David. 2012. "The urban roots of capitalism crises". In *Rebel cities*. Verso, 2012.
- Herrero, Yayo. 2013. "Miradas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible". In *Revista de Economía Crítica*, (16). 278-307.
- Hernández, Jone Miren; Esteban, Mari Luz eta Bullen, Margaret. 2016. "Feminismoa, euskal antropologiaren akuilu eta elikagai: 30 urteko ibilbide oparoa". In Hernandez, Jone Miren eta Esteban, Mari Luz (koord.) (2016): *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira da goen antropologia*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea. 260-275.
- Hernández Franco, Aitor. 2008. *La prensa en Irún antes y durante la belle époque. Mujer, laicismo y modernidad (1885-1925)*, Irun, Irungo Udala.
- Igartua, Eneko. 2014. *Oñatiko musika eskolaren arkitektura proiektua*, Arkitektura Gradu Amaierako Proiektua. Argitaratu gabea.
- Intxaurreaga, Karmentxu. 2017. *Atzo eta Gaur. Una mirada al ayer y al hoy del comercio-servicios en nuestros concejos alaveses*, Gasteiz, ACOA-AKE.
- Imbert, Gerard eta Simó, Beatriz. 1990. *Los discursos del cambio. Imágenes e imaginarios sociales en la Transición (1976-1982)*, Madril, Akal.
- Jacobs, Jane. 2011 [1961]. *Muerte y vida en las grandes ciudades*, Madril, Capital Swing.
- Juaristi, Patxi. 2003. *Gizarte ikerketarako teknikak*, Bilbo, UPV/EHU.
- Jubeto, Yolanda. 2003. "Euskal Herriko emakumeak eta lana. Azken mendean izandako bilakaera eta gaur egungo egoera". In *Emakumea Euskal Herriko Historian*; Urtxin-txa Eskola, GITE-IPES.
- _____ 2011. "Auzolana eta hirigintzaren inguruko begirada ekonomikoa". In *Auzolana eta hirigintzaren inguruko begirada ekonomikoa*, Eibar UEU, 2011. 1-10.
- Juliano, Dolores. 1998. *Las que saben. Subculturas de mujeres*, Madril, Horas y Horas.
- _____ 1992. *El juego de las astucias*, Madril, Horas y Horas.
- _____ 2008. "Prólogo". In Zabala, Begoña. *Mujeres en movimiento. Movimiento de mujeres*. Tafalla, Txapalarita.
- Lacarrieu, Mónica. 2007. "Una antropología de las ciudades y la ciudad de los antropólogos". In *Nueva Antropología*, 2007/ XX, 67. zbka, Mexiko, UNAM, 13-39.
- Lasa Astola, Arantza. 2011. *Historia de las Mujeres de Eibar*. Eibar, Eibarko Udala.
- Lefebvre, Henri. 1974. *La production de l'espace*, Paris, Éditions Anthropos.
- Llona, Miren. 2002. *Entre señorita y garçon. Historia oral de las mujeres bilbaínas de la clase media. 1919-1939*, Universidad de Málaga.
- Lomnitz, Larisa. 1988. "Informal exchange networks in formal systems: A theoretical model". In *American Ethnologist*, 90 (1), 42-55.
- Low, Setha eta Lawrence, Denise. 1990. "The build environment and spatial form". In *Annual Review of Anthropology*, (19), 453-505.

- Loza Serrano, Silvia; Ruiz, María; eta Tranche, Mertxe. 2011. *Historia de las mujeres en Irún 1931- 1992*. Irun, Irungo Udala. Eskuragarri hemen: <https://studylib.es/doc/8376176/historia-de-las-mujeres-en-irun-1931-1992>. Kontsulta dat: 2018/11/14
- Malinowski, Bronislav. 1986. *Argonautas del Pacífico Occidental*, Bartzelona, Planeta-Agostini, 1986.
- Massey, Doreen. 1993. "Power Geometry and a Progressive Sense of Place". In J. Bird et al. (arg.), *Mapping the Futures. Local Cultures, Global Change*, Londres, Routledge. 65-69
- Montón Subías, Sandra. 2000. *Las mujeres y su espacio: una historia de los espacios sin espacio en la Historia*, Universitat Autònoma de Barcelona Arqueología espacial, 22 Revista del S.A.E.T. Temell. 45-59.
- Nash, Mary. 2012. *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*. Madrid, Alianza Editorial.
- James S. Amelang eta Mary Nash. 1990. *Historia y género: Las mujeres en la Europa Moderna y contemporánea*. Valencia, Institució Alfons el Magnànim.
- Nora, Pierre. 2004. "Entre Mémoire et Histoire. La problématique des lieux". In Nora, Pierre (zuz.). *Les lieux de mémoire I*, Paris, Gallimard. 23-43.
- Paine, Robert. 1969. "In search of friendship: An exploratory analysis in middle-class culture". In *Man*, (n.s) 4, 505-524.
- Perez de Orozco, Amaia eta Río, Sira. 2002. "La economía desde el feminismo: trabajos y ciudadanos". In *Rescaldos, Revista de diálogo social* (7), 1-3. Eskuragarri hemen: <https://www.ecologistasenaccion.org/?p=13104>. Kontsulta data: 2018/10/14
- Ramirez de Okariz, Iñigo. 1994. *Oñati gure herria*, Oñati, Oñatiko Udala.
- Robben, A. C. G. M. 1989. "Habits of the home". In *American Anthropology* 91 (3), 570-88.
- Roca i Girona, Jordi. 2005. "Los (no) lugares de las mujeres durante el franquismo: el trabajo femenino en el ámbito público y privado". In *Uztariz* (21). 81-99.
- Rodman, Margaret C. 2003. "Empowering Place: Multilocality and Multivocality". In Low, Setha eta Lawrence-Zuñiga, Denise. *The Anthropology of Place and Space. Locating Culture*, Massachusetts, Blackwell.
- Romo Parra, Carmen. 2005. "El desorden de la identidad persistente. Cambio social y estatus de la mujer en la España desarrollista". In *Mujeres en el franquismo*. El Arenal (12). 91-109.
- Salcedo, Rodrigo. 2002. *El espacio público en el debate actual: Una reflexión crítica sobre el urbanismo post-moderno*. Eure XXVII. liburukia, (84). Txile, Pontificia Universidad Católica de Chile.
- Shalins, Marshall. 1976. *Culture and Practical Reason*, Chicago, The University of Chicago Press.
- Silver, Allan. 1989. "Friendship and trust as moral ideals: An historical approach". In *Archives Européennes de Sociologie*, (30), 274-297.
- Solnit, Rebecca. 2015. "El paseante solitario y la ciudad". In Solnit, Rebecca. 2015. *Wanderlust. Una historia del caminar*, Madril, Capitán Swing. 255-289.
- Stolcke, Verena. 2003. "La mujer es puro cuento: la cultura del género". In *Quaderns del Institut Català d'Antropologia*, (19). 69-95, Bartzelona. Eskuragarri hemen: <https://core.ac.uk/download/pdf/39087359.pdf>. Kontsulta data: 2018/10/14
- Stürtze, Alizia; Colera, Maria eta Korta, Mertxe. 2002. *Emakumeak XX. mendeko historian. Pertsonaiak, gaiak, gertaerak*, Donostia, Gaiak argitaldaria.
- Tuan, Yi Fu. 1977. *Space and Place; The Perspective of Experience*, Minneapolis, University of Minnesota.
- Uhl, Sara. 1991. "Forbidden friends: Cultural veils of female communities, domestic friendship". In *American Ethnologist*, 18 (1), 74-114.
- Wellman, Barry. 1992. "Men in networks. Private communities, domestic friendships". In John Joseph Honigmann eta Alexander Alland. *Handbook of social and cultural anthropology*, Chicago, Rand MacNally, 717-814.

ITURRI DOKUMENTALAK:

- Ahotsak.eus webgunea: <https://ahotsak.eus/>
Kontzejupetik aldizkariak. Oñati, Oñatiko Udala.
Matrikula Industrialen Erregistroa (1980-2000). Oñatiko udal artxiboa.
SIADECO. 1975 eta 1982. "Perspectivas derivadas" azterketa sozioekonomikoa eta berrikuspena.
Obra baimenak (1960-2010). Hirigintza Saila, Oñatiko Udala

ESKER ONAK:

Etxeko merkatariei eta etxekotzat hartu gaituzuen merkatarri guztiei, eskerrik asko, zuen ahotsa jasotzen uztearren. Ikerketa beka hau egi bihurtzeko lan egin duzuen guztiei. Mari Luz Esteban, Miren Urkixo eta Jone Miren Hernandezi, bidea egiten laguntzearren. Eta irakurleari, historiaren transmisore izateagatik.

